

BILBOKO EUSKEREA

IÑAKI GAMINDE

GIZAKIA

abadie: abadea

abadetzie (bu): abadetxea, abadearen etxea

abandonau (l): utzi

abantau, abanteu (b) aguantau: 1. eutsi. 2. iraun

abarketie: abarketa

abarkie: abarka, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

abarka untzie (bu): abarka iltzea

abarra: abarra, abarrak erramak baino txikiagoak izaten dira

abasusie: abazuza, txingorra

abellanie (bu): kakahuetea

abenie: oloa

aberatza: aberatsa

aberastu (l): aberastu

abidxau (bu): abiatu

abidxie: habia

abidxeek eske: habiak eske, habien bila; txori-habiak hartzeko jokia

abimaridxeek, aimaridxeek: zortzirak aldeko kanpaiak

abiseu: abisatu

abispie (bu): urubioa

abixerixe: habiazaria

abonue: abonoa, ongarria

abotza: ahotsa, boza

abuela, aguela: amama

abuelo, aguelo: aitita

aburridu (b, bu): abrozidu, gogaitu

abustue: abuztua

adarra: 1. adarra. 2. (b) zorroztarria eroateko erabiltzen da.

adarka (bu)

ademas: gainera

adrasue (bu): ipinkia, adabua

afarixe, afaridxe: afaria

afaldu: afaldu

afisiñedue: zalea

afrontue: afrontua

afusillau: afusilatu

agarreu (l): oratu

agartu (bu), agertu: agertu

agie: habea

agilando (l): aginaldo

agindu, aginyu (bu): 1. agindu

agiñe: hagina eta hortza; pertsonarenak haginak dira; hortzak, berriz, erremintenak baino ez dira

agin txikerra: ganaduaren lehen haginak

aginkadie: haginkada, horzkada

agiñek bardinyu: haginak berdindu, ganadua heltzarora heldu

agiñetako ikerie: hagineta ura, haginak kauskitu, hagineta ikara

ainke in (l): haginka egin

alboagiñe: albo-hagina, matrail-hagina

agiñik: aginean, aginik, zorian

agirre (b): geriza mota bat

agoa: 1. ahoa. 2. erreminten ahoa

agosgora: ahoz gora

agur: agur

agurie: agurea

aida: aida; aurrera joateko esaten zaio ganaduari

aidxe, aixie: aihea, erdaraz berba egikeran "aise" esaten zaio Deustun eta Abusun behinik behin

aimeste (l), ainbeste (bu), anbeste (b): hainbeste

ainbaten (bu): beharbada, urrean

ainbet: hainbat

aingerue: aingerua

aiñ: hain

aistie: ahizta

aisteordie: ahiztaorde

aistu: ahaztu

aisturik

aite (l) aitte (b, bu) aitxe: aita;

aittamak, aittetaama, aitxetama: gurasoak

aitte gurie: aita gurea

aittearena: aitearena

aittebakoa: aitabakoa

aitxaordie: aitaordea

aiteeterno: lope, aita santu, buzkantzarik lodiena

aitegiñarraba, aitxegiñarraba, aitxegiñarreba, aittegiñarra, aittegiñarraba: aitaginarreba

aittebitxi, aitxebitxi: aitabitxi

aittesantue (b): txerriaren urdaila, era berean egiten den buzkatzarik handienari ere esaten zaio

aittixie: aitaginarreba

aittu, aitu (b, l): aditu, begiratu

aittue, aitxue: aitita

aixie (bu) axie: haizea

aixatu: haizatu

akabau (b, bu), akabeu (b, l): amaitu

akarra(b), akerra (l): akerra

akarroa: galautsa

akatxori (b): akatxoria

akordau, akordeu (l): gogoratu

akorduen euki: gogotan eduki

akostunbrau: ohitu

akullue (b, bu): akuilua

akuilu gana: akuilu gana

akullu puntie (bu): akuilu gana

alabie: alaba

alanbrie (bu): burdin-haria

alan-olan: halan-holan

alargune: alarguna

alargundu (bu): alargundu

albandorrotza (b): albandorratza

albañela, albañila: igeltseroa

albitze: albitza, ereiten den belar mota bat

alboa: alboa, gorputzaren alboei buruz esaten da

alboan: alboan

albokoa: beste aldekoa, bizitza biko baserrietan edo pisuetan auzokoa da

aldamena (b, bu): aldamena

aldatza: aldatsa, aldapa

aldas gora (l): aldats gora, aldapa gora

alde in (l): alde egin

aldie: aldea

aldeako etzie: baserria, nekazal etxea

aldianue (bu): baserritarra

aldien: 1. (-ren) aldean. 2. aldean

aldixe (l): aldia, garaia

alegiñe

alegiñe in (b): ahalegina egin

alegre (bu): alai

aleidxo: aleroa, teilatuaren hegala

alfafie, afafie: alfalfa, ereiten den belar mota bat

alfafa asixe (l): alfalfa hazia

alguasillek: alguasila

al ixen: ahal izan

alkartu: elkartu

alkatie: alkatea

alkatxofie (bu): alkatxofa

allegau (b), allegeu (l): ailegatu, heldu

allurbie: ailorba, soroan ereiten den belar mota bat

alluburune: ailorba irina, soro-landare horrekin egiten den irina

allurbe gustue: ailorba gustua, ganaduak ailorba jaten badu esnari lotzen zaion gustua

allurbe usiñe: ailorba usaina, belar horrek ematen duen usainari esaten zaio.

almudie: burukoa

almude asala: buruko azala

alperra (b): 1. alperra. 2. alper-harria

alpertu (b): alpertu

alrebes: aldrebes, atzekoz aurrera

altue: altua

alturie: altura, altakurra

altza: haltza

altzau, altzeu (l): altxatu

altzoa: altzoa

ama: ama

amabakoa: amabakoa

amaordie: amaordea

ama birjiñie: amabirjina

amabitxi: amabitxi

amabosta: hamabostaldia, hamabosta

amagiñarra, amagiñarraba (l, bu.): amaginarreba

amaittu: amaitu

amaketakoa: hamaiketakoa, hamaikak aldera egiten den jan kopua

amama: amama

amandre, amandrie: amama

amantala: amantala

amarrau, amarreu (l, bu): lotu

amarretakoa: hamarretakoa, hamarrek aldera egiten den jan kopua

amasie: amasa, orea

amatau, amateu (b): amatatu, itzali

amaxie: amaginarreba

ameneko: ameneko, aurki

ameseta: ameseta, ametsa

amestan: ametsetan

amillotxie (b, bu), amilotxie: amilotxea

amilyu: amildu, troka batetik jausi ganaduak

amorratu (b), amorrutu (l), amurrutu (bu), amorrotu (b): amorratu

amostu (b): amoztu

amukoa, amukue (b): amukoa, mamukioa

anaidxie, anaixie, anajie: anaia

andabidie: andabidea, gorpua ortusantura eroateko egiten zen bidea

andaparie: andapara

andaridxe: anderoa, ande erola; gorpua ortu-santura eroaten dutenak

andidxe, andixe: handia

andie: anda, zerraldoa eroateko era

andandaka: andandaka

andittu, anditu: handitu

andramaridxe: sagar mota bat

andramari egune: andramari eguna

andramari martikoa: andramari martikoa; andra mari martiko egunean basarraten (gaur santutxun plaza dagoen inguruan) azoka egiten zen

andrie: andrea, emaztea; andrazkoei buruz orokorrean “enbra” erabiltzen da

andragixonak: andra-gizonak, senar-emazteak

andrien axie: andreen haizea, hego haizeari buruz esaten da

angulie: angula, txitxardina

anillue: eraztuna

anita madaridxe: madari mota bat

ankie: 1. hanka, oina. 2. hanka, zangoa

anka eiñ (bu): hanka egin

ankadun (l)

ankapie: hankapea

ankaspidxe: oinazpia, oinaren azpiko aldea

anpollie: urbatua, errez gero sortzen diren puslak

anpullarie: gerezi mota bat

antiojuek: betaurrekoak

antojue: antoju, higuin

antoju emon (l): antojua eman, higuina eman

antxiñe (l), atxiñe: aintzina

antza: antza

antzekoa: antzerakoa

antzen (l): antzean

antzera (b): antzera

antzien(b): antzean

antzarra (b, bu): antzarra

apartau (bu): baztertu, alboratu

aparte: aparte

apatxa: apatxa

apatxartekoa: apatxartekoa, ganaduaren gaixoa

apatxe: apatxe, jesartzeko esaten da

apatxen iñ, apatxe in: apatxe egin, jesarri

apatza: apatza

apenas: 1. kasik. 2. ez dirudi

aplastau (bu) aplasteu (l): zapartu

apoa: apoa, txerri arra

aprille: apirila

aprobetxau (bu): aprobetxatu, baliatu

apropostu (bu): apropostu

apur bet: apur bat

apur bet gitxi gora beran: apur bat gutxi gora behera

apurke-apurke

aputxu bet (b): apurtxo bat

apurtu: apurtu

ara: hara

arandelie: arandela, txirrinketan eroaten ei zituen

arañie: aramua

arañatellie (b): gauna, aramu sarea

aratxa, aretxa: 1. haritza. 2. zuhaitza

araspie

arbidxe (bu): harbia

arbolie(b): arbola

arboladurie: arboladia

arbolapie

ardaba, ardaua, ardoa: ardoa

ardo baltza: ardo beltza

ardo suridxe: ardo zuria

ardatza: ardatza

ardidxe, ardixe: 1. ardia. 2. ardia, arkakusoa

ardi txakurre (bu): ardi txakurra

ardillie: katagorria

ardurie

ardure emon: ardura eman

ardure euki (b): ardura eduki

ardure ixen: ardura izan

arduretu: arduratu

areatu (b): areatu

arenbaten (b): nonbait, non edo non

areñeun: harenegun

areñeun: herenegun

arepiltoa: hare-piloa

argala: argala

argaldu: argaldu

argidxe, argixe: 1. (iz.) argia. 2. (adj.) argia

argi-argi egon: argi-argi egon

argittasune, argitxasune: argitasuna

argittukerie(b): argitukera, egunsentia

argitu (l): agertu

argitxasune

argiseridxe (bu) argixeridxe: argizaria

aridxe (bu): aharia, arittoa

arie: 1. area. 2. harea

arien (bu): arean

arimie: arima

ariñe: arina

arin, ariñ: arin

aritoa: arittoa, aharia

arkasidxe: arkazia

arkie: arka, kaxa

arkoiridxe, arkoirixe(b): ustarkua, ostadarra, Begoñan umeei esaten zaie ustarkua denean barre egin eziteko ez zaiozkiolako haginak erakutsi behar

arkondarie: alkondara

arkoye: arkoia

arkue (bu): arkua

arkupie: arkupea

arloa: arloa, alorra

armaridxo: armarioa

armosue: armozua, gosaria

armosau (bu): gosaldu

arnasie: arnasa

arnasestue: arnasestua, arnasa albaina

arotza: arotza

arotzeridxe: arotzeria

arpegidxe, arpeidxe, arpeixe: aurpegia

arpela (bu): 1. alperra. 2 (b) alper-harria, lurra lantzeko tresna

arpeldu: alpertu

arra: 1. arra. 2. harra

arrabidxea, arrabixe: amorrua

arrakadie: arrakada, belarritakoa

arrakala: arrakala, astila, hormetan egiten direnak

arrakalatu (bu): arrakalatu

arrantza: arrantza

arrañe: arraina

arrapau, arrapeu (l): harrapatu

arraskau: azka egin, hatz egin

arraspau: hatz egin

arrastaka (bu)

arrasteidxe (bu), arrasteixe (l), arrastidxe (bu): arrastegia, arratsaldea

arratoye(b, bu), arrotoye (bu, b), erratoye: arratoia

arratoi txakurre (bu): arratoi txakurra

arratxurre: arratxurra, basoan behar egiteko erabiltzen den atxur handia

arratzaldie (bu), atzaldie (b, l): arratsaldea

arratzalde erdidxe (bu): arratzalde erdia

arrausidxe: aharrausi, ahoa zabaltzea

arrautzie, arrauntzie, arrontzie, arruntzie, arrutzie: arrautza

arrantza lokie (bu): habiazaria

arrotze gorringo: arrautza gorringoa

arre: arre, aurrera joateko esaten zaie astoei

arrebie, arrabie: arreba

arrebaordie: arrebaordea

arreglau, arregleu: konpondu

arridxe, arrixe: 1. harria. 2. harria, sukaltarria

arripie: harripea, sukaltarriaren azpiko aldea

arriskoa

arrie (bu, b): aarra

arrakordela (b): arra kordela, neurri kordela; ganaduen pisua kalkulatzeko erabiltzen den kordela

arrimau: ondoratu

arroa: harroa, jagia

arrotu (l): harrotu

arrobie (b): arroba

arrosa: arroz

artasidxe, artasiñek (bu): artaziak

artatxoridxe: artatxoria, kurloia

arte (l): arte

artes (bu): artetz

artesa: arteza, zuzena

artien: 1. artetan. 2. arte

artiño (b): arte

artoa: 1. artoa. 2. arta irinez egiten zen ogi handi biribila

artaburu, artoburue (b): artaburua

artadxorra: artajorra

artadxorran eiñ: arta jorran egin

artagaraue: artagaraua

arto arloa (l): arta arlo

arto artie (bu): arta arloa, arta artea

arto lastoa(b): artolastoa

arto urune: arto irina

artu: hartu

artxoa: artxoa

asadurie: asadura, biriki aldeko okela, askotan txakurrei ematen zitzaien

asala: 1. azala. 2. azala, sakonaren kontrakoa

asarrrie: haserrea

asarratu: haserratu

asatza: asatza

aselgie: azelga, zerba

asertau (bu): aparatu, igarri

asi: 1. hasi. 2. hazi

asidxe (bu), asixe: hazia

asikerie (bu)

asie: aza

asa landarie: aza landara

askie: aska

asko: asko

askotan: askotan

askonarra: azkonarra

askorie: aizkora

askorastie (b): aizkora girtena

askurie: hazkurea

asmau: asmatu

ason, aso: arazo, azo, erazi

aspaldi: aspaldi

aspaldidxen (bu): aspaldian

aspaldiko (bu)

aspela

aspelak ein: azpelak egin

aspidxe: 1. azpi. 2. azpia, ganaduen etzagoetarako materiala

aspidxen, aspixen: azpian

aspigarridxe: azpigarria, ganaduen etzagoetarako materiala

aspirie: azpira

astelena: astelehena

astidxe (bu): astia

astie: 1. astea. 2. kirtena

aste asikerie (bu): aste hasikera

astegune (bu): asteguna

astillie: 1. zozpala, hau txikia izaten da "sospala", oster, handiari esaten zaio. 2. arrakala

astilletu: arrakalatu

astinyu, astindu: astindu

astiro

astoa: astoa

astoarra (b): astoarra

asto bidie (l): asto-bidea

astoemie (b): astoemea

astogurdidxe: astogurdia, gehienetan "karroa" esaten zaio.

astokumie: astokumea

asto lekue (l): asto-lekua

astosarana (b): astozarana, astotzara

astrapalie: atrapala, zarata handia

astune: astuna

asukerie: azukerea

asule: urdina

asunbrie: azunbrea, litro bi

asunbra erdidxe: azunbre erdia, litro bat

asune: asuna

asurre: 1. hezurra. 2. frutuen hezurra

atara: atera

atatan: atatan, paseoan joateko esaten da

ataue: ataute, zerraldoa

aterpie

aterri: aterri

atertu: atertu

atie: atea

ateurrie: etartea, etxaurreko aldeari esaten zaio, ate aurrean dagoenari hain zuzen

atrebidu: ausartu

atrebidue: ausarta

atune: atuna

atxa: haitza, harkaitza

atxa puntie: haitz punta, haitz muturra

atxikoa: iko mota bat

atxiñe: aintzina

atxiñekoa (l): aintzinakoa, aspaldikoa

atxurre: aitzurra, atxurra

atxurkakutxue: atxurkakoa

atxurrastie (b): atxur kirtena

atza: 1. hatza. 2. hatsa, usain txarra. 3. ahoko hatsa

atzamarra: atzamarra

atzasala, atzaskala: atzazala

atzie: atzea

atzekos aurre: atzekoz aurre

atzena: atzena, azkena

atzenaldirxe

atzenengoa (bu) atzeneko (bu): atzenengoa, azkenengoa

atzenien (bu): atzenean, azkenean

atzera: berriro, berriz

atzeratu: atzeratu

atzialdie (bu): atze aldea, atzeko aldea

atzo: atzo

atzoa: atsoa

aulidxea (bu): erosta

aumie: ahumea

aundixe (l): haundia, handia

auntxe: oraintxe

auntze, euntze (b): ahuntza

auskumie, aunsukumie (l), euskumie (b): ahunzkumea

aurrie, eurrie (b): aurrea

aurreko aldie (bu): aurreko aldea

urreraukoan: aurreragokoan

aurten: aurten

ausi, eusi (b): 1. ahausia. 2. hautsi, apurtu

ausi iñ: ahausi egin

ausike, eusike (b): ahausika

ausiki: haginka egin

ausiki in (l): haginka egin

ausoa (bu, l): auzoa

ausokoa: auzokoa

ausotegixe (l): auzotegia

ausunekoa: auzunekoa

ausunie (bu): auzunea

auspoa, euspoa: hauspoa

autze, eutze (b): 1. hautsa. 2. errautsa, suteko hautsa

austu (l): haustu

autzek atara (bu): hautsak atera

ayuntamientue: 1. udaletxea. 2. udala

ayuntamientus ixen: udalez izan

baberrue: baberoa

babie: 1. baba. 2. adurra

baba txikidxe: baba txikia

babaurune: baba irina

bai: bai

bajue: baxua

bajatu, bajau, bajeu: bajatu

bakarrik

baldarra: baldarra, itxurabakoa

baldie: 1. baldea. 2. balda, suteko apalategiari esaten zaio

balidxo: balioa

balidxo ixen (b), balidxo ixin (bu), balixo ixen (l): balio izan

balkoye: balkoia

baltza: beltza

banaka (l)

banaka bat: banaka bat

bandie: banda, teilatuko zura

banketie: aurkia

bañie: leka, baina; jateko dena baino ez

baño: baino

baponesa (b): iko mota bat

baragarri (b)

barakarroa (bu): barakarroa, barea

barandie (l): baranda

baras sarana: baras zarana

barberue: barberoa, bizargina

bardiñe: berdina

baretie (l): bareta

bareusi, barusi (l): gosaldu, barau hautsi

barauskarridxe, baruskarrix: gosaria, barauskarria baraua hausteko jaten den jan kopua da, armozua beluago egiten da eta sendoagoa izaten da

barusik (l)

barustu: gosaldu, barau hautsi

barie: barea

barik: barik

barikue: barikua, ostirala

bariku santu egune: bariku guren eguna

bariku santue (l): bariku gurena

barrie: barre

barre iñ: barre egin

barregarri (l)

barreka (l)

barrena (bu): barrena, fraka edo gona barrena

barrerie (bu): barrera, erromara

barres: berriz

barridxe, barrixe: berria

barridxen (b): berriz

barriketan (l): berriketan.

barristu (l): barriztu

barridxea: auzoa

barrigille (l): ilargi berria

barrikie: barrika

barru: barru

barrue: barrua

barruko aldie (bu): barruko aldea

barruntau, marrunteu (b): igerri, barruntatu

bart: bart

basakatue: basakatua

basaurdie (l), basordie (l, bu): basurdea

baserridxe, baserrixe: baserria

baserri etzie: baserria

baserritarra (b)

baseuntze: basahuntza

basie (b): basa, lokatza

baskaridxe, baskarixe (l), beskaridxe (b): bazkaria

baskaldu, beskald (b, bu): bazkaldu

basoa: basoa

baso biorra: baso behorra

basoetzie: baso etxea

basollarra: basoilarra

basosugie, basugie (b): basosugea

basotxoridxe (bu): baso txoria

baspidxe (bu): baspia, bartza

bastante: nahiko

bastarra, basterra: bazterra

bastie (bu): basta; astoari jartzen zaiona

basue: basua, edalontzia

bat ixen: bat izan

batana: batana

baten: behin, baten

batidu: irabiatu

batu: batu

batzandu (I): batzandu, elkartu

batzarra (bu): batzarra

bausta: kolpearen hotsa

bautisue: bateoa, bataioa

bautisau (bu, I), bautiseu (I): bateatu

baye (I): bahea

bear ixen, biar ixen (I), biar ixin (bu): behar izan

bedarra: belarra

bedar metie: belar meta

bedar sikue: belar sikua

bedeinketu, bereinketu: bedeinkatu

bedxe, beidxe, beixe: behia

bedxek batu (bu): behiak eratsi

beidxe galdu: behia galdu, hil

bekorotza (bu): bekorotza

begidxe, begixe: 1. begia. 2. neurri kordelaren oralekua

begikunie: begirakunea, adikunea

begi epela: begi epela, begirada tristeko begia

begi suridxe: begi zuria, begi argia; begi urdin zein berdeei buruz esaten da

begire: begira, zain

begiskoa iñ: begizkoa egin

begiskoa: begizkoa

begittu, begitu (I): begiratu

begitxindorra, begitxinyorra: begitxindorra, erdaraz "begitxindor" eta "biritxindor" esaten dugu. berau kentzeko giltza utzi behar da gau osoan kanpoan eta biharamon goizean pasatu egin behar da begitik.

bein (b), beiñ (bu): behin

beintzet (bu): behintzat.

beiñolan, beiñola: behinola

bekokidxe, bekokixe: bekokia, kopeta

bekosue, besue: beheko sua

belarridxe, belarrixe: belarria

belaune, beleune: belauna

belauneko asurre: belauneko hezurra

belauniko (bu) beleuniko, beleundiko (I): balauniko

beleno: pozoina

belie: belea

bela baltza: bele beltza

bellegidxe, bellegixe: beilegia, horia

belu: belu, berandu

bendau: bendatu

bendejie: bendeja

bendeja lurre (I): bendeja lurra, bendejarako ortuariak hartzeko lur egokia

benetakoa (bu)

bentanie: leihoa

berakatza: berakatza, baratxuria

berakas sopie: berakatz zopa

berakatza jorrie: berakatz jorra

berandu: belu, berandu

beratu: beheratu

berbenie: berbena

berbie: berba, hitza

berba ein (l), berba eiñ (bu), berba in (b, l), berba iñ: berba egin

berbaldidxe

berbaltue: berbaltua, tartamutua

berbas: berbaz

berbatzue

berbotza: berbotsa, berba egikeran sortzen den zurrumurrua

berdegilletie (bu), berdegillie (bu, b), berdelletie: kodaina

berdeloye (bu), berdaloie: berdeloia

berdie: 1. berdea. 2. belar berdea edo freskoa

berdurie: berdura, ortuariak, barazkiak

beresidxe (b): beresia, itxita dagoen arloa

bermiotarra

bernie: berna, zangoaren belaunetik beherako atala

bernugela (bu): berna uhela; astoari jartzen zaiona basta lotzeko

beroa: beroa

bero eiñ: bero egin

berotu: berotu

bersadxe(b), birsaidxe (bu), birseidxe (bu): birzahia; erdaraz "birzai" eta "birzei" esaten diogu

bertzoa: bertsoa

beseridxe (bu), biseridxe (bu): 1. bezeria. 2. bezeroa

besigue, besugue: besegua

besoa: besoa

besaka (bu)

besapie: besapea

besartekoa: besartekoa, besoetakoa

besartie: besartea

besoetakoa: besoetakoa

bekoaldie: beheko aldea

besperie (l, bu), bisperie (bu): bezpera

beste: beste

besteko: besteko

bestie: bestea

betatu (l), bete (bu): bete

beterik

beterinarixoa (l), betinaidxo (bu), betrinaidxo: albaiteroa

beti, betik: beti

betulie: betilea, bekaina; betileak gehienetan bekainetakoak izaten dira, betazaletakoak “pestañak” izaten dira

betune: betuna, lustrea; euskaraz zein erdaraz “lustre” erabiltzen izan dugu betuna adierazteko

beye: behea, behearen gaina, zorua

beyen: behean

bialdie, bekaldie, biekoaldie (bu): behe aldea, beheko aldea

biera (bu): behera

biarra

biar egune (bu): behar eguna, lan eguna

biar ein (l), bier iñ, biger iñ: behar egin

biarlekue (bu): beharlekua, lantokia

biarrien, bigerren: beharrean

bierlekue: beharlekua

biastune: behaztuna

biatza: behatza, bizkaieraz arrunta den moduan oinetakoak baino ez dira behatzak.

biborie: larrasugea

bidegarro (b), birigarroa: birigarroa

bider: bider

biderres: biderrez

bidie: bidea

bidekrusetie (bu): bide-gurutzea

bidekurtzie (bu): bide-gurutzea

bidxen bittartien (bu): bien bitartean

bidxer, bixar (l), bixer (l): bihar

bidxerkoa pasaute (bu): etzi

bidxortu (bu): bihurtu

bidxorkadie: bihurkada

bidxurre: bihurria, okerra

bieldu (l), bigeldu (b), bidxeldu (bu): bialdu

bigaintxie (l), birintxie (b): bigantxa

bigarren lenkosiñe: bigarren lehengusina

bigarren lenkosue: bigarren lehengusua

bigune: biguna

bijilidxe: bijilia

bikotxak: bikoitzak, bizkiak

bilbotarra

bildurtu (l), billurtu: bildurtu

billurti

bille: bila

billatu (bu) billetu (l): bilatu

billustu(b): biluztu

biñagrie, biñegrie, binegrie: ospina

biorra: behorra

biotza, bidxotza: bihotza

bidxotzekoa: bihotzekoa

biotzerre: bihotzerrea

biribille: biribila

biridxe: biria, birikia

biripoa: biripoa, biroa

birraitue, birraitxue: birraitaita.

birriten (b) birriten: birritan, bi bider, bi aldiz

bisaguelo: birraitaita

bisaguela: birramama

bisiteu (l): bisitatu

biskerra: bizkarra

biskarkidxe: bizkakia; porrusalda egiteko erabiltzen den hezurra; erdaraz "biskarki" esaten dugu

biskerrasurre: bizkarrezurra

biskorra: bizkorra

bisnieta: birloba

bistie: ikusmena

bittartien (bu): bitartean

bitxoa: mamarroa

bitze: bitsa, aparra

bixarra, bixerra: 1. bizarra. 2. bizarra, gorputzaren ile edo birrileari ere esaten zaio; burukoa ez den edozein ile

bixardune (l): gari bizarduna

bixidxe (bu): bizia

bixi ixen, bixi ixin (bu): bizi izan

bixi alargune: bizi alarguna, banandutakoa

bixilekue : bizilekua, bizitokia

biximodue: bizimodua

bixirik (bu)

bixioa: bizioa

bodegie: sotoa

bodie: ezkontza

bogadie: bogada; Otxarkoagako eleiza dagoen lekuan, azpitik pasatzen den erreka joaten ziren andreak erropak garbitzeko eta bertan agertzen ei zitzaien lamina.

bokadillue: otartekoa, bokadiloa

bokoye: bokoia, upel handiak txokolinetarako

bolintxue (bu): bolintxua, errotatxua; Buja aldean dagoen leku baten izena da, bertako informante baten arabera berba hau eta errota bat dira

boltzie: boltsikoa, boltsa

bomitoa: gomitoa, oka, goitika

bomitau: bota, errebesatu

boronoa: boronoa

bortzegidxe: bortzegia, oinetako mota bat zen

bosie: ahotsa, boza

bosteko matza: mahats mota bat

bota: bota

botie: 1. bota, oinetako mota. 2. zahatoa, ardoa erabiltzeko erabiltzen den zahagi txikarra

botikie: 1. botika, medikamentua. 2. botika, farmazia

botillie: botila

botille kaskuek: botila kaskuak, botila zatiak

botxoa: 1. botxoa, kanikak edo iturriak sartzeko egiten den zuloa; erdaraz berdin erabiltzen dugu. 2. (l) botxoa, ereiteko egiten den zuloa

brabana (b): brabana

brasie: txingarra

brebie: iko mota bat

brebikoa: iko mota bat

brillue: dizdira

briskie: briska

bruse : brusa

buelta

buelta emon (l), bueltie emon (l): buelta eman

bueltau (l): bueltatu

bularra, bulerra: bularra

bulerretakoa: bularretakoa, birikitako gaixoa, alborengoa

bultzau: bultzatu

burbuxe, orbuse (l): gurbixa; erdaraz "borto" esaten diogu

burdidxe, gurdidxe (bu, b), burdixe, gurdixe (l): burdia, gurdia

burkadie gurdikadie (bu): burkada, gurdikada

burtedie, burterie, gurtedie (b): burteda

burtzile (l): burtzila, ardatza

gurpillie: gurpila, txirrinka

gurdikama (bu): gurdikama, gurdikama, gurdi kaxa.

gurpidie: gurdipidea

burdiñe, burriñe, burriñie(b): burdina

burriñeskoa

burruntxie: burruntxia, sutondoan egoten zen burdina gauzak erretzeko

burrutzalidixe, burrutzillue: burruntzalia, jana ateratzeko erabiltzen den girten luzeko kazua

burue: burua

burukadie: burukada, burukoa, buruan hartzen den kolpea

buruko pañolue: buruko zapia

buruko saidxe: buruko zahia, buruan egiten den hauts moduko zuria

buskentza: buzkantza, odolostea meheari esaten zaio, odolkia orohar buzkantza da

bustena: buztana

busterridxe (bu), busterrixe: buztarria

bustertu: buztartu, uztartu

busti: busti

bustirik

damistikue, domestikue, domestikue: doministikua

damusidxe: erosta

damusike

damutu: damutu

dan: ziztadaren hotsa

dangiliske

dantzan ibili: dantzan ibili

dantzan in (l), dxantzan eñ: dantzan egin

dardakadie: dardakada, ikara, hau ez da hotzikara; eskuetan edo gorputzean edukitzen dena baino

dardakan (bu): dardan

daridxola egon: dariola egon, erion

defendidu (bu): defendatu

delikedue (b): delikatua

dendie: denda

denporalie: denporala

denporie: 1. denbora. 2. eguraldia

denporadie (bu): denboraldia

denporaldidxe(b): denboraldia

deposittue: depositua

depuradorie: depuradorea

derrigor: derrigor

derrigorrekoa: derrigorrezkoa

derrigortu: derrigortu

desaparesidu: desagertu

desbardiñe: derberdina

deseredau: deseredatu

desin: desegin

deskuideu (I): deskuidatu

diabrue: deabrua, txerrena

diferentie: desberdina

difuntue: defuntua

difuntie: defuntua; bujan ekandu zaharra izaten zen baten bat hiltzen zenean erroparen bat erretzea bidekurtzioren baten

dirue: dirua

dirudun (bu)

dirutzue (bu)

diskutidu (I): eztabadatu

doblau: tolestu

domekie: domeka, igandea

domusantue: domu santua

dosenie: dozena

dosena erdi: dozena erdia

dotie: dotea

dotriñie: doktrina

dultzaiñerue: dultzaina jolea, dultzaineroa

dultzie: eztia, gozoa

dunba: jausi

durdurie: durdura

durundue: durundua

dxabon (bu), dxagon: jagon

dxadxe (bu), jadxe, jaixe (l): jaie

dxadxo, jaixo (l): jaio

dxakie: jaka

dxakin, dxakiñ, jakin (l): jakin

dxamon iñ: jaramon egin

dxan, jan (l): jan

dxana, jana (l): jana

dxatekoa: jatekoa, janaria

dxatordue: jatordua

dxantzi

dxastekoa: jantzia, soinekoa

dxantzie (bu), dantzie (l): dantza

dxantza lekue: dantza lekua, jolasa, kalean egiten zen dantzaldiaren kokagunea

dxantza pasie: jolasa, plazan egiten den dantzaldia, baita dantzalekua ere

dxantzan (bu): dantzan

dxantzaridxe: dantzaria

dxarri, jarri (l): jarri, jesarri

dxarroa: pitxarra

dxaubie (bu): jabea

dxausi, jausi (l): jausi

dxesarri: jezarri

dxo, jo (l): jo

dxoan, fan (l), joan (l): joan

dxokoa: jokoa

dxorratu, forratu (l), jorratu (l): jorratu

dxorraidxe: jorraia

forrie (l), jorrie (l): jorra

dxosi, josi (l): josi

dxoskille: joskilea, jostuna

dxostorratza: jostorratza

jostune (l): jostuna; jostunak etxerik etxe ibiltzen ziren

dxunkerie (b): junguda

dxustugune, dxustuegune: Justu eguna

ebagi (bu), ebai, ebei: ebagi, ebaki

edadie

edadekoa

edan: edan

edabie: edabea, edaria

edaridxe: edaria, edabea

edarra (l), ederra: ederra

ederto

edatzi (bu): eratsi

edie, erie: hede

edurre: elurra

edur bolie: elur metxa, elur mataza

edurtzie (l): elurtza

egabela (b): hegabera

egarridxe, egarrixe: egarria

egoa: hegoa

egastidxe, egastixe: hegazia

ego aldie: hego aldea

egoaxie: hego haizea

egon, eon (l): egon

egosi: egosi

eguen: eguena, osteguna

eguen guren (l): eguen gurena

eguen guren egune: eguen guren eguna

eguestena (bu, b), eguastena (l, bu): eguaztena, asteazkena

egune: eguna

egunaro (l): egunero

egundo, eguño (l): egundo, sekula

egune sabaldu: eguna zabaldu

egunen egunien: egunean egunean, egunero

egunon (bu): egun on

egurdidxe (bu, b) egurdixe (l), eguerdidxe (b): eguerdia

egurre: egurra

egurdune (bu): egurduna

egurreskoa

egur abarra (l): egur abarra

eguskidxe, eguskixe, euskidxe (b): eguzkia

eidxo (bu) eixo (l): eho

ein, eiñ (bu), in (l), iñ (bu): egin

ekarri: ekarri

ekoa: oihartzuna

elaidxe, elaye, eledxe (bu): elaia

elastiko: jertsea

elbitze (I): albitza, ereiten den belar mota bat

eldu: heldu

elegantie (bu): dotorea

eleixie (bu), elejie (I), elixie: eliza

eleixabarrena (bu): eleizabarrena

elisaspidxe: elizpea

elixas ixen: elizaz izan

elejidu (bu): aukeratu

elgorridxe: elgorria

emie: emea

emon, amon (b): eman

enamorau (I): maitemindu

enbata (b): enbata, lainoa

enbrie: andrazkoa, orokorrean andrazkoei buruz erabiltzen da

ene: ene

ene mutillek: ene mutilak

eneroa: urtarrila

enfadau: haserratu

engañeu (I): engainatu

enkargadue: enkargadua, arduraduna

enpatxue: enpatxoa

ensaladie: entsalada

ensegida: berehala, behingoan

entendidu, entenidu: ulertu

enterau: enteratu

entierrue: hileta

enterrau, enterreu (l): lurpetu, ehortzi

entradie: etarte, sarrera

entregau, entregeu: eman

entresakie: entresaka

entretenu (bu): entretenitu

entzun, untzun (b): entzun

epela: epela

epeldu (l): epeldu

eperdidxe: eperdia, ipurdia

eperra: eperra

epertargidxe, epetargidxe (bu): epertargia, ipurtargia

epertikerie: epertikera

epetxa, epetxie: epetxa

eraiñ (bu): erein

erakutzi: erakutsi

eralgi: eralgi

eras (bu): eraz, hurbil, paraje

eratz: 1. eratzi. 2. jaitsi

eratzialdidxe: eratsaldia

erbidxe, erbixe: erbia

erderie

erdeldun (l)

erdera: erdaraz

erderas (bu): erdaraz

erdidxe: erdia

erdibittu: erdibitu

erdidxen (bu): erdian

erdu: erdu; aditz honek aginterak baino ez dauzka "zu" denean "erdu" erabiltzen da eta "erdusie" "zuek" denean.

erebidxau (bu): irabiatu

erein, ereiñ (bu): 1. eragin. 2. erein

ereñotza (b): ereinotza

eretxi, eritxi: eritzi

erie: 1. era. 2. era, jantziek "erie" eta "iruntzidxe" edukitzen dituzte; azpikoz gainera janzen denean iruntzitara esaten dugu; era berean eraz janzea kontrakoa da, hots, era agirian dela

erlie (bu): erlea

erlabotie: erlauntza

erlekajie: erlauntza

ermandadie(b), erremandadie: ermandadea

ermittie, ermitie: baseliza

erne: erne

ernegeu (l): ernegatu

eroan (b), eran: eroan

erontzi (bu): erantzi

erosi: erosi

erpie: 1. erpa, sustraia. 2. (b) atzaparra

erradie: errada, ura garraiatzeko erabiltzen zen ontzia

erradorie

erradurie: perra

erradorie: erradorea, perratzailea

erraldie (b), erreldie (b): erraldea, bost kilo

erramala (l): zurrunaren orde z belar zamak lotzeko erabiltzen da

erramie: abarra, erramak handiak izaten dira

erramue

erramu egune (I): erramu eguna

errana, errena: erraina

errañetie (bu, I), erreiñetie, arraiñetie (I): erraineta, sagar mota bat

errapie: errapea

errarue (I): bitxia, bakana

errasiñoa: errazioa

erratu (bu): erratu

erraturie (I): erratura, belar txarrak erretzea eta gero hautsa ongarritzat erabiltzea

erre: erre

erre usiñe: erre usaina, erre sunda

errebañue (bu): artegia, artaldea

errebolbidu (I): eragin, nahastu

erregalau: erregalatu, opaldu

erregie: erregea karta jokoan

erregena: erregena

errekie: erreka

errematie: erremata, enkantea

erremedidxa: erremedioa

errementau, errementeu (I): errementatu

erreminttie, errementie: erreminta

errementaridxe: errementaria

erremolatxie: erremolatxa,

errentie: errenta

errepartidu (bu): banandu

errepasau, errepaseu (I): errepasatu

errepollue (I): errepoiloa

erresau, erreseu (l): erregutu, otoitz egin

errespontzue: errespontsoa

erretellue: erreteila, teilak aldatzeari esaten zaio

erretireu (l): erretiratu

erreumie: unorea, erreuma

erridxe, errixe: herria

erriela: 1. erreala, diru mota. 2. (bu) erraila, aldamen batetik bestera doazen egurrak gurdi kaxaren azpia osatzeko.

errifau: zotz egin

erriko axie: herriko haizea, hego haizea

erroa: erroa

errogatibie: errogatiba

errolantza: elorrantza

erromeridxe, erromerixe: erromeria

erropie: erropa

erropa dendie: erropa denda

erroperue: erroperoa, erropa gordetzeko armarioa

errosaridxo, errosarixoa, erresaridxo: errosarioa

errotaridxe

errosaridxo bedar (bu), errosario bedar (b): errosario belarra; belar parasito mota bat

errotie: 1. errota. 2. errota, hegaztien urdaila

errotaridxe, errotarixe (l): errotaria

errubidxo: ilegorria, errubioa

erruedie: txirrinka

ertza: ertza, hegala

es: ez

esan: esan

esaune (l), esune (l): ezaguna

esautu, eseutu (I), esetu: ezagutu

esi (bu): hesi

esidxe (bu): hesia

esin ixen (I), esiñ ixen (bu): ezin izan

eskandalu (b): asko

eskapau(b), eskapeu (I): eskapatu, ihes egin

eskapie: sarrera, etartea

eskarabajoa: patata zomorroa

eskasa: eskasa, bakana

eskastu (I): eskastu

eskatu: eskatu

eske: eske

eske egon (bu): eske egon

eske ibilli: eske ibili

eskien (I): eskean

eskien dxoan: eskean joan

eskegi, eskei: eskegi

eskekoa: eskekoa, eskalea

eskerra: ezkerra

eskerrak: eskerrak

eskerrik asko: eskerrik asko

eskillarie, eskillerie: eskilara

eskillera barrena: eskilara barrena, eskilararen beheko aldea

eskillera burue: eskilara burua, eskilararen goiko aldea

eskillasoa, eskillasue (bu): oskilasoa

eskiñie: bazterra

eskoa, eskoye: eskoia

eskobie: ginarra, erratza

eskolie: eskola

eskondu: ezkondu

eskonparridxe (bu)

eskribidu (l): izkiriatu, idatzi

eskubille (bu): eskubila; ganadua garbitzekoa

eskubitturre, eskubiturre: eskubitorra, eskuturra

eskue: eskua

esku pañue (l): esku zapia

eskutalle (b): eskubarea

eskutillie (l): 1. areari oratuteko daukan euskarria. 2. eskubarea

esnie: esnea

esne askoko beidxe: esne askoko behia, esnatza

esne gitxiko beidxe: esne gutxiko behia

esne sopie: esne zopa

esnebeidxe: esne behia

esnedune (bu)

esnetzu (l), esnatzue (bu)

espana: ezpaina

esparrague (bu): zainzuria

espatie: 1. ezpata. 2. ezpata karta jokoan

espata andidxe: ezpata handia

espata txikerra: ezpata txikarra, atzakarra

espillue: espilua

estakie (l): taketa

estaldu (l): estali, desagertu

estasiñoa: geltokia

estegue (bu): 1. txarriboda. 2. ezkontza

estidxe, estixe: eztia

estie: hestea

este lodidxe: heste lodia

estegorridxe: hestegorria

estoa: estoa, narra, lurra zapartzeko erabiltzen dena

estomague: estomangua, urdaila

estudidxau, estudieu (l): estudiatu

estue: estua

estutu: estutu

estule: eztula

etorri: etorri

etzi (bu): etzi

etzilamu: etzidamu

etzie: etxea

etzaldie: baserria, nekazal etxea

etzaurre: etxeaurrea

etze erriena: etxe errearen elkartea, hau etxeren bat erretzen zenerako etxagunen artean jarritako diruz edukitzen zen aseguro modukoa zen

eukalitue (bu) ukalitue (bu): eukalitua

euki, eukin (b), auki (bu), aukiñ, aukin (bu): eduki

eulidxe (b) eulixe, aulidxe (bu): eulia

euridxe, eurixe (b) auridxe (bu): euria

eur saparrada (l): euri zaparrada

eurigotak (b): euri-tantak

eurten (b): aurten

euskadie: eskutada

euskera (l), auskera (bu): euskaraz

euskeras, auskeras (bu): euskaraz

euskeldun, auskeldun

eusnarra: hausnarra

eutzi, autzi (bu): eutsi

fabrikie: fabrika, lantegia

faldie (b): gona; Begoñako informatzaile bik “gonie” azpikogonari esaten zaiola esan ziguten

falta (l): falta

falta aukin (bu): falta eduki

famadue (l): ospetsua, famatua

famelidxe, familidxe, familixe: 1. familia. 2. berba hau seme-alabak orokorrean adierazteko erabiltzen da; holan “familidxe auki” modukoak erabiltzen dira

fanderoa: panderoa

fardikerie: fardikera amantalaren barruko boltsikoa, erdaraz “faldikera” esaten dugu

fardoa (bu): fardoa

fasille: erraza

febrero: zezeila, otsaila

feridxe: azoka

fermentau: fermentatu

fijau: tinkatu, erreparatu

fijo (bu): ziur

fijoa (b): ziurra, tinkoa

filoa (b): ahoa

filtrau: iragazi

fiñe: fina

findu (l), finyu, finyotu (bu): findu

firue: firua, haria

firuskoa

frakie: fraka, berba hau gehienetan pluralean erabiltzen da “frakak”

fraka barrena: fraka barrena

frakak soltau (bu): kaka egin

frantzes: frantzes belarra, ereiten den belar mota bat

frantzes bedar (b): frantzes belarra, ereiten den belar mota bat

frantzesaxie (l, bu): ipar ekialdeko haizea

frantzialdie: frantzia aldea

freskoa: freskoa

fri-fri: oilo gaixoen zarata

frijidu (l): frijidu

frontoye: frontoia

frutie: fruitua

fruteridxie: frutadenda

frutesalie (b)

fuertie (l): indartsua

fumau: erre

funerala: funerala, hileta

furidxe: ganaduaren gaixoa

gabilloye: gabirola

gabilloi nausidxe (b): gabirola nagusia

gabilloi txikerra: gabirola txikarra

gabonak (l): gabonak

gabon egune (l): gabon eguna

gabon gaubie: gabon gaua

gabon sarra: gabon zaharra

gabon: gau on

gabonetako madaridxe: madari mota bat

gaixoa, geixoa: gaixoa

gaixorik

gaixotu: gaixotu

galbaya, galbaye (bu): galbahea

galdu: galdu

galeperna: perretxiko mota bat

galeperra: galeperra

galgie (bu): galga

galga burriñe: galga burdina

galgie emon: galga eman

galisiko axie (b), gallegu axie (bu): mendebaldeko haizea

gallurre: gailurra

galtza: galtza, andrazkoek erabiltzen dituzten goitik beherakoak

galtzue: galtzua

galtzu bixerra (bu): galtzu bizarra

galtzu lekue (bu): galtzu lekua

galtzu polla: txola, galtzu txola, eskutada

galtzu serrie: galtzu zerra; gortetan egoten zen lastoa ebakitzeko

gana (b): gana, akuiluaren puntan dagoen iltzea.

ganadue: ganadua

ganadu feridxe: ganadu azoka

ganadue batu: behiak eratsi

gane: gaina

ganera: gainera

ganien: gainean

gangarra, gangarrie: gangarra, kaldorra

gantxoa, gantxue: gantxoa

gantzagidxe: gantzagia

garagarrille: garagarrila, uztaila

garatu: garatu

garaue, garue: garaua

garandu: garandu, urkuldu

garaunek, garunek: garaunak

garbantzue: garbantzua, urte askotan garbantzuak domeka eta jaiegunetako jateko bereziak izan dira.

garbidxe, garbixe: garbia

garbitasune: garbitasuna

garbittu, garbitu (l): garbitu

gardasola, guardasola: guardasola, aterkia, euritakoa

garidxe, garixe: 1. garia. 2. garia, garatxa, enorra

gari arloa: gari arloa

gari artie (bu): gari arlo

gari jo (l), garidxe dxo (bu), gari dxo: gari jo

gari urune: gari irina

gariburue: gariburua, galburua

garie (l): garia

garisumie: garizuma

garoa (bu): garoa

garrafoye: garrafoia

garratza: garratza

garridxe, garrixe: gerria

garrikoa: gerrikoa

gasasagarra: sagar mota bat

gasidxe: gazia

gastañie, kastañie: gaztaina

gastaña aratxa (bu), kastaña aratxa: gaztaina landarea, gaztaina arbola

gastaña garaue (l): gaztaina garaua

kastaña landarie: gaztaina landara

gastau: gastatu

gastaye, gastoye (bu): gazta

gastie: gaztea

gasteridxe, **gasterixe (l):** gazteria

gastetasune

gatxa: gaitza, zaila

gatza: gatza

gatza artu: gatza hartu

gatza emon: gatza eman

gasbakoa

gasdune (bu)

gatzartie: gatzartea, gauzak gazitzeko gatzartean edukitzen ziren, pernila eta zezina esate baterako

gatzittu: gatzitu

gatzure: gatzura, urari gatz egiten zitzaion gatzura prestatzeko

gaube (bu), gaubie, geubie (b): gaua

gaubelie: gaubela

geutxoridxe: gau txoria

gaubontza (bu), geubontza: gauontza

gaur, geur: gaur

gedar iñ: errietan egin

gedarrie, kedarrie: gedarra, tximinian itsatsita lotzen den hauts zati lodia

gedxau: gehiago

geidxen: gehien

geittu (bu), geitu (b, l): deitu

geike (l)

geldi: geldi

geldik

geldiro (bu)

gelie: gela, logelei “kuartue” esaten zaie; gela beheko solairuko baten izena izaten zen, gehienetan sukaldeari dautsola egoten dena da

geltxo (bu): eltxoa

geratu (bu): geratu

gerespie (bu), gerispie(b, bu): gerizpea

gero: gero

gerrie

gerra denporie (bu): gerra denbora

gesi bet (l): behingoan, gesu batean

gibela: gibela

gibelekoa: giblekoa, gibleko gaixoa

gibelurdiñe: gibel urdina, perretxiko mota bat

gidxarrie, gidxerrie: giharra, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu (guiarra)

giltze: giltza

giñarrie (l): ginarra, inarra

giñarrakixe (l): 1. ginarrakia. 2. ginarrakia; gorta garbitzeko erabiltzen dena

giputze, kiputze (b): giputza

gipuskoarra: gipuzkoarra

girrintze: girrintza

gitxi: gutxi

gitxi gora beran (bu.): gutxi gora behera

gitxiau (bu.): gutxiago

gixajoa (bu, l): gixajoa

gixajie: gixajoa (f)

gixedue: gisadua

gixelana: gixelana, soroak neurtzeko da

gixena: gixena, okelaren alde zaintsua tronbilak dauzkana

gixona: 1. gizona. 2. senarra

glosopedie: ganaduaren gaixoa

gubernau, goberneu: gobernatu, jagon

godxe, goidxe: 1. goia. 2. goia, sabaia

goialdie: goialdea, goiko aldea

goiko aldie: goiko aldea

gogaitu: gogaitu, abrozidu, aspertu

gogoan aukiñ: gogotan eduki

gogorra: gogorra

gogortu: gogortu

goixie, goxie: goiza

goxaldie (bu, b): goizaldea

goistikoa: gerezi mota bat

goixerdidxe: goizerdia

goixetik(b), goxeti (bu): goizetik

goldie (bu): goldea

golpie: golpea

golpeka

gomaskoa

gonie: 1. gona. 2. begoñan azpikogona adierazteko ere erabiltzen da

gorbeiko axie: gorbeiako haizea

gorde: gorde

gordiñe (bu): gordina

gordiñik (b)

gorgoille, gorgolle: gorgoila, faringea.

gorostidxe: gorostia

gorpue: gorpua. bai begoñan bai bujan, gorpua pasatzen zen bidea publiko bihurtzen zen eta ezin itxi zitekeen

gorputze: gorputza

gorra: gorra

gorridxe, gorrix (l): gorria

gorridxek pasau (bu): gorriak pasatu

gorringoa: gorringoa, arrautza-gorringoa

gorritu (bu), gorritu (l): gorritu

gorriñie (l): gorrina, landareen ugerra

gorroa: gorroa

gorue (bu): gorua

gosie: gosea

gosiek il (l): goseak hil

gose denporie (l): gose denbora

gosoa: gozoa

goterie: itogina, teilatu barrukoari esaten zaio

granujau (b): granujatu

grasidxe (b): eskerrak

gremidxea, gremixoa (l): sindikatoa, pentsuetarako izaten zen

grillue: txirri-txirria, kilkerra

grimie: bizarra

gripie: gripea; gripearen kontra sano ona ei da asunen sustraiak hartzea.

grumie: gurma

guardie: goarda, baso jagolea

gurau ixen: gurago izan

gure ixen (l), gurixin, guixen (b, l), guixin (bu): gura izan

guresoak: gurasoak

gusti: guzti

gustis: guztiz

gustue: gustua

gustau, gusteu: gustatu

ibili, ibilli (bu), ebilli: ibili

iderra: idarra, ilarra

ididxe, idixe: idia

idi parejie: idi-parea

idigurdidxe: idi gurdia

idie: ira

idune: iduna, sama; barietate honetan iduna eta sama bereizi egiten dira. “sama” barrukoari esaten zaio eta “iduna” kanpokoari

ierri(b): igarri

ifiñi, efiñi, imiñi: ipini

igeltxue, igeltxo: iratxoak. Begoñan familiarik ez zeukan andra bat bahitu ei zuten iratxo hauek, bederatzigarren hilabetean umea eduki zuen iratxoei esker

igeltzo: igeltsoa

igerri, igirri (bu): igarri

igertu: ihartu

iges, ies: iaz

igitaidxe, igitidxe (bu), igitixe: igitaia

igon, idxon: igon

iguala: berdina

igualdu (b): berdindu

igurtzi (bu), igurdi (b): igurtzi

ikerie: ikara, dardakada

ikeratu: ikaratu

ikesi, ikisi: 1. ikasi. 2. irakatsi

iketza: ikatza

ikoa: ikoa

iko baltza: iko beltza, iko mota bat

iko esnie: iko esnea, iko berdeen esnea ona ei da gariak edo garatxak kentzeko

iko suridxe: iko zuria, iko mota bat

ikopasak: iko pasak

ikusi, ekusi (b, bu), ukusi: ikusi

ikusgarrisko (l)

ikutu, ekutu (b), ukutu: ikutu

il (b, l) ill (bu): hil

il kajie: hilkutxa, atautea

il kanpie: hil kanpaia

ilbera, ilberie: ilbehera

ilgora, ilgorie: ilgora

ilintixe, illuntzidxe (bu): ilentia

illedie: ilada

illedan: iladan

illie: hilea

illebetie: hilabetea

illune: iluna

illundu, ullundu (b): ilundu

illuntzie (bu), ulluntzidxe (b): iluntzea

ilobalie (bu): firubala

iluntzidxe: iruntzia

inbittadu: gonbidatu

indisiñoa: indezinoa, txertoa

indiyabie (l) inyabie: indaba

indiyaba lapikoa: indaba lapikoa

inyaba gorrixe (l): indaba gorria

inyaba surixe (l): indaba zuria

informala (bu): ganorabakoa

ingerue (b), ingurue: inguru

inketu (bu), inkeu (l): inkatu, erantsi

inkie: kinkinke, inke; burdina bati punta zorroztu eta lurrean lauki batzuk eginda inkatu behar izaten da

intxurre, untxurre: intxaurra

intxur saltzie: intxaur saltsa, postre mota bat

intzurridxe (b), untzurridxe: hontz-orria

inundasiñoa (bu): uriola, uholdea

inyarra, inyerra, inderra: indarra

inyartzue (bu)

iñarrie (bu), iñerrie (b): inarra, ginarra

iñaurri (b), iñorridxe, iñurridxe (bu): inurria

iñestue: ineztua, tximista

iñontza (l), iñotza (b), iñuntza (bu): inotza, ihintza

iñusentie: inuzentea

iñusentien egune: inuzenteen eguna

iñutzitxue (bu): ineztua, tximista

iperra: iparraldeko haizea

ipertargi (b): ipurtargia, epertargia

ipoa: zotina, txotena

iraille: iraila

irebasi: irabazi

irekatzi (b): irakatsi

iretargidxe, igetargidxe (bu), itargidxe (b), itargixe (l), irigille (l): ilargia

igetargi barridxe (bu), iretargi itzue: ilargi berria

igetargi osoa (bu), iretargi betie: ilargi betea

irikin: irakin

iruntzi (bu): irentsi

iruntzie (bu): inotza, ihintza

islie: isla, irla

isterra: iztarra

iteillie (b), itteillie, itillie (bu): itailea

itilletu (bu): itailetu

ito (l), itto (b): ito

itturridxe (bu), itxurridxe (b), iturrix (l): iturria. Erdaraz berba egikeran berba hau umeen olgeta batean erabiltzen genituen botilen metalezko tapoiak adierazteko

itxsoa (l), itxosoa (b), itzesoa (bu): itsasoa

itxi: 1. utzi. 2. itxi

itxoin, itxon (b, bu), itxoron: itxaron

itxun (bu): etzan

itzela: itzela

itzelien (bu): itzel

itzue: itsua

itzutu (bu): itsutu

ixa ixa: ea-ea

ixartu, ixertu (bu): itxartu

ixekoa: izekoa

ixekosabak: izeko-osabak

ixeldu (bu): isildu

ixilik.

ixen, ixin (bu): izan

ixen esik: izan ezik

ixerdidxe, ixerdixe: izerdia

ixerie: izara

ixerra: izarra

ixerratu: izarratu

ixertzue(b): izartsua

ixetu, ixitu: iziotu, biztu

ixi (b): itxi

ixo: 1. ixo, geratzeko esaten zaie piztiei. 2. txoriak uxatzeko erabiltzen da

jaboye: xaboia

jaboneu (l): xaboiztatu

jaboi sagarra (bu): sagar mota bat

jagi (l): jaiki

jangoikoa, jainkoa: jangoikoa, jainkoa

jaramon ein (l): jaramon egin

jaune (bu): jauna, hau gehien bat abadeari esateko erabiltzen izan da

jentie: jentea

jergoye: jergoia, koltxoiaren azpian ipintzen zena

jersie: jertsea

jilgeroa (bu), jilgerue: jelgeroa

jittanue (bu), jitanue (l), kittanue: ijitoa

jornala (bu): behar saria, soldata

jotie: jota

jubilau (l), jubileu: jublatu

juergie (bu): parranda

jugue: zukua

julio: garagarrila, uztaila

junio: bagila, ekaina

junteu (l): batu

juntie: batzarra

justo justo (l): ozta-ozta

ka (l): bai zera

kaballoa: 1. zaldia. 2. zaldia karta jokoan

kabesadie: kabezala; astoari buruan jartzen zaiona

kabidu (bu): kabitu

kabillie: kabila, teilatuko zurajeen egiten diren loturak iltzeak erabili beharrean kabilak erabiltzen dira

kaderie: 1. oina. 2. mokorra

kafie: kafea

kafe baltza: kafe beltza, kafe hutsa

kafesnie: kafesnea

kajerue: diruzaina, baserritarren sindikatokoari esaten zitzaion beren-beregi

kajie: kaxa, arka

kaka: kaka

kakoa(b): kakoa

kakoastie: kako kirtena

kalabasie (l): kalabaza

kalandrixie (l): larra txoria

kalboa: 1. ulduna, ilebako zatiari esaten zaio. 2. burusoila

kaldarakadie

kaldarie, kalderie: galdara, beheko suan laratzutik eskegita piztien jatekoak prestatzeko erabiltzen zena

kaldarakadie: galdarakada

kalderillie: galdaraila, berau galdara baino txikarragoa izaten zen

kalenturie: kalentura, sukarra

kallie: kalea

kaltie: kaltea

kalte iñ: kalte egin

kaltzairue: galtzairua, altzairua

kaltzetiñe: galtzerdia

kamarie: kamara, ganbara

kamie (bu): kama, gurrkama

kamiñoa

kamiñerue: kamineroa, bide jagoleak eta konpontzaileak

kamisie: kamisa, kamisoitzat andreek erabiltzen zuten barruko erropa

kanbidxau (bu), kanbixau (l): aldatu

kandelie: 1. kandela. 2. iterusako ur izoztua

kandela bedeinketue: kandela bedeinkatua; trumoiak denean kandela bedeinkatuak biztu egiten ziren trumoiari kontra egiteko

kandela negarra: kandela negarra

kandelerue: kandeleroa, kandelak ipintzekoa

kangrejue: karramarroa

kanikie: kanika

kanille: bernazurra, berna aldeko hezurra

kanpaye (bu): kanpaia

kanpie (bu): landa

kanpoa: kanpoa

kanpokoia (b)

kanpora martxo (bu): kanpora martxo

kanpostarra

kanposantue (l): kanposantua, ortusantua; larraskitu aldekoek elejabarrin eduki zuten kanposantua aspaldian

kantaria: neurri hau likidoetarako erabiltzen zen

kantarie, kanterie: harrobia

kantarillie: alkantarila, estolda

kantau: kantatu

kantaka, kanteka (l)

kantie: kanta

kantziño (l): kanta

kantidadie, kantidedie (bu): kantidadea

kantinplorie: kantinplora, esnea banatzeko ontziari esaten zaio

kantiñie: kantina, esne kantina, esnea banatzeko ontziari esaten zaio

kantoye (b): kantoia, kale-kantoia

kantzau, kantzeu: nekatu

kantzerra: biziena, minbizia

kapaixie, kapaxie (bu): kapatxa

kaparrie: kaparra; berba hau erderaz holantxe esaten dugu

kapeu (l): iraindu, zikiratu

kapoye (l): kapoia

karakola: karakola, barraskiloa

karameloa: karameloa, gozokia

karburue: karburua

karetie: karatula

kargie: zama

kargau (bu): zamat

karie: karea

karabidxe, karabixe: karabia

karatxa (bu): karatxa, kare-harria

karnabala: aratustea, ihauteria

karnabal egune: aratuste eguna

karniseridxe (bu): harategia

karniserue: harakina

karpintterue: arotza

karra in: karra egin, korrika egin

karraderan (bu): karraderan, karraka, korrika

karrajue: karrajua, beheko solairuko sarreran egoten denari esaten zaio

karraka (l)

karramarroa: 1. karramarroa. 2. karramarroa, lurra harrotzeko erabiltzen den burdinazko tresna

karraskillie (b): karraskila

karretie (b): karrete

karretillie (l): karretila, satsak ateratzeko erabiltzen dena

karroa: 1. karroa; arraio gurdia eta astoagaz erabiltzen dena. 2. izarren gurdi nagusia

karreterue (bu): karreteroa

karruskadie: zarata, haginakaz egiten den zaratari esaten zaio.

karta dxokoa: karta jokoa

kartoiskoa

kartola: kartola; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

kartzela (bu, l): kartzela

karue (l): garestia

kasarixe (l), kasadorie (bu): ihiztaria

kasik: ia

kaskarie: 1. eskola. 2. (b) azala

kaskue (bu): apatxa

kastilloa (l): gaztelua

kasue: kazua

kasu beterako: kasu baterako

kasuelie: kazola

katapasa: kapataza

katarroa: katarroa

katesismoa, katesismue: katekima

katie: katea

kate saratie: kate zarata; basoan ibiliz gero gauez batzuetan kate zaratak entzuten ei ziren begoñan.

katillue: katilua, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

katue: katua

katuarra: katuarra

katukumie: katakumea

katumixerra (bu): katamixarra

katxarroa: tresna, trapazeria

keba (bu): bai zera

kebrantatxurre (l): larratxurra, arratxurra; basoan behar egiteko erabiltzen dena

kejau (l): kexatu

kendu: kendu

kereixie (bu), kerixie, keixie: geriza, gerezia

keye, kie: kea

keartie, kiartie: keartea

kikillik

kikilyu: kikildu

killoa: kiloa

killometroa (bu): kilometroa

kimie: kima; erdaraz ere berdin erabiltzen dugu berba hau

kinpullie, kunpillie, kunpullie: kipula

kunpilla gorridxe: kinpula gorria

kiñie (b): hegabera

kirikiñoa, kirikixo (l): kirikioa, gaztainen gaineko arantzadun eskola

kirikiñolatza: kirikinolatza

kirrue: kirrua

kirtena (bu): kirtena

kiskeldu: kizkaldu

kiskillie (bu): kiskailua

klaro: jakina

klaudia: okaran mota bat

klaudia reina: okaran mota bat

klaudiokarana (b): okaran mota bat

kobrau, kobreu (l): kobratu

kodañie, godañie(b), guadañie (bu): kodaina

koipie: koipea

koittedue (bu), koitedue (l): gixajoa, koitadua

koittedie: koitadua (f); berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

kojoa (b), koxoa: herrena

kokoloa: kokoloa

kokota: kokota, idunaren atzeko alderdia

kolkoa (bu): kolkoa; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

kollarie: goilara

kolokau (bu): ezarri

koltxie: koltxa

koltxoye: koltxoia

komedorie: jangela, jantokia

komenidu: komeni izan

komune, komunie: komuna

komuniñoa: jaun hartzea

kondenau: kondenatu

konejue (bu): konejua, untxia

konfesau: aitortu

konformau: konformatu

konforme egon (bu): ados egon, bat etorri

konfundidu (bu): okertu

koniflorie, koliflora: azalore

konpleto (bu.): guztiz

konpondu (bu, l): konpondu

konserbau (bu), kontzerbau: kontserbatu

kontaminasiñoa: kutsadura

kontau (l): kontatu

kontestau, kontesteu (b): erantzun

kontra: kontra

kontrakoa (bu)

kontu euki: kontu eduki

kontuen dxausi (bu) kontuen jausi (l): konturatu

konture: kontura

kontus: kontuz

konturetu: konturatu

koñatie, kuñetie: koinata

koñatue, koñetue, kuñatue , kuñetue: koinatua

koperatibie: kooperatiba

kopie: kopa karta jokoan

koplie: kopla

kordela: kordela, zapata-kordela

kordiona: soinua

korpus egune (l): gorpuztia

korrientie: elektrizitatea

korrientedune

korroblie: teilatua amaitzean ipintzen den errama

korru: korrua, dantzarako korrua

kortie: gorta

kortiñie: gortina

kortxoa: kortxoa

kosetxie: uzta

koskittu (bu): kauskitu

koskola (bu): koskola, oskola

koskorra (bu): informala, ganorabakoa

koskorroya: koskorroia, buruan hartzen den kolpea

kostau (bu): kostatu

kostipedue: kostipadua, mantarra

kotxoa: kotxoa

koxi, koxu (l), koyu(b), kosi (bu), koji (l, b): koiu, hartu

kresientie (l): ilgora

krestie: gangarra

kridxadie, kridxedie, krixedie (l): neskamea

kridxedue, kridxaue, krixedue (l): morroia

krima (bu): kima

kristela: 1. leiharra. 2. ur izoztua, potxingoetako ur izoztua

kristelak eñ: kristalak egin, ur potxingoetan ura izoztea

krutzie, kurtzie: gurutzea

kuadrillie: lagun taldea

kuartillue: kuartiloa, litro erdia

kuartillu erdidxe: kuartilo erdia, litro laurena

kuartue: logela

kuike: kuika, ostu-ostuka

kukaratxie: labezomorroa

kuku sagarra: kuku sagarra

kukue: kukua

kukurrukue (bu): kukurrukua

kuletroa: kuletroa; perretxiko mota bat

kuntzurrune: kuntzurruna, guntzurruna

kurau (bu), kureu (l): 1. osatu. 2. kuratu

kurra: kurra, oiloei deitzeko erabiltzen da

kurtzeu (l): gurutzatu

kurubidxo (bu): urubioa

kuskurre: 1. kuzkurra, ezkurra. 2. kuskurra, ogiaren muturreko zatia, erdaraz ere erabiltzen da

kutxilloa, kutxillue: ganibeta

kutxillo madaridxe: madari mota bat

kuxie: kuxa, ohearen mutur biak burukoa zein oin aldekoa

labaderue: ikuztokia

labana: labana, bizarra egitekoari esaten zaio gehienetan

labandu (bu): labandu, laban egin

labie: labea

labasue: labasua

labasume (b): labasua

labigerra: irin igerra, labetik pasatzen den irina da

labreu: landu

labrantzie (l): baserria, nekazal etxea

labrantza etzie (l): baserria, nekazal etxea

laburre: laburra

lagartijie: sugelandarea

lagartoa (bu): muskerra

lagune: laguna

lagundu: lagundu

laidxie, laixie, leixe (l): laia

laidxatu, laixatu (l), laidxetu (bu), laixetu (l), laixeu (l), ladxatu: laiatu

laidxetan eiñ: laietan egin

lamiñie: lamina; otxarkoagako elizaren azpian dagoen errekan agertzen ei zitzaien lamina bertara erropak garbitzen joaten ziren andreei

lanbruxe (bu): gurma, lanbroa

landarie: landara

landie: landa

landu (b): landu

langoa: langoa, bezalakoa

lanie: artilea

lankie: lanka, zizilua, jarleku luzenga

lanparra: lanparra, lanbroa

lantzien: lantzean, noizean behin, noizbehinka

lantzenbeñ (b), lantzinbein: lantzean behin, noizean behin

lañoa: hodeia

lañaberie (bu): lainoa, lainobehera

laño astune: laino montorra

lañoartie: lainoartea

lañotzue (bu)

lapikoa: lapikoa

lapikokoa: lapikokoa, eltzekaria

lapurre: lapurra

lar: lar

laranjie: laranja

laratzue: laratzua, deustun erdaraz "larachu" esaten diote

larra: solo burua, soloaren goiko aldea

larridxe: larria; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu: estar larri

larritxasune: larritasuna

larrosie: larrosa

lasiartuna (bu): ganaduaren gaixoa

laster: laster, berehala

lastimie: tamala

lastoa: lastoa

lastategidxe, lastegidxe: lastategia, lastegia

lastamarra: lastamarra, lasto zapaz egiten zen koltxoia

latie: 1. lata, soloa ixteko erabiltzen da. 2. lata, teilatuko zura

latza: latza

latziñe: labrabako soloa, lantzarra

lau uretara: lau uretarako teilatua

laukoa: laukoa, pezeta

laurena: laurena

lebadurie: legamea

lebatza: lebatza

ledxe(b), laidxe (bu), ladxe (bu) leixe (l): lehia, izotza

lei baltza: lei beltza; lurra gogortzen duen leia edo izotza, ikusten den lei zuria baino txarragoa izaten da

lei suridxe: lei zuria

leittu: leitu

leges: legez

legidu (b), leidu: irakurri

leidxo: teilatuko leiho txikarra; berriak direnei “bentanie” esaten zaie

leixarra, lexarra: leizarra

leixidxe: leixiba

lejixe : lixiba

lekue: lekua

lekuretu: lekuratu

lengoko komuniñoa: lehen jaun hartzea

leloa: leloa

len: lehen

lengo aldidxen, lengo aldixen (l): lehengo aldian

lengoan: lehengoan

lengunien: lehengo egunean

lengosue, lengusue, lenkosue, lenkusue: lehengusua

lengusiñe, lengusiñie, lenko-siñie, lenkusiñie: lehengusina

lepoa: sorbalda, lepoa

lepoko asurre: lepoko hezurra

lepos: lepoz

letxerue: esneketaria

letxerie: esneketaria

letxugie (l): letxuga

letxuga errepolluek: letxuga errepoiloak

letxuga landarie: letxuga landarea

librie: libra

liberdidxe: libra erdia

limonadie: limonada

limosnie: limosna

limoye: limoia

linoa, liñoa: lihoa

listerue: listeroa; ganadu ermandadean listeroa kontuak eta ganadu-buruen kontaduria egiten zituena zen

listoa (bu): azkarra

listie: azkarra (f)

listoye: listoia, teilatuan teilaren azpian ipintzen diren egur fin luzengak

litroa: litroa

llantie: txirrinketako burdinezko uzaia

llobie, lobie: 1. loba, aitaita-amamakaz erlazionatua. 2. loba, izeko-osabakaz erlazionatua

lo: lo

lo iñ: lo egin

lo ostie: lo ostea, lo haserrea; lo egin eta osteko haserrea

logurie: logurea

lokartu (bu): loak hartu

loboa: otsoa

lodidxe, lodixe: lodia

lodittu (bu), loditu (l): loditu

lodxe: lohia

loittu: lohitu

loka: loka

lokatu: lokatu

londigie: alondiga

lopie: lopea, buzkantzarik lodiena

lorie: lorea

losie: haurlauza, lauza

lotu: lotu, gelditu, geratu

lotzie: lotsa

lotzabako (l)

lotzatu: lotsatu

luki bustena: luki buztana, azeri buztana

lukidxe, lukixe: lukia, azeria

lumie: luma

lumetu (b, bu): lumatu

lumetzue

lupetzie (bu): lupetza, lokatza

lupue: lupua

lurre: lurra

lur mamarroak (bu): lur mamarroa

lurre arrotu: lurra harrotu

lusie: luzea

lusero (l)

lusetu (l): luzatu

lustrie: betuna, lustrea; berba hau erdaraz zein euskaraz erabiltzen izan dugu betuna adierazteko

lutue (bu): lutua

lutudun (bu)

madaridxe: madaria

madaripie

madariketue (bu): madarikatua

madxe, maidxe, maixe: mahaia

maestrie, maistrie: maistra

maguridxo: magurioa; berba hau erdaraz holantxe erabiltzen dugu.

maixatza (l), mayatza (l), mayetza (b): maiatza

maixue: maisua

majo: ederto

majie: polita, jatorra (f)

majoa: polita, jatorra

makala: makala, gaixoa

makalik

makalloa, makillaoa: makailoa

makarroye: makarroia

makerie: makera, berba hau erdaraz esangura txarreko deikari gisa erabiltzen dugu, urdanga edo emagaldua adierazteko

maketie: erdalduna

makiña bat, makiñe bat: makina bat

makiñie: makina, goldea

makiñatu (l), makiñetu: makinatu

makiñe txikerra: makina txikarra, golde txikarra

makurtu: makurtu

mallue: mailua

mallukidxe: mailukia

mama: ura

mamarroa: mamarroa

manantiala: iturburua

mandulidxe: madaulia

mankue: besamotza

mantarra: mantarra; belar freskoa batzeko zakuz egineko mantarra

mantela: 1. zamaua. 2. zamaua, elizako sepulturan ipintzen zena

mantelpie

mantie: manta

mantako umie: oihaletako umea

mantillie: mantila

mantxeu(b): lohitu, zikindu

mantzanillie (bu): mantzanila, kamamila

maordomoa, mayordomue (bu): maiordomoa; ganadu-ermandadearen burua

marea biera (bu): marea behera

marea gora (bu): marea gora

mareu (l): zorabiatu

marigorringo (bu): marigorringo

mariposie: txirpilota

markau (bu): markatu

marro: marro; elkar harrapatzeko jokia

marroye: marroia

martidxe (bu, b), martixe (l): martia, martxo

martitzena (bu), martzena (bu), martitxena (l): martitzena, asteartea

martxau (l): joan

maskillue: maskilua, almaiza

masoa (bu), masie (bu): mazoa, mokilak hausteko erabiltzen den mazoa

masu porra (l): mazo porra, mokilak hautseko erabiltzen den mazoa

mastikeu (b): mamurtu

masustie (bu): masusta

matadero: hiltegia; hiltegia lehen matikon egon zen gero zorrotzan

matarifie: txerri hiltzailea

matasie: mataza, maluta

matrakie

matrakaldidxe (bu): matrakaldia, zalapartaldia

matrallie, matrillie: matraila, hezurra ez eze arpegiaren alderdi osoa ere bada

matrallagiñe, matrillagiñe: matrail-hagina, albo-hagina

matxerra (b): arto txikia

matxoa (b): mandoa

matxorra: behiarra

matza: mahatsa

mas baltza: mahats beltza

mas gorridxe (bu): mahats gorria

mas suridxe (bu): mahats zuria

maspasa: mahats pasa

maspastu (l): mahaspastu

mastidxe: mahastia

maulidxo (bu): miao

maulidxoka (bu)

medikue: medikua, osagilea

medilena: medelina; bizitza biko etxeetan teiltuan bizitza bakoitzeko eremua seinalatzen duen lerroa

melokotoye, milikotie (l): milikota

memorixen euki: gogotan eduki

mendatu (bu), mendau(b): mendatu

mendidxe, mendixe: mendia

mendi tontorra (bu): mendi tontorra

merixendie: merienda

meridxendau: merienda jan

merkie: merkea

mesedie: mesedea

mesedes: mesedez

mesie: meza

metie: meta

metatu: metatu

metillie: meta txikarra

metroa: metroa

metxerue: metxeroa

meye (I), mie (bu): mehea

miau: miau

miauke

mikie: mika

mimena: mimena

mingotza: mingotsa

mingostu: mingostu

mintze: mintza, arrautzaren oskol azpikoari esaten zaio

miñe: 1. mihia. 2. mina

minfirue (bu): mihi-firua; oiloei mihiaren azpian egiten zaien gaixoa

mingorra (I): mingarria

mingortu (bu): mingortu, minberatu

minpekoa: mihinpekoa, mihiaren azpiko mintza

mirue (bu): mirua

misiñoa: misinoa

misperue (bu), mispedo (I): mizperrua

mistoa: mistoa, pospoloa; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

mobidu (bu), mogidu: mugitu

moduen: moduan

moduko: moduko

mojojoye: mojojoia; erdaraz "mojojon" esaten dugu

mojoye (bu): munarria

mokille: mokila

mokil porrie (bu): mokil oskia, mokilak hautseko erabiltzen den mazoa

mokil uskidxe: mokil oskia, mokilak hautseko erabiltzen den mazoa

mokillek dxo: mokilak jo

mokoa: mokoa, mukia

mokoak atara(b): mukiak atera

momentue (bu): mementua, unea

montoye: piloa

monyorradie: buzkentza saltsa, saltsagarriak; buzkantzak egiteko berduraz prestatzen dena

moñoa: moinoa

mora: masusta

moraue (l): moratua

morda: morda

morenoa: beltzarana

morokille: morokila; berba hau erdaraz berdin erabiltzen dugu

moropille (bu): korapiloa, troinua

morroskoa (l): morroskoa

morroye: morroia, kriadua

mortzillie, murtzillie: buzkantza

moskorra

moskortu: mozkortu

mosolloa (l), mosoloa (l): mozoloa

mostoa: mostoa

mostu (bu): moztu, amoztu

mosue: mosua

mosu emon: mosua eman

moteldu: moteldu

motza: motza, itsusia

mudeu (l): 1. erropak aldatu. 2. kolorea galdu

muellie (b): koltxoia

muelleskoa

mugarridxe (bu): mugarria

mukurre: mukurra, enbor zatia

muloa (bu): mandoa

multie (b): isuna

munie: muna

mune bedarra: muna belarra, munetan egiten den belarra

muñekie: andrakila, panpina

musie: musa

musikie: musika

musika bandie: musika banda

musille (bu): 1. muskila. 2. maskilua, almaiza

muskerra: muskerra

musturre: muturra

mutille: mutila

mutikoa, mutilkoa: mutikoa

mutil lagune (bu): mutil laguna, mutil laguna lagun taldekidee buruz esaten zen, ez "nobio" edo gizongaia adierazteko

mutilsarra: mutilzaharra

mutue: mutua

naboa: arbia

naboburue: arbi burua

nabolorie (bu): arbigara

naborridxe (bu): arbi orria

nagosidxe, nagusidxe (bu), nausi (b): nagusia

naiko, naikora (bu), neiko (b): nahiko.

naranjie: laranja

narra: narra, estoa

narrue: narrua, larrua

narruskoa

nasai (bu): nasaia, lasua

nastau, nasteu, nastittu (bu), nastitu (l): nahastu

natibittate egune: natibitate eguna

natie: bitsa, kipurra, esne-gaina

naturie (bu): alua, potxola, behiena

naurridxe: neurria

naurtu: neurtu

nebie: neba

nebaordie: nebaordea

nebarrebak: nebarrebak

negarra: negarra eta negar anpuluak ere bai

negar iñ, negar ein, negar eiñ: negar egin

negar pulue: negar anpulua, negarra, malkoa

negargarridxe (bu)

negarres: negarrez

negue: negua

nekes: nekez

nerbixoa: zaina

neskie: neska

neska lagune (bu): neska laguna; berba hau, aurrekoaren antzean, lagun taldearen neskak izendatzeko erabiltzen zen, ez “nobia” edo andregaia adierazteko

neskasarra: neskazarra

neskatillie: neskatila

neskatoa: neskatoa

nietoa: iloba

nietie: iloba

nobenie: nobena

nobidxo: senargaia

nobidxie: andregaia

nobienbrie: zemendia, azaroa

nortie: ipar haizea

nortiaixie (bu): ipar haizea

nosepiñien, nosipein (l), nosipin, nosipiñ (bu), nospen: noizean behin

obie

obeto

obilloa (bu): obiloa, mataza

obrie: beharleku, obra

odeidxe (bu): trumoia

odei baltza: hedoi beltza, hedoi montorra

odola: odola

odolbatue: odolbatua

odolestie, odolostie: odolostea, hau heste mehez egiten dena da

ofresidu (bu): opetsi, opaldu, eskeini

ogerlekoa, ogorlokoa: hogerlekoa

ogetamaikie: hogetahamaika musean

ogidxe, ogixe: ogia

ogi kuskurre: ogi kuzkurra

ogi mamiñe: ogi mamina

ogimamiñe: ogi mamina

ogigastaye: ogigaztaia

oiñ, oin, un: orain

untxe (b): oraintxe

oiñaspixe: oinazpia, oinaren azpiko aldea

ojala (l): uxela

okarana, okerana (l, bu), okaana, okana (b): okarana

okelie: okela

okerra: okerra, bihurria

okertu: okertu

okille: okila

okotza: okotza, kokotza

ola: ohola

olesko (l)

olatie: olata meza

olgau, olgeu (l): olgatu, jolastu

ollagorra: oilagorra

olline: gedarra; olline hautsari esaten zaio eta kedarrie tximiniaren barruan lotzen diren zati osoei

olloa: oiloa

ollandie: oilanda

ollarra: oilarra

ollaskoa: oilaskoa

ollo gorridxe: oilo gorria, oilo mota bat

ollo lokie (bu): oilo loka

ollo lumie (bu): oilo lumea

ollo saldie: oilo-salda, ekandua izaten zen ume egin barriko amari oilo salda ematea umea eduki eta ostean; bujan kontatzen denez, oilo zaharra auzokoen oparia izaten zen, andreari salda ematen zitzaion eta gizonak mamiak jaten zituen

ollo suridxe (bu): oilo zuria, oilo mota bat

ollotegidxe (bu), ollotokidxe (bu): oilotegia

oloa: oloa

ona: ona

ondakiñie: hondakina; berba hau erdaraz “ondakines” esaten dugu

ondarra: hondarra; erdaraz “ondarres” erabiltzen dugu

ondatu: hondatu

ondiño, ondio, onyo (bu): oraindino, oraindik

ondiñokarren, ondikarren, onikarren (b): oraindinokarren, oraindino, oraindik

ondo: ondo

ondo esan (bu): ondo esan

ondoan (bu): ondoan

ontzie: ontza, balio handiko gauzak pisatzeko neurri hau erabiltzen zen

oñes: oinez; oina bera adierazteko kadera erabiltzen den arren “oinez” beti erabiltzen da

oñetakoak: oinetakoak

oñesittue, oñitzittue: ineztua, tximista

operau (l): ebakuntza egin

orandilla (l): orandila, madari mota bat

oratu: oratu

orbela (bu): orbela

ordes: ordez

orditu: orditu, guztiz mozkortu

ordue: ordua

ordu bata: ordu bata

ordu bidxek: ordu biak

orduen, ordun: orduan

oridxo: orioa

oridxo asie: orio aza

oridxo errie: orio errea

orkatillie: orkatila, txorkatila

orkoloa: orkoloa, erkoroa, erpurua, atzamar lodienaren izena.

ormie: horma

orpoa: orpoa

orrastu: orraztu

orratza, orrotza (b): orratza

orrenbeste: horrenbeste

orridxe, orrixe: orria

orroa (b): orroa

orroaka (bu)

ortosik

ortue: ortua

ortu santue (bu): ortusantua, kanposantua. Bujakoek ortusantua arrigorriagan daukate; Begoñakoek, berriz, Begoñan bertan, Mallonakoa beti izan ei da Bilbokoa

ortza: hortza; berba hau erreminteen hortzak adierazteko baino ez da erabiltzen

orugie: oruga

osabie: osaba

osalie (bu): osala, ganaduentzako jatekoa

osasune: osasuna

osatu: osatu

osoa (b): 1. osoa. 2. **(bu):** hartza

osoan: osorik

osokoa (bu)

oso-osoan: oso-osoan

ospala (bu): ezpala, zozpela

ostendu (b), ostondu (bu, l): ostondu, izkutatu

ostien (bu), osteixen (l): ostein

ostikadie (bu) ostikadie: ostikada

ostu: ostu, lapurretan egin

otie: 1. otea. 2. oiloek lo egiten duten armadizoaren izena

otagarratza (b): otagarratza, otabarra, oterik handiena

otartie: otartea

otubrie: urria

otza: hotza

otzakille: hotzakila, hozpera

otzikerie: hotzikara

otzittu (bu), otzitu (b): hotzitu, hoztu

otzarie: otzara

otzasarana (b): zaran mota bat

otzoa (l): hartza

oye: ohea

pagau (l), pageu: pagatu, ordaindu

pagoa: pagoa

paixie: paxa, ume txikarrei janzten zaiena izaten da. paxan kutuna ipintzen ei zitzaien

palasixo (l): jauregia

palatue: palatua, soroak bereizteko egiten den karkaba antzekoa

palie: pareia

palomie: usoa

palue: makila

pamitxie: pamitxea, ogi mota bat

panaderidxie, panaderidxe (bu), panaderie (l): okindegia

panaderue: oikina

panaderie: oikina

panderetie: panderoa

pañolue, pañuelue: zapia, berba hau orokorrean erabiltzen da

papadie: okozpea, okotzaren azpiko aldea

paparra: paparra, bularraren aldeari esaten zaio

papue: papua, arpegiaren albo bakoitza

parajie: ingurua

parau, pareu: paratu

pardilloa: pardiloa

parie (bu): 1. pare. 2. pare karta jokoan

parientie: familiartekoa, senidea

parkatu: barkatu

parrie: parra

parrillie: parrila

parrokoa: erretorea

parrokixe (l), parrokidxie: parrokia

parrokidxes ixen: parrokiak izan

partidie: partida, piloa, mordoa

partidue: partidu

partie (bu): zatia

partikie, partikoa (b), partikue(b): partika, gurkamatik irteten duen erdiko makila buztartu ahal izateko

pasadorie: kisketa

pasau, paseu: pasatu

pasie: pasea

pasko egune, paskua egune: pazko eguna

pasteleridxe (bu): pasteldegia

pastorie: artzaina

pasue: pausoa, trangua

patatie: patata

patata asidxe: patata hazia

patata orrixe (l): patata orria

patata saku (l): patatazorroa

patoa: ahatea

pegau: erantsi, itsatsi

pekatue: bekatua

peligresie: eliztarra

pelotie

pelotaridxe: pelotaria

pena emon (l): pena eman

pentzau, pentzeu(b): 1. pentsatu. 2. iruditu, eman

pentzue(b), prentzue: pentsua

perejille, perrejille: perrexila

pernille: pernila, urdaiazpikoa

perretxikoa: perretxikoa, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu zizak orohar izendatzeko.

perrie (l): txakur txikarra

perra aundixe: txakur handia

perra txikerra: txakur txikarra

persebie: lanperna

pertzonie (bu), personie (l): pertsona

pesetie (bu): pezeta

peskaue, peskie: arraina

pestañie: betilea, betazaletakoak izaten dira

petrala: petrala, buztanpean astoari jartzen zaion uhela

pikau (bu), pikeu (l): pikatu

pikadurie: ziztada

pika malluek, pikumalluek (b): pika mailuak; kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailua eta jungada

piketako porrie (bu): pikatzeko mailua

piketakoak: pika mailuak

pikie(b): mailua; kodaina pikatzekoa

pikoa: pikotxa

pikorra: hazkurea

pikue: mokoia

pilloa: piloa, mordoa

pimentoye: pimentoia, piper gorria

pintxeu (l): pintxatu

pintxoia (l): arantza

piñue: pinua

piñie (l): pinaburua

piñudidxe, piñudixe: pinudia

pioa: txioa

piperra: piparra

piper gorrixe (l): pipar gorria

piper simenterie: pipar mintegia

piper susterrak: piper sustraiak

piper txoriseru: pipar txorizerua

pipille (bu): pipila

pistidxe (bu): piztia

pistie: pista; pistak kentzeko mantzanila urez garbitzen ziren begiak

pisue: 1. pisua. 2. etxea, solairua, baserri etxeak ez direnak

piti bet: apur bat

pitikiñe: pitikina, mahats ondakinez egiten den edaria

pitxartxarra: pitxartxarra

plantau: 1. plantatu, paratu. 2. landatu

plasie: 1. plaza. 2. merkatua

platera: platera

platerkadie: platerkada

playie: hondartza

plegeu (l): tolestu

plin-plon: mokilak jotzeko zarata

pobrie (l): pobrea, txiroa

podie: inausketa

podau: inausi

polillie (l): sitsa

polite, politte, politxe: polita

polito, politto

poltza: boltsikoa, boltsa

popota: autoa, erdaraz “popo” esaten da

porrie (bu): porra

porroye: porroia

porrue: porrua

porru asixe (l): porru hazia

porrusaldie: porrusalda, berba hau erdaraz berdin erabiltzen dugu

portalie: ataria

posa

posik

postu (l): poztu

posoa: 1. patina zein osina. 2. ur potxingoa

postie: poiala, etxearen zutaberi garrantzitsuena, egurrezkoa

posturie: postura

potijue, botijue (b): potixa

potroa: 1. ehuntegia. 2. potroa

preguntie

preguntau, pregunteu (b, l): itaundu

premidxoa: saria

prensie: pentsa

prentzau: prentsatu

preparau: prestatu

presentau, presente (l): aurkeztu, agertu

presidentie: presidentea

presie: uharka

preso kosi (bu): preso hartu

prest (l): prest

prest egon: prest egon

pretau (l): 1. prestatu

prijidu: prijidu

primie: lehengusina

primoa: lehengusua

probalekue (bu): probalekua

proibidu (bu): galarazo, debekatu

prosesiñoa: prozesioa

protestau: protestatu

pulmoye: birika, biria

pulmonidxie: ganaduaren gaixoa

pulpie: ganaduarentzat egiten den jatekoa

punbala in: jausi; punba ere esaten da; azken hau euskaraz zein erdaraz erabiltzen dugu

puntie: punta

puntue: puntua

pupu: min, erdaraz ere erabiltzen dugu

purgatoridxo: purgatorioa

putze (b): putza

putzein, putzin (l): putz egin

puxikie: puxika

radidxo, radixo: 1. irratia. 2. gurdi arraioa

rapa-rapa: arin ibili

sabaidxe: ganbara; sabaia etxeko ganbarari esate zaio, goia erdal “techo” adierazteko erabiltzen da

sabala: zabala

sabaldu: zabaldu

sabalik

sabal-sabalik (bu)

saborra: zaborra

sadxe, saidxe (b), seidxe (bu): 1. zahia. 2. saia3. buruko zahaia, gehienetan “buruko saidxe” esaten da, beharbada gari saidxe delakotik bereizteko

sai sabala (b): zahi zabala

sadxeskidxe, saiskidxe: saiheskia

sagarra: sagarra

sagar arbola: sagar arbola

sagardaua, sagardoa: sagardoa

sagarpie

sagarsuloa: sagarzuloa

sagidxe: zahagia, ardoa gordetzekoa

sague: sagua

saguitzue: satitsua

sagusarra: saguzaharra

sakatu: sakatu

sakona: sakona

sakondur (l): sakondur

sakue: zakua

sakutie (bu): ganaduaren gaixoa

salbeu (l): salbatu

saldidxe: zaldia

saldie: salda

saldatzu (l)

saldu: saldu

salidie: olata-meza; hiletan osteko mezak izaten dira

salie: egongela

sallie: saila, arloa, alorra

salmuerie: salmuera

saltamatxinoa, saltamatxiñe (bu), saltaridxe (bu): saltamatxinoa

saltue: saltua, jauzia

saltzie: saltsa

saltza berdie: saltsa berdea

saltza gorridxe: saltsa gorria

saltza perretxiko (l): saltsa perretxikoa, perretxiko mota bat

samie: sama

sama pañolue: sama zapia, iduneko zapia

samaosteidxe: samaostea, kokota adierazteko ere erabiltzen da

san jose lora (l): san jose lora

san juan aratxa san juan aretxa (b): leizarra

san pedro madaridxe: madari mota bat

san roke egune: san roke eguna

sana: zaina

sanbedarra (bu, b): zainbelarra

sanjie: karkaba

sanjuan madaridxe: madari mota bat

sanjuanadie: sanjuanada

sano: sano, oso

santa maiñako aldie: santa marinako aldea

santa maiñeko axie: ipar haizea

santageda besperie: santa ageda bezpera

santigatue, santigitue, santiritue, santiretue: zantiratu

santue: santua

santie: santua

santzoa: zantzoa, algara

sapaburue (bu): zapaburua; erdaraz "zapaburu" esaten dugu

sapaldu: zapaldu

saparradie: zaparrada

sapatie: 1. zapata. 2. teilatuan ipintzen diren egurrak

sapatue: zapatua, larunbata

sapie: 1. zapa. 2. (b) zapa, frontera

sapoa: zapoa

sarama: zaborra; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

sarana: zarana, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

saran nausidxe(b): zaran nagusia

sarankitoa: zaran txikarra

saratie, sagatie: zarata

sarataka (l), sagataka

sardie(b): sarda; berba hau erdaraz ere holantxe erabiltzen dugu

sardiñie: sardina

saretza, saretxa: saratsa

sargoridxe (bu): sargoria

sarra: zaharra

sarrantxie (bu): txarrantxa

sarratu: zarratu, itxi

sarri: sarri

sarritten: sarritan

sartena, sartañe: zartagina

sartenekoa: zartenekoa, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

sartu: sartu

sasidxe, sasixe: sasia

sasiartie: sasiartea

saskela: lohia

sasoye (l, bu): sasoia

saspitterdidxe: zazpi eta erdia, karta joko baten izena

satidxe, satixe: zatia

satittu (bu): zatitu

satorra: satorra

satordxo: sator joa

satorsuloa: sator zuloa

satza: satsa

satziertie: satsartea

satz iñ (bu)

saukue: saukua

sayetza: saihetsa

sebadie: garagarra

segidu: segitu

segiduen: segituan

segun: segun

segun trasie: antza denez, dirudienez

seguru: ziur

sejie: bekaina

sekena (b): mendekatzailea

sekorra: zekorra, txekorra, zezena

sekule: sekula, egundo

sekule bedarra: sekula belarra

selaixde, selaixe (l), seleixe (l): zelaia, laua

selebrau: ospatu

selebrie: zelebrea, txantxosoa

selemiñe (bu): zelemina, zekaleak pisatzeko erabiltzen zen neurria

seloak artu (l): zeloak hartu

sementoa: zimendua, porlana

semie: semea

semealabak: seme-alabak

senserradie: zentzerrada, ezkon zentzerrada; agureren bat askoz gazteago batekin ezkonduz gero egiten zena

senteille (b): zentaila

sentidu: 1. sentitu, igarri, nabaritu. 2. behiei buruz esaten da txahala egiteko momentuan sentiduta dagozela, hots, behingoan edukiko dutela

sentidute egon (bu): behia txala egiteko unean egon

sentzillue: apala, arrunta, xume

señie: seina, familiaren seme-alabetan gazteena

separau (bu): banandu

serbeserie: garagardotegia

serbidu (bu): zerbitu

serbitzue: zerbitzua, soldaduska

sermoye: sermoia

serratu: zarratu

serratue: zarratua, itxia

serue: zerua

seru argidxe: zeru argia

sesiñe: zezina, gazituko okela izaten da, gehienetan behikia

sestoa: otzara, zarana

sestañie (bu): asto otzara

sesterue: otzara egilea

sestillie(b): otzara

setie: perretxikoa

seterue: perretxikozalea

setienbrie: iraila

siderixe (l): sideria, sagar mota bat

sie (bu): zihia; leku hezeetako landarea

sientoa: zientoa, ehun, landareakaz erabiltzen den neurria

siento erdidxe: ziento erdia

siento laurena: ziento laurena

siestie: bazkalostekoa

sikera: sikera, gutxienez

sikeras: sikan

sikue: siku

siketie: sikate

siketu: sikatu, lehortu

sille: zila, tripeko zila

sillie: sila, aulkia

simenterie (I): mintegia

sindikatoa (bu): sindikatoa, baserritarren sindikatoa

sintxie: neurri kordela, aharra kordela

sintxoa: zinturoia

sintz eñ (bu): zintz egin

siñestu: sinestu

siñestasune: sinestasuna, fedea

siporrak: zihi moltzoak

siraune: zirauna

siri miridxe: ziri-miria; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

sitze (b): 1. sitsa. 2. zihia

siur: ziur

so: ixo, geratzeko esaten zaie

soidxe, sodxe, soixe (I): zohia, lurra itzulikeran ateratzen den zatia

sokie

soka dxokoan: soka dantza, soka jokoa

sokorrue: sokorrua, grilistua, aldarria

soldadue: soldadua

soldadiskie (bu): soldaduska

soldadutzie (bu): soldadutza

soli (bu): zoli, heldu, umotu

solirik

solibie: soliba, teilatuko zurajearen zati bat

soloa: soroa

solo barrena: soro barrena

solo burue: soro burua

solo godxena: soro goiena

solomoa: solomoa

soltau (l), solteu: soltatu, askatu

solte: solte, aske

solterue (l): ezkongea

soñue: soinua

soñu dxo: soinua jo

soñularidxe (bu): soinularia

sopie: zopa

sopak eiñ: zopak egin

sorgiñe: sorgina

sorginkeridxe: sorginkeria

sorkidxe: sorkia, suteko trapua eta zamak buruan garraiatzeko biribiletara ipintzen zena. erdaraz suteko trapuari "sorki" esaten diogu.

soroa: zoroa

soratu (bu), sorotu(b): zoratu

sorridxe(b): zorria

sorrsto (l)

sorroa: zorroa

sorrostu: zorroztu

sorrostarridxe: zorroztarria

sorue: zorua, zapata-zorua

sosixo (l): elkarkidea

sosiedadie (bu): elkartea

sosoa: zozoa

sospela (b): zozpela, ezpala

sotie: txanka

sotza: zotza

subidxe, subixe (l): zubia

subipie (bu)

subie, sugie: sugea

subilandie (bu), sigulindarie(b), sugalindie (l), subilandarie: sugelandara

subipie (bu): zubipea, zubiaren azpiko aldea

sue, sube: sua

sue artu: sua hartu

sue bajue: beheko sua

sue in (l): sua egin

sutondoa: sutondoa

surtie: sutea, sua

suegroa: aitagarreba

suegrie: amagarreba

sueldue (bu): soldata

suetie, suetie: suetea, eskatza, sukaldea

sufridu: sufritu, jasan

suloa: zuloa

sulotu (l): zulatu

suñe, suiñe: suhina

suridxe, surixe: zuria

suringoa: zuringoa, arrautza-zuringoa

surittu: 1. zuritu, azala kendu. 2. elurrak zuritu behe

surkue (bu): ildo

surre: 1. surra, sudurra. 2. zuhurra

surpie: surpea, surraren azpiko aldeari esaten zaio

sursuloa: surtzuloa, surtziloa

surrune (b): 1. zurruna. 2. zurruna, lo egikeran arnasa hartuz egiten den zarata

surrutadie: zurrutada

susera: susara

susixe : zuzia

suspendidu: suspenditu

sustau (bu): ikaratu

susterra: sustraia

sutundu: zutundu

sutunik (l), sutunik

tabernie: taberna

tabie: taba

taketa: taketa

takoya: takoia, zapata-takoia

tallerra (bu): tailerra

taloa: taloa, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

talaburriñie, talaburdiñie: talaburdina, taloak egiteko erabiltzen zen burdinezko tresna

tamañue: tamaina

tanboliñie: danbolina

tanborra: danborra

tangadie (bu): tangada, tanta

tankie: tanka, metalezko basua; erdaraz ere "tanke" esaten diogu.

tapie: tapa, estalkia

tapau (l), tapeu (l): tapatu

taponau: taponatu

tardau (bu): belutu, berandutu

tarras: narraz, tarraz

tarterie: tartera, palasa

tasau, taseu: tasatu

tasadorie: tasadorea

tas-tas: jo

taukela (bu): taukela, taukia, egurra txikartzeko erabiltzen den enborra

tegidxe (bu): txerrikorta

tejabanie: tejabana, etxeari dautsola egoten da

telarañie (bu): gauna, aramu sarea

telebisiñoa: telebista

telie: 1. tela. 2. mintze, arrautzaren oskol azpiko mintzeari esaten zaio

telerue: ehulea eta ehun saltzailea

tellie: teila

tellatue, telletue: teilatua

tellie bota: teila bota

tenblekie: dardara, ikara

tenedora: tenedora, sardexka

tenesak: tenazak, orrikak

tenplie (l): tenplea

tenporalie: denborala

tente (b): tente

tentziñoa: tentsioa; tentsioa baxatzeko karraskila deritzon zuhaxkaren egurra egosita ematen duen ura hartu behar da

terkoa (bu): tematia

terrenue: arloa, lur saila

tia: izekoa

tiñakue, tiñekue: tinakoa; berba hau erdaraz berdin erabiltzen dugu, baina palatalizatu barik "tinako" edo "tineko"

tio: osaba

tira, tire (bu): aurrera joateko esaten zaio ganaduari

tirantie: tailetuko zurajearen zati baten izena

tiretu(b): tiratu

titerie (b), kitterie (bu): ditarea

toleta: toleta, larakoa

tolitikoa (b): toleta, larakoa

toletikoa: iko mota bat

tollarie: doilara

tomaki (bu): txakurrari esaten zaio uxatzeko

tomatie: tomatea

tontorra (bu): tontorra

topau, topeu (l): topatu

torallie: toaila, esku-oihala

torkasa: uso mota bat

tormentie (b): trumonada

torrie (bu): dorrea

torro-torro (bu): abaiada adierazteko hotsa

tortie: pentsua nahasita ganaduen jatekoa

tostau (bu): igertu

tostadie: tostada

toto: txakurra

trabau (l): trabatu

trabes (bu): trabez

tragasa: tragaza

tragastu: tragaztu

tragau, trageu: piztiak hil

trague: zurrutada

traka: ebagiaren hotsa

traka-traka: traka-traka

tranbidxe: tranbia

trankie: tranka, tranga, baserri etxeetan ateari ematen zaio ixteko

trankille (bu): lasaia

trantantie: tratantea

trapue: trapua, sorkia

tratora: traktora

trebedie: trebedea

trebola (bu): trebola, ereiten den belar mota bat

trebol bedarra (l): trebol belarra

trentzie: trentza, ile txorta

tresnie: tresna, gehienetan sukaldeko ontziteriari esaten zaio

tresnak garbittu (bu): tresnak garbitu, harrikoa egin

tripie: tripa, sabela

tripekallue: tripakailoa

tripeko sille: tripeko zila

tripepie: tripapea, sabelpea, sabelaren azpiko aldea

tripetzarra: tripatzarra, tripa handia irtena

tristie: tristea

trokie: troka

trongoa (b), tronkoa: enborra

tronpie: xiba

trontzie: trontza

troñue (b): korapiloa, troinua

trotollo-motrollo: berba txarto egiten dela adierazteko

truboye (b, bu), trugoye, trumoye (l): trumoia; trumoia dabilenean gatza botatzen zen etxetik kanpora, trumoiari aurre egiteko

truboi axie: trumoi haizea, trumonada iragartzen duen haizea

truboi euridxe: trumoi euria

trukemie: trukeme, behean gainean lauki batzuk eginda pasatu behar izaten dira hanka baten gainean salto-saltoka

trutxie: arrankaria

tuberra: begibakarra

turroye: turroia

tutie: tutea, karta joko baten izena

TX

txabeta (bu): txabeta, toleta

txabetie: doilarean bueltaka dabilen piezaren izena

txabolie: txabola; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

txaka-txaka (bu): txaka-txaka, arin

txaketie, txakie: jaka

txakoliñe: txakolina

txakolin baltza: txakolin beltza

txakolin suridxe: txakolin zuria

txakurre: txakurra

txakur andidxe: txakur handia

txakur egurre (l): karraskila

txakur estule: txakur eztula

txakur sagarra: txakur sagarra

txakur txikerra: txakur txikarra

txakurkumie: txakurkumea

txala: txala, xahala; berba hau erdaraz erabiltzen dugu

txala in (l): txahala egin

txanela (l): txanela, txalupa antzekoa

txapela: txapela, erdaraz ere erabiltzen dugu berba hau

txapie: 1. txapa. 2. olgatzeko txapa

txapaka: txapaka

txapiñe: txapina, artilezko galtzerdiak izaten dira; mendirako erabiltzen direnen antzekoak

txaplasue: zaplastada, belarrondokoa

txaramela: txaramela, maratila

txarangie: txaranga

txarba (bu): sagar mota bat

txarka-txarka: txarka-txarka

txarra: txarra

txarto

txarrapau (bu): txerpaka egin

txarridxe, txarrixie: txerria

txarri anak, txarri kaderak: txerri hankak, jateko direnak

txarri arra (b): txerri arra

txarri bodie (l): txarri-boda

txarriemie, txarrimie (b): txerri emea

txarrikumie, txarri umie (l): txerrikumea

txarri makerie (l): txerri makera

txarri okan (l): txarri okarana

txarri urrexie (l): txerri emea

txarridxen estegu (bu): txerri boda

txarrikidxe, txarrikixe: txerrikia

txartxaroa: txinbo mota bat

txekorra (bu): txekorra, zekorra

txepie: konkorra

txerie: txera, laztana

txerpie (l): txerpa

txetxe: umea

txibirita (bu): txiribita

txikerra: txikarra, txikia

txikitxue: txikitxo

txikertu: txikartu

txilipitie (b), txirripitie: txilipitea, txirpilota

tximeldu (b): zimeldu

tximiñie: tximinia

tximurtu (bu): tximurtu

txinboa: 1. txinboa. 2. txinboa, xiboa

txinbormigerue: txinbo mota bat

txindorra: txindorra, txantxangorria

txioa: txioa

txirikillie, txirinkillie: txirikila

txirlora: txirlora, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu; egurrezkoa zein burdinazkoa izan daiteke

txirridxe: intzeria, grilistua, hots zotilei buruz esaten da

txirrinkie (l): txirrinka

txirrinkillo (l): txirrinkiloa

txirrinkolie: txirrinkola, txirritxola

txirriskillie: txirriskila

txirtie: txirta

txispie : txinparta

txistue (b): 1. txistua, txua. 2. txistua

txistularidxe: txistularia

txitie: txita, txitxa

txitek atara, txittak atara (bu): txitak atera

txitxarroa: txitxarroa

txitxarro errie: txitxarro errea

txitxi: okela, erdaraz ere erabiltzen dugu

txixe: txiza

txixe posoa: txiza-pozoa, erdaraz ere erabiltzen da berba hau

txixe puxikie: txiza puxika

txoferra (bu): gidaria

txokolatie: txokolatea

txokolatadie: txokolatada, san juan eguneko gauean oraindinokarrean Bilboko auzoetan egiten da suak amatatu ondoren

txola (b): txola

txomin bedar (b): txomin belarra, soroetako belar parasito baten izena

txonkoloa: txokoloa, era bitako txokoloak egoten ziren egurrezkoak eta gomazkoak; oinetako arrunten gainetik janzen ziren eurak lohitu ez egiteko

txontarla: txontarla

txontie: txonta

txorbela (bu): orbela

txoridxe: txoria

txori matza: txori mahatsa

txorikumie (bu): txorikumea

txorixoa: txorizoa

txoriseidxe: txorizeria

txorkoa: txorkoa; ereiteko erabiltzen den zuloa

txorkatu: txorkatu

txorroa: txorroa; iturria kalean dagoena izaten da etxeko sukaltarrian dagoenari txorroa edo txorrotie esaten zaio

txorrotie: txorrota, txorroa, sukaltarriko iturriari esaten zaio

txorro morro piku tallu ke: txorro-morro-piko-tailo-ke; erdaraz berdin esaten zaio olgeta honi

txorrota: gaueko txori mota bat

txortie: txorta, trentza, baita moinoa egiteko egiten dena ere.

txosna: txosna; berba hau erdaraz jaietako txosnak adierazteko erabiltzen dugu

txosnerue: txosneroa

txotiñe: zotina, txotena

txotorra: txotorra, abazuza baino xeheagoa dena

txotxotu (l): txotxotu, txotxolotu

txue (bu, l): txua, txistua

txuntxurre: txuntxurra

txupau, txupeu: mihazkatu

txurroa, txorroa: izoztutako ura

txurrunkue: handitua

U

ubidie (bu): ubidea

udabarridxe, udebarridxe, udebarrixe: udaberria

udegoyena (b), udegodxena (bu): udagoiena

udie: uda

ugela (bu): uhela

ugelatxue (b), ugelaxoa, ugelexue (b), ugerixoa (b): urgerixoa, igela

uger in (l): igeri egin

ugerlekue: igeri lekua; Begoñan toponimo gisa ere erabiltzen da, bertan dagoenari "Sorginsuloa" ere esaten zaio

ugeri: ugari

ugerra: ugerra

ugerra koxu: ugerra hartu, ugertu

ugertu (bu): ugertu

ukondoa: ukondoa, ukalondoa

ukundukadie: ukondokada

ukubillie: ikubila, ukabila

ukubilkasue: ukabilkada

ulertu (l): ulertu

ulie, ullie: ile

ulebakoa

uletzue (bu) ulletzue (b)

ulle suridxe: ile zuria, ile urdina

ulle txortie: ile txorta

umedue: hezea, umela

umedadie (bu): hezetasuna, umeltasuna

umie: umea

umak in (l): kumeak egin

umetokidxe: ume tokia

umie libretako egon (bu): umea egiteko egon

une: una, hezurren barruko mamia

unteu: untatu, gantzutu

unto baltza: lustrea, betuna

untzie: iltzea

untzenarra (b): iltzeak dauzkan narra

ur (b): hurbil, eraz, paraje

urdaidxe, urdedxe, urdidxe, urdeixe: urdaia

urdeidxen asala: urdaiaren azala

urdiñe: sagar mota bat

urdinyu (bu): urdindu

ure: ura

urartie: urartea

urbatue: urbatua, errez gero sortzen diren puslak

urbidie (bu): urbidea

ur bedeinketue: ur bedeinkatua

urtu (bu): urtu

urtxakurre: urtxakurra

urtzu (bu)

uridxe (bu): huria

uriko umie: huriko umea

urikoa: hurikoa, etxekotzat hartzen den umezurtza

uridxola, urixola (l), auridxola (bu): uriola, uholdea

urketu (bu): urkatu

urkillie, urkulue (b): urkulua

urkittu (bu): aurkitu

urlixe (l): urlia

urrengoa, urrungoa, urrekoa (l): hurrengoa

urregorridxe: urregorria, urrea

urresuridxe: urrezuria, zilarra

urretxa (b, bu): 1. hurritza. 2. hurritza, perretxiko mota bat

urreskidxe (b): hurrixxia

urrexie (l): urrixa

urrien (bu): hurrean, ameneko, aurki

urrin (b): hurbil

urrume: urrumada

urrun: urrun

urrutu (l): urratu

urtebetie: sagar mota bat

urtein, urteñ, urten: irten

urteidxerie: irteera

urtie: urtea

urtebarri egune: urtebarri eguna

urtegune (bu): urteguna

urubioa: urubioa

urune: irina

usaba(b): uzaba

usabandrie, usandrie(b): uzaba andrea

usau, useu: erabili, usatu

usegi, usigi: haginka egin

usegi in (b), usigi ein (l): haginka egin

useñe, usiñe: usaina

ustela: ustela

usteldu: usteldu

ustrukue (bu): ustrukua, ustarkua

utze: hutsa

utzik (b)

utzitu (l), utzittu: hustu, hutsitu

uxela: uxela

xa: ja

INGURUA

Gizakiari buruzko gaiak ikusi ondoren, gizakiaren inguruneari buruz berba egin behar dugu. Bigarren zati honetan ingurunea zazpi ataletan banatuta aurkezten dugu: denbora, meteorologia, zerua eta astroak, herria, natura, landareria eta animaliak.

1. DENBORA

Denborari buruz jaso ditugun berbak sailkatzeko bost ataltxo egin ditugu: urtaroak, hileak, astegunak, denboraren banaketa eta egunaren banaketa.

1.1. URTAROAK

negue: negua

"es bierra asko, eta itxiten san geixao landa, beixentzat egoteko bedar sikue negureko (I)", (ez beharra asko, eta uzten zen gehiago landa, behientzat egoteko belar sikua negurako)

udie: uda

"musikie egoten san udan, saspietarten, eta neguen ba, seiretako ya musikie be akabau (I)", (musika egoten zen udan, zapietara arte, eta neguan ba, seiretarako ja musika ere amaitu)

udabarridxe, udebarridxe, udebarrixe: udaberria

"miserixe egon san, miserixe, eta emeko enbratxu betek e, udebarrixen, grilluek estakixu? grilluek, eta landara grilluek ataraten, grillu bakotxa bilbon salduten gixen perra andixen (I)", (miseria egon zen, miseria, eta hemengo andratxo batek, udaberrian, txirri txirriak ez dakizu? txirri txirriak, eta landara txirri txirriak ateratzen, txirri txirri bakoitza bilbon saltzen zuen txakur handian)

udegoyena (b), udegodxena (bu): udagoiena, udazkena

1.2. HILEAK

abustue: abuztua

"lenau egon san, illen e, abustuen amaseixen san roke, da ille, abustuen illen seixen san justo (l)", (lehenago egon zen, hilean, abuztuaren hamaseian san roke, eta hilea, abuztuan hilaren seian san justo)

aprille: apirila

eneroa: urtarrila

febrero: zezeila, otsaila

garagarrille: garagarrila, uztaila

iraille: iraila

julio: garagarrila, uztaila

junio: bagila, ekaina

"ori ixen san junio, julion. (l)", (hori izan zen bagila, garagarrrilean)

maixatza (l), mayatza (l), mayetza (b): maiatza

"esausten ondiño mayatzan lenengokoan san, piperrak jan deuesela (l)", (esan zidan oraindino maiatzan lehenengokoan zen, piparrak jan dituztela), "ondioñokarren es, oneik artoa erein te gero, mayetza, akabetan dan orduen olantxe, ordun dxoaten dire (b)", (oraindinokarren ez, hauek artoa erein eta gero, maiatza, amaitzen den orduan, orduan joaten dira)

martidxe (bu, b), martixe (l): martia, martxoa

"estaitt martidxe inguru edo mayetzien etortzen dire (bu)", (ez dakit martxoa inguru edo maiatzean etortzen dira)

nobienbrie: zemendia, azaroa

otubrie: urria

setienbrie: iraila

1.3. ASTEGUNAK

astelena: astelehena

"gaur astelena dan moduen ba biarrien fan gare (l)", (gaur astelehena den moduan ba beharrean joan gara)

martitzena (bu), martzena (bu), martitxena (l): martitzena, asteartea

eguestena (bu, b), eguastena (l, bu): eguaztena, asteazkena

eguen: eguena, osteguna

barikue: barikua, ostirala

"garatu, baye ori, oin, bariku gustixek, die menguantiek, bariku gustixek, gure ama difuntiek esateuen bariku gustixe tie menguantiek, eta egixe da, len e, betik ai! aber ixerra, ixerra, aber selan dauen, kresientie edo menguatie edo, gure amak esateuen irigille edo barrigille edo olango usena esateuen (l)", (garatu, baina hori, orain, bariku guztiak, dira ilbeherak, bariku guztiak, gure ama zenak esaten zuen bariku guztiak dira ilbeherak, eta egia da, lehen, beti ai! ea izarra, izarra, ea zelan dagoen, ilgora edo ilbehera edo, gure amak esaten zuen irigila edo barrigila edo holako izena esaten zuen)

sapatue: zapatua, larunbata

"ordun dxate san inyaba asko, nik esetu dot gure aitte egun gustidxetan, bueno sapatue ta domekie es baye, ostentzien egun gustidxetan arek inyabak, inyaba baye platerkada bi e, gustetan dakosan! esan anbeste jenero oin leges be egoten segun trasie ba (bu)", (orduan jaten zen indaba asko, nik ezagutu dut gure aita egun guztietan, beno zapatua eta domeka ez baina, osterantzean egun guztietan hark indabak, indaba baina platerkada bi, gustatzen zitzaizkion! ez zen hainbeste gauza orain legez ere egoten antza denez ba)

domekie: domeka, igandea

"sarritten etorte san, domeketan gustetan dakon ona etortie (bu)", (sarritan etortzen zen, domeketan gustatzen zitzaion hona etortzea), "jaixek? kasillen, esan egon diskue, diskue musikakoa, ayuntamientuk ifiñi gixen bandie ba, jaixetan ta domeketan (l)", (jaiak? etxetxuan, ez zen egon diskoa, diskoa musikakoa, udalak ipini zuen banda ba, jaietan eta

domeketan), "orrei toas domeka gustitten mesara (bu)", (horiek doaz domeka guztietan mezara)

1.4. DENBORAREN BANAKETA

aldixe (l): aldia, garaia

amabosta: hamabostaldia, hamabosta

antxiñe (l), atxiñe: aintzina

areñeun: herenegun

aste asikerie (bu): aste hasikera

astegune (bu): asteguna

astidxe (bu): astia

astie: astea

"aste onetan fan ber dot (l)", (aste honetan joan behar dut)

bart: bart

besperie (l, bu), bisperie (bu): bezpera

"orregaittik akortanas terriblien, santantoiko subidxe, ori emen sartu baño ordue lenau edo, da asi sien bai, sartu sienien ya besperan apurtu eusen eskiña gustidxe (bu)", (horregatik gomutatzen naiz itzel, san antoneko zubia, hori hemen sartu baino ordua lehenago edo, eta hasi ziren bai, sartu zirenean ja bezperan apurtu zituzten eskina guztiak), "gaubeko amabixetan etorte nintzen bilbotik esniek entregaute, esniek e besperan entregaute goixien altzeu te jo! (l)", (gaueko hamabietan etortzen nintzen bilbotik esneak emanda, esneak bezperan emanda goizean altxatu eta jo!)

biar egune (bu): behar eguna, lan eguna

bider: bider

birriten: birritan, bi aldiz

denporadie (bu): denboraldia

denporie: denbora

"gerra denporatik ona, gerra denporan esauren itxitten (bu)", (gerra denboratik hona, gerra denboran ez zuten uzten), "martin de oneik e, bakixu ser, jubile sien ba denporie baño ariñau esta? eta ba fabrikiek pagetako onenbeste, eta gero itxi utzien pagetie (b)", (martin eta hauek, badakizu zer, jubilate ziren ba denbora baino arinago ezta? eta ba fabrikak ordaintzeko honenbeste, eta gero utzi zioten ordaintzea)

denporaldixe(b): denboraldia

egune: eguna

"san migelen be urrien itten daure, bedratzi egun oin bere (bu)", (san migelen ere hurrean egiten dute, bederatzi egun orain ere), "metak beroagas, ondo meta andixek in, eta gero beroa etor sanien, berote gixen egune, ba zabaldu siketako ta berotuteko, eguskixetas, beroagas bai (l)", (metak beroagaz, ondo meta handiak egin, eta beroa etorri zenean berotzen zuen egune, ba zabaldu sikatzeko eta berotzeko, eguzkiagaz, beroagaz bai)

gerra denporie (bu): gerra denbora

"gerra denporan gu, iru ume txiker eta gizona sera preso koxistien, orko peñeko sulo baten egon geintzen ainbeste denporan an arkalen ganien, gizona etorko bada dxakiñ es etzera iru ume txiker arrastaka (bu)", (gerra denboran gu, hiru ume txikar eta gizona zera preso hartu zidaten, horko abusuko zulo baten egon ginen hainbeste denboran han elkarren gainean, gizona etorriko den jakin ez etxera hiru ume txikar narraz)

gose denporie (l): gose denbora

illie: hilea

"erein, ba, ontxe, es datorren illien. (l)", (erein, ba, oraintxe, ez datorren hilean)

illebetie: hilabetea

"illebete edo ixengo da (l)", (hilabete edo izango da)

matrakalidixe (bu): matrakaldia, zalapartaldia

momentue (bu): mementua, unea

ordu bata: ordu bata

ordu bidxek: ordu biak

ordue: ordua

"ba, deusto ixen san, etxebarria fabrikie, joten geixen ba, orduek eta entzuten san emen eta gu emen landan, eta seiretan etzera etorri biar, neguen (I)", (ba, deusto izan zen, etxebarria frabrika, jotzen zituen ba, orduak eta entzuten zen hemen eta gu hemen landan, eta seietan etxera etorri behar neguan)

sasoye (I, bu): sasoia

"lino es, entzutie baukot nik, ori erein in bear da, sera, firue iteko, liñoa, baye nik estait selan, nire suegra difuntiek esateuen, amagiñarrabak, gero bere sasoyen itargixeri begitu, da bere sasoyen ebai igitixegas, da gero ondo batu urien, egun betzuten urartien, da gero kanpoan siketu deitela, liñoa, kanpoan, da gero agas iten deurela ba telie, telak (I)", (lihoa ez, entzutea badaukat nik, hori erein egin behar da, zera, firua egiteko, lihoa, baina nik ez dakit zelan, nire amaginarreba zenak esaten zuen, amaginarrebak, gero bere sasoian ilargiari begiratu, eta bere sasoian ebaki igitaiagaz, eta gero ondo batu urean, egun batzuetan urartean, eta gero kanpoan sika dadila, lihoa, kanpoan, eta gero haregaz egiten dutela ba ehuna, ehunak), "da areri koxi bear dakodxie auren sasoye (bu)", (eta haiei hartu behar zaie euren sasoia)

urtegune (bu): urteguna

urtie: urtea

"gero urtietan fumau te txarto iten gixon estulek eta (I)", (gero urteetan erre eta txarto egiten zion eztulak eta), "llobiek, txikerrak bederatzi urte dekos (bu)", (lobak, txikarrak bederatzi urte dauzka)

1.5. EGUNAREN BANAKETA

argittukerie(b): argitukera, egunsentia

arrasteidxe (bu), arrasteixe (l), arrastidxe (bu): arrastegia, arratsaldea

"makiñe bat urtien dxoanas san rokerá, da gero bentabarrire, arrastidxen, san roke egunien (bu)", (makina bat urtean joan naiz san rokerá, eta gero bentabarrira arrastegian, san roke egunean), "gero arrasteixen ama difuntiek ori bai e, eiteoskun edo txokolatetxue (l)", (gero arrastegian ama zenak hori bai, egiten zigun edo txokolatetxoa), "denpora ona dau baye arrastireko auridxe dakar (bu)", (eguraldi ona dago baina arrastegirako euria dakar)

arratzalde erdidxe (bu): arratsalde erdia

arratzaldie (bu), atzaldie (b, l): arratsaldea

"goxien sein atzaldien jente asko dabil (l)", (goizean zein arratsaldean jende asko dabil)

egurdidxe (bu, b) egurdixe (l), egurdidxe (b): eguerdia

"ba guk u, goxien barusten kafekonletxe, kafie esniegas, da gero, ba gero, gosie edo, ogi sati bet edo seoser txokolatiegas edo, baye enjeneral egurdirarte es, egurdixen beti indiyaba (l)", (ba guk, goizean barausten kafesnea, kafea esneagaz, eta gero, ba gero, gosea edo, ogi zati bat edo zer edo zer txokolateagaz edo, baina gehienetan eguerdira arte ez, eguerdian beti indaba), "abimaridxe atzaldekoa tire, esta? bai egurdidxen be bai ixete san, eta soloan egonta be beleuniko pareute banau neu be, aititegas, beleuniko pareute egurdidxen (b)", (abemariak arratsaldekoak dira, ezta? bai eguerdian ere bai izaten zen, eta soroan egonda ere belauniko paratuta banago neu ere, aititagaz, belauniko paratuta eguerdian)

gaube (bu), gaubie, geubie (b): gaua

"eta gero botie ardoagas, pasau kafekoletxe andrari tte eskeuntzen emoten baye, botie, gixon asko ote san, etzekoak, etzeko semiek edo, eta botie paseta san an, baye denpora askotxu egote san gaubien erresetako (bu)", (eta gero zahatoa ardoagaz, pasatu kafesnea andreei eta ez genien ematen baina, zahatoa, gizon asko egoten zen, etzekoak, etzeko semeak edo, eta zahatoa pasatzen zen han, baina denbora askotxo egoten zen gauean errezatzeko), "igual gaubien difuntuek urten, ni bildurtu, emetik bentanatik ikuste neuen nik kanposantue, ene! (l)", (igual gauean hildakoek irten, ni bildurtu, hemendik leihotik ikusten nuen nik kanposantua, ene!)

goxaldie (bu, b): goizaldea

"ene! dxan ta edan, kanteu, goxalderantza kanteu igual! (b)", (ene! jan eta edan, kantatu, goizalderantz kantatu igual!)

goixerdidxe: goizerdia

"goxien astoas edo, ta gero egurdidxen igual ostabe, egurdidxen edo goixerdidxen eta igual bija bi edo iru igual (b)", (goizean astoagaz edo, eta gero eguerdian beharbada osterabe, eguerdian edo goizerdian eta beharbada bidaia bi edo hiru beharbada)

goxie, goixie: goiza

"goxien sein atzaldien jente asko dabil (l)", (goizean zein arratsaldean jende asko dabil), "nik goixien gurau dot arrastien baño (bu)", (nik goizean gurago dut arratsaldean baino)

illuntzie (bu), ulluntzidxe (b): iluntzea

2. METEOROLOGIA

Ataltxo honetan fenomeno atmosferikoei buruz jaso ditugun berbak eta testuak ere ematen ditugu. Testu horietan Bilboko nekazal gizarteak meteorologiak eduki duen garrantzia islatuta agertzen da, era berean sortaraziko sineskerak ere agertzen dira. Sineskera horietariko batzuk hiritar gizartean gorde dira, aurreko egoera sozialaren islada izanik

abasusie: abazuza, txingorra

"ta abasusie da, ori denporalie, trugoye in orduen, botaten deuena (b)", (eta abazuza da hori denborala, trumoia egin orduan, botatzen duena)

afrontue: afrontua

"afrontue da, afrontue geittuten dxako normalmente santurtzi aldetik datorrenien (b)", (afrontua da, afrontua deitzen zaio gehienetan santurtzi aldetik datorrenean)

aixie (bu) axie: haizea

"emen esate san lenau gorri egonaskero urrungo egunien axie (bu)", (hemen esaten zen lehenago gorri egonez gero hurrengo egunean haizea), "axe frantzesari, esaten dxakon ortik asten sanien edurre ekarri bear dauela (bu)", (haize frantzesari, esaten zitzaion hortik hasten zenean elurra ekarri behar duela), "baye oin onikas axiokas o! (l)", (baina orain hauekaz haizeokaz o!), "emen axe andidxe dan orduen, egoaxie dauen orduen andidxe, ointxe au axeau akabetan dan orduen, euri ingo dxo pa, ori kostunbrie beti bai euki du oingo moduen egoaxie etorri orduen gero, euidxe ingo deuela (b)", (hemen haize handia den orduan, hego haziea dagoen orduan handia, oraintxe hau haizeau amaitzen den orduan, euri egingo dik ba, ekandu hori beti bai eduki dugu oraingo moduan hego haizea etorri orduan gero, euria egingo duela)

andrien axie: andreen haizea, hego haizeari buruz esaten da

argittasune, argitxasune: argitasuna

arkoiridxe, arkoirixe(b): ustarkua, ostadarra, begoñan umeei esaten zaie ustarkua denean barre egin eziteko ez zaiozkiolako haginak erakutsi behar

"es barrerik itteko se agiñek erakusten dxakos arkoirixeri tte (b)", (ez barrerik egiteko ze haginik erakusten zaizkio ustarkuari eta)

aterri: aterri

auridxe (bu): euria

"gaur goixien auridxe iñ yeu (bu)", (gaur goizean euria egin du), "auridxe asi sanien durangon egoneintzen (bu)", (euria hasi zenean durangon egon nintzen)

auridxola (bu): uriola, uholdea

beroa: beroa

"ori etorten danien bero egongo da (bu)", (hori etortzen denean bero egongo da)

denporalie: denporala

"ta lenau gatza bota atera ta, abasusie iñ orduen, denporalien kontra esate seuen dala ori (b)", (eta lehenago gatza bota atera eta, abazuzea egin orduan, denboralaren kontra esaten zuten dela hori)

denporie: eguraldia

"eta emen ifiñi olan, arrixte, joteko eta jo kamaran, emen sabaldu berotuteko, berotuteko garixe denpora onaas, emen sabalduten gendusen eta kamaran jo. (l)", (eta hemen ipini honela, harria, jotzeko eta jo ganbaran , hemen zabaldu berotzeko, berotzeko garia eguraldi onagaz, hemen zabaltzen genituen eta ganbaran jo), "axien igerten dako ori e, emen atzaldien, atzaldie garbi, akabetan bada, ordun urrungo egunien jeneralmente denporie obie itten dau, bai se ori igerten da karo!, eguskidxe sartu orduen, andiko aldetik, normalmente andi etorten da euridxe ona beti, ta orregaitik eguski sartu eskero garbi, a garbi dau, señaile ona ixeten da (b)", (haizean igertzen zaio hori, hemen arratsaldean, arratsalde garbi, amaitzen bada, orduan hurrengo egunean gehienetan eguraldi hobea egiten du, bai ze hori igertzen da jakina!, eguzkia sartu orduan, handiko aldetik, gehienetan handik etortzen da euria hona beti, eta horregatik eguzki sartuz gero garbi, hura garbi dago, seinale ona izaten da), "selango denpora txarra deku! (bu)", (zelako eguraldi txarra daukagu!), "denpora ona in balei oneri lagunak etorriko lekidxos (bu)", (eguraldi ona egin baleza honi lagunak etorriko litzaizkioke)

edur bolie: elur metxa, elur mataza

edurre: elurra

"bator edurre, bator frantzesaxie (l)", (badator elurra, badator frantzes haizea), "emen edur asko itten dau (bu)", (hemen elur asko egiten du)

edurtzie (l): elurtza

egoaxie: hego haizea

ekoa: oihartzuna

enbata (b): enbata, lainoa

erriko axie: herriko haizea, hego haizea

"txarrena errikoaxie inder gedxau eukitten dauena (bu)", (txarrena herriko haizea indar gehiago edukitzen duena)

euridxe, eurixe (b): euria

"denpora txarragas estie bustertuten, eurixe bada es (l)", (eguraldi txarragaz ez dira buztartzen, euria bada ez)

eurigotak (b): euri-tantak

euri saparrada (l): euri zaparrada

"euri saparrada bat ein da basoas solora a lurre kondenaute parata xatzu, eta landarak, artoantzat ta gausantzat iñontza da ona (l)", (euri zaparrada bat egin eta bazoaz sorora lur hura kondenatuta paratzen zaizu, eta landareak, artoentzat eta gauzentzat ihintza da ona)

frantzesaxie (l, bu): ipar ekialdeko haizea

galisiko axie (b): mendebaldeko haizea

gallegu axie (bu): mendebaleko haizea

"gallegu axie ixiten da oeste (bu)", (gailegu haizea izaten da mendebala)

garoa (bu): garoa

gerespie (bu), gerispie(b, bu): gerizpea

"bost sagar ebai seuren nire anaidxek eta aitek, egun beten trontza, ta atzalde baten ortxe, jentie etor san, orra, sagarpetara, gerispetara, merientan, ta dana papelak, ta bedarra aplastaute, ganadue dxan gure esik bedarra, ba kendu! (b)", (bost sagar ebaki zuten nire anaiak eta aitek, egun baten trontza, eta arratsalde baten hortxe, jendea etorri zen, horra, sagarpetara, gerizpetara, meriendatzen, eta dena paperak, eta belarra zapalduta, ganadua jan gura ezik belarra, ba kendu!)

gorbeiko axie: gorbeiako haizea

grumie: gurma

"lañaberie leges esta? bai grumie esaten dxako orreri (bu)", (lainobehera legez ezta? bai gurma esaten zaio horri)

iñestue: ineztua, tximista

iñontza (l), iñotza (b), iñuntza (bu): inotza, ihintza

inundasiñoa (bu): uriola, uholdea

iñutzitxue (bu): ineztua, tximista

iperra: iparraldeko haizea

"iperra etortzen da orti bilbo aldeti (bu)", (iparra etortzen da hortik bilbo aldetik)

iruntzie (bu): inotza, ihintza

kandelie: iterusako ur izoztua

kristela: ur izoztua, potxingoetako ur izoztua

"gogortuten danien ure kristela (bu)", (gogortzen denean ura kristala), "ara gu eskolara dxoaten garesen len da ni akordetanas sera, esan dotzut esta? estotzut esan, orko errekan, ta itten dakodxien laidxekas, dana kristelak goittik biera paretan sien (bu)", (hara gu eskolara joaten ginen lehen eta ni gomutatzen naiz zera, esan dizut ezta? ez dizut esan, horko errekan, eta egiten zitzaien lehiakaz, dena kristelak goitik behera paratzen ziren)

ladxe (bu): lehia, izotza

lanbruxe (bu): gurma, lanbroa

lanparra: lanparra, lanbroa

lañaberie (bu): lainoa, lainobehera

lañoa: hodeia

"laño gorridxe padaus axie etorko da (b)", (laino gorriak badagoz haizea etorriko da), "laño gorridxe axie edo auridxe ekarten dauena (bu)", (laino gorria haizea edo euria ekartzen duena)

laño astune: laino montorra

lañoartie: lainoartea

ledxe(b), laidxe (bu), leixe (l): lehia, izotza

"ba ori diñotzutena, ba denporan esta, da bastante, bastante normala san andres inguruen pastan dana, oiñ egon gare ya, denporie asko kanbidxau de, sano, se len negu gogorrak gustis gogorrak ixitten sien, da nik esetu dot gogorra da gure guresoak, aittuek eta amandriek eta, amandrie bajatute san esniegas, astoan, bilbora, da esaten gaidxien, egote san laidxegas bidien, bidien e, ibilli esin da astoari, sera ifintte dotzesela anketan, serak, trapuek estaitten labandu, da oiñ olango lairik emen estu esetuten (bu)", (ba hori dinotsudana, ba eguraldian ez da, da nahikoa, nahikoa normala san andres inguruan pasatzen dena, orain egon gara ja, eguraldi asko aldatu da, sano, ze lehen negu gogorrak guztiz gogorrak

izaten ziren, eta nik ezagutu dut gogorra eta gure gurasoak, aititak eta amamak eta, amama bajatzen zen esneagaz, astoan, bilbora, eta esaten zuen, egoten zen lehiagaz bidean, bidean e, ibili ezin eta astoari, zera ipintzen zizkiola hanketan, zerak, trapuak ez dadin laban, eta orain holako lehirik hemen ez dugu ezagutzen)

lei baltza: lehi beltza; lurra gogortzen duen lehia edo izotza, ikusten den lehi zuria baino txarragoa izaten da

lei suridxe: lehi zuria

"lei baltza ta lei suridxe, lei suridxe da kristela itten dauena da lei baltza da ori, gogortuten dauena dana (bu)", (lehi beltza eta lehi zuria, lehi zuria da kristala egiten duena eta lehi beltza hori, gogortzen duena dena)

lupetzie (bu): lupetza, lokatza

matasie: mataza, maluta

nortiaixie (bu): ipar haizea

nortie: ipar haizea

odei baltza: hedoi beltza, hedoi montorra

odeidxe (bu): trumoia

oñesittue, oñitzittue: ineztua, tximista

*"areri guardasola ganera etorri dxakon oñesittue, ta erre iotzen orri (b)",
(hari guardasola gainera etorri zitzaion tximista, eta erre egin zion horri)*

otza: hotza

*"ba, otza egoten basan, se sue oin txapie deku esta? bai sue bajue, mukurrekas bai, eta gero suetien bai, da ostien ude partien ementxe (l)",
(ba, hotza egoten bazen, ze sua orain txapa daukagu ezta? baina sua baxua, mukurrakaz bai, eta gero sukaldean bai, eta ostein uda aldean hementxe), "sau tiñosu ba egunek estiresela, estiesela ixen normalak in dittusenak, otz andidxe, baye san andres inguruen betik ixitten da bastante gogorra e! baye san andres ingurue, ta laidxe pe etor sien aurten goixetik (bu)", (zeuk dinozu ba egunak ez direla, ez direla izan normalak egin dituenak, hotz handiak, baina san andres inguruan beti*

*izaten da nahikoa gogorra! baina san andres ingurua, eta lehiak ere etorri
ziren aurten goizetik)*

posoa: ur potxingoa

santa maiñeko axie: ipar haizea

saparradie: zaparrada

sargoridxe (bu): sargoria

seru argidxe (bu): zeru argia, oskarbia

serue: zerua

siketie: sikatea

*"ankape sartu jesus! emen ser dau ba? ain bigun barruen, siketie deukonagas
da gero onegas leixakas da euri apurtxuegas, su te au, asukarillo moduen
lurre arro arro, da jesus! ser da au? (I)", (hankapea sartu jesus! hemen
zer dago ba? hain bigun barruan, sikatea daukanagaz eta gero lehi
honegaz eta euri aputxoagaz, zu eta hau, azukarilo moduan lurra harro
harro, eta jesus! zer da hau?)*

siri miridxe: ziri-miria; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

tangadie (bu): tangada, tanta

tenporalie: denborala

tormentie (b): trumonada

truboi axie: trumoi haizea, trumonada iragartzen duen haizea

truboi euridxe: trumoi euria

truboye (b, bu), trugoye, trumoye (I): trumoia; trumoia dabilenean gatza botatzen zen etxetik kanpora, trumoiari aurre egiteko

*"es, es, lokatu eurek iten dire, bere sasoyen, bere sasoyen, lokatu orduen ori ifin bear dotzesu
arrotzatxue, ameiru edo amabost, eta berak ogetabat egun barru ataraten ditux txitatxuek, oiñ
o, negu partien, ifin bear xako arrautzien ondoan ifin bear xako untze bat, untze bat edo
burdiñe sati bet, se igual joten badeu trumoyek aik arrautzak trumoyek danak galdu, esteu
ataraten, usteldu, abixerie da arrautze bat betik dauela iteko, atzokoa gaur koxueskero edo
gaurkoa itxi bixerko esta ustelduten, baye betik itxiten baosu betik bat, betik bat, usteldu iten
da (I)", (ez, ez, lokatu eurak egiten dira, bere sasoiari, bere sasoiari, lokatu orduan hori ipini
behar diozu arrautzatxoa, hamahiru edo hamabost, eta berak hogeitabat egun barru ateratzen
ditu txitatxoak, orain, negu aldean, ipini behar zaio arrautzen ondoan ipini behar zaio iltze bat,
iltze bat edo burdina zati bat, ze beharbada jotzen badu trumoiak arrautza haiek trumoiak
denak galdu, ez du ateratzen, usteldu, habiasaria da arrautza bat beti dagoela egiteko,*

atzokoa gaur hartuz gero edo gaurkoa utzi biharko ez da usteltzen, baina beti uzten baduzu beti bat, beti bat, usteldu egiten da), "kandelak ixituten sien bai, nire amandrek truboye asiaskero (bu)", (kandelak iziotzen ziren bai, nire amamak trumoia hasiz gero), "al dala txakoliñe es mobidu, esaten daure, truboye dauen artien (bu)", (ahal dela txakolina ez mugitu, esaten dute, trumoia dagoen artean)

txotorra: txotorra, abazuza baino xeheagoa dena

"baye txotorra ta abasusie estire bat, txotorra, euridxe edurre bolatxuek, orreik bolatxuok, txotorra (b)", (baina txotorra eta abazuza ez dira bat, txotorra, euria elurra bolatxoak, horiek bolatxook, txotorra)

txurroa, txorroa: izoztutako ura

"esetu doas or deposittuen sentralien, baye txorroak igual metro bikoak eta gedxau, egunetan egoten sien, egunetan (bu)", (ezagutu ditut hor depositoaren zentrolean, baina txorroak igual metro bikoak eta gehiago, egunetan egoten ziren, egunetan)

umedadie (bu): hezetasuna, umeltasuna

uridxola, urixola (l): uriola, uholdea

"klaro, estakixu aik, ba ainbeste ure in gixenien, urixolak, lurre gustixek biera bajatu sien (l)", (jakina, ez dakizu haiek, ba hainbeste ur egin zuenean uriolak, lur guztiak behera bajatu ziren)

ustrukue (bu): ustrukua, ustarkua

3. ZERUA ETA ASTROAK

Gizarte guztiek aditu diote zeruari, batzuek egunez eta beste batzuek gauez aurkitu dituzte jakin mina asetzeko erak edo irudimena kilikatzeko moldeak. Atal honetan ortzean direnak eta direnei buruzko berbak dakartzaguz.

barrigille (l): ilargi berria

eguskidxe, eguskixe, euskidxe (b): eguzkia

"metak beroagas, ondo meta andixek in, eta gero beroa etor sanien, berote gixen egune, ba sabaldu siketako ta berotuteko, eguskixeas, beroagas bai (l)", (metak beroagaz, ondo meta handiak egin, eta beroa etorri zenean

berotzen zuen egune, ba zabaldu sikatzeko eta berotzeko, eguzkiagaz, beroagaz bai), "zabaldu euskiten, ifiñi sabal sabalik joteko, baye garixe egon daitela beroagas soltau iteko fasil (l)", (zabaldu eguzkitan, ipini zabal zabalik jotzeko, baina garia egon dadila beroagaz soltatu egiteko erraz)

gerispie: gerizpea

igetargidxe (bu): ilargia

igetargi osoa (bu): ilargi betea

igetargi barridxe (bu): ilargi berria

ilbera, ilberie: ilbehera

"lenau ilberan itte san baye podau gitxi itte san (bu)", (lehenago ilbeheran egiten zen baina inausi gutxi egiten zen)

ilgora, ilgorie: ilgora

iretargidxe: ilargia

iretargi betie: ilargi betea

iretargi itzue: ilargi berria

irigille (l): ilargia

itargidxe, itargixe(b): ilargia

ixerra: izarra

ixertzue(b): izartsua

karroa: izarren gurdi nagusia

kresientie (l): ilgora

menguantie (l): ilbehera

seru argidxe: zeru argia

serue: zerua

"se ixerraturi tau serue (bu)", (ze izarraturik dago zerua)

4. HERRIA

Gure huri handi hau aintzinako lau herrik osatu dute; Abandok, Begoñak, Deustuk eta Bilbok berak. Herri guztiotan zelan edo halan euskara gorde da eta neurri desberdinetan guganaino heldu dira haren zidurriak. Atal honetan hiri inguruneari buruzko hiztegia ematen dugu.

abadetzie (bu): abadetxea, abadearen etxea

arkue (bu): arkua

arkupie: arkupea

"eta faten gintzesan erriberara, serera arkupetara", (gu joaten ginen erriberara, zerera arkupetara)

arotzeridxe: arotzeria

"gasterik dxoanitzen arotzeridxera (b)", (gazterik joan nintzen arotzeriara)

ausoa (bu): auzoa

"etorten sien ausoko inguru gustidxe eta an erresetan (bu)", (etortzen ziren auzoko inguru guztiak eta han errezatzen)

ausotegixe: auzotegia

"oneik gastetxuek fan sien ausora ausotegire (l)", (hauek gastetxoak joan ziren auzora auzotegira)

ausunie (bu): auzunea

ayuntamientue: 1. udaletxea. 2. udala

"ori berbeniori, orduen esan oten berbenarik, ta guk bai iten gendun berbenie baye es, ayuntamintuen konture ta es, guk txosnan konture, txosneruek bueno ba propiñe bat emote utzen da (b)", (hori berbenaori, orduan ez zen egoten berbenarik, eta guk bai egiten genuen berbena baina ez, udalaren kontura eta ez, guk txosnen kontura, txosneroek beno ba eskupeko bat emoten zioten eta)

barridxo: auzoa

"bai, oin be badau, oin be badau, au de, gure ama difuntiek esateuen eurek pertenesiten gixiela atxiñe, atxiñe san bisente, san bisente martir, san bisenten, orregaitik au de abando barrio, au de, asi errekalde eta au

dana da abando, abando geituten dotzie (l)", (bai orain ere badago, orain ere badago, hau da, gure ama zenak esaten zuen eurak izan zirela aintzina, aintzina san bizente, san bizente martir, san bizenten, horregatik hau da abando auzoa, hau da, hasi errekalde eta hau dena da abando, abando deitzen diote)

biarlekue (bu): beharlekua, lantokia

botikie: botika, farmazia

dendie: denda

"fanaz dendara kamisa bat erosteko ideyagas (l)", (joan naiz dendara alkondara bat erosteko asmoagaz)

deposittue: depositua

depuradorie: depuradorea

dxantza lekue: dantza lekua, jolasa, kolean egiten zen dantzaldiaren kokagunea

eleixabarrena (bu): eleizabarrena

eleixie (bu), elejie (l), elixie: eliza

"esan egon elejarik errekalde, bai, bai egon san gordonis emetik fanda (l)", (ez zen egon elizarik errekalde, bai, bai egon zen gordoniz hemendik joanda), "se oiñ otxarkoagan da baye len gure elixie begoñekoa ixen da ni an bautisite an eskondu te dana an initzen begoñen (b)", (ze orain otxarkoagan da baina lehen gure eliza begoñakoa izan da ni han bataiatuta han ezkondu eta dena han egin nintzen begoñan)

ermittie, ermitie: basiliza

"Arraisetik orra san pedrora ekarten geidxesan enterretan, San Pedroko ermittara (bu)", (Arraizetik horra san pedrora ekartzen zituzten lurpetzen, San Pedroko basilizara), "Peñen egon san ermitte bat, Arbudxa partien (bu)", (Abusun egon zen basiliza bat, Arrigorriaga aldean), "ori ermitie, ermita bat ixen san, elejie eta bibiendie, etze bat (l)", (basiliza hori, basiliza bat izan zen, eliza eta bizitza, etxe bat)

erridxe, errixe: herria

"emeko errixen estau eskolarik (I)", (hemengo herrian ez dago eskolarik),

"suik errire eran dostesu (bu)", (zuek herrira eroan nauzue)

erropa dendie: erropa denda

eskiñie: bazterra

eskolie: eskola

"bueno etzien be asko egote san orduen e, bai eleixan eleixan nik estekot akorduen, baye erresako san, baye sartukeran d'olan igual es, eleixara edo diñot eskolara sartu orduen erresau lelengo igual bai (bu)", (beno etxean ere asko egoten zen orduan, bai elizan elizan nik ez daukat gogoan, baina errezatuko zen, baina sartukeran eta holan beharbada ez, elizara edo dinot eskolara sartu orduan errezatu lehenago beharbada bai), "Antonio Artasukoari koji gixon terrenue gobiernuek, asko bien, koji gixon, ser in gixien? eskolaren bat edo ser in gixien? (I)", (Antonio Artazukoari hartu zion terrenoa gobernuak, asko behean, hartu zion, zer egin zuten, eskolaren bat edo zer egin zuten?), "or Bilbo aldeko iru etze egon sien, lenauko lenau eskolie Bilbo aldekoa, da gero bentalta ixin sana (bu)", (hor Bilbo aldeko hiru etxe egon ziren, lehenagoko lehenago eskola Bilbo aldekoa, eta gero bentalta izan zena), "bai, kalletik sano entzuten da, baye umiek eskolatik datosenien da serien, olan sure edadekoak asko berba itten deure auskeras asko (bu)", (bai, kaletik sano entzuten da, baina umeak eskolatik datozenean eta zerean, holan zure edadekoek asko berba egiten dute euskaraz asko)

estasiñoa: geltokia

"apurtxu bet arantzatzuau estasiñoa dau or (I)", (apurtxo bat harantzatzxoago geltokia dago hor)

fabrikie: fabrika, lantegia

"gu fabrikan gabiltzes (bu)", (gu lantokian gabiltza)

frontoye: frontoia

*"Deuston o, oiñ eskuela de idiomas dauen lekuen, frontoyen, antxe bai (b)",
(Deustun, orain hizkuntza eskola dagoen lekuan, frontoian, hantxe bai)*

fruteridxie: frutadenda

kallie: kalea

kanpaye (bu): kanpaia

kanposantue (I): kanposantua, ortusantua; larraskitu aldekoek elejabarrin eduki zuten kanpo-santua aspaldian

*"kanposantue on o, estaldu deurie, kanposantue serien e, mendixen aspixen,
Karameloko mendixe bakixu sein dan? aren aspiko aldien, an etziek e, asi
ber deure iten, ta an egon siesan, etzalde bat Lastasaku beste bat Arana,*

Arana, beste bat sera Linasa, beste bat Mejuto, ainbet etzalde, danak galdu dire, etzaldiek bai selango bendejak kosten euriesan!, letxuga ta, madari te, kereixa ta onetariko (I)", (kanposantua egon, estali dute, kanposantua zerean, mendiaren azpian, Karamelo mendia badakizu zein den? haren azpiko aldean, han etxeak, hasi behar dute egiten, eta han egon ziren, etxalde bat Lastasaku beste bat Arana, Arana, beste bat zera Linaza, beste bat Mejuto, hainbat etxalde, denak galdu dira, etxaldeak bai zelako bendejak hartzen zituzten! letxuga eta, madari eta, gereiza eta hauetariko)

kantarillie: alkantarila, estolda

"es trikina gorpus gustixen deko, gorpus gustixen deko arratoyek, arratoye txarra da, antoju esta? bilbon asko, seguru kantarilletan egoten ei dire txixe edaten (I)", (ez trikina gorputz guztian dauka, gorputz guztian dauka arratoiak, arratoia txarra da, antoju ezta? bilbon asko, ziur estoldetan egoten ei dira txiza edaten)

kantoye (b): kantoia, kale-kantoia

karniseridxe (bu): harategia

kartzela (bu): gartzela

kastilloa (I): gaztelua

"bai, or kastilloa, piñudixek, kastilloa, gure ama difuntiek esaten gixen, aitte difuntuek esaten gixela karlistadako gerran, granada bat bota san kastillotik Artxandako kastillora (I)", (bai hor gaztelua, pinudiak, gaztelua, gure ama zenak esaten zuen, aita zenak esaten zuela karlistadako gerran, granada bat bota zen gaztelutik Artxandako gaztelura)

labaderue: ikuztokia

londigie: alondiga

"bai, urte asko da, karabixe egon san, kantaren karabixe, oin londigie dau, karabixe bai, da oin londigie dau an (l)", (bai, urte asko da, karabia egon zen, harrobiaren karabia, orain londiga dago, karabia bai, eta orain londiga dago han)

matadero: hiltegia; hiltegia lehen matikon egon zen gero zorrotzan

"bakixu len Etzebarrin matadero egon san (b)", (badakizu lehen Etxebarrin hiltegia egon zen), "an estai nik errekien ondoan edo, an errekien ondoan edo an, andiko aldetik, egosan, eskiña baten, baye, egon sana mataderoa bakit (b)", (han ez dakit nik errekaaren ondoan edo, han errekaaren ondoan edo han, handiko aldetik, egon zen eskina baten, baina, egon zena hiltegia badakit)

ortu santue (bu): ortusantua, kanposantua. Bujakoek ortusantua arrigorriagan daukate; Begoñakoek, berriz, Begoñan bertan, Mallonakoa beti izan ei da Bilbokoa

palasixo (l): jauregia

"ya il sien eurek eta in gixien etze, palasixoa a palasixoa da (l)", (ja hil ziren eurak eta egin zuten etxea, jauregia hura jauregia da)

panaderidxe, panaderidxe (bu), panaderie (l): okindegia

"estait panaderie edo ixen san, estait, onen lagun andixe, nosipein geituten dutzo (l)", (ez dakit okindegia edo izan zen, ez dakit, honen lagun handia, noizean behin deitzen dio)

parrokixe (l): parrokia

pasteleridxe (bu): pasteldegia

plasie: plaza

probalekue (bu): probalekua

serbeserie: garagardotegia

"serbeseran dau, egon san, jubilaute dau (l)", (garagardotegian dago, egon zen jubilatuta dago)

tabernie: taberna

"Ajuriagerra il sanien dxoan geintzesan ara, sera, tabernan egoten siena pe, auskera (bu)", (Ajuriagerra hil zenean joan ginen hara, zera, tabernan egon zirenak ere, euskaraz), "asko es baye, ango serekoa berriskoa, an a, sera dau, an alboan egoan taberna bat estait oin badau, ango tabernakoa pe euskera iteuen (b)", (asko ez baina, hango zerekoa berrizkoa, han, zera dago, han alboan zegoen taberna bat ez dakit orain dagoen, hango tabernakoak ere euskaraz egiten zuen), . "orren amak aukin geidxen tabernie (bu)", (horren amak eduki zuen taberna)

tallerra (bu): tailerra

torrie (bu): dorrea

tranbidxe: tranbia

"tranbidxe ta sera be egote san autobus bet egote san Algortara dxoateko sera ara jentie dxoate san bigerren edo maixuek eta dxoaten sien ta urteten auren an Granbian eta dxoaten sien, tranbidxek ederto tranbidxek Begoñara, Begoñekoa pasetasan gure Plasa Elitikatik andik paseta san Begoñekoa, esetu su tranbidxe? (bu)", (tranbia eta zera ere egoten zen autobus bat egoten zen Algortara joateko zera hara jendea joaten zen beharrean edo maisuak eta joaten ziren eta irteten zuten han Gran Vian eta joaten ziren, tranbiak ederto tranbiak Begoñara, Begoñakoa pasatzen zen gure Plaza Eliptikatik handik pasatzen zen Begoñakoa, ezagutu duzu tranbia?)

txabolie: txabola

"txabolak estoas esetu pagasarriko etzie dauena an, dxakingo su (bu)", (txabolak ez ditut ezagutu pagasarriko etxea dagoena han, jakingo duzu), "bai, emen ausoan, dana matza, solo egon barik, ba munetatik eskiñetatik matza, da gero saldu i eurien a terrenoa, oneik andalusentzat, ba bixilekue iteko, etzetxue, txabolatxue, eta erraturie iteotzien, da andik matz asko ekarteurien, emen bai, ba urtien barrika bi, barrika andixek, txakoliñe, etzerako (I)", (bai hemen auzoan, dena mahatsa, soro egon barik, ba munetatik eskinetatik mahatsa, eta gero saldu egin zuten terreno hura, hauek andaluzentzat, ba bizilekua egiteko, etxetxoa, txabolatxoa, eta erratura egiten zioten, eta handik mahats asko ekartzen zuten, hemen bai, ba urtean upel bi, upel handiak, txakolina, etxerako)

txoriseidxe: txorizeria

"Karmelo be bai egon san biarrien txoriseidxen eta Martin be an ibil san (b)", (Karmelo ere bai egon zen beharrean txorizerian eta Martin ere han ibili zen)

uridxe (bu): huria

5. NATURA

Atal honetan hiri inguruko naturagaz eta paisaiagaz lotzen diren berbak batzen ditugu.

aldas gora (I): aldats gora, aldapa gora

"es aldas gora esi lei (I)", (ez aldats gora ezin liteke), "lengunien esan daustie selan a, se lantzin bein dxoaten dies emetikora, aldas gora emetik da gero andik budxatik bajatuten dires peñera, baye etor siren ortik biera se esan dostien an, an goiko baserriko etze bat, an doa peñera eskolara neskato bat, da segun trasie gero gorantza bakarrik da aurekas etorten dies da lagundu itten dotzie andik, da emetik biera etor sien, or urten otzien justo justo beidxek, ai ene gixajie! (bu)", (lehengo egunean esan didate zelan, ze lantzean behin joaten dira hemendikora, aldats gora hemendik eta gero handik bujatik bajatzen dira abusura, baina etorri ziren hortik behera ze esan zidaten han, han goiko baserriko etxe bat, han doa abusura eskolara neskato bat, eta antza denez gero gorantz bakarrik eta eurakaz etortzen dira eta lagundu egiten diote handik, eta hemendik behera etorri ziren, hor irten zieten justu justu behiek, ai ene gajoa!)

aldatza: aldatsa, aldapa

"ai! selango kargak altzeta nendusen neuk olan buruen, solo bat euki genun or, aldatza, aldatza andi ekoen eta selango kargak! (I)", (ai! zelako zamak altxatzen nituen neuk holan buruan, soro bat eduki genuen hor, aldatsa, aldatsa handi zeukan eta zelako zamak!), "an beko soloatan an aldatzien eukidun mallukidxe ba sail andidxe (b)", (han beheko soroetan han aldatsean eduki genuen mailukia ba sail handia)

aldeako etzie: baserria, nekazal etxea

"nire gixonan anaje ba tau eskondute begoñako bategas aldeako etzeko bategas (l)", (nire gizonaren anaia bat dago ezkonduta begoñako bategaz etxaldeko bategaz)

alturie: altura, altakurra

arboladurie: arboladia

"Basortun, Basortun, feriona ixete san Basortun, arboladurie ta ure eukitteuen, bebederue erdi erdidxen, gero kendu euren ta Basortuti erauren serera Sorrotzara (b)", (Basurton, Basurton, azoka ona izaten zen Basurton arboladia eta ura edukitzen zuen, edangoa erdi erdian, gero kendu zuten eta Basurtotik eroan zuten zerera Zorrotzara)

arepilloa: hare-piloa

arie: harea

arloa: arloa, alorra

"gitxi, kerixak eta gitxi egoten siesan, gitxi, baye iten die e, guk eukin gendun mallukixek, selango arlo eukin gendun de batuten (l)", (gutxi, gereziak eta gutxi egoten ziren, gutxi, baina egiten dira, guk eduki genituen mailukiak, zelako arlo eduki genuen eta batzen)

arridxe, arrixe: harria

"baye, ganien, oin beste gause batzuk egongo dires baye orduen, arri andidxeek olan losa antzekoak, pisu andikoak, aren ganien estutu daittesan ondo, eta aukitten gaidxien, pernil betzuk (bu)", (baina, gainean, orain beste gauza batzuk egongo dira baina orduan, harri handiak holan losa antzekoak, pisu handikoak, haren gainean estu daitezen ondo), "eta emen ifiñi olan, arrixe, joteko eta jo kamaran, emen sabaldu berotuteko, berotuteko garixe denpora onaas, emen sabalduten gendusen eta kamaran jo (l)", (eta hemen ipini honela, harria, jotzeko eta jo ganbaran , hemen zabaldu berotzeko, berotzeko garia eguraldi onagaz, hemen zabaltzen genituen eta ganbaran jo)

arto arloa (l): arto arloa

arto artie (bu): arto arloa, arto artea

asto bidie (l): asto-bidea

asto lekue (l): asto-lekua

atxa puntie: haitz punta, haitz muturra

atxa: haitza, harkaitza

"entzutie bakosu? an alture baten, atxa puntan, dana atxa, atxa, atxen kontra (l)", (entzutea badaukazu? han altura baten, haitza puntan, dena haitza, haitza, haitzaren kontra)

barrerie (bu): barrera, erromara

baserri etzie: baserria

"or on sien baserri etziek (l)", (hor egon ziren baserri etxeak)

baserridxe, baserrixe: baserria

"granbian serien egon san baserri bet, serien parkien, ta an bixi sen barres artibeko bat astarloa (bu)", (gran vian zerean egon zen baserri bat, zerean parkean, eta han bizi zen berriz artibeko bat astarloa), "baserrixek botata daus (l)", (baserriak botata dagoz), "bat etorte san, orko baserri beten bixi sen, a baserridxe bota geidxien autopistiegas (bu)", (bat etortzen zen, horko baserri baten bizi zen, baserri hura bota zuten autopistagaz)

basie (b): basa, lokatza

basoa: basoa

"bai budxagoittiti basora, sera ganekogorta ta olan dxoaten geintzesan (bu)", (ba bujagoititik basora, zera ganekogorta eta holan joaten ginen), "basora fanas edo mendire (l)", (basora joan naiz edo mendira)

basoetzie: baso etxea

bendeja lurre (l): bendeja lurra, bendejarako ortuariak hartzeko lur egokia

"ori ama difuntiek esaten gixen, ori granbia gustixe etzaldiek, etzaldie dana, bendeja lurrek, or, on siesela (l)", (hori ama zenak esaten zuen, hori gran via guztia etxaldeak, etxaldea dena, bendeja lurrak, hor, egon zirela)

beresidxe (b): berezia, zuhaskakaz itxita dagoen arloa

bidekrusetie (bu): bide-gurutzea

bidekurtzie (bu): bide-gurutzea

"da bidekurtzien ostabere, ementxe dau kurtze bat esta? ba olango lekuetan erresetan san (bu)", (eta bidekurtzioan ostabere, hementxe dago kurtzio bat ezta? ba holako lekuetan errezatzen zen)

bidie: bidea

"etorri dire bidetik ibiltan (l)", (etorri dira bidetik ibiltzen), "maipuneti beratxuauti sartute, egoan bide bat apur bet gitxi gora beran oiñ eleixie dauen baño goratxuauti ingeruen, andi sartute (b)", (maipunetik beheratxoagotik sartuta, zegoen bide bat apur bat gutxi gora behera orain eliza dagoen baino goratxoagotik inguruan, handik sartuta), "ni bidien agartu natzu (bu)", (ni bidean agertu natzaizu)

biera (bu): behera

bolintxue (bu): bolintxua, errotatxua; Buja aldean dagoen leku baten izena da, bertako informante baten arabera berba hau eta errota bat dira

ermittie: baseliza

errekie: erreka

"erropak garbittan, baye peñeko peñekoak erropak garbittan olatxu ixengo san, se olatxutik oiñ etzie taus iñik baye, olatxu, antxe igual olatxu, olatxun errekie pasetan san t'antxe erropak garbittan (bu)", (erropak garbitzen, baina abusuko abusukoak erropak garbitzen olatxu izango zen, ze olatxutik orain etxeak dagoz eginik baina, olatxu, hantxe igual olatxu, olatxun erreka pasatzen zen eta hantxe erropak garbitzen)

errotie: errota

esidxe: hesia, itxitura

etzaldie: baserria, nekazal etxea

"suk estusus esautu orko etzaldiek (l)", (zuk ez dituzu ezagutu horko etxaldeak), "ba bi on eskero ta etzaldie andidxe basan, erdibittu (b)", (ba bi egonez gero eta etxaldea handia bazen, erdibitu)

etzie: etxea

gari arloa: gari arloa

gari artie (bu): gari arloa, gari artea

gurpidie: gurpidea

islie: isla, irla

"islatan an a, leku betzuten urek urteitten eun, eta estaipa erromeridxe or jaidxe ixin orduen serien, a! fulbolien be bai olgetan auren (bu)", (isletan han, leku batzuetan urak irteten zuen, eta ez dakit ba erromeriak hor jaiak izan orduan zerean, a! futbolearen ere bai egiten zuten) informantea 1983ko uholdeetara artean abusun egon zen irlaren gainean dabil berbetan.

itturridxe (bu), iturrix (l): iturria. erdaraz berba egikera berba hau umeen olgeta batean erabiltzen genituen botilen metalezko tapoiak adierazteko

"au iturriko, iturrixen kontra etze bat? a bota eurien (l)", (hau iturriko, iturriaren kontra etxe bat? hura bota zuten), "ori sartu dau itturriko urien (bu)", (hori sartu da iturriko urean), "itturritik ure dxausten dau (bu)", (iturritik ura jausten da)

itxesoa (l), itxosoa (b): itsasoa

"etxat gustaten itxesoa niri (l)", (ez zait gustatzen itsasoa niri)

itxurridxe(b): iturria

itzesoa (bu): itsasoa

kanpie (bu): landa

kantarie, kanterie: harrobia

"kantarie, bota in gixien gero, gorau in gixuen usabak etze barritxue (l)", (harrobia, bota egin zuten gero, gorago egin zioten uzabak etxe berritxoa)

karabidxe, karabixe: karabia

"bai, urte asko da, karabixe egon san, kantaren karabixe, oin londigie dau, karabixe bai, da oin londigie dau an (l)", (bai, urte asko da, karabia egon zen, harrobiaren karabia, orain londiga dago, karabia bai, eta orain londiga dago han)

karatxa (bu): karatxa, kare-harria

kartzela (l): gartzela

"gerran, francok eskixen itxiten, agur bes esin san in, kartzelara, kartzela bakixu ser dan? (l)", (gerran, francok ez zuen uzten, agur ere ez ezin zen egin, kartzelara, kartzela badakizu zer den?)

kontaminasiñoa: kutsadura

"asiek eta porruek eta esteukie a gustue lenaukoa, autzek, autzek, kontaminasiñoa (l)", (azak eta porruak eta ez daukate gustu hura lehenagokoa, hautsak, hautsak, kontaminazioa)

labrantza etzie (l): baserria, nekazal etxea

"bai errekalde labrantza etziek politxek (l)", (bai errekalde labrantza etxeak politak)

labrantzie (l): baserria, nekazal etxea

"errekalde bai orti pe danak labrantzak, eskurtzen danak labrantzak (l)", (errekalde bai hortik ere danak labrantzak, eskurtzen danak labrantzak)

landie: landa

"olan landatxu bet egotesan, oin estaipa ni ordurik ona enas dxoan andik eta (bu)", (holan landatxo bat egoten zen, orain ez dakit ba ni ordutik hona ez naiz joan handik eta)

larra: solo burua, soloaren goiko aldea

latie: lata, soloa ixteko erabiltzen da.

latziñe: labrabako soloa, lantzarra

lekue: lekua

"oin be dau leku askotan, bedratzi egun itten daure (bu)", (orain ere dago leku askotan, bederatzi egun egiten dute), "ori edosein lekuten, arratoin antzekoa da ta (l)", (hori edozein lekutan, arratoiaren antzekoa da eta)

lupetzie (bu): lupetza, lokatza, basa

lurre: lurra

"asixe gorde in bear da etzien, garixek e, biar asko deko, garixe domusantuetan ereiten da, domusantue, da garixe ereiteko, ba erein orduen prestau, lurrek prest ifiñi (l)", (hazia gorde egin behar da etxean, gariak, behar asko dauka, garia domusantuetan ereiten da, domusantua, eta garia ereiteko, ba erein orduan prestatu, lurrak prest ipini)

manantiala: iturburua

marea biera (bu): marea behera

marea gora (bu): marea gora

mastidxe: mahastia

mendi tontorra (bu): mendi tontorra

mendidxe, mendixe: mendia

"emetik faten san menditik alonsotegire, eta emetik i, arreburixara (l)", (hemendik joaten zen menditik alontsotegira, eta hemendik arrigorriagara), "mendidxen ibilttie ona da (bu)", (mendian ibiltzea ona da)

mojoye (bu): munarria

mugarridxe (bu): mugarria

"an dau mugarri bet ifintten dauena arrigorriaga, barakaldo eta bilbo, ori dau alonsotegi ganien (bu)", (han dago mugarri bat ipintzen duena arrigorriaga, barakaldo eta bilbo, hori dago alontsotegi gainean)

munie: muna

"epetxak itten deu munetan edo, baju, baye abi andi bera txikerra ixeteko, ta txibormigerueri be itten tzo, txinbormigerueri be arrontzie dxan ta berak ifinten deu an (b)", (epetxak egiten du munetan edo, baju, baina habia handi bera txikarra izateko, eta txinbormigeroari ere egiten dio, txinbormigeroari ere arrautza jan eta berak ipintzen du han)

ortue: ortua

otartie: otartea

palatue: palatua, soroak bereizteko egiten den karkaba antzekoa

“batzu tekes olan palatutxuegas bestiek alanbriegas ifiñitte daus (bu)”, (batzuek dauzkate holan palatutxoagaz besteek alanbreagaz ipinita dagoz), “egon san jardin bet, gordonis, kallie, a egon san itxite, palatue ta ifiñite kristelak, eta an egon sien nabarro, orren koñetu bet, an barruen, an egon sien madarixek eta danak, eta egon sien eta bixiten iru, an soloak, andik gora, danak soloak bai serratute ormiegas (l)”, (egon zen loratoki bat, gordoniz, kalea, hura egon zen itxita, palatua eta ipinita kristalak, eta han egon ziren nabarro, horren koinatu bat, han barruan, han egon ziren madariak eta denak, eta egon ziren eta bizitzen hiru, han soroak, handik gora, denak soroak bai itxita hormagaz), “palatue taus palatuek porrejenplo gure beresien palatue dau emen estau mojourik (b)”, (palatuak dagoz palatuak esate baterako gure berezian palatua dago hemen ez dago munarrik)

piñudidxe, piñudixe: pinudia

“bai, or kastilloa, piñudixek, kastilloa, gure ama difuntiek esaten gixen, aitte difuntuek esaten gixela karlistadako gerran, granada bat bota san kastillotik artxandako kastillora (l)”, (bai hor gaztelua, pinudiak, gaztelua, gure ama zenak esaten zuen, aita zenak esaten zuela karlistadako gerran, granada bat bota zen gaztelutik artxandako gaztelura)

playie: hondartza

“playa estau an oiñ se oin dau ser ori sentrala (b)”, (hondartza ez dago han orain ze orain dago zer hori zentrala)

posoa: patina zein osina

“ka! posora, posora, oin deku ure (l)”, (ka! patinera, patinera, orain daukagu ura)

presie: uharka

“oin daus arregletan a presie, eon siesan presa bi, bata, uger iteurien jentiek (l)”, (orain dagoz konpontzen uharka hura, egon ziren uharka bi, bata, igeri egiten zuten jendeek), “presa antzeko bat, emen be or urtetan deurela ta sorgiñek urten dxerek! (b)”, (uharka antzeko bat, hemen ere hor irteten dutela eta sorginek irten ditek!)

sagarsuloa: sagarzulua

sallie: saila, arloa, alorra

sanjie: zanja, karkaba

selaixde: zelaia; adjektibo gisa erabiltzen da sail bat laua dela adierazteko

soloa: soroa

*"oin be asko dabix or soloetan (bu)", (orain ere asko dabiltza hor soroetan),
 "solo andi be teko an beyen, eta berak estekoles katxarrorik tratora
 deko onek martiñek eta, tratoragas in tzon soloa ta emon tzon inyabie,
 baye guk inyaba gitxi dxaten du (b)", (soro handi bat dauka han behean,
 eta berak ez daukanez katxarrorik traktora dauka honek martinek eta,
 traktoragaz egin zion eta eman zion indaba, baina guk indaba gutxi jaten
 dugu)*

solo barrena: soro barrena, soro baten beheko aldea

solo burue: soro burua, soro baten goiko aldea

solo godxena: soro goiena, soro baten goiko aldea

subidxe, subixe (I): zubia

*"orregaittik akortanas terriblien, santantoiko subidxe, ori emen sartu baño
 ordue lenau edo, da asi sien bai, sartu sienien ya besperan apurtu eusen
 eskiña gustidxe (bu)", (horregatik gomutatzen naiz itzel, san antoneko
 zubia, hori hemen sartu baino ordua lehenago edo, eta hasi ziren bai,
 sartu zirenean ja bezperan apurtu zituzten eskina guztiak), "segun soasen
 oin subixe dau einte, subire allegeu baño lenau (I)", (segun zoazen orain
 zubia dago eginda, zubira ailegatu baino lehenago), "an igorretako
 subidxen bat koxi akun aurreti andi onantzakoan durangon sartueran,
 bausta! (b)", (han iurretako zubian bat harrapatu genuen aurretik handik
 honantzakoan durangon sartukeran, bausta!)*

subipie (bu): zubipea, zubiaren azpiko aldea

suloa: zuloa

*"baye gure inguruen egon san bat baye agiño esien dxoan, agiño es, guk auhin genun etzien
 kasik bertan sulo bat eiñik estakipa segaittik ongo san suloa iñik, bea akordetanas ara dxoaten
 geintzesela, olan suloa bide bidien sulo sabal bat eta (bu)", (baina gure inguruan egon zen bat
 baina haraino ez ziren joan, haraino ez, guk eduki genuen etxean kasik bertan zulo bat eginik ez
 dakit ba zergatik egongo zen zuloa eginik, baina gomutatzen naiz hara joaten ginela, holan
 zuloa bide bidean zulo zabal bat eta), "kaustikie deskuideuaskero erropieri askotxu emoten
 suloa in (I)", (kaustika deskuidatuz gero erropari askotxo ematen zuloa egin), "or sorgiñek urten
 dxeurek, ango suloti, an esan sorgiñik egon (b)", (hor sorginek irten ditek, hango zuloatik, han ez
 zen sorginik egon), "da gu gixajoak selango! eraten doskuen orra depositture ango sulora,*

sirenak asten sienien sarataka (bu)", (eta gu gixajoak zelako! eroaten gintuzten horra depositura hango zulora, sirenak hasten zirenean zarataka)

taketa: taketa, itxiturak egiteko erabiltzen dira.

terrenue: arloa, lur saila

"ba orduen refujidxo ixete sien suloak in serien, terrenoan aspidxen, ta estaipa selango errefujidxora dxoango sien, eskolara? (bu)", (ba orduan aterpea izaten ziren zuloak egin zerean, terrenoaren azpian, eta ez dakit ba zelako aterpera joango ziren, eskolara?)

tontorra (bu): tontorra

trokie: troka

"bein, basotik jausi xakon bei bet, ba trokan (l)", (behin, basotik jausi zitzaion behi bat, ba trokan)

txabolie: txabola; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

txanela (l): txanela, txalupa antzekoa

"baten paseu nau alabiegaitik deusture, olango txanelatxu beten, ai selango bildurre paseu neuen, enoa geixau, ni geixau es (l)", (baten pasatu naiz alabagatik deustura, holako txalupatxo baten, ai zelako bildurra pasatu nuen, ez noa gehiago, ni gehiago ez)

txosna: txosna; berba hau erdaraz jaietako txosnak adierazteko erabiltzen dugu

"gero ona etor sen, eta oin ostabe ara fan da, an ifinten deures txosnak eta, ara faten die (l)", (gero hona etorri zen, eta orain ostabere hara joan da, han ipintzen dituzte txosnak eta, hara joaten dira), "txosnatan dxote neuen len plasan esan itten, erromeridxe bai, baye ostantzien, berbeniori, se len emen sabalbide gustidxen dana egote sien txosnak, or o, oin gu bixi garan ingeruen asi te begoñerarte, ortxe egote sien (b)", (txosnetan jotzen nuen lehen plazan ez zen egiten, erromeria bai, baina osterantzean, berbena hori, ze lehen hemen zabalbide guztian dena egoten ziren txosnak, hor, orain gu bizi garen inguruan hasi eta begoñaraino, hortxe egoten ziren)

ubidie (bu): ubidea

ugerlekue: igeri lekua; Begoñan toponimo gisa ere erabiltzen da, bertan dagoenari "Sorginsuloa" ere esaten zaio

urartie (l): urartea

urbidie (bu): urbidea

6. LANDARERIA

Landareriari buruzko hiztegia hobeto aurkezteko sei ataltxo egin ditugu: landareen atalak, arbolak, basa landareak, ortuariak, fruituak eta, azkenik, zekaleak eta belarrak.

6.1. LANDAREEN ATALAK

abarra: abarra, abarrak erramak baino txikiagoak izaten dira

alfafa asixe (l): alfalfa hazia

asala: azala

asa landarie: aza landara

astillie: zozpala, hau txikia izaten da "sospala", ostera, handiari esaten zaio

asurre: frutuen hezurra

egur abarra (l): egur abarra

"otakarra, egurre abarra, egurre abarra, guk u egurre geituten dotzegu aretxan a, goiko kimieri e sera, errama, beste batzuk geituten dotzie abarra, errama abarra (l)", (otakarra, egurra abarra, egur abarra, guk egurra deitzen diogu zuhaitzaren hura, goiko kimari zera, errama, beste batzuk deitzen diote abarra, errama abarra)

egurre: egurra

"gero bueno segunda soas afaridxe imintten, dxoan, egurre txikertu, egurri pes, egurre txikertu barik, egurre txikertu, imiñi afaridxe, eran solora, makiñe bat bier! (bu)", (gero beno segunda zoaz afaria ipintzen, joan, egurra txikartu, egurrik ere ez, egurra txikartu barik, egurra txikartu, ipini afaria, eroan sorora)

erpie: erpa, sustraia

erramie: abarra, erramak handiak izaten dira

errepollue (l): errepoiloa

"selango, madari, sagar, milikotiek egoten siesan or, da madaripetan olango letxuga errepolluek (l)", (zelako, madari, sagar, milikotak egoten ziren hor, eta madaripetan holako letxuga errepoiloak)

frutie: fruitua

garaue: garaua

"bata, rusoa, a da, a teko grime asko buruen, baye garau ona e? (l)", (bata, errusoa, hura da, hark dauka grima asko buruan, baina garau ona e?)

garie (l): garia

"baye ereiten bosu kresientien, kresientien kunpullie da porrue, aik garara datos, garara, eta palue, ak kunpulliek esteko grasiarik, eta porrue pes, erein bear da asixe, asixe ereiten bosu barikuen ak esteko porrarik (l)", (baina ereiten baduzu ilgoran, ilgoran kipula eta porrua, haiek garara datoz, garara, eta zila, kipula hark ez dauka graziarik, eta porruak ere ez, erein behar da hazia, hazia ereiten baduzu barikuan hark ez dauka zilik)

gastaña garaue (l): gaztaina garaua

"eskutilliegas, kirikixoak egon sien ya gorritute, da gustaña garau solteu, tanboliñie egon san urtietan or, erretako surten tanboliñie, olan buelte emoteko tanboliñieri te gustaña erriek (l)", (eskubareagaz, kirikioak egon ziren ja gorrituta, eta gaztaina garau soltatu, dabolina egon zen urteetan hor, erretzeko surtan danbolina, holan buelta emateko danbolinari eta gaztaina erreak)

gorriñie (l): gorrina, landareen ugerra

kaskarie (b): azala

kastaña landarie: gaztaina landara

kimie: kima; erdaraz ere berdin erabiltzen dugu berba hau

kirikiñoa, kirikixo (l): kirikioa, gaztainen gaineko arantzadun oskola

"aikas barandakas igon gastañan ganera da jo ta gastañak jausi, ba kirikixoak, da gero burdixen ekarri (I)", (haiekaz barandakaz igon gaztainaren gainera eta jo eta gaztainak jausi, ba kirikioak, eta gero gurdian ekarri)

koskola (bu): koskola, oskola

krima (bu): kima

kuskurre: kuzkurra, ezkurra

landarie: landara

"an bi egon siren bi peñekoak oin, bueno oin peñen estire bixi se bota auren etzie baye, oin badekidxies landarak (bu)", (han bi egon ziren bi abusukoak orain, beno orain abusun ez dira bizi ze bota zuten etxea baina, orain badauzkate landareak), "da ereiten bosu edosein egunetan kresientien aik ya dakaxie landaratik (I)", (eta ereiten baduzu edozein egunetan ilgoran haiek ja dakarte landaretik), "es ondikarren landarak eta ingeruek piperrak eta ingeruek orrek itten dittus martinek itten dittus (b)", (ez ondinokarren landareak eta inguruak piparrak eta inguruak horrek egiten ditu martinek egiten ditu)

letxuga errepolluek: letxuga errepoiloak

letxuga landarie: letxuga landarea

"aik ifiñi letxuga landarie da illebete barru errepolluek (I)", (haiek ipini letxuga landarea eta hilabete barru buruak)

lorie: lorea

"ifinte san etzien olan, mimena, adornue, lorakas, larrosakas, batana ta lorakas, ifinten gixan jentiek, san juan goixien (I)", (ipintzen zen etxean holan, mimena, apaingarria, lorakaz, larrosakaz, batana eta lorakaz, ipintzen zituen jendeak, san juan goizean)

mastidxe: mahastia

morda: morda

"ikusgarrisko selaixek dana matza, dana matza, parrak es altuek es, bajuek, eta an esei deure kosten garau bet berdie, itxiten deurie mordak siketu deitesan, maspasak in deitesan kanpoan, kanpoan, eurek, dausen lekuen ba, maspastu, eta aik ei daus dultziau asukerie baño (I)", (ikusgarrizko zelaiak dena mahatsa, dena mahatsa, parrak ez altuak ez, baxuak, eta han

ez ei dute hartzen garau bat berdea, uzten dituzte mordak sika daitezen, mahaspasak egin daitezen, kanpoan, kanpoan, eurak, dagozen lekuan ba, mahaspastu, eta haiek ei dagoz gozoago azukerea baino)

mukurre: mukurra

"ba, otza egoten basan, se sue oin txapie deku esta? bai sue bajue, mukurrekas bai, eta gero suetien bai, da ostien ude partien ementxe (I)", (ba, hotza egoten bazen, ze sua orain txapa daukagu ezta? baina sua baxua, mukurraz bai, eta gero sukaldean bai, eta ostean uda aldean hementxe)

musille (bu): muskila

naboburue: harbi burua

"egosten dakodxesan egun gustidxetan, serantzako txarridxentzako dxatekoa, patata, naboa, naboburue, asie eta urune (bu)", (egosten zitzaizkien egun guztietan, zerentzat txerrientzat jatekoa, patata, habia, harbi burua, aza eta irina)

nabolorie (bu): harbigara, harbiaren gara eta lorea; leku batzuetan jan ere egiten dira

"bai eta deko palutxue goso ademas, ba nabolorak (bu)", (bai eta dauka ziltxoak gozo gainera, ba harbigarak)

naborridxe (bu): harbi orria

"naboa bere ereitten genun satz askogas ta gero naborridxe eta a satza botaten genun ango kañure (bu)", (harbia ere ereiten genuen sats askogaz eta gero harbi orria eta sats hura botatzen genuen hango hodira)

orbela (bu): orbela

orridxe, orrixe: orria

"ori ugerra, asten da, asten da orrixen burriñeko ugerra leges siketan (I)", (uger hori, hasten da, hasten da orrian burrineko ugerra legez sikatzen)

otartie: otartea, ote alorra

palue: makila

"erliek olango serak dekosela begituten da, sera, argixerixe, da palue tekos (l)", (erleak holako zerak dauzkala begiratzeko eta, zera, argizaria, eta makilak dauzka), "batzuk erateuden eskeite, eta beste batzuk agiñek atarata palueri, ta emen esetu dot nik asko ori se emeti eraten gendun esnie santa mariñera (b)", (batzuek eroaten zuten eskegita, eta beste batzuek haginak aterata makilari, eta hemen ezagutu dut nik asko hori ze hemendik eroaten genuen esnea santa marinara), "mortzillak itten sien asko ta eskeitten sienien suetien ifintten geidxien palu bet ta an eskeirik batetik bestera, da areik ixitten sien geidxenak, geidxenak errepartiduteko ausuneri se gero asusunekoa pe bardiñ eitten geidxien e, bata bestiegas betik kanbidxetan sien, negu gustidxen mortzillak dxaten (bu)", (buzkantzak egiten ziren asko eta eskegitzeko zirenean sukaldean ipintzen zuten makila bat eta han eskegirik batetik bestera, eta haiek uzten ziren gehienak, gehienak banatzeko auzunei ze gero auzonekoek ere berdin egiten zuten, bata besteagaz beti aldatzen ziren, negu guztian buzkantzak jaten)

patata asidxe: patata hazia

patata orrixe (l): patata orria

"ori iten da patata orrixen (l)", (hori egiten da patata orrian)

piñie (l): pinaburua

"estakixu a sera piñie a piñuena? artaburue langoa? a pikeu te jan, askonarria piñu artien eoten da (l)", (ez dakizu hura zera pinaburua hura pinuarena? artaburua lakoa? hura pikatu eta jan, azkonarra pinu artean egoten da)

pintxoa (l): arantza

piper susterrak: piper sustraiak

pipille (bu): pipila

porru asixe (l): porru hazia

sospela: zozpala

sotza: zotza

susterra: sustraia

"atara doas piper susterrak eta olango txisme bat eukineskero majo erango neukes baster batera, bai (l)", (atera ditut pipar sustraiak eta holako trapazeri bat edukiz gero polito eroango nituzke bazter batera, bai)

trongoa (b), tronkoa: enborra

txorbela (bu): orbela

urreskidxe (b): urreskia

6.2. ARBOLAK

altza: altza

aratxa: 1. haritza. 2. zuhaitza

arbolie(b): arbola

"baye emen gatxau ixete san, se emen arbolak on sien andidxe, orduen e, etziek baño andidxoak jeneralmente arbolak ote sien emen aretxak eta, eta orduen esta dxoaten etzera (b)", (baina hemen gaitzago izaten zen, ze hemen zuhaitzak egon ziren handiak orduan, etxeak baino handiagoak gehienetan zuhaitzak egoten ziren hemen haritzak eta, eta orduan ez da joaten etxera), "un be arbolak estekos ondo goberneute onek se one pe dana esin deu in (b)", (orain ere arbolak ez dauzka ondo gobernatuta honek ze honek ere dena ezin du egin)

aretxa: 1. haritza. 2. zuhaitza,

"lengo aretxak oin be oingoa paño gedxau aguantan deure, oiñ eun urteko aretxak oingo barridxe paño gedxau aguantau deure (b)", (lehengo zuhaitzek orain ere oraingoek baino gehiago irauten dute, orain ehun urteko zuhaitzek oraingo berriek baino gehiago irauten dute), "orreiri erre xakies e, aretxak (l)", (horiei erre zaizkie zuhaitzak)

arkasidxe: arkazia

burbuxe, orbuse (l): gurbixa; erdaraz "borto" esaten diogu

"al borto, borto burbuxa, da ara faten gintzen baye buruen asto lekuri esan egon, asto biderik es, buruen (l)", (al borto, borto gurbixa, eta hara joaten ginen baina buruan asto lekuri ez zen egon, asto biderik ez, buruan)

eukalitue (bu) ukalitue (bu): eukalitua

gastaña aratxa (bu): gaztaina landarea, gaztaina arbola

gastañie: gaztaina

gorostidxe: gorostia

karraskillie (b): karraskila

kastañaratxa (bu): gaztaina landara, gaztaina arbola

leixarra, lexarra: leizarra

pagoa: pagoa

piñue: pinua

sagar arbola: sagar arbola

san juan aratxa san juan aretxa (b): leizarra

"san juan aretxa san juan egunien ipinten da atien (b)", (leizarra san juan egunean ipintzen da atean)

saretza, saretxa: saratsa

"saretxa, bueno ori be astak itteko ta olan (b)", (saratsa, beno hori ere girtenak egiteko eta holan)

txakur egurre (l): karraskila

6.3. BASA LANDAREAK

amukoa, amukue (b): amukoa, mamukioa

asune: asuna

"asunekas gripe edo katarroa kenduteko ta bai ori bai, lepoan e, sertu, alkol apur beteas garbittu te gero, berotuteko ixengo da ori, pentzau neuk e, pika apur bet, asunek pikeu iten deu ba, asunek bero emoten deu (b)", (asunakaz gripe edo katarroa kentzeko eta bai hori bai, lepoan, zertu, alkohol apurATEGAZ garbitu eta gero, berotzeko izango da hori, pentsau neuk, pikatu apur bat, asunak pikatu egiten du ba, asunak bero ematen du)

batana: batana

ereñotza(b): ereinotza

errolantza: elorrantza

galeperna: perretxiko mota bat

gibelurdiñe: gibel urdina, perretxiko mota bat

giñarrakixe (l): ginarrakia

"garbitako egon san olango giñarra bat, bai baye in bear san ba, giñarrakixegas (I)", (garbitzeko egon zen holako ginarra bat, bai baina egin behar zen ba, ginarrakiagaz)

giñarrie (I): ginarra, inarra

idie: ira

"oin soloan eo nasenien da sera, berakatza jorran, begire eo nas oin ida ba pe iñor estoa ebaiten mendire, ida gustixek gorritute daus (I)", (orain soroan egon naizenean eta zera, berakatza jorran, begira egon naiz orain ira bat ere inor ez doa ebagitzen mendira, ira guztiak gorrituta dagoz), "bueno gero, il ye gero sabalduten geidxien txarridxe, da eskeitten geidxen otzittu daitten, bueno tripek atara, da idiegas erre ittesan (bu)", (beno gero, hil eta gero zabaltzen zuten txerria, eta eskegitzen zuten hotzitu dadin, beno tripak atera, eta iragaz erre egiten zen, apur bat, ileak eta erretzeko, eta kutxilo bategaz dena ondo karrankatzen zuten, hura, urdaiazen azala)

iñarrie (bu), iñerrie (b): inarra, ginarra

intzurridxe (b): intzurria

kuku sagarra: kuku sagarra,

"aretza teukiesenak, kuku sagarrak (I)", (haritzak dauzkanak kuku sagarrak)

kuletroa: kuletroa; perretxiko mota bat

larrosie: larrosa

linoa, liñoa: lihoa

"lino es, entzutie baukot nik, ori erein in bear da, sera, firue iteko, liñoa, baye nik estait selan, nire suegra difuntiek esateuen, amagiñarrabak, gero bere sasoyen itargixeri begitu, da bere sasoyen ebai igitixegas, da gero ondo batu urien, egun betzuten urartien, da gero kanpoan siketu deitela, liñoa, kanpoan, da gero agas iten deurela ba telie, telak (I)", (lihoa ez, entzutea badaukat nik, hori erein egin behar da, zera, firua egiteko, lihoa, baina nik ez dakit zelan, nire amaginarreba zenak esaten zuen, amaginarrebak, gero bere sasoian ilargiari begiratu, eta bere sasoian ebaki igitaiagaz, eta gero ondo batu urean, egun batzuetan urartean, eta gero kanpoan sika dadila, lihoa, kanpoan, eta gero haregaz egiten dutela ba ehuna, ehunak)

luki bustena: luki buztana, azeri buztana

"bai luki bustenak eta orreik, luki bustenak setako useta sien ba? enas akordetan setako useta sien be (b)", (bai luki buztanak eta horiek, luki buztanak zertarako erabiltzen ziren? ez naiz gomutatzen zertarako erabiltzen ziren ere), "luki bustenak se nik e, an bien itte siren, olan mantel baten, eta orregaiti takit nik, se ni nosonos dxoan inas bille, baten bateri olan emoteko, ba nik estaitt setako (b)", (luki buztanak ze nik, han behean egiten ziren, holan zamau baten, eta horregatik dakit nik, ze ni noizedonoiz joan naiz bila, baten bati holan emateko, ba nik ez dakit zertarako)

mantzanillie (bu): mantzanila, kamamila

masustie (bu): masusta

"etxate gustetan masustak, nik sekule koji es bat, a txarri okaranak gosoa tie, beyen oten die gurien, eskastu in die (l)", (ez zaizkit gustatzen masustak, nik sekula hartu ez bat, txerri okaranak gozoak dira, behean egoten dira gurean, eskastu egin dira)

mimena: mimena

"ifinte san etzien olan, mimena, adornue, lorakas, larrosakas, batana ta lorakas, ifinten gixan jentiek, san juan goixien (l)", (ipintzen zen etxean holan, mimena, apaingarria, lorakaz, larrosakaz, batana eta lorakaz, ipintzen zituen jendeak, san juan goizean)

mora: masusta

mune bedarra: muna belarra, munetan egiten den belarra

otagarratza (b): otagarratza, otabarra, oterik handiena

otie (bu): otea

perretxikoa: perretxikoa, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu zizak orohar izendatzeko.

saltza perretxiko (l): saltza perretxikoa, perretxiko mota bat

san jose lora (l): san jose lora

sanbedarra (bu, b): zainbelarra

"bedar klase bi dies, enbrantzako dires lusiek da gixonantzako dires biribiliek, orreik sanbedarrak (bu)", (belar mota bi dira, andrazkoentzat dira luzeak eta gizonentzat dira biribilak, horiek zainbelarrak)

sasiartie: sasiartea

sasidxe, sasixe: sasia

"kostau dakola apur bet se karo sasidxe ta egon sala iñik alboan da sapatak antxe (bu)", (kostatu zitzaiola apur bat ze jakina sasia eta egon zela eginik alboan eta zapatak hantxe), "dana jan, arrapauten deuen a dana, da gero itxiten deuen siketu, auntze da ona sasixe garbitako (l)", (dena jan, harrapatzen duena dena, eta gero uzten duena sikatu, ahuntza da ona sasia garbitzeko)

saukue: saukua

setie: perretxikoa

sie (bu): zihia; leku hezeetako landarea

siporrak: zihi moltzoak

sitze: zihia

"sitzeek geitten tzegu guk, mune bedarretako orreri, mune bedarretako asidxeek, punten emoten deuen a, orreik, ta bestiek siporrak (b)", (zitzak deitzen diogu guk, muna belarretako horri, muna belarretako haziak, puntan ematen dauena, horiek, eta besteak ziporrak)

txakur egurre (l): txakur egurra

txakur sagarra: txakur sagarra

txarri okan (l): txarri okarana

txibirita (bu): txiribita

txori matza: txori mahatsa

untzurridxe: intzurria

urretxa: hurritza, perretxiko mota bat

6.4. ORTUARIAK

alkatxofie (bu): alkatxofa

arbidxe (bu): habia

aselgie: azelga, zerba

asie: aza

babie: baba

"ba soloan, babak, baba txikidxe esaten dana, eta berakatzak, kunpillak a, udebarrikoak asten diesenak dxaten, es urte gustikoa es e, urte gustikoa dana gorridxe, ori ixitten da martitti aprillera, baye oiñ ori berakatzak eta, kunpilla, kunpilla ensaladakoa (bu)", (ba soroan, babak, baba txikia esaten dena, eta berakatzak, kipulak, udaberrikoak hazten direnak, ez urte guztikoa ez, urte guztikoa dena gorria, hori izaten da martxotik apirilera, baina orain hori berakatzak eta, kipula, kipula entsaladakoa)

baba txikidxe: baba txikia

bañie (l): baina

"bai, baye esteukie esetako gusturik orreik bañok (l)", (bai, baina ez daukate ezertarako gusturik horiek bainok)

berakatz: berakatz, baratxuria

"ekar barik berakatzak ekar gaidxien kunpillie (bu)", (ekarri barik berakatzak ekarri zuten kipula)

berdurie: berdura

"berdurie jaten dot es lodituteko (l)", (berdura jaten dut ez loditzeko)

erremolatxie: erremolatxa,

"erremolatxie eukiten gendun soloan (l)", (erremolatxa edukitzen genuen soroan), "ba ganaduentzako egosi itte san, erremolatxak eta patatak eta egosi itte siren (b)", (ba ganaduentzat egosi egiten zen, erremolatxak eta patatak eta egosi egiten ziren)

esparrague (bu): zainzuria

iderra: idarra, ilarra

"dana, gustirik mallukidxe ta jenero gustirik iderra ta babie ta, bueno ider apur bet ta baba apur bet gu pe badeku etzerako (b)", (dena, guztirik mailukia eta gauza guztirik eta baba eta, beno ilar apur bat eta baba apur bat guk ere badaukagu etxerako)

indiyabie (I): indaba

"ba guk u, goxien barusten kafekonletxe, kafie esniegas, da gero, ba gero, gosie edo, ogi sati bet edo seoser txokolatiegas edo, baye enjeneral egurdirarte es, egurdixen beti indiyaba (I)", (ba guk, goizean barausten kafesnea, kafea esneagaz, eta gero, ba gero, gosea edo, ogi zati bat edo zerozer txokolateagaz edo, baina gehienetan eguerdira arte ez, eguerdian beti indaba)

inyaba gorrixie (I): indaba gorria

inyaba surixe (I): indaba zuria

inyabie: indaba

"da gero ostera urdei apurtxu bet e, frijidu da ostera inyabieri a koipie bota inyabieri ganera (I)", (eta gero ostera urdai apurtxu bat, prijidu eta ostera indabari koipe hura bota indabari gainera), "inyabie ta artoa erein, ta batera, ta gero jesus! gure amak makiñe bat inyaba eran deu plasan saltzen (b)", (indaba eta artoa erein, eta batera, eta gero jesus! gure amak makina bat indaba eroan du plazan saltzen), "ostentzien egun gustidxetan arek inyabak, inyaba baye platerkada bi e, gustetan dakosan! (bu)", (osterantzean egun guztietan hark indabak, indaba baina platerkada bi, gustatzen zitzaizkion!)

kalabasie (I): kalabaza

"porrusaldie, porru askogas patatatxu betzuk, kalabasa denporan kalabasa apurtxu betegas (I)", (porrusalda, porru askogaz patatatxo batzuk, kalabaza denboran kalabaza apurtxo bategaz)

koliflora: azalora

*"gabonak ixitten sien be polittek, a ta orduen dxate san sera asa oridxo
edo koliflora (bu)", (gabonak izaten ziren ere politak, eta orduan jaten
zen zera aza orioa edo azalora)*

kinpullie, kunpillie, kunpullie: kipula

*"orreik enbrok o kinpullak bota deudes (l)", (andrazko horiek kipulak bota
dituzte), "naikora kunpilla ekarri daure (bu)", (nahikoa kipula ekarri dute)*

kunpilla gorridxe: kinpula gorria

letxugie (l): letxuga

naboa: harbia

*"klaro, naboa ixete san lusie eta naboa ifiñi ango burriñetan da serien eta orretako gitxik
eukitten genun (bu)", (jakina, harbia izaten zen luzea eta harbia ipini hango burdinetan eta
zeran eta horietako gutxik edukitzen genuen), "frantzesa bakixu ser dan frantzesa? da nabo
apur be pe bai, da a be in biar, forratu in biar (l)", (frantzesa badakizu zer den frantzesa? eta
harbia apur bat ere bai, eta hura ere egin behar, jorratu egin behar), "es artorik eta olangorik
esta itten emen, bueno oneik e, ba oneik badekienak ganadu apur bet, ba naboa ta artoa ta
olangoa ereiten deu ondikarren, ganadu apur be tekona pa, bakixu (b)", (ez artorik eta
holakorik ez da egiten hemen, beno hauek, ba hauek badaukatenak ganadu apur bat, ba
harbia eta artoa eta holakoa ereiten du ondinokarren, ganadu apur bat daukanak ba,
badakizu), "naboa ganaduentzako ona da (b)", (harbia ganaduentzat ona da)*

patatie: patata

*"ak patatiek illebete barru ugerra koxu (l)", (patata hark hilabete barru
ugerra hartu)*

perejille, perrejille: perrexila

*"gixedue igual ekarten gixen lebatza ta osten patatatxu betzukes perejil
askogas saltza berdien (l)", (gisadua igual ekartzen zuen legatza eta
ostean patatatxo batzukaz perrexil askogaz saltsa berdean)*

piper gorrixe (l): pipar gorria

*"eukiten deures piperra pe bai, piper gorrixek, da boltza, plastikotxueta
arkoyen (l)", (eduki dituzte piparrak ere bai pipar gorriak, eta boltsa,
plastikotxoetan arkoian)*

piper txoriseru: pipar txorizerua

*"nik lantzin beiñien sera, solomoa igual freskoa esan ona dala ta ekar dot da
gero etzien sera, piper txoriseruekas da gorrittu ta siketu kamaran da*

(bu)", (nik lantzean behinean zera, solomoa igual freskoa esan ona dela eta ekarri dut eta gero etxean zera, pipar txorizeroakaz eta gorritu eta sikatu ganbaran eta)

piperra: piparra

"nik piperrak ekar dodas (l)", (nik piparrak ekarri ditut), "semet piper dxan dosus? (bu)", (zenbat pipar jan dituzu?)

porrue: porrua

"ekar daure porru lar (bu)", (ekarri dute porru lar)

tomatie: tomatea

6.5. FRUITUAK

abellanie (bu): kakahuetea

agirre (b): geriza mota bat

andramaridxe: sagar mota bat

anita madaridxe: madari mota bat

anpullarie: gerezi mota bat

"ta anpullara olango erdi suri-gorridxe, suri-gorridxe ori ixen san kerixa bat onau, gure aittek etzien eukitxun arbolak e, mendau itten txusen arbolak (b)", (eta anpullara holako erdi zuri gorria, zuri gorria hori izan zen gereiza bat ona, gure aitak etxean eduki zituen arbolak, mendatu egiten zituen arbolak)

atxikoa: iko mota bat

baponesa (b): iko mota bat

"brebikoak eta bueno oneik atxikoak eta, baponesa ori erdi, suri antzekotxue da, baponesa iko gosoa sano! (b)", (brebikoak eta beno hauek atxikoak eta, baponesa hori erdi, zuri antzekotxoa da, baponesa iko gozoa sano!)

bosteko matza: mahats mota bat

brebie: iko mota bat

"iges bai iges kantidedie brebak eta goso on sien, ni enas frutesalie, frutesalie ba penas (b)", (iaz bai iaz kantidade brebak eta gozo egon ziren, ni ez naiz frutazalea, frutazalea bat ere ez naiz)

brebikoa: iko mota bat

errañetie (bu, l), erreñetie, arraiñetie (l): erraineta, sagar mota bat

gabonetako madaridxe: madari mota bat

gasasagarra: sagar mota bat

gastañie: gaztaina

goistikoa: gerezi mota bat

ikoa: ikoa

"bai, intxurrek egon siesan be bai, ikoa pe bai (l)", (bai, intxaurrak egon ziren ere bai, ikoak ere bai), "ikoa da ikoa ta brebie da brebie (b)", (ikoa da ikoa eta breba da breba)

iko baltza: iko beltza, iko mota bat

iko suridxe: iko zuria, iko mota bat

ikopasak (bu): ikopasak

intxurre: intxaurra

"emon bai, emon orduen posik, batzu pa, esku bete intxur edo sagar batzuk, edo ba, eukiten gixiena, da gu posik, baye gastetxuek faten gintzasan (l)", (eman bai, eman orduan pozik, batzuek ba, esku bete intxaur edo sagar batzuk, edo ba, edukitzen zutena, eta gu pozik, baina gaztetxoak joaten ginen), "ekar deure intxur asko (bu)", (ekarri dute intxaur asko)

jaboi sagarra (bu): sagar mota bat

kastañie: gaztaina

kereixie (bu), kerixie, keixie: geriza, gerezia

"kerixek klase asko egon san asko daus, iru lau klase (b)", (gereziak mota asko egon zen asko dagoz, hiru lau mota)

klaudia: okaran mota bat

klaudia reina: okaran mota bat

klaudiokarana (b): okaran mota bat

kojon de fraile: okaran mota bat

kutxillo madaridxe: madari mota bat

laranje: laranja

limoye: limoia

madaridxe: madaria

"egon san jardin bet, gordonis, kallie, a egon san itxite, palatue
ta ifiñite kristelak, eta an egon sien nabarro, orren koñetu bet,
an barruen, an egon sien madarixek eta danak, eta egon sien
eta bixiten iru, an soloak, andik gora, danak soloak bai
serratute ormiegas (l)", (egon zen loratoki bat, gordoniz, kalea,
hura egon zen itxita, palatua eta ipinita kristalak, eta han egon
ziren nabarro, horren koinatu bat, han barruan, han egon ziren
madariak eta denak, eta egon ziren eta bizitzen hiru, han
soroak, handik gora, denak soroak bai itxita hormagaz),
"madari gitxi ekar deure (bu)", (madari gutxi ekarri dute)

mallukidxe: mailukia

*"an beko soloatan an aldatzien eukidun mallukidxe ba sail andidxe (b)", (han
beheko soroetan han aldatsean eduki genuen mailukia ba sail handia), "suk
malluki asko dxan dosu (bu)", (zuk mailuki asko jan duzu)*

mas baltza: mahats beltza

mas gorridxe (bu): mahats gorria

mas suridxe (bu): mahats zuria

maspasa (I): mahaspasa

matza: mahatsa

"bueno lenengos matzak egon bear dau sano osea estittela usteldurik edo olan egon, ondo solirik (bu)", (beno lehenengoz mahatsak egon behar du sano, hau da ez dadila usteldurik edo holan egon, ondo zolirik)

melokotoye, milikotie (I): milikota

*"selango bendejak! selango, madari, sagar, milikotiek egoten siesan or (I)",
(zelanko bendejak! zelako, madari, sagar, milikotak egoten ziren hor)*

mispedo (I): mizperrua

"orrei pe garratzak eta mingotzak, estait selan geituten tzien, da beste batzu taus, selan deukie usena aik? gosoa tie, mispedoak (I)", (horiek ere garratzak eta mingotsak, ez dakit zelan deitzen zieten, eta beste batzuk dagoz, zelan daukate izena haiek? gozoak dira, mizperruak)

misperue (bu): mizperrua

naranjie: laranja

"txorixoa urdeidxe erretako, erretako an sue iñ, ta gero sotzan sartu, eta naranjak, orduen egunaro esauen ekarko amak naranjak baye kanpora martxon naranjak etorten sien, da begittu ser dan oin naranjie mundu gustidxe dxaten dau baye orduen e, akordetanas amak kantiñen, esnie salduten dan lekuen an sartute, eta tapie kendu te usiñe selango gosoa oseake, eta orduko egunien esan falta estekot akorduen gero, lar esaun ekarko se ume asko ixin geintzesan da, orduen be, selango presidxoa eukingo aun, eta natanjak eraten genusen, naranjak, eta eran txorixoa edo urdeidxe eta erreta ogidxegas goso (bu)", (txorizoa urdaia erretzeko, erretzeko han sua egin, eta gero zotzan sartu, eta laranjak, orduan egunaro ez zituen ekarriko amak laranjak baina kanpora martxon laranjak etortzen ziren, eta begiratu zer den orain laranja mundu guztiak jaten du baina orduan, gomutatzen naiz amak kantinan, esnea saltzen den lekuan han sartuta, eta tapa kendu eta usaina zelako gozoa hau da, eta

orduko egunean ez zen falta ez daukat gogotan gero, lar ez zuen ekarriko ze ume asko izan ginen eta, orduan ere, zelako prezioa edukiko zuen, eta laranjak eroaten genituen, laranjak, eta eroan txorizoa edo urdaia eta erreta ogiagaz gozo)

okarana, okerana (l, bu), okaana, okana (b): okarana

"sueiri gustate xatzues okeranak (l)", (zuei gustatzen zaizkizue okaranak), "orduen esan oingo moduen ixen se orduen e, sagarrak, okaranak, oiñ esi lei euki esebe (b)", (orduan ez zen oraingo moduan izan ze orduan, sagarrak, okaranak, orain ezin liteke eduki ezer ere)

orandilla (l): orandila, madari mota bat

parrie: parra

"ikusgarrisko selaixek dana matza, dana matza, parrak es altuek es, bajuek (l)", (ikusgarrizko zelaiak dena mahatsa, dena mahatsa, parrak ez altuak ez, bajuak), "ta inyabie gosoa artoartekoa parrakoa baño (b)", (eta indaba gozoa artoartekoa parrakoa baino)

sagarra: sagarra

"bost sagar ebai seuren nire anaidxek eta aitek, egun beten trontza, ta atzalde baten ortxe, jentie etor san, orra, sagarpetara, gerispetara, merientan (b)", (bost sagar ebaki zuten nire anaiak eta aitak, egun baten trontza, eta arratsalde baten hortxe jendea etorri zen, horra, sagarpera, gerizpetara, meriendatzen), "urtebetak eta gasi sagarrak eta andramari sagarrak eta, klase asko daus un be badaus sagarrak klasiek, un be bai (b)", (urtebeteak eta gazi sagarrak eta andramari sagarrak eta, mota asko dagoz orain ere badagoz sagarrak motak, orain ere bai)

san pedro madaridxe: madari mota bat

sanjuan madaridxe: madari mota bat

"san juan madari andi bet egon san", (b), (san jaun madari handi bat egon zen)

siderixe (l): sideria, sagar mota bat

toletikoa: iko mota bat

txarba (bu): sagar mota bat

untxurre: intxaurra

"untxur gitxi ekar deure (l)", (intxaur gutxi ekarri dute)

urdiñe: sagar mota bat

urretxa (b, bu): hurritza

urtebetie: sagar mota bat

6.6. ZEKALEAK ETA BELARRAK

abenie: oloa

akarroa: galautsa

albitze: albitza, ereiten den belar mota bat

alfafie, afafie: alfalfa, ereiten den belar mota bat

"urten in geixesan alfafie beixeri emoten gixona (l)", (irten egin zuten alfalfa behiei ematen gizona), "alfafie igual, asatzak eran biar dire, dxakiteko nondi soasen (b)", (alfalfa berdin, asatzak eroan behar dira, jakiteko nondik zoazen)

allurbie: ailorba, soroan ereiten den belar mota bat

artaburu: artaburua

artagaraue: artagaraua

artoa: artoa

"ereinte ya, artoa kendu eta lasterrien iten san laixeu, laixakas, eskus, niri gusteta xaten (l)", (ereinda ja, artoa kendu eta laster egiten zen laiatu, laiakaz, eskuz, niri gustatzen zitzaidan)

artoarte (bu): artoarte, arto arloa

artoburue: artaburua

artolastoa(b): artolastoa

asidxe (bu), asixe: hazia

"asixe gorde in bear da etzien, garixek e, biar asko deko, garixe domusantuetan ereiten da, domusantue, da garixe ereiteko, ba erein orduen prestau, lurrek prest ifiñi (I)", (hazia gorde egin behar da etxean, gariak, behar asko dauka, garia domusantuetan ereiten da, domusantua, eta garia ereiteko, ba erein orduan prestatu, lurrak prest ipini)

bedar siku (I): belar sikua

"es bierra asko, eta itxiten san geixao landa, beixentzat egoteko bedar sikue negureko (I)", (ez beharra asko, eta uzten zen gehiago landa, behientzat egoteko belar sikua negurako)

bedarra: belarra

"fan ber da erosten e, ba bedarra, bedarra es baye, galtzue erosten (I)", (joan behar da erosten, ba belarra, belarra ez baina, galtzua erosten)

bersadxe(b), birsaidxe (bu), birseidxe (bu): birzahia; erdaraz "birzai" eta "birzei" esaten diogu

"birsaidxe edo, saidxe edo, urune edo, babak edo emoten dxakosan ganadueri (bu)", (birzahia edo, zahia edo, irina edo, babak edo ematen zitzaizkion ganaduari)

bixardune (I): gari bizarduna

"bai, bixardune da rusoa, bai ba, ona e?, baye laburtxue, laburre, ta bestie da, garbi etortzen da, ak esteko eser (I)", (bai, bizarduna da errusoa, bai ba, ona? baina laburtxoa, laburra, eta bestea da, garbi etortzen da, hark ez dauka ezer)

bixarra, bixerra: gari bizarra

elbitze (I): albitza, ereiten den belar mota bat

"an bota abonue, gixon difuntuek esaten gixen, bota abonue bota satza, abonu minerala, bota satza, ta agaitik elbitze (I)", (han bota ongarria, gizona zenak esaten zuen, bota ongarria bota satsa, ongarri minerala, bota satsa, eta hargatik albitza)

errosaridxo bedar (bu), errosario bedar (b): errosario belarra; belar parasito mota bat

frantzes bedar (b): frantzes belarra, ereiten den belar mota bat

frantzesa: frantzes belarra, ereiten den belar mota bat

galtzu bixerra (bu): galtzu bizarra

galtzu lekue (bu): galtzu lekua

galtzu polla: txola, galtzu txola, eskutada

galtzue: galtzua

garaue, garue: garaua

gari arloa: gari arloa

gariburue: gariburua, galburua

garidxe, garixe: garia

*"guk orduen garidxe aukitten genun baye ostien artoa (bu)", (guk orduan
garia edukitzen genuen baina ostean artoa)*

grimie: bizarra

kapaixie, kapaxie (bu): kapatxa

lastoa: lastoa

"lastoa artoana da (l)", (lastoa artoarena da)

matxerra (b): arto txikia

oloa: oloa

sai sabala (b): zahi zabala

sadx, saidxe (b), seidxe (bu): zahia

sapie: zapa

sebadie: garagarra

sekule bedarra: sekula belarra

trebola (bu): trebola, ereiten den belar mota bat

trebol bedar (l): trebol belarra

txola (b): txola

txomin bedar (b): txomin belarra, soroetako belar parasito baten izena

7 ANIMALIAK

Animaliei buruzko atal honegaz amaiera emango diogu inguruneari buruzko zati osoari. Atal honetan basa animaliakaz lotutako berbak aurkeztuko ditugu horretarako ondoko multzook bereiztuko ditugu: ugaztunak, txoriak, narrastiak, anfibioak eta arrainak eta, azkenik, intsektuak.

7.1. UGAZTUNAK

ardillie: katagorria

arratoye(b, bu), arrotoye (bu, b): arratoia

"arratoye ta satorra bardiñe tie, baye arratoye txarrau (l)", (arratoia eta satorra berdinak dira, baina arratoia txarrago)

askonarra: azkonarra

"askonarra jan iten deu jentiek, okela fiñe ei deko (l)", (azkonarra jan egiten du jendeak, okela fina ei dauka)

basakatue: basakatua

"es, lenau bai basakatuek, len len bai, atxiñe lukixe be bai da pagasarri aldien otzoa pe bai, otzoa pe bai, otzoak sue apur bet ineskero estaldu iten die, eskapeu iten deure (l)", (ez, lehenago basakatuak, lehen lehen bai, aintzina azeria ere bai eta pagasarri aldean hartzak ere bai, hartzak ere bai, hartzak sua apur bat eginez gero estali egiten dira, ihes egiten dute)

basaurdie (l), basordie (l, bu): basurdea

"emen estau, emen gero kasarixek eta il, emetik, basaurderen bat nosipein entzuten da il deuriela or ganekogorta aldien edo, da gero basaurdie non dabillen igerri iten da, se badoa piñu artetik, basaurdie teko lume asko (l)", (hemen ez dago, hemen gero ehiztariak eta hil, hemendik basurderen bat noizean behin entzuten da hil dutela hor ganekogorta aldean edo, eta gero basurdea non dabilen igerri egiten da, ze badoa pinu artetik, basurdeak dauka ile asko), "esaten da, ba urlixek lekuen ba basorda lumak

*topa deus, basordie dabil emen (I)", (esaten da, ba urliak lekuan bada
basurde lumeak topatu ditu, basurdea dabil hemen)*

baseuntze: basahuntza

erbidxe, erbixe: erbia

*"gure difuntuek erbixek ilten gixan (I)", (gure difuntuak erbiak hiltzen
zituen)*

erratoye: arratoia

katumixerra (bu): katamixarra

kirikiñolatza: kirikinolatza

konejue (bu): konejua, untxia

loboa: otsoa

lukidxe, lukixe: lukia, azeria

ogigastaye: ogigaztaia; uxatzeko honako hau egiten da

*"niri akordaten dxat urte asko dire ni txikerra nitzenien, nikolas difuntue,
emen bixi sen ordun, eta kamiñean, umiek kendu tzesan umiek il, eta emen
saspi illebetien ixen genduen, estaitt aitte ala ama, kendu bes, ta bakixu
ser dan orrentzat ona, gomie erre, sera, usiñegas eskapateun (b)", (niri
gomutatzen zait urte asko dira ni txikarra nintzenean, nikolas zena,
hemen bizi zen orduan, eta kaminoan, umeak kendu zizkion umeak hil, eta
hemen zazpi hilabetea izan genuen, ez dakit aita ala ama, kendu ere ez,
eta badakizu zer den horrentzat ona, goma erre, zera, usainagaz ihes
egin zuen)*

osoa (bu): hartza

otzoa (I): hartza

pistidxe (bu): piztia

sague: sagua

*"oin deku txarrau, arratoi txikerrak orreik sagutxuok (I)", (orain daukagu
txarrago, arratoi txikarrak horiek sagutxuok)*

saguitzue: satitsua

sagusarra: saguzaharra

satorra: satorra

satordxo: sator joa, satorrak egiten duen lur multzoa

satorsuloa: sator zuloa

urtxakurre: urtxakurra

7.2. TXORIAK

abidxie: habia

akaxori (b): akaxoria

amilotxie (b, bu), amilotxie: amilotxea

antzarra (b, bu): antzarra

artatxoridxe: artaxoria, kurloia

basollarra: basoilarra

basotxoridxe (bu): baso txoria

bela baltza: bele beltza

belie: belea

berdeloye (bu), berdaloie: berdeloia

bidegarro (b), birigarroa: birigarroa

durdurie: durdura

egabela (b): hegabera

elaidxe, elaye, eledxe (bu): elai

*"elai asko egote san ta eledxe ibiltten siren etze alboan da euli asko
dxaten geidxela esaten daure bai (bu)", (elai asko egoten zen eta elaiak
ibiltzen ziren etxe alboan eta euli asko jaten zutela esaten dute bai)*

eperra: eperra

epertikerie: epertikera

epetxa, epetxie: epetxa

*"orrek epetxari, txori txikerrenari, epetxa olango txori txikitxue da, ta iten deu, abidxen dxaten
tzo berari arrontzie ta berie ifiñi an (b)", (horrek epetxari, txori txikarrenari, epetxa holako txori
txikitxoa da, eta egiten du, habian jaten dio berari arrautza eta berea ipini han), "len epetxieri,
nire amandriek esaun ikusi be gure baye kontus txindorragas e, esateauen epetxiek jangoikoari*

kaka in eutzela ta bestiek kendu, txindorrak garbittu (bu)", (lehen epetxari, nire amamak ez zuen ikusi ere gura baina kontuz txindorragaz, esaten zuen epetxak jangoikoari kaka egin ziola eta besteak kendu, txindorrak garbitu)

eskillasoa, eskillasue (bu): oskilasoa

gabilloi nausidxe (b): gabirot nagusia

gabilloi txikerra: gabirot txikarra

gabilloye: gabirotia

galeperra: galeperra

gaubontza (bu), geubontza: gauontza

"bueno okille baño gaubontza bai, gaubontza etze alboan ibilliaskero, suerte ona (bu)", (beno okila baino gauontza bai, gauontza etxe alboan ibiliz gero, zorte ona)

geutxoridxe: gau txoria

jilgeroa (bu), jilgerue: jelgeroa

kalandrix (l): larra txoria

kiñie (b): hegabera

kukue: kukua

mikie: mika

mirue (bu): mirua

mosolloa (l), mosoloa (l): mozoloa

okille: okila

ollagorra: oilagorra

"baten nau etor nintzen kasati, kasan dxoanintzen ollagorretara da etorrikeran or ama alabak ixo! ixo! ta ikus nendun selan daron, urrun egon san (bu)", (baten neu etorri nintzen ehizatik, ehizan joan nintzen oilagorretara eta etorkeran hor ama alabak ixo! ixo! eta ikusi nuen zelan daroan, urrun egon zen)

palomie: usoa

"bai, emen or goiko etzetxuen bai, baye palomie esta ona e, labrantza ondoan e, asixek gustixek ereiten dosunien jaten dotzus, dana jaten

dotzu, da jentiek kejau iten da, emen ifiñieuen batek, baye guk erein e, ser erein gendun? nik estait ser erein gendun, baye ikusi gendun selan doasen palomak (l)", (bai, hemen hor goiko etxetxoan, baina usoa ez da ona, labrantza ondoan, haziak guztiak ereiten duzunean jaten dizkizu, dena jaten dizu, eta jendeak kejatu egiten da, hemen ipini zuen batek, baina guk erein, zer erein genuen? nik ez dakit zer erein genuen, baina ikusi genuen zelan doazen usoa)

pardilloa: pardilloa

pasie: pasea

"orreik pasie dekie ta pasie dekienien asko etortzen dies (b)", (horiek pasea daukate eta pasea daukatenean asko etortzen dira)

patoa: ahatea

pioa: txioa

pitxartxarra: pitxartxarra

sadx: saia

sosoa: zozoa

torkasa: uso mota bat

txartxaroa: txinbo mota bat

txinboa: txinboa

txinbormigerue: txinbo mota bat

"epetxak itten deu munetan edo, baju, baye abi andi bera txikerra ixeteko, ta txibormigerueri be itten tzo, txinbormigerueri be arrontzie dxan ta berak ifinten deu an (b)", (epetxak egiten du munetan edo, baxu, baina habia handi bera txikarra izateko, eta txinormigeroari ere egiten dio, txinbormigeroari ere arrautza jan eta berak ipintzen du han)

txindorra: txindorra, txantxangorria

"txindorrak segun selan kantetan dauen esate san bai, da txindorra etze albora etorrikeran edurre (bu)", (txindorrak segun zelan kantatzen duen esaten zen bai, eta txindorra etxe albora etorrikera elurra)

txioa: txioa

txirriskillie: txirriskila

txirtie: txirta

txontarla: txontarla

txontie: txonta

txoridxe: txoria

"ekarri neusen txori betzuk (bu)", (ekarri nituen txori batzuk)

txorikumie (bu): txorikumea

txorrota: gaueko txori mota bat

7.3. NARRASTIAK, ANFIBIOAK, ARRAINAK

angulie: angula, txitxardina

arrañe: arraina

basosugie: basosugea

basugie (b): baso sugea

beleno: pozoina

"dana da beleno ori, arratoik esteko belenorik (l)", (dena da pozoina hori, arratoiak ez dauka pozoinik)

biborie: larrasugea

kangrejue: karramarroa

karramarroa: karramarroa

kiskillie (bu): kiskailua

lagartijie: sugelandarea

lagartoa (bu): muskerra

lupue: lupua

"lupue, lupue, lupu klase bi daus, da patata orrixen iten dan lupue orugen antzeko ba, a da bellegi bellegixe, dekos garitxuek ganetik, narruen baltzak, a teko beleno geixau, nire aitte difuntuek, neuk ukus dot topau, ibili patatie ataraten da topau patata orrixen, eta atara sera, metxerue

da, olango orri betzukes erre, esin de il e? erre, beleno andixe dauko (l)", (lupua, lupua, lupu mota bi dagoz, eta patata orrian egiten den lupua, harran antzeko ba, hura da beilegi beilegia, dauzka garitxoak gainetik, narruan beltzak, hark dauka pozoin gehiago, nire aita zenak, neuk ikusi dut topatu, ibili patata ateratzen eta topatu patata orrian, eta atera zera, metxeroa eta, holako orri batzukaz erre, ezin da hil e? erre, pozoin handia dauka), "a lupue da ori? orrek beneno itzela deko ganadaue trageu itten da orras (b)", (hura lupua da hori? horrek pozoin itzela dauka ganadua tragatu egiten da horregaz)

maguridxo: magurioa; berba hau erdaraz holantxe erabiltzen dugu.

mojojoye: mojoyoia; erdaraz "mojojon" esaten dugu

muskerra: muskerra

"gixona egon siestie botaten arbolapien eta subie alboan, eta bustena sartu belarriti, ori kontue ixengo da igual baye, eta muskerrak ixartu (b)", (gizona egon siesta egiten arbolapean eta sugea alboan, eta buztana sartu belarritik, hori kontua izango da beharbada baina, eta muskarrak itxartu)

persebie: lanperna

sapaburue (bu): zapaburua; erdaraz "zapaburu" esaten dugu

sapoa: zapoa

siraune: zirauna

subie, sugie: sugea

"galtzu polla bat eta susixe ixetu, eta fate san solora da iten gixen subiek eta sapoak erre (l)", (galtzu txola bat eta zuzia iziotu, eta joaten zen sorora eta egiten zuen sugeak eta zapoak erre)

subilandie (bu), sigulindarie(b), sugalindie (l), subilandarie: sugelandara

"ba araxe ustelien sugalindie modukoa lau ankadune bustentxues, igual iguala, sugalindie langoa (l)", (ba haraxe ustelean sugalinda modukoa lau hankaduna buztantxoagaz, berdin berdina, sugalinda lakoa)

trutxie: arrankaria

ugelatxue (b), ugelaxoa, ugelexue (b), ugerixoa (b): urgerixoa, igela

7.4. INTSEKTUAK

abispie (bu): urubioa

arañatellie(b): gauna, aramu sarea

arañie: aramua

ardidxe: ardia, arkakusoa

arra: harra

aulidxe (bu): eulia

barakarroa (bu): barakarroa, barea

barie: barea

baspidxe (bu): baspia, bartza

bitxoa: mamarroa

epertargidxe, epetargidxe (bu): epertargia, ipurtargia

erlie (bu): erlea

eskarabajoa: patata zomorroa

eulidxe (b) eulixe: eulia, "kortie eulis beteri tau (l)", (gorta euliz beterik dago)

geltxoa (bu): eltxoa

grillue: txirri-txirria, kilkerra

"grilluek pintxeuaskero baretatxuegas urtein iten deure kanpora, pintxeuaskero, da orduen arrapeu, da sulo bat anditxue eukin gixien, ibil sen da subitxu betek urtein, grillue barik subie asusteu in ei sen subiek urtein orduen (l)", (txirri txirriek pintxatuz gero baretatxoagaz irten egiten dute kanpora, pintxatuz gero, eta orduan harrapatu, eta zulo bat handitxoa eduki zuten, ibili zen eta sugetxo batek irten, txirri txirria barik sugea ikaratu egin ei zen sugeak irten orduan)

iñaurri (b), iñorridxe, iñurridxe (bu): inurria

ipertargi (b): ipurtargia, epertargia

kaparrie: kaparra; berba hau erderaz holantxe esaten dugu

"len kaparra asko egote san, idetati etorten da ori, idiartien, orreik asten sienien baye selango bolak, txupeu orreik errape ingeruen (b)", (lehen kaparra asko egoten zen, iretatik etortzen da hori, irartean, horiek hasten zirenean baina zelako bolak, xurgatu horiek errape inguruan)

karakola: karakola, barraskiloa

kotxoa: kotxoa

kukaratxie: labezomorroa

kurubidxo (bu): urubioa

lur mamarroak (bu): lur mamarroa

mamarroa: mamarroa

mandulidxe: madaulia

marigorringo (bu): marigorringoa

mariposie: txirpilota

orugie: oruga

pikadurie: ziztada

"pikauaskero txarra tie gero, erlien pikadurie (l)", (pikatuz gero txarrak dira gero, erlearen ziztada)

polillie (l): sitsa

"se ak kareiek garixe padeko ba polillie edo, kareiek il iten deu, da erne iten da ondo (l)", (ze hark kareak garia badauka ba sitsa edo, kareak hil egiten du, eta erne egiten da ondo)

saltamatxiñe (bu): saltamatxinoa

saltamatxinoa: saltamatxinoa

saltaridxe (bu): saltamatxinoa

sitze (b): sitsa

sorridxe(b): zorria

telarañie (bu): gauna, aramu sarea

txilipitie (b), txirripitie: txilipitea, txirpilota

urubioa: urubioa

JARDUERAK

Zati honetan gizakien jardueraz arduratuko gara. Bilbon euskaldun iraun duten gehienak nekazal gizartean bizi izan direnez gero, nekazaritza eta abelazkuntza atal garrantzitsuak izango dira zati honetan. Hirugarren atalean beharraz jardungo dugu. Azkenik, laugarren atalean, gizartea eta bertan egiten den bizimoduaz arduratuko gara.

1. NEKAZARITZA

Nekazaritza eta lantegia batera bilbotar euskaldunen bizimodua lortzeko jarduera nagusiak izan dira. Atal honetako berbak hobeto ulertzekotan sei ataltxotan banatuta aurkezten ditugu: lurra lantzeko tresnak, egurra, belarra eta soroa, gorta, gurdia eta garraioa, eta amaieran, labea eta errota.

1.1. LURRA LANTZEKO TRESNAK

alperra: alperra, alper-harria

"alperra da arie baño, ortzak sarratuao dekosena, eta ortzak txikerrao (b)", (alperra da area baino, hortzak zarratuago dauzkana, eta hortzak txikarrago)

arie: area

"eta gero erein, eta beixekas edo idixekas, beixek, emen beixek euki gendusen, beixek esnie eukiteko, salduteko, ba ekarteko gausak etzera, eta erein, eta pasau,... arie, aistute, eta ala! gero igitixekas ebei, solite dausenien bellegitxu bellegitxu. (l)", (eta gero erein, eta behiakaz edo idiakaz,

behiak, hemen behiak eduki genituen, behiak esnea edukitzeko, saltzeko, bada ekartzeko gauzak etxera, eta erein, eta pasatu,... area, ahaztuta, eta tira! gero igitaikaz ebaki, zolita dagozenezan beilegitxo beilegitxo)

arpela (b): alperra, alper-harria

brabana (b): brabana

eskutillie (l): areari oratuteko daukan euskarria

estoa: estoa, narra, lurra zapartzeko erabiltzen dena

"lelengo sartuten badosu makiñie gero alperra eta ondo itteko sartu estoa, eta atzera alperra eta gero sartu ariek gero sartu estoa, ta sartu satza arei, ta ya esta! eutz einye dana! satza bota bidxako! (b)", (lehenengo sartzen baduzu makina gero alperra eta ondo egiteko sartu estoa, eta atzera alperra eta gero sartu areak gero sartu estoa, eta sartu satsa hari, eta badago! hauts eginda sena! satsa bota behar zaiol!)

goldie (bu): goldea

"gero etor sien goldie esaten dotziena (bu)", (gero etorri ziren goldea esaten diotena)

iteillie (b), itteillie, itillie (bu): itailea

"da pasetan geidxen itteillie, da itteilliegas paseute bere ba mokillek da gure aittek, ba mokillek dxo bear dires ostabere (bu)", (eta pasatzen zuen itailea, eta itaileagaz pasatuta ere ba mokilak eta gure aitak, ba mokilak jo behar dira ostabere)

karramarroa: karramarroa, lurra harrotzeko erabiltzen den burdinazko tresna

laidxie, laixie, leixe (l): laia

"solokoa ixittesan gogorra, se len dana eskus da laidxetu itte san, laidxak esetuten dosus? laidxak? orduen ausunekoak batuten sien, ba bost edo sei edo, paretan sien danak illedan, laidxakas, estosu ikusi iños? (bu)", (sorokoa izaten zen gogorra, ze lehen dena eskuz eta laiatu egiten zen, laiak ezagutzen dituzu? laiak? orduan auzunekoak batzen ziren, ba bost edo sei edo, paratzen ziren denak iladan, laiakaz, ez duzu ikusi inoiz); "nik estot eiñ, nik estot eiñ laidxakas baye ikuste san ixitte sala biar gogorra, etorten sien kantzaurik, se lelengo sartu laidxak olan, gero bueltie emon danak batera (bu)", (nik ez dut egin, nik ez dut egin laiakaz baina ikusten zen izaten zela behar gogorra, etortzen ziren nekaturik, ze lehenengo sartu laiak

holan, gero buelta eman denek batera); "ereinte ya, artoa kendu eta lasterrien iten san laixeu, laixakas, eskus, niri gusteta xaten (I)", (ereinda ja, artoa kendu eta lasterrean egiten zen laiatu, laiakaz, eskuz, niri gustatzen zitzaidan); "ankape sartu jesus! emen ser dau ba? ain bigun barruen, siketie deukonagas da gero onegas leixakas da euri apurtxuegas, su te au, asukarillo moduen lurre arro arro, da jesus! ser da au? (I)", (hankapea sartu jesus! hemen zer dago ba? hain bigun barruan, sikatea daukanagaz eta gero lehi honegaz eta euri apurtxoagaz, zu eta hau, azukarilo moduan lurra harro harro, eta jesus! zer da hau?)

makiñe txikerra: makina txikarra, golde txikarra

makiñie: makina, goldea

"gero beidxek edo ididxek, emeti ibiltten sien batzuk aukitten geidxen ididxek, da gero arek ba itten geidxien biarra ba, gero itten geidxen makiñeagas (bu)", (gero behiak edo idiak, hemendik ibiltzen ziren batzuek edukitzen zituzten idiak, eta gero haiek ba egiten zuten beharra ba, gero egiten zuen makinagaz); "es, gure soloak selaixe tie, selaixe tie, ba guk kortan deku burdixe usteltan, makiñie partikiegas, beixekas makiñatuteko, ak, ba laixiek moduen iten deu, koxi soixa da bueltau, or dau kortan (I)", (ez, gure soroak zelaiak dira, zelaiak dira, ba guk kortan daukagu burdia usteltzen, makina partikoagaz, behiakaz makinatzeko, hark, ba laiak moduan egiten du, hartu zohia eta bueltatu, hor dago kortan)

narra: narra, estoa

"estxakon gustetan aitteri narragas ibilttie (bu)", (ez zitzaion gustatzen aitari narragaz ibiltzea); "narra, narra, bai mokilek austeko (l)", (narra, narra, bai mokilak hausteko)

ortza: hortza; berba hau erreminteen hortzak adierazteko baino ez da erabiltzen

"ortza tekos, a! au bakit selangoa dan, baye guk estu eukin olan (l)", (hortzak dauzka, a! hau badakit zelakoa den, baina guk ez dugu eduki holan)

tragasa: tragaza

"tragasa da, onen antzekoa baye palu betegas (l)", (tragaza da, honen antzekoa baina makila bategaz)

tratora: traktora

"solo andi be teko an beyen, eta berak estekoles katxarrorik tratora deko onek martiñek eta, tratoragas in tzon soloa ta emon tzon inyabie, baye guk inyaba gitxi dxaten du (b)", (soro handi bat dauka han behean, eta berak ez daukanez katxarrorik traktora dauka honek martinek eta, traktoragaz egin zion eta eman zion indaba, baina guk indaba gutxi jaten dugu)

untzenarra (b): iltzeak dauzkan narra

1.2. EGURRA

agoa: aizkoraren ahoa

askorastie(b): aizkora girtena

askorie: aizkora

astie: girtena

"saretxa, bueno ori be astak itteko ta olan (b)", (saratsa, beno
hori ere girtenak egiteko eta holan)

astillie (b): ezpala

barandie (l): baranda

"aikas barandakas igon gastañan ganera da jo ta gastañak jausi,
ba kirikixoak, da gero burdixen ekarri (l)", (haiekaz barandakaz
igon gaztainaren gainera eta jo eta gaztainak jausi, ba
kirikioak, eta gero gurdian ekarri)

baretie (l): bareta

"grilluek pintxeuaskero baretatxuegas urtein iten deure
kanpora, pintxeuaskero, da orduen arrapeu, da sulo bat
anditxue eukin gixien, ibil sen da subitxu betek urtein, grillue
barik subie asusteu in ei sen subiek urtein orduen (l)", (txirri
txirriek pintxatuz gero baretatxoagaz urten egiten dute

kanpora, pintxatuz gero, eta orduan harrapatu, eta zulo bat handitxo eduki zuten, ibili zen eta sugetxo batek urten, txirri txirri barik sugea ikaratu egin ei zen sugeak urten orduan)

egurre(b): egurra

entresakie: entresaka

erreminttie, errementie: erreminta

"ori kostunbriori badau, ori burriñesko errementie kenduteko eskuetati ori badekot entzunte (b)", (hori ekanduori badago, hori burdinazko erreminta kentzeko eskuetatik hori badaukat entzunda)

filoa (b): ahoa

kirtena (bu): kirtena

mukurre: mukurra, enbor zatia

ospala (bu): ezpala, zozpela

pikoa: pikotxa

podie: inausketa

sospela (b): zozpela, ezpala

taukela (bu): taukela, taukia, egurra txikartzeko erabiltzen den enborra

1.3. BELARRA-SOROA

abonue: abonoa, ongarria

"se satza eta orri sarra naboana ta orixe ixete san ona, abonurik onena (bu)", (ze satsa eta orri zaharra harbiarena eta horixe izaten zen ona, ongarririk onena) "an bota

abonue, gixon difuntuek esaten gixen, bota abonue bota satza, abonua minerala, bota satza, ta agaitik elbitze (l)", (han bota ongarria, gizona zenak esaten zuen, bota ongarria bota satsa, ongarri minerala, bota satsa, eta hargatik albitza)

adarra (b): adarra, zorrotzarria eroateko erabiltzen da.

alanbrie (bu): burdin-haria

arloa: arloa

arratxurre: arratxurra, basoan behar egiteko erabiltzen den atxur handia

"arratxurre da basorako andi bet", (arratxurra da basorako handi bat)

artadxorra: artajorra

"da artadxorran itteko bere, gure lurrek sien gogorrak, da dies, oin kosteko onak, bai bier itteko gogorrak, bai mokillek dxoteko! egune sabalduten sanien be mokillek dxoten, da pasetan geidxen itteillie, da itteilliegas paseute bere ba mokillek da gure aittek, ba mokillek dxo bear dires ostabere (bu)", (eta artajorran egiteko ere, gure lurrak ziren gogorrak, eta dira, orain hartzeko onak, bai behar egiteko gogorrak, bai mokilak jotzeko! eguna zabaltzen zenean ere mokilak jotzen, eta pasatzen zuen itailea, eta itaileagaz pasatuta ere ba mokilak eta gure aita, ba mokilak jo behar dira ostabere)

asatza: asatza

"ta asatzak estuek ademas, sabala imintten baosu, alfafie ereittek (b)", (eta asatzak estuak gainera, zabala ipintzen baduzu, alfalfa ereiteko)

atxurkakutxue: atxurkakoa

atxurrastie(b): atxur kirtena

atxurre: aitzurra, atxurra

"ak sustertxuk bota ditusela, batetik bestetik, ba atxurregas aik sustertxuek ebei iten direla (l)", (hark sustraitxoak bota dituela, batetik bestetik, ba atxurragaz sustraitxo haiek ebaki egiten direla)

baras sarana: baras zarana

barrikie: barrika

bedar metie: belar meta

"erromeri politte san, politte, itte san san roke egunien eta gero, ba, estait aberri egunien igual aberri egune edo olangoxe egun beten be bai, itte san, an, an ego nitzen olangoxe san roke egunien es baye, aberri egunien edo olango egun beten, an soñu dxoten onitzen eta umiek, an olgetan, bedar metara salto itten dxausi san bat beste aldera ta antxe il sen, bai neu antxe nauela ta suspendidu in sen erromeridxe, biten suspendidu dat

erromeridxe niri, biten egonta, beste baten e, serien plentzian egon, eta trenak asidentie euki orduen emen e, ordukoxe egunien antxe egonitzen (b)", (erromeria polita zen, polita, egiten zen san roke egunean eta gero, ba, ez dakit aberri egunean beharbada aberri eguna edo holangoxe egun baten ere bai, egiten zen, han, han egon nintzen holangoxe san roke egunean ez baina, aberri egunean edo holango egun baten, han soinu jotzen egon nintzen eta umeak, han olgatzten, belar metara salto egiten jausi zen bat beste aldera eta hantxe hil zen, bai neu hantxe nagoela eta suspenditu egin zen erromeria, bitan suspenditu zait erromeria niri, bitan egonda, beste baten e, zerean plentzian egon, eta trenak istripua eduki orduan hemen e, ordukoxe egunean hantxe egon nintzen)

bedar sikue: belar sikua

bedarra: belarra

bendejie: bendeja

"ta ganaduegas bixi sien da bendejiegas e (l)", (eta ganaduagaz bizi ziren eta bendejagaz)

berakatz jorrie: berakatz jorra

berdegilletie (bu), berdegillie (bu, b), berdelletie: kodaina

"se nik igitidxegas ondo sertuteneun manejo andidxe aukiñeun, baye berdegilliegas baten bakarrik ebei dot bedarra, etxaten gustetan bapes berdegillie (bu)", (ze nik igitaiagaz ondo zertzen nuen trebezia handia eduki nuen, baina kodainagaz baten bakarrik ebaki dut belarra, ez zitzaidan gustatzen bat ere ez kodaina)

berdie: belar berdea edo freskoa

"ostien askie badau sementoagas eiñik edo, lantzin bein txarto eiñik ola sarrakas edo, sementoagas itten dana ondo egote san eta gero ifintten genun u, eskillera klasien, parrillie, botateko sera, berdie (bu)", (ostean aska badago porlanagaz eginik edo, lantzean behin txarto eginik ohol zaharrakaz, porlanagaz egiten dena ondo egoten zen eta gero ipintzen genuen eskilara eran, parrila, botatzeko zera, berdea)

berdurie (l): berdura

bokoye: bokoia, upel handiak txokolinetarako

botikie (bu): botika

botillie: botila

botxoa (l): botxoa, ereiteko egiten den zuloa

dxorraidxe: jorraia

dxunkerie (b): junguda

erraturie (l): erratura, belar txarrak erretzea eta gero hautsa ongarriztat erabiltzea

"bai, emen ausoan, dana matza, solo egon barik, ba munetatik eskiñetatik matza, da gero saldu i eurien a terrenoa, oneik

andalusentzat, ba bixilekue iteko, etzetxue, txabolatxue, eta erraturie iteotzien, da andik matz asko ekarteurien, emen bai, ba urtien barrika bi, barrika andixek, txakoliñe, etzerako (I)", (bai hemen auzoan, dena mahatsa, soro egon barik, ba munetatik eskinetatik mahatsa, eta gero saldu egin zuten terreno hura, hauek andaluzentzat, ba bizilekua egiteko, etxetxoa, txabolatxoa, eta erratura egiten zioten, eta handik mahats asko ekartzen zuten, hemen bai, ba urtean upel bi, upel handiak, txakolina, etxerako)

esidxe (bu): hesia

eskutalle (b), eskutillie: eskubarea

"eskutilliegas, kirikixoak egon sien ya gorritute, da gastaña garau solteu, tanboliñie egon san urtietan or, erretako surten tanboliñie, olan buelte emoteko tanboliñieri te gastaña erriek (I)", (eskubareagaz, kirikioak egon ziren ja gorrituta, eta gaztaina garau soltatu, dabolina egon zen urteetan hor, erretzeko surtan danbolina, holan buelta emateko danbolinari eta gaztaina erreak)

estakie (l): taketa

"aik bedarra ta idie ekarteko ifinten geuntzesan, estakak (l)",
(haiek belarra eta ira ekartzeko ipintzen genizkion taketak)

fardoa (bu): fardoa

forrie (l): jorra

"estau esebe, artoa erein igual, satixek eta, forratu gure arin
se etorko da bestie, da gero pasauko xaku forrie (l)", (ez dago
ezer ere, artoa erein igual, zatiak eta, jorratu gura arin ze
etorriko da bestea, eta gero pasatuko zaigu jorra)

gantxoa, gantxue: gantxoa

godañie(b), guadañie (bu): kodaina

igitaide, igitide (bu), igitixe: igitaia

illedie: ilada

"illadan, illadatan, igual irukoak, iru, lau, bi pobrie da, bi es, bat
txarrau, tristiau, ta bueltie emon (l)", (iladan, iladatan, igual
hirukoak, hiru, lau, bi pobrea da, bi ez, bat txarrago, tristeago,
eta buelta eman)

jorrie (l): jorra

"oin soloan eo nasenien da sera, berakatza jorran, begire eo
nas oin ida ba pe iñor estoa ebaiten mendire, ida gustixek

gorritute daus (l)", (orain soroan egon naizenean eta zera, berakatzatza jorran, begira egon naiz orain ira bat ere inor ez doa ebagitzen mendira, ira guztiak gorrituta dagoz)

kakoa(b): kakoa

kakoastie: kako kirtena

"ori de ona astak itteko, kakoastak eta atxurrastak ta orreik itteko da ona (b)", (hori da ona girtenak egiteko, kako girtenak eta atxur girtenak eta horiek egiteko da ona)

kebrantatxurre (l): larratxurra, arratxurra; basoan behar egiteko erabiltzen dena

kodañie: kodaina

kortxoa: kortxoa

kosetxie: uzta

lagarra: mahatsa zapaltzeko lekua

mallue: mailua

mantarra: mantarra; belar freskoa batzeko zakuz egineko mantarra

masie (bu): mazoa, mokilak hausteko erabiltzen den mazoa

masoa (bu): mazoa, mokilak hausteko erabiltzen den mazoa

masu porra (l): mazo porra, mokilak hausteko erabiltzen den mazoa

"eta masu porriegas airoso, airoso joten dosu, autze iten deu, autze da lurre arrotu (l)", (eta mazu porragaz airoso, airoso jotzen duzu, hautsa egiten du, hautsa eta lurra harrotu)

metie: meta

"metak beroagas, ondo meta andixek in, eta gero beroa etor
sanien, berote gixen egune, ba sabaldu siketako ta berotuteko,
eguskixetas, beroagas bai. (I)", (metak beroagaz, ondo meta
handiak egin, eta beroa etorri zenean berotzen zuen egune, ba
zabaldu sikatzeko eta berotzeko, eguzkiagaz, beroagaz bai).
berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu.

metillie: meta txikarra

mokil porrie (bu): mokil oskia, mokilak hautseko erabiltzen den mazoa

"gero ididxe edo beidxe, busterrikoak egoten sien, orixe bai
baye, mokillek dxoteko be ser? mokil porragas, igual goixeko
seiretan, an soloan mokillek apurtuten (bu)", (gero idiak edo
behiak, buztarrikoak egoten ziren, horixe bai baina, mokila
jotzeko ere zer? mokil porragaz, igual goizeko seietan, han
soroan mokilak apurtzen)

mokilluskidxe: mokil oskia, mokilak hausteko erabiltzen den mazoa

"mokilluskidxe, da nik aitteri esatenotzen aitte niri es ein
mokilluskidxe andirik e (bu)", (mokil oskia, eta nik aitari esaten
nion aita niri ez egin mokil oskia handirik)

mokille: mokila

"hombre mokillek makiñe bat dxo doas! oneik eskuok makiñe bat dxo deure (bu)", (ene mokilak makina bat jo ditut! hauek eskuok makina bat jo dute); "da artadxorran itteko bere, an artoak a, bittartien da inyabak olan badaus, or badaus mokillek, mokilluskidxen seragas atara, sera, a mokille dauena, a bere dxo kanpoan, estaitten mokillik egon (bu)", (eta artajorran egiteko ere, han artoak, bitartean eta indabak holan badagoz, hor badagoz mokilak, mokil oskiaren zeragaz atera, zera, mokil hura dagoena, hura ere jo kanpoan, ez dadin mokilik egon)

otzarie: otzara

"otzarie da burukoa (b)", (otzara da burukoa); "emen bakixu selan erate san otzaran, otzaran mallukidxe, otzaran buruen andrak, emeti eta serera plasara erriberara, eta esnie be somerara (b)", (hemen badakizu zelan eroaten zen otzaran, otzaran mailukiak, otzaran buruak andreek, hemendik eta zerera plazara erriberara, eta esnea ere somerara)

otzasarana (b): zaran mota bat

palue: makila

parrie: parra

patata saku (l): patatazorroa

"kartolak ifinten sien satzetarako, patatie ekarte sanien solotik, patata sakuek edo (l)", (kartolak ipintzen ziren

satsetarako, patata ekartzen zenean sorotik, patata zakuak
edo)

pika malluek: pika mailuak; kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailua eta jungada

piketako porrie (bu): pikatzeko mailua

piketakoak: pika mailuak

pikie(b): mailua; kodaina pikatzekoa

pikumalluek(b): pika mailuak

pilloa: piloa

piper simenterie: pipar mintegia

porrie (bu): porra

prensie: pentsa

sakue (bu): zakua

sanjie: karkaba

sarana: zarana, berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

"se ifinte xako pisu asko, karga asko, igual saran bi lur, saran
bi, sesto bi, da gero ganien arrixek (l)", (ze ipintzen zaio pisu
asko, zama asko, igual zaran bi lur, zaran bi, zaran bi, eta gero
gainean harriak)

sarankittoa: zaran txikarra

saran nausidxe (b): zaran nagusia

sardie(b): sarda; berba hau erdaraz ere holantxe erabiltzen dugu

"guk u kortan a, sardieri geituten guntzen sardie, beixen aspigarrixek atarateko (l)", (guk gortan, sardari deitzen genion sarda, behien azpigarriak ateratzeko)

satza: satsa

satzartie: satsartea

sestañie (bu): asto otzara

sestillie(b): otzara

sestoa: otzara, zarana

simenterie (l): mintegia

"urune pasetako? sera baye, eralgiteko, da beste bat eukin gendun eralgiteko, simenterie ta ifinteko piper simenterie, simenterie asiteko, tomatiena, ba eralgiteko, galbaye, satza finduteko galbaye, indiyabie ta satza, satza be pasetako (l)", (irina pasatzeko? zera bahea, eralgitzeko, eta beste bat eduki genuen eralgitzeko, simintera eta ipintzeko pipar simentera, simentera hazitarako, tomateena, ba eralgitzeko, galbahea, satsa fintzeko galbahea, indaba eta satsa, satsa ere pasatzeko)

soidxe, sodxe, soixe (l): zohia, lurra itzulikeran ateratzen den zatia

"ixete san polite iru, iruko soixe (l)", (izaten zen polita hiru,
hiruko zohia); "ori soidxe da (bu)", (hori zohia da)

soloa: sorroa

sorrostarridxe: zorroztarria

surkue (bu): ildoa

taketa: taketa

tenplie (l): tenplea

"es bustixen es sikuen, tenplie, siku sikuen be urrututen bosu
lurre, an estosu eser kosten (l)", (ez bustian ez sikuan, tenplea,
siku sikuan ere urratzen baduzu lurra, han ez duzu ezer
hartzen)

tollarie: doilara

trontzie: trontza

txabetie: doilarean bueltaka dabilen piezaren izena

txorkoa: txorkoa; ereiteko erabiltzen den zuloa

untzie: iltzea

urkillie, urkulue (b): urkulua

urreskie: hurrizkia

1.4. GORTA

askie: aska

*"ostien askie badau sementoagas eiñik edo, lantzin bein txarto eiñik ola sarrakas edo,
sementoagas itten dana ondo egote san eta gero ifintten genun u, eskillera klasien,
parrillie, botateko sera, berdie (bu)", (ostean aska badago porlanagaz eginik edo,*

lantzean behin txarto eginik ohol zaharraz, porlanagaz egiten dena ondo egoten zen eta gero ipintzen genuen eskilara eran, parrila, botatzeko zera, berdea)

galtzu serrie: galtzu zerra; gortetan egoten zen lastoa ebakitzeko

giñarrakixe: ginarrakia; gorta garbitzeko erabiltzen dena

karretillie (l): karretila, satsak ateratzeko erabiltzen dena

"onek emen egon danak karretille bat satza estotzu ataraten esegaiti pes (l)", (honek hemen egon denak karretila bat sats ez dizu ateratzen ezergatik ere ez, higuina ematen ei dio satsak eta)

kortie: gorta

"andik etor sen da san roken, an korta andixe, da san rokeko kortan sartuten gixan ardixek (l)", (handik etorri zen eta san roken, han gorta handia, eta san rokeko gortan sartzen zituen ardiak); "ori esta esaten se ixen balekitte kortara yoan da ta katuegana eta andik etorri de baye (bu)", (hori ez da esaten ze izan baledi gortara joan da eta katuegana eta handik etorri da baina); "tasadoriek etorten siren kortara (bu)", (tasadoreak etortzen ziren gortara)

1.5. GURDIA/GARRAIOA

akuilu gana: akuilu gana

akullu puntie (bu): akuilu gana

akullue (b, bu): akuilua

aldamena (b, bu): aldamena

arandelie: arandela, txirrinketan eroaten ei zituen

ardatza: ardatza

astogurdidxe: astogurdia, gehienetan "karroa" esaten zaio.

astosarana (b): astosarana, astotzara

bastie (bu): basta; astoari jartzen zaiona

“astoari elegante ademas, basta bat esaten geuntzen ta gero sestañak, eta an serak kantiplorak sartu eta amen bastie, bastie esaten geuntzen (bu)”, (astoari dotore gainera, basta bat esaten genion eta gero astotzarak, eta han zerak kantiak sartu eta hemen basta, basta esaten genion)

bernugela (bu): berna uhela; astoari jartzen zaiona basta lotzeko

“aittu osteitti sera bernugela aukitten eun esta? eta gero sinttoa, eta tripepeti paseta san ta ederto ta elegante (bu)”, (aditu ostetik zera berna uhela edukitzen zuen ezta? eta gero zintxa, eta tripapetik pasatzen zen eta ederto eta dotore)

burdidxe (b), burdixe: burdia, gurdia

“an dauena, astoa ta burdidxegas, an godxen be, a be, a da lenkosue, ta are pe, da budxakoa, badaki bastante ondo (bu)”, (han dagoena, astoa eta gurdiagaz, han goian ere, hura ere, hura da lehengusua, eta hark ere, da bujakoa, badaki nahikoa ondo); “burdidxe teko lengo lengo partikue, gero aldamenak alboetan, erruedak (b)”, (gurdiak dauka lehenengo lehenengo partika, gero aldamenak alboetan, txirrinkak)

burkadie: burkada, gurkada

burtedie, burterie: burteda

burtzile (l): burtzila, ardatza

“estait ori estait, burtzile, bai ori de erruedako burtzile, da aurrien dekos partikiek, sulotxu bi, da aik sulotxu biek palutxue, toleta, ta beixek ifiñi orduen estaitesan solteu

toletagas e (l)", (ez dakit hori ez dakit, ardatza, bai hori da txirrinkako ardatza, eta aurrean dauzka partikak, zuloxo be, eta zulo bi haiek makilatxo, toleta, eta behiak ipini orduan ez daitezten solta toletagaz)

busterridxe (bu), busterrixe: buztarria

"bustertu, sapie, aik e, aurreko a ifinten dana sapie, da aik bestiek busterrixe amarretako ediek (l)", (buztartu, zapa, haiek, aurreko hura ipintzen dena zapa, eta haiek besteak buztarria lotzeko hedeak)

edie, erie: hede

erramala (l): zurrunaren orde z belar zamak lotzeko erabiltzen da

"bai, sera, ganetik palu bet, erramalagas amarretako, partikie a be, partikie esaten geuntzen, oneik danak (l)", (bai, zera, gainetik makila bat, erramalagaz lotzeko, partika hura ere, partika esaten genion, hauek denak)

erriel (bu): erraila, aldamen batetik bestera doazen egurrak gurdi kaxaren azpia osatzeko.

erruedie: txirrinka

espata andidxe: espata handia

espata txikerra: espata txikarra, atzakarra

espatie: espata

"partikuen atzien espatie eurrekoa baño txikerraoa (b)",
(partikaren atzean espata aurrekoa baino txikarragoa)

galga burriñe: galga burdina

"galga burriñe ifinte dxako ardatzetik, se deko erruedan
galgie, atzien, eta andik burriñe bat partikera, eta an palu bet
galgie emoteko, galga burriñe (b)", (galga burdina ipintzen zaio
ardatzetik, ze dauka txirrinkan galga, atzean, eta handik
burdina bat partikara, eta han makila bat galga emateko, galga
burdina)

galgie (bu): galga

gana (b): gana, akuiluaren puntan dagoen iltzea.

gurdixe, gurdixe: gurdia, burdia

"koji gixesan beixe gustixek gurdixen amarreu, eta danak
atzetik, eta gu fan gintzen (l)", (hartu zituen behia guztiak
gurdian lotu, eta denak atzetik eta gu joan ginen)

gurdikadie (bu): gurdada, burkada

gurdikama (bu): gurdikama, gurdikama, gurdi kaxa.

gurpillie: gurdila, txirrinka

gurtedie (b): gurtetea, burtedea

"gurtedie da partikue sartuteko (b)", (gurtedea da partika
sartzeko)

idi parejie: idi-parea

idigurdidxe: idi gurdia

kabesadie: kabezala; astoari buruan jartzen zaiona

*"kabesadie ta politte politte a be, es astoak elegante dxoaten siren e? bakotxak
arrotasune suk ondo nik obeto (bu)", (kabezala eta polita polita hura ere, ez astoak
dotore joaten ziren, bakoitzak harrotasuna zuk ondo nik hobeto)*

kamie (bu): kama, gurkama

kantiñie: tankina, kantina

kargie: zama

karroa: karroa; arraio gurdia eta astoagaz erabiltzen dena

kartola: kartola; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

llantie: txirrinketako burdinezko uzaia

palue: aldamenetako makilak edo taketak

partikie, partikoa (b), partikue(b): partika, gurkamatik irteten duen erdiko makila
buztartu ahal izateko

petrala: petrala, buztanpean astoari jartzen zaion uhela

radidxoa: gurdi arraioa

sapie(b): zapa, frontera

sestañie: asto otzara

surrune (b): zurruna

toleta: toleta, larakoa

tolitikoa (b): toleta, larakoa

txabeta (bu): txabeta, toleta

txirrinkie (l): txirrinka

“au txirrinkie, au modernoa da, onek ifinten deu lurre eixotute, apurtu, da gero onek erruedatxuekas eixo, findu, eixo, ai ona! txirrinkilloa (I)”, (hau txirrinka, hau modernoa da, honek ipintzen du lurra ehota, apurtu, eta gero honek txirrinkakaz eho, findu, eho, ai ona! txirrinkiloa)

txirrinkillo (I): txirrinkiloa

ugela (bu): uhela

1.6. LABEA-ERROTA

andaparie: andapara

“estot ikusi nik, errotan ego nas bai, baye arririk estot ikusi, andaparie da au? es andaparie da ure presie (I)”, (ez dut ikusi nik, errotan egon naiz, baina harririk ez dut ikusi, andapara da hau? ez andapara da ura uharka)

baye (I): bahea

errotie: errota

“errotara dxoateko gaubes dxoate san e, aitte, bueno ba pakarrik iños esan dxoaten, ausunekoak dxoaten sien iru edo lau batera, baye gaubes dxoan biar errotara se egunes koitten bagaidxesan ortik edo kendu itten dotzien urune ta dana (bu)”, (errotara joateko gauez joaten zen, aita, beno bat bakarrik inoiz ez zen joaten, auzunekoak joaten ziren hiru edo lau

batera, baina gauez joan behar errotara ze egunez hartzen
bazituzten hortik edo kendu egiten zieten irina eta dena)

galbaya, galbaye (bu): galbahea

labasue: labasua

labasume (b): labasua

labie: labea

"emen etziaurrien aukin gendun labie, da an itte san, tostau
artoa, geittuten san gero labigerra (bu)", (hemen etxaurrean
eduki genuen labea, eta han egiten zen, igertu artoa, deitzen
zen gero labigarra); "es, es, urtiek atzera bai, baye gero labak
bota sien, jausi (l)", (ez, ez, urteak atzera bai, baina gero
labeak bota ziren, jausi)

labigerra: labigarra

palie: pareia

"laban? ogixe erretako, palie, palu lusiegas da gero sabala
ogixeri buelta emoteko (l)", (labean? ogia erretzeko, para,
makila luzeagaz eta gero zabala ogiari buelta emateko)

sakue: zakua

sorroa: zorroa

“peñan tranbixe koxu te tranbixen sorroa, da aragiño (l)”,
(abusun tranbia hartu eta tranbian zorroa, eta haraino)

urkulue, urkillie: urkulua

2. ABELAZKUNTZA

Bilbotarren bizimoduan nekazaritzagaz batera guztiz lotuta agertzen izan zaigu abelazkuntza. Gaia banatzeko abereak eurak hartu ditugu kontuan, halan: ganadua, ardiak eta ahuntzak, ekinoak, hegaztiak, erleak, txerria eta katua-txakurra azpi gaitzat hartuta aurkezten dugu hiztegia jarraian.

2.1. GANADUA

adarra: adarra

agin txikerra: ganaduaren lehen haginak

aida: aida; aurrera joateko esaten zaio ganaduari

alluburune: ailorba irina, soro-landare horrekin egiten den irina

ankie: hanka

“ba, estaipa, estaipa selan esan, anka metxue eukin bear dau, burue be es lar lodi tte serien eta igual arpegi lusetxue, estaipa ser, ser enauke esango, ikusiesketiño esango neixu aittu onexek auxe deko (bu)”, (ba ez dakit ba, ez dakit ba zelan esan, hanka mehetxoa eduki behar du, burua ere ez lar lodia eta zerean eta igual aurpegia luzetxoa, ez dakit ba zer, zer ez nuke esango, ikusiz gero esango nizuke aditu honexek hauxe dauka)

apatxa: apatxa

apatxartekoa: apatxartekoa, ganaduaren gaixoa

arra: arra

arrakordela (b): aharra kordela, neurri kordela; ganaduen pisua kalkulatzeko erabiltzen den kordela

asadurie: birika

aspidxe: azpia, ganaduen etzagoetarako materiala

"aspixe ganaduentzat, oin esteku ganadurik, baye len sortzi amar bei, da sekorrak, pinta ta olandesa, sekorrak, ba beixentzat, da orduen aspigarri asko bear san etzien , biar asko (l)", (azpia ganaduarentzat, orain ez daukagu ganadurik, baina lehen zortzi hamar behi, eta zekorrak, espilduna eta holandesa, zekorrak, ba behientzat, eta orduan azpigarri asko behar zen etxean, behar asko)

aspigarridxe: azpigarria, ganaduen etzagoetarako materiala

"aspigarridxe kas da ibiltte san olan arloetan esta? (bu)", (azpigarriakaz eta ibiltzen zen holan arloetan ezta?)

babaurune: baba irina

bedxe, beidxe, beixe: behia

"guk bei sarra etzien estun eukitten se betik eukitten genun esne asko eukittek serien (bu)", (guk behi zarra etxean ez genuen edukitzen ze beti edukitzen genuen esne asko edukitzeko zerean); "bedxek igerri itten deure tratue personiena (bu)", (behiek igerri egiten dute tratua pertsonena)

bekorotza (bu): bekorotza

bigaintxie (l), birintxie (b): bigantxa

"gure bosu ikusi, ointxe deku bat bigaintxie, txala inte ta beterinarixoak, selango beterinarixoa, asesaria in dotzo, atara txala, aselango errapetxue atara deu (l)", (gura baduzu ikusi, oraintxe daukagu bat bigantxa, txahala eginda eta albaitariak,

zelako beterinarioa, zesaria egin dio, atera txahala, azelako
errapetxoa atera du)

bustena: buztana

emie: emea

enpatxue: ganaduaren gaisoa

eratzialdidxe: eratsaldia

errapie: errapea

“txarra da, txarra da, ademas errapie be igual gogortuten dxako ta gogortuten dire (bu)”, (txarra da, txarra da, gainera errapea ere igual gogortzen zaio eta gogortzen dira)

erroa: erroa

eskubille (bu): eskubila; ganadua garbitzekoa

esne askoko beidxe: esne askoko behia, esnatza

esne gitxiko beidxe: esne gutxiko behia

esnebeidxe: esne behia

eusnarra: hausnarra

furidxe: ganaduaren gaixoa

ganadue: ganadua

“aittu arrokeridxe bat kontaukot ori bai arrokeridxe da, arrokeridxe es, egidxe da, aukitteneusen nik bedxek iñok es langoak, eta entenidu klasien, enauke esan biar, au entzun ingo daure esta? baye, bardin entzuten badostie be egidxe esan, orduen egon siren pasieguek serien, esangot or o, selan esaten da kastejanan ondoan, baye orko pasieguek ixen sien e, altosornoko modukoak, elegantiek eta dirutzuek eta, kortiek aukitten auresan ta ara erateneusen ganaduek, eta ni bakarri pe dxoanas bedxek erosten, bakarrik egon esnie salduten sera biseridxe esaten genun guk, eta eran esniek eta eskas, eskas da, eta ya estule gedxau erosi biar se ya semie asi ordun bigerren da biger asko ta serien, banoa kortara ta, eta dxoan da sera nik e, gusurre esan esta? permiso iñori bes eskatu, es gixonari, saldu te gero kortara bilboti kortara, parkegiño dxoaten geintzesan esniekas e, parkegiño eta sabalbide asi eta parkegiño, entzun, eta astoak esniekas, bilbotik kalle correon da danien

aukitten genusen biseridxe, eta selan astoa parau, aukin genun denda bat, astegunetan dendara, ta domeketan etzera, eras bixi siren, eta astoagas traka-traka astoa amarrau barik, traka-traka eta dendan atien taka parau, selan dakidxen, ibilli esik estaki iñok, ibilli in biar da eureka eta orduen estakitt, ser esaten dxoanas oiñ, segoser esaten dxoanas (bu)", (aditu harrokeria bat kontatuko dut hori bai harrokeria da, harrokeria ez, egia da, edukitzen nituen nik behiak inork ez lakoak, eta ulertu motan, ez nuke esan behar, hau entzun egingo dute ezta? baina, berdin entzuten badidate ere egia esan, orduan egon ziren pasiegoak zerean, esango dut hor, zelan esaten da kastrejanaren ondoan, baina horko pasiegoak izan ziren, labe garaietako modukoak, dotoreak eta dirutsuak eta, gortak edukitzen zituzten eta hara eroaten nituen ganaduak, eta ni bakarrik ere joan naiz behiak erosten, bakarrik egon esnea saltzen zera bezeroak esaten genuen guk, eta eroan esneak eta eskas, eskas eta, eta ja ez dugula gehiago erosi behar ze ja semea hasi zen orduan beharrean eta behar asko eta zerean, banoa gortara eta, eta joan eta zera nik, gezurra esan ezta? baimena inori ere ez eskatu, ez gizonari, saldu eta gero gortara bilbotik gortara, parkeraino joaten ginen esneakaz, parkeraino eta zabalbide hasi eta parkeraino, entzun, eta astoak esneakaz, bilbotik correo kalean eta denean edukitzen genituen bezeroak, eta zelan astoa lotu, eduki genuen denda bat, astegunetan dendara, eta domeketan etxera, hurbil bizi ziren, eta astoagaz traka-traka astoa lotu barik, traka-traka eta dendaren atean taka lotu, zelan dakiten, ibili ezik ez daki inork, ibili egin behar da eurakaz eta orduan ez dakit, zer esaten joan naiz orain, zerozer esaten joan naiz); "emen egon san ermandadie, emen ganadu asko egon da (l)", (hemen egon zen ermandadea, hemen ganadu asko egon da); "es artorik eta olangorik esta itten emen, bueno oneik e, ba oneik ba dekienak ganadu apur bet, ba naboaa ta artoa ta olangoa ereiten deu ondikarren, ganadu apur be tekona pa, bakixu (b)", (ez artorik eta holakorik ez da egiten hemen, beno hauek, ba hauek badaukatenak ganadu apur bat, ba harbia eta artoa eta holakoa ereiten du ondinarren, ganadu apur bat daukanak ba, badakizu)

glosopedie: ganaduaren gaixoa

ididxe, idixe: idia

"saldu du idi bet (b)", (saldu dugu idi bat)

kaskue (bu): apatxa

lasiartuna (bu): ganaduaren gaixoa

mitxorra: behiarra

"nik orrek mitxorrok estoas gure esan tzeten (b)", (nik horiek

mitxorrok ez ditut gura esan nion)

musturre: muturra

"ori txakurre langoa da, txakurre lumetzu langoa, musturre
fiñe deko, orrei taus asko asturias partetik (l)", (hori txakurra
lakoa da, txakurra lumetsua lakoa, muturra fina dauka, horiek
dagoz asturias aldetik)

narrue: narrua, larrua

*"eta selango usena aukiñ aun klaro! se eskegitte san siketu, orreik bortzegidxok ixengo
siren serakoak, narruskoak, narrusko gogorrak, eta aregas, eta biguntxu paretan
siren (bu)", (eta zelako izena eduki zuen jakina! ze eskegitzen zen sikatu, horiek
bortzegiok izango ziren zerekoak, narruzkoak, narruzko gogorrak, eta haregaz, eta
biguntxo paratzen ziren); "narrue ganetik, narrue egoten san (l)", (narrua gainetik,
narrua egoten zen)*

naturie (bu): alua, potxola, behiena

*"bueno ya sera asten da sabalduten errapie kargetan, eta ya igerri in dxako martxan
dauela ya laster etorri bear dauela, naturie asten dxako, eta errapie be sera asten
dxako betetan, eta orduen ya preparau de ta ya laster ingo dau (bu)", (beno ja zera
hasten da zabaltzen errapea kargatzen, eta ja igarri egin zaio martxan dagoela ja
laster etorri behar duela, alua hasten zaio, eta errapea ere zera hasten zaio
betetzen, eta orduan ja prestatu da eta ja laster egingo du)*

orroa (b): orroa

osalie (bu): osala, ganaduentzako jatekoa

*"osalie da preparetan dosune serien, emoteko naboagas edo presparetan dosun
jeneroa (bu)", (osala da prestatzen duzuna zerean, emateko harbiagaz edo
prestatzen duzun gauza)*

ostikadie (bu) ostikadie: ostikada

pentzue(b), prentzue: pentsua

"ni fatenintzen ba, astoagas pentzu eske (l)", (ni joaten nintzen ba, astoagaz pentsu eske); "prentzuek karu daus (l)", (pentsuak garesti dagoz)

pistidxe (bu): piztia

pulmonidxie: ganaduaren gaixoa

pulpie: ganaduarentzat egiten den jatekoa

sakutie (bu): ganaduaren gaixoa

sarrantxie (bu): txarrantxa

sekorra: zekorra, txekorra, zezena

"eta andidxe bada ba sekorra (b)", (eta handia bada ba zekorra); "beidxe tekoas bi, bei bi, da sekortxu bet, astoa estekot oiñ (bu)", (behiak dauzkat bi, behi bi, eta zekortxu bat, astoa ez daukat orain)

susera: susara

tira, tire (bu): aurrera joateko esaten zaio ganaduari

tortie: pentsua nahasita ganaduen jatekoa

txala: txala, xahala; berba hau erdaraz erabiltzen dugu

"ori esaten genun urrien, igerri orduen eraten da, gurbosu nos ekarri txala, gurbosu itxon belutxuau agaittik edo orregaittik, itxoteko (bu)", (hori esaten genuen hurrean, igerri orduan eroaten da, gura baduzu noiz ekarri txahala, gura baduzu itxaron belutxoago haregatik edo horregatik, itxaroteko); "es, txala edo igual beixe pe igual, jausi menditik biera, eta gero emen ite san ermandadie, errekaldekoak etorten sien ona ermandadera pagetan ganaduek eta (l)", (ez, txahala edo igual behiak ere igual, jausi menditik behera, eta gero hemen egiten zen ermandadea, errekaldekoak etortzen ziren hona ermandadera ordaintzen ganaduak eta); "ta gero txala be, umetokidxe bota arte es emon txala errapera (b)", (eta gero txahala ere, umetokia bota arte ez eman txahala errapera)

txekorra (bu): txekorra, zekorra

umetokidxe: ume tokia

"ori de peligeroso, txala in barri, osea txala einde ansioso oten da bedxe bakixu, ta kosta itten dxako orduen deko peligru lotuteko barruen umetokidxe (b)", (hori da arriskutsua, txahala egin berri, hau da txahala eginda artegata egoten da behia badakizu, eta kostatu egiten zaio orduan dauka arriskua lotzeko barruan umetokia)

urrume: urrumada

2.2. ARDIAK-AHUNTZAK

akarra(b), akerra (l): akerra

ardidxe, ardixe: ardia

"orreiri il dxake ardidxe (b)", (horiei hil zaie ardia); "ardixekas etor san aitte, seme biges, orra pagasarrire (l)", (ardiakaz etorri zen aita, zeme bigaz, horra pagasarrira); "emen es, lenau bai ote siren ardidxek, baye oiñ urte asko da emeti estauela egon be ardirik (b)", (hemen ez, lehenago bai egoten ziren ardiak, baina orain urte asko da hemendik ez dagoela egon ere ardirik)

aridxe (bu): aharia, arittoa

arittoa: arittoa, aharia

artxoa: artxoa

"txikidxek eta andidxe tire artxoak (b) (txikiak eta handiak dira artxoak); "artxoa dekosu emie ta arra (b)", (artxoa daukazu emea eta arra)

aumie: ahumea

auntze: ahuntza

"dana jan, arrapauten deuenana dana, da gero itxiten deuenana siketu, auntze da ona sasixe garbitako, sasixe garbitako, se

sasixe jaten dotzu bai, orritxue jaten deu, baye gero bein maskeueskero orrixe a sustertxu itxiten deuen a erramie, a siketu, ser deko agoan? a siketu iten da, nik estait ser deukien (l)", (dena jan, harrapatzen duena dena, eta gero uzten duena sikatu, ahuntza da ona sasia garbitzeko, ze sasia jaten dizu bai, orritxoa jaten du, baina gero behin mamurtuz gero orria sustrai hura uzten duen errama hura, hura ihartu, zer dauka ahoan? hura ihartu egiten da, nik ez dakit zer daukaten)

auskumie, aunsukumie (l): ahunzkumea

errebañue (bu): artesia, artaldea

"ardi betzu tabiltzes, baye tamañu, errebañu txikerra, andik batzuk, bik edo dekidxes errebañu txikerrak etzerako antzien artxo batzuk aukittekoeu (bu)", (ardi batzuk dabiltza, baina tamainu, artalde txikarra, handik batzuk, bik edo dauzkate artalde txikarrak etxerako antzean artxo batzuk edukitzeko edo)

euntze(b): ahuntza

"lengunien ekar dosaken euntzek (b)", (lehengo egunean ekarri hituen ahuntzak)

euskumie (b): ahunzkumea

lanie: artilea

2.3. EKINOAK

ankie: hanka

arrantza: arrantza

arre: arre, aurrera joateko esaten zaie

astoa: astoa

"oin esta san roke ixen sana, emen jentie! astoakas, kaballoakas, a ixen san! (l)", (orain ez da san roke izan zena, hemen jendea! astoakaz, zaldiakaz, hura izan zen!)

astoarra (b): astoarra

astoemie (b): astoemea

astokumie: astokumea

baso biorra: baso behorra

biorra: behorra

burriñie(b): burrinoa

erradurie: perra

ixo: ixo, geratzeko esaten zaie

kaballoa: zaldia

"kaballoak ori itten deu eran, eran gaixoa, kortan badau kaballoa edo astoa, ak nasteu itten deu sapalduten deuen lekuen an doa mikrobioa edo sera (b)", (zaldiak hori egiten du eroan, eroan gaixoa, gortan badago zaldia edo astoa, hark nahastu egiten du zapaltzen duen lekuan han doa mikrobioa edo zera)

matxoa (b): mandoa

muloa (bu): mandoa

potroa: ehuntegia

saldidxe: zaldia

so: ixo, geratzeko esaten zaie

tenesak: tenazak; ehuntegian abereak perratzeko erabiltzen dira

2.4. HEGAZTIAK

abidxie: habia

abixerixe: habiazaria

"abixerixe da arrautze bat betik dauela iteko (l)", (habiazaria da arrautza bat beti dagoela egiteko)

arrantza lokie (bu): habiazaria

biripoa: biripoa, biroa

egastidxe, egastixe: hegazia

"guk ekarri genusen e egastixek (l)", (guk ekarri genituen hegaztiak)

egoa: hegoa

errotie: errota, hegaztien urdaila

gangarra, gangarrie: gangarra, kaldorra

gantzagidxe: gantzagia

kapoye (l): kapoia

"ori kapoye, bakixu sertzu tiesan? ollar andixe kapeute, kapeute, da gero loditu, niri konejue be etxat asko gustetan (l)", (kapoi hori, badakizu zertzuk diren? oilar handia kapatuta, kapatuta, eta gero loditu, niri konejua ere ez zait gustatzen)

konejue: konejua, untxia

"airi gixonari konejuek gustau itten dxakiesan (bu)", (gizon haiei untxiak gustatu egiten zitzaizkien)

krestie: gangarra

kukurrukue (bu): kukurrukua

kurra: kurra, oiloei deitzeko erabiltzen da

"olloari geitteko kurra geitten tzu (b)", (oiloei deitzeko kurra deitzen diogu)

loka: loka

lumie: luma

minfirue (bu): mihi-firua; oiloei mihiaren azpian egiten zaien gaixoa

ollandie: oilanda

ollarra: oilarra

"ori esate san len baten bat gaixori tauela ta, ollarrak kanteu eskero gaubien be bai, baye ollarrak kantetan deu argidxe egon eskero karo orduen, iñor gaixorik oneskero argidxek ixitute siren, eta orduen itten deu ollarrak kanteu, klaro!", (hori esaten zen lehen baten bat gaixorik dagoela eta, oilarrak joz gero gauean ere bai, baina oilarrak jotzen du argia egonez gero jakina orduan, inor gaixorik egonez gero argiak iziotzen ziren, eta orduan egiten du oilarrak jo, jakina)

ollaskoa: oilaskoa

"semet ollasko emon tzesu orreri? (bu)", (zenbat oilasko eman diozu horri?); "guk ollasko bat ekarri gendun (bu)", (guk oilasko bat ekarri genuen); "etzien gabonetarako serak ollaskoak asten sien, ollasko batzuk itzelak andidxek (bu)", (etxean

gabonetarako zerak, oilaskoak hasten ziren, oilasko batzuk
itzelak handiak)

olloa: oiloa

“nik betek esetu dot o, olloari ifintten dxakosan amairu arrautze (bu)”, (nik beti ezagutu dut, oiloari ipintzen zitzaizkion hamahiru arrautza); “orrek ekar deitxus olloak ta beren nebiek il deitxus (l)”, (horrek ekarri ditu oiloak eta beraren nebak hil ditu); “au etze ondora, olloa padaus an dau kendu batik (b)”, (hau etxe ondora, oiloak badagoz han dago kendu barik)

ollo gorridxe: oilo gorria, oilo mota bat

ollo lokie (bu): oilo loka

ollo lumie (bu): oilo lumea

ollo suridxe (bu): oilo zuria, oilo mota bat

ollotegidxe (bu): oilotegia

ollotokidxe (bu): oilotokia

otie: oiloek lo egiten duten armadizoaren izena

palomie: usoa

patoa: ahatea

“olloa pai, patoa be bai, patoa bauku gu pe, konejue pe bai (l)”,
(oilok bai, ahateak ere bai, ahatea badaukagu guk ere, untxiak
ere bai)

pikue: mokoia

“bai baye olloa listoa da, surre da, pikuegas bota (l)”, (bai baina
oiloa listoa da, zuhurra da, mokoagaz bota)

txitie: txita, txitxa

"dxateko dienien dies ollaskoa ta ollandie ta gero txitak txikitxue tiesenien (bu)", (jateko direnean dira oilasko eta oilanda eta gero txitak txikitxoak direnean); "berak ogetabat egun barru ataraten ditus txitatxuek (l)", (berak hogetabat egun barru ateratzen ditu txitatxoak)

2.5. ERLEAK

argiseridxe (bu): argizaria

erlabotie: erlauntza

erlekajie: erlauntza

erlie, erlak (bu): erlea

"or deko ola satitxu bet, orma sati bet, aguelo difuntuek erliek eukin geixan orregaitik orreri solo orreri geituten dotzu erlabota erliek on siesan ta (l)", (hor dauka ohol zatitxo bat, horma zati bat, aitita zenak erleak eduki zituen horregatik horri soroorri deitzen diogu erlabota erleak egon ziren eta); "es, erliek estixe atarateko, sue in bear da, erliek fan daitesan, urrun fan daitesan estixe atara arte, eta faten siesan ba arpeixe tapaute da eskuek, se erliek pikeu (l)", (ez, erleak ezia ateratzeko, sua egin behar da, erleak joan daitezen, urrun joan daitezen ezia atera arte, eta joaten ziren ba aurpegia estalita eta eskuak, ze erleak pikatu)

estidxe: ezia

2.6. TXERRIA

aittesantue (b): txerriaren urdaila, era berean egiten den buzkatzarik handienari ere esaten zaio

apoa: apoa, txerri arra

"apoa, baus serak, txarri umak itekoak makerie eta apoa (I)",
(apoa, badagoz zerak, txerrikumak egitekoak makera eta apoa)

biridxe: biria

estegue (bu): txerri boda

gantzagidxe: gantzagia

girrintze: girrintza

koipie: koipea

makerie: makera, berba hau erdaraz esangura txarreko deikari gisa erabiltzen dugu, urdanga edo emagaldua adierazteko

mantillie: mantila

tegidxe (bu): txerrikorta

"tegidxe txarridxena da (bu)", (tegia txerriena da)

tripeko sille: tripeko zila

txarri arra(b): txerri arra

txarribodie (I): txerriboda

"orti i, txuletakas ta iten gixien txarribodie, emen es (I)",
(hortik, txuletakaz eta egiten zuten txarriboda, hemen ez)

txarridxe, txarrix: txerria

"ainbet txarriki dxan dot nik emen betik iltten siren txarri bi, eta iru be bai iños da aun killoti gorentza danak (bu)", (hainbat txarriki jan dut nik hemen beti hiltzen ziren txerri bi, eta hiru ere bai inoiz eta ehun kilotik gorantz denak); "bai, urdeixe, txorixoagas da mortzillagas, txarritxue ilte san (I)", (bai, urdaia, txorizoagaz eta buzkantzagaz, txerritxoa hiltzen zen); "da gero egon, gero oingo inguruen, edo gabon aurrien edo, batzuk len san martin inguruen, baye emen betik il dies, gabon aurrien, aurreko astien edo espabere erregen astien, iltten sien, da itxoten san ba in deidxen sera otz andidxe, obeto ixitte san otza, se gero urdeidxe ta gidxerrie, orreik gausok o, ba gatza da emoten dakodxesan moduen, urte gustireko, ba orreik i, denpora otzagaz kosten geidxien asko obeto, da ori aprobetxeta san (bu)", (eta gero

egon, gero oraingo inguruan, edo gabon aurrean edo, batzuek lehen san martin inguruan, baina hemen beti hil dira, gabon aurrean, aurreko astean edo ezpabere erregen astean, hiltzen ziren, eta itxaroten zen ba egin dezan zera hotz handia, hobeto izaten zen hotza, ze gero urdaia eta giharra, horiek gauzok, ba gatz eta ematen zitzaizkien moduan, urte guztirako, ba horiek, eguraldi hotzagaz hartzen zuten asko hobeto, eta hori aprobetxatzen zen); “emen ixitte san ba boda bat moduen, etorten sien ausunekoak eta, bat etorte san, orko baserri beten bixi sen, a baserridxe bota geidxien autopistiegas da arek itten geixen ausune gustiko txarridxe, da etorten sien ba iru edo lau gixon gedxau, ademas oratuteko txarridxe, nik billurre se sarata andidxe itten geidxen iltte orduen, se iltte geidxen gantxo bategas, olango kutxillu tzar bat, da gu umiek, ni tekot o, selan ortik osteire urrunera dxoaten geintzen es entzuteko aren saratie, da gixonak itten gedxen ba ori oratu txarridxe ta, andriek, etzeko andra batek, arek odola koxi se odolagas itten sien sera, odolostiek, ta odola kosten san ta egoten sien eskuegas buelta ta buelta otzittu artien ya parau barik ostantzien gogortu itte san odola itxiaskero, gero gogortu itte san da esgeidxen balidxo, besperan sertuten sien, arrosa, arrosa egoste san da beren egunien porrue ta kunpillie se emen itten siren ori, kunpillie, arrosa, porrue, ori itte san egosi dana (bu)”, (hemen izaten zen ba ezkontza bat moduan, etortzen ziren auzunekoak eta, bat etortzen zen, horko baserri baten bizi zen, baserri hura bota zuten autopistagaz eta hark egiten zituen auzune guztiko txerriak, eta etortzen ziren ba hiru edo lau gizon gehiago, gainera oratzeko txarria, nik bildurra ze zarata handia egiten zuen hiltze orduan, ze hiltzen zuen gantxo bategaz, holako kutxilo tzar bat, eta gu umeak, nik daukat, zelan hortik osteru urrunera joaten ginen ez entzuteko haren zarata, eta gizonak egiten zuten ba hori oratu txarria eta, andreek, etzeko andra batek, harek odola hartu ze odolagaz egiten ziren zera, odolosteak, eta odola hartzen zen eta egoten ziren eskuagaz buelta eta buelta hotzitu artean ja lotu barik osterantzean gogortu egiten zen odola utziz gero, gero gogortu egiten zen eta ez zuen balio, bezperan zertzen ziren, arroza, arroza egosten zen eta beraren egunean porrua eta kipula ze hemen egiten ziren hori, kipula, arroza, porrua, hori egiten zen egosi dena); “koipie baye a urtu barik, gordiñik, da arrosa itte san bisperas, ixitte san moduen, emen itten siren ba, igual bost edo sei killo edo, se ori gero mortzillak errepartiduten sien ausune gustidxen, eta ba itten san montoye kasuela andi bet, ta otzittuteko bueno biar ixittesan denporatan!, gero gixonak emen paretan sien, se goixien armosate san (bu)”, (koipea baina hura urtu barik, gordinik, eta arroza egiten zen bezperaz, izaten zen moduan, hemen egiten ziren ba, igual bost edo sei kilo edo, ze hori gero buzkantzak banatzen ziren auzune guztietan, eta ba egiten zen piloa kazola handi bat, eta hotzitzeko beno behar izaten zen denboratan! gero gizonak hemen paratzen ziren, ze goizean gosaltzen zen); “bueno gero, il ye gero sabalduten geidxien txarridxe, da eskeitten geidxen otzittu daitten, bueno tripek atara, da idiegas erre ittisan, apur bet, ullak eta erretako, da kutxillo bategas dana ondo arrasketan geidxien, a, urdeidxen asala (bu)”, (beno

gero, hil eta gero zabaltzen zuten txerria, eta eskegitzen zuten hotzi dadin, beno tripak atera, eta iragaz erre egiten zen, apur bat, ileak eta erretzeko, eta kutxilo bategaz dena ondo karrankatzen zuten, hura, urdaiaren azala); “da bueno ba, esan dotzutena, dana, ori garbittu te eskegi orduen otzittu daitten apur bet sera, ifintte san armosue, ba, eitten geidxien bastante goixetik bederatzirek inguruen se biar andidxe emoten geidxen txarridxe gobernatiek len, da, sera gibela, gibela txarridxena ifintte san goixien da gero jeneralmente ganien txitxarro erriek, oin bere karo neguen, txitxarroak erreta itten sien aik brasara, da gero asten sien, aurek itten geidxien andrak bier es, karo dana prepaetan dana, sera masie mortzillantzako, da ni akordetanas ba emen aukin gendun sue, bekosue esaten dakon, da tximinidxe da laratzuegas da, an itten siren mortzillak, areik itten sien arratzaldien mortzillak da gero idxa arratsaldien prepaetan geidxien ba sera, gixonak txarridxe, satittu, pernillek alde batera solomoak bestera, da gidxerridxe (bu)”, (eta beno ba, esan dizudana, dena, hori garbitu eta eskegi orduan hotzi dadin apur bat zera, ipintzen zen armozua, ba, egiten zuten nahikoa goizetik bederatzia inguruan ze behar handia ematen zuen txarria gobernatzeak lehen, eta, zera gibela, gibela txerriarena ipintzen zen goizean eta gero gehienetan gaineen txitxarro erreak, orain ere jakina neguan, txitxarroak erreta egiten ziren haiek txingarrrera, eta gero hasten ziren, eurek egiten zuten andreek behar ez, jakina dena prestatzen dena zera amasa buzkantzentzat, eta ni gomutatzen naiz ba hemen eduki genuen sua, beheko sua esaten zitzaion, eta tximinia eta laratzuagaz eta, han egiten ziren buzkantzak, haiek egiten ziren arratsaldean buzkantzak eta gero ia arratsaldean prestatzen zuten ba zera, gizonak txerria, zatitu, pernilak alde batera solomoak bestera, eta giharra); “orduen esan egon makiñerik, txikertuteko ta, txorixoantzako, ba a eskus e, emen pasentzidxe gustidxegas ibiltten sien gixonak a gidxerrie ixittesan, eta gero ba, sue in da mortzillak eitten (bu)”, (orduan ez zen egon makinarik, txikartzeko eta, txorizoentzat, ba hura eskuz, hemen pazientzia guztiagaz ibiltzen ziren gizonak giharra hura izaten zen, eta gero ba, sua egin eta buzkantzak egiten); “da gero gaubes, gaubes ixittesan ya afaridxe andidxena, da afaridxe ixitte san porrusaldie da mortzillak, in barridxe, porrusaldie in tte gero sartuten siren ara barrure, porrusalda barrure, porrusaldie iñi tauela idxa, baye bero bero dauenien, ta irikiñ apurtxu bet itten dakon porrusaldieri da antxe gero mortzillak, da batzuri gustetan dxakodxesan olan egosirik, baye beste batzuri egosi tte gero, an mortzillak ein gendusen lekuen, an brasa andidxen, parrilla ganien, ifintten sien erretan, gosoa! da besugue gero ganien besugu errie be bai, ordun besugu asko egote san, gaur egon dies plasan baye brimille ta bosteun pesetan (bu)”, (eta gero gauez, gauez izaten zen ja afaria handiena, eta afaria izaten zen porrusalda eta buzkantzak, egin berriak, porrusalda egin eta gero sartzen ziren hara barrura, porrusalda barrura, porrusalda eginik dagoela ia, baina bero bero dagoenean, eta irakin apurtxo bat egiten zitzaion porrusaldari eta hantxe gero buzkantzak eta batzuei gustatzen zitzaizkien holan egosirik, baina beste batzuei egosi eta gero, han buzkantzak egin

genituen lekuan, han txingar handian, parrila gainean, ipintzen ziren erretzen, gozoa! eta besigua gero gainean besigu errea ere bai, orduan besigu asko egoten zen, gaur egon dira plazan baina bimila eta bostehun pezetan)

txarri makerie (l): txerri makera

"txarri onak, urrexie, txarri urrexie, makerie da umetxuekas dauena, umiekas dauena, txarri makerie (l)", (txerri onak, emea, txarri emea, makera da umetxoakaz dagoena, umeakaz dagoena, txerri makera)

txarri umie (l): txerrikumea

txarri urrexie (l): txerri emea

txarriidxen estegu (bu): txerri boda

txarriemie: txerri emea

txarrikumie: txerrikumea

txarrimie (b): txerri emea

txixe puxikie: txiza puxika

urrexie (l): emea

2.7. KATUA/TXAKURRA

ardi txakurre (bu): ardi txakurra

arrabidxo: amorrua

arrabixe: amorrua

arratoi txakurre (bu): arratoi txakurra

aulidxo (bu): erosta

"txakurre aulidxoka dau, es ausi ausi, txakurre ausike dau eta
esta señaie ona, orduen señaie txarra ixete san (bu)",
(txakurra erostaka dago, ez ahausi ahausi, txakurra ahausika
dago eta ez da seinale ona, orduan seinale txarra izaten zen)

ausi: ahausia

babie: adurra

damusidxe: erosta

emie: emea

erpie (b): atzaparra

eusi: ahausia

katuarra: katuarra

katue: katua

"kortara dxoan da katuegana ta gero andik etorri de (bu)",
(gortara joan da katuagana eta gero handik etorri da)

katukumie: katakumea

maulidxo (bu): miau

miau: miau

tomaki (bu): txakurrari esaten zaio uxatzeko

txakurkumie: txakurkumea

"lengo baten esaeuen radioti andra batek, orretariko, olango
sorgin betek agindu tzela, gixonari kuretake, kantzerra edo
kuretake, txakurkumek e, emoteko dxaten eta etor sala

otxarkoagara txakurrek erosten, txakurkumek erosten
kittanueri (b)", (lehengo baten esan zuen irratitik andre batek,
horietariko, holako sorgin batek agindu ziola, gizonari
osatzeko, biziarena edo osatzeko, txakurkumeak, emateko jaten
eta etorri zela otxarkoagara txakurrak erosten, txakurkumeak
erosten ijitoei)

txakurre: txakurra

"orreik il dxeudeken txakurre (b)", (horiek hil ziaten txakurra); "gorde, emen gausie eukin du, ba gabon egunien gure amak eta betik e, ba afarixe ifiñi orduen, afaldu te orduen, ogi sati bet, aurten be in du e? emen bakixie, ogi sati bet, afaldu aurrien bedeinketu padre nuestro bat erreseu, da a ogi satixe ifiñi mantel pien, da gero urrengoko goxien koxu a ogixe, da gorde ondo ogixe e, gorde ta eukin gordeta bakixu serentzat sano ona? txakur amorrutuentzat, txakur amorrutuentzat, a txakur bet amorrutueskero, txakurre amorrututen da agiñeko miñegas, agiñeko miñegas amorrututen da, arrabixegas, da gero babie botaten deu, da a gorde, da alango ogi sati bet amorrutueskero, emoneskero a txakurre kureu (l)", (gorde, hemen gauza eduki dugu, ba gabon egunean gure amak eta beti, ba afaria ipini orduan, afaldu eta orduan, ogi zati bat, aurten ere egin dugu? hemen badakite, ogi zati bat, afaldu aurrean bedeinkatu aitagure bat errezatu, eta ogi zati hura ipini zamaupéan, eta gero hurrengoko goizean hartu ogi hura, eta gorde ondo ogia, gorde eta eduki gordeta badakizu zerentzat sano ona? txakur amorratuentzat, txakur amorratuentzat, hura txakur bat amorratuz gero, txakurra amorratzen da hagineko minagaz, hagineko minagaz amorratzen da, amorrugaz, eta gero adurra botatzen du, eta hura gorde, eta holako ogi zati bat amorratuz gero, emonez gero txakur hura osatu); "txakurrek, e damusike egoneskero señale txarra ixeten da (b)", (txakurrak, ahausika egonez gero señale txarra izaten da); "gabonetan gordetan san ogidxe, afaitten asi orduen, lelengo ogi kuskurre ebaitten sana gordetan san, serien, matelpien, da gero gordeta aukitte san urte bete, da gero urrengo urtien txakurreri emoten dakon a estaitten amurrutu (bu)", (gabonetan gordetzen zen ogia, afaltzen hasi orduan, lehenengo ogi kuzkurra ebakitzen zena gordetzen zen, zerean, zamaupéan, eta gero gordeta edukitzen zen urte bete, eta gero hurrengo urtean txakurrari ematen zitzaion hura ez dadin amorra)

txerpie (l): txerpa

"bestiek txerpie badeukie aik inkeu inkeu inkeu, biar asko (l)",
(besteek txerpa badaukate haiek inkatu inkatu inkatu, behar asko)

3. BEHARRA

Aurreko gai biak bazter utzita, oraingo honetan beharrari buruz berba egiteko, ataltxo bi aurkeztuko ditugu; batean ogibideak ikusiko ditugu, eta bestean, joskigintzari buruz jardungo dugu.

3.1. OGIBIDEAK

abadie: abadea

"abadie bixi de urrun (b)", (abadea bizi da urrun); "guk abadieri esantzu egidxe (b)", (guk abadeari esan diogu egia); "da misinoak emoten gixesan abadie gure ama difuntien lengusiña baten alabiegas eskondute dau (l)", (eta misinoak ematen zituen abadea gure ama zenaren lehengusina baten alabagaz ezkondu dago); "abadieri jaune tratate dxakon len amen (b)", (abadeari jauna esaten zitzaion lehen hemen)

albañela, albañila: igeltseroa

aldianue (bu): baserritarra

alguasillek: alguasila

alkatie: alkatea

"esetu nik esetu dot o, aurkidxe egon san lekuen, or betellun egon san, or emeko alkatie, se au sen, emen bixi bearrauen e, bixi bearrauen seberetxen, betellurin edo emen buyan, da, artigas san larraskitu gustidxe san justo ixin esik, pagasarriko, san roke be bai, se emeko alkatie dxoate san makilliegas, gerra artiño, gero dxoate san gobernadorie ta gero bilboko alkatie, baye lenau emeko alkatie da, nire andrien aitte, es aittue ixin sen da gero askenekoa domingo mendisabal seberetxen bixi sana (bu)", (ezagutu nik ezagutu dut, aulkia egon zen lekuan, hor betelurin egon zen, hor hemengo alkatea, ze hau zen, hemen bizi behar zuen, bizi behar zuen seberetxen, betelurin edo hemen bujan, eta, artigas zen larraskitu guztia san justo izan ezik,

pagasarriko, san roke ere bai, ze hemengo alkatea joaten zen makilagaz, gerra artino, gero joaten zen gobernadorea eta gero bilboko alkatea, baina lehenago hemengo alkatea eta, nire andrearen aita, ez aitita izan zen eta gero azkenekoa domingo mendizabal seberetxan bizi zena); “ayuntamientukoak faten die oin, alkatie be, dantzan, ies ieuen ies dantzan ibil de, alkatie be, bai gorordo (l)”, (udalekoak joaten dira orain, alkatea ere, dantzan, iaz egin zuen iaz dantzan ibili da, alkatea ere, bai gorordo); “bilboko alkatiegas, oin dan alkatie, egun beten, koño! esaostien a bai serekoa deustukoa, koño! egun beten egon olan batera beskalduten ta esanitzen e, aber selango amistadie edo ser dan, fidel, taberna euki euen orrek san fransiskon, eta fidel esetuten dosu te, bai estot esetuko ba fidel asko, ba fidel nire aitte da (b)”, (bilboko alkateagaz, orain den alkatea, egun baten, joño! esan zidaten bai zerekoa deustukoa, joño! egun baten egon holan batera bazkaltzen eta esan nion, ea zelako lagun edo zer den, fidel, taberna eduki zuen horrek san fransiskon, eta fidel ezagutzen duzu eta, bai ez dut ezagutuko ba fidel asko, ba fidel nire aita da)

arotza: arotza

barberue: barberoa, bizargina

beterinarixoa (l), betinaidxo (bu), betrinaidxo: albaitea

“orduko denporan es, se gero nik i, etzien eskondu te gero, sera betrinaidxo etorte san (bu)”, (orduko denboran, ze gero nik, etxean ezkondu eta gero, zera beterinarioa etortzen zen); “eta lantzin bein sera, emen betrinaidxoak eras daus se gu ortxe bixi geintzesan da, betrinaidxoari, estator ondo ta geittu betrinaidxoari tte olango bai (bu)”, (eta lantzean behin zera, hemen albaitea eras dagoz ze gu hortxe bizi ginen eta, albaiteari, ez dator ondo eta deitu albaiteari eta holako bai)

dxoskille: joskilea, jostuna

egurdune (bu): egurduna

enkargadue: enkargadua, arduraduna

erradorie: erradorea, perratzailea

errementaridxe: errementaria

“errementaridxen alabiegas pase dxaten egun beten selebrie pase dxaten egun beten (b)”, (errementariaren alabagaz pasatu zitzaidan egun baten zelebrea pasatu zitzaidan egun baten)

errotaridxe, errotarixe (l): errotaria

"errotak egon siesan urrun, egon siesan, baye jente asko joaten san eixoten ta biar asko eukiten gixien errotarixe pe (l)", (errotak egon ziren urrun, egon ziren, baina jende asko joaten zen ehotzen eta behar asko edukitzen zuten errotariek ere)

guardie: goarda, baso jagolea

jostune (l): jostuna; jostunak etxerik etxe ibiltzen ziren

"ordu en erosi esin, etzien itten siren, dxakitten eunak, ordu en sera esan egon moda asko bere, se moda gitxi egon san, bai, bai, etzien itten sien, etzien dxakidxenak apur bet eta afanatxue aukiñak oin leges, oin leges be bakixu dekona (bu)", (orduan erosi ezin, etxean egiten ziren, jakiten zuenak, orduan zer ez zen egon moda asko ere, ze moda gutxi egon zen, bai, bai, etxean egiten ziren, etxean dakienak apur bat eta zaletasuna zeukanak orain legez, orain legez ere badakizu daukana)

kajerue: diruzaina, baserritarren sindikatokoari esaten zitzaion beren-beregi

kamiñerue: kamineroa, bide jagoleak eta konpontzaileak

"eta mutil bet antonio, senbet bider egon da emen! kamiñeru ibil sen eta (l)", (eta mutil bat antonio, zenbat bider egon da emen! kaminero ibili zen eta)

karniserue: harakina

karpintterue: arotza

karreterue (bu): karretero

kasarixe (l), kasadorie (bu): ihiztaria

“ni gastie nintzenien, an pastorekorta alboan egon san kasadore bat da elei bet il geidxen, nire aitte parau sen! esan tzen kontu erreikas gero! (bu)”, (ni gaztea nintzenean, han pastorekorta alboan egon zen ehiztari bat eta elai bat hil zuen, nire aita paratu zen! esan zion kontu horiekaz gero!); “emen estau, emen gero kasarixek eta il, emetik, basaurderen bat nosipein entzuten da il deuriela or ganekogorta aldien edo, da gero basaurdie non dabillen igerri iten da, se badoa piñu artetik, basaurdie teko lume asko (l)”, (hemen ez dago, hemen gero ehiztariak eta hil, hemendik basurderen bat noizean behin entzuten da hil dutela hor ganekogorta aldean edo, eta gero basurdea non dabilen igerri egiten da, ze badoa pinu artetik, basurdeak dauka ile asko)

katapasa: kapataza

“or beyen eon san kanterie, muñisena, da katapasa ixen san (l)”,
(hor behean egon zen harrobia, mañisena, eta kapataza izan zen)

kridxadie, kridxedie, krixedie (l): neskamea

“krixedu krixeda eoten gintzesan esta? (l)”, (morroi neskame egoten ginen ezta?); “estaipa nik, aittu nik, selan gustau ingo dxaten se egoneintzen kridxada, eta ser dan noperak barrutik edatie, eselango fanfarroi barik eta eser barik, noperari gustaten dxakona, ni kridxeda egon eta nire aistak baserridxen egon eta nik asko be obeto dxakin nire aista paño, eta bakixu non egoneintzen, bakixu non egoneintzen e esiren ixen auskeldunek, eta dxoaneintzen ni etzera, nik soloan be betik altu bakixu jentie pe entzun beste solo batzutetik eta

andik esateotzien e, sera nire gixonari, sustaute nau ni sure
andriegas, bere gustidxe bilbon eta selan daki auskeras, eta
sera iño paño obeto, iño paño obeto, ademas niri betik
urteiteosten serak, auskerie, auskerie, eta aureri erderas, nik
oiñ ume bateri bere esin yotzet erdera iñ, gureta be, gureta be
errespeto faltie, lantzen beiñ i, bestiek amak eta estakidxe ta
lelengo berbiek urteitten dost alantxe auskeras, baye ser dan
gustetie eta niri gustau terrible, terrible, eta bakixu ser bere?
ixengo da naure arrokeridxe baye, sera, artoa botaten genun,
serera, sulora, txorkora, eta gure aittek esaten eun, beste
dana paño obeto badaki, se nik amabost urte olango bigerrik
ein barik eta lelengoko egunien e, asidxe bota politto, ondo, ta
ondo ta ariñ, ontxe bakixu ser ereittekko gogoa, ba ontxe guk
an solo ba tekku, gurie esta errentan deku baye, eta txabola bat
itteko ganatxue dekot, baye niri gustau ara dxoatie, an asa
batzuk edo an ifinteko, se esaten dostie ama, su esaus sano
esaten dostie, niri axe gustau, ni emen nerbiosa plantata, eta
esineike bigerrik ein se ni sereti pe, kuntzurrunik sano

txarto nau, baye axe gustau (bu)", (ez dakit ba nik, aditu nik, zelan gustatu egingo zitzaidan ze egon nintzen neskame, eta zer den norberak barrutik edatea, ezelango harrokeria barik eta ezer barik, norberari gustatzen zaiona, ni neskame egon eta nire ahiztak baserrian egon eta nik asko ere hobeto jakin nire ahiztak baino, eta badakizu non egon nintzen, badakizu non egon nintzen e ez ziren izan euskaldunak, eta joan nintzen ni etxera, nik soroan ere beti altu badakizu jendea ere entzun beste soro batzuetatik eta handik esaten zioten, zera nire gizonari, ikaratuta nago ni zure andreagaz, bere guztia bilbon eta zelan daki euskaraz, eta zera inork baino hobeto, inork baino hobeto, gainera niri beti irteten zidan zerak, euskara, euskara, eta eurari erdaraz, nik orain ume bati ere ezin diot erdaraz egin, gurata ere, gurata ere begirune falta, lantzean behin, besteek amak eta ez dakite eta lehenengo berbak irteten dit halantxe euskaraz, baina zer den gustatzea eta niri gustatu itzel, itzel, eta badakizu zer ere? izango da neure harrokeria baina, zera, artoa botatzen genuen, zerera, zulora,

txorkora, eta gure aitak esaten zuen, beste denek baino hobeto badaki, ze nik hamabost urte holako beharrik egin barik eta lehenengoko egunean, hazia bota polito, ondo, eta ondo eta arin, oraintxe badakizu zer ereiteko gogo, ba oraintxe guk han soro bat daukagu, gurea ez da errentan daukagu baina, eta txabola bat egiteko gogotxo daukat, baina niri gustatu hara joatea, han aza batzuk edo han ipintzeko, ze esaten didate ama, zu ez zagoz sano esaten didate, niri huraxe gustatu, ni hemen urduri plantatuta, eta ezin nezake beharrik egin ze ni zeretik ere, kuntzurrunetik sano txarto nago, baina huraxe gustatu)

kridxedue, kridxaue, krixedue (I): morroia

lapurre: lapurra

"bai lapurrek, sera, oneik, erradurek aldrebes imiñiotzesanak kaballoari te orreik (b)", (bai lapurrak, zera, hauek, perrak aldrebes ipini zizkionak zaldiari eta horiek)

letxerie: esneketaria

"nik asko alternate nendun letxerakas, bilbon, samudio, ortikoak etorte sien ta, ondo arregleta nintzen eurekas,

berbas, bai, bai, neure leges, ondo arregleta nintzen berbas
(l)", (ni asko ibiltzen nintzen esneketariakaz, bilbon, zamudio,
hortikoak etortzen ziren eta, ondo moldatzen nintzen eurakaz,
berbaz, bai, bai, neure legez, ondo moldatzen nintzen berbaz)

letxerue: esneketaria

"da gero enbrak ba esniegas, esnie salduten bilbora, peñera
baño, gure amandren denporan da peñan bixi sen jente gitxi be
bai da dxoaten sien urasurrutiara, san fransisko aldera da
saspi kalera be dxoaten sien da nau be dxoanas baye ni
dxoaneitzen denpora gitxidxen ya, gero, ademas gero asi sien
letxeruek kamioyegas etorten (bu)", (eta gero andrazkoak ba
esneagaz, esnea saltzen bilbora abusura baino, gure amamaren
denboran eta abusun bizi zen jende gutxi ere bai eta joaten
ziren urazurrutiara, san franzisko aldera eta zazpi kalera ere
joaten ziren eta neu ere joan naiz baina ni joan nintzen
denbora gutxian ja, gero, gainera hasi ziren esneketariak
kamioiagaz etortzen)

maestrie, maistrie: maistra

"ori dxoan da maistre bilbora (b)", (hori joan da maistra bilbora); "lengo maestrie egon sana an jo ak euskera jakin geixen (l)", (lehengo maistra egon zena han jo hark euskaraz jakin zuen)

maixue: maisua

matarifie: txerri hiltzailea

"gero olan ermandadan iltten sienak, ba ekarri matarifie ta prepareteuen eta gero dxoatesan a, selan da? subastara (b)", (gero holan ermandadean hiltzen zirenak, ba ekarri hiltzailea eta prestatzen zuen eta gero joaten zen, zelan da? errematara)

medikue: medikua, osagilea

"alabie be mediku ingo da (l)", (alaba ere mediku egingo da)

morroye: morroia, kriadua

panaderie: oikina

panaderue: oikina

pastorie: artzaina

"amen esate san len pastorie baye (b)", (hemen esaten zen lehen pastorea baina); "se aintxiñe or pastore asko ibil siesan, gipuskoatik eta etorten sien (l)", (ze aintzina hor artzain asko ibili ziren, gipuzkoatik eta etortzen ziren); "oiñ urte bi egon garesen an isaban pastore bategas, da ederto, baye ederto auskeras ademas, ardidxekas esan ixin, pastore ardidxena, ixin san sera, beidxekas, baye ederto itten gidxen (bu)", (orain urte bi egon ginen han izaban artzain bategaz, eta ederto, baina ederto euskaraz gainera, ardiakaz ez zen izan, artzain ardiena, izan zen zera, behiakaz, baina ederto egiten zuen); "ointxe il de, gaur dau funerala, emeko pastorie ardidxek aukin geidxesena or, a ixen esik, oin daus! iru lau ardi emen baye ardi modurik esta egon emen es (bu)", (oraintxe hil da, gaur dago hileta, hemengo artzaina ardiak eduki zituen hor, hura izan ezik, orain dagoz! hiru lau ardi hemen baina ardi modurik ez da egon hemen ez)

pelotaridxe: pelotaria

sesterue: otzara egilea

tasadorie: tasadorea

"ta bei bet eraten badosu ba etorte sien tasadoriek, tasadoriek etorte sien urtien biten edo, tasetan otzuen orrenbeste beti be gitxiau bakixu beti gitxiau (b)", (eta behi bat eroaten baduzu ba etortzen ziren tasadoreak, tasadoreak etortzen ziren urtean bitan edo, tasatzen zizuten horrenbeste beti ere gutxiago badakizu beti gutxiago)

telerue: ehulea eta ehun saltzailea

trantantie: tratantea

txoferra (bu): gidaria

3.2. JOSKIGINTZA

abarka untzie (bu): abarka iltzea

adrasue (bu): ipinkia, adabua

albandorrotza (b): albandorratza

artasidxe, artasiñek (bu): artaziak

barrena (bu): barrena, fraka edo gona barrena

dxostorratza: jostorratza

erie: era

esku pañue (l): esku zapia

"ni sarri fatenintzen ara erosten, arkondara edo esku pañue
edo (l)", (ni sarri joaten nintzen hara erosten, alkondara edo
esku zapia edo)

firue: firua, haria

fraka barrena: fraka barrena

gorue (bu): gorua

ilobalie (bu): firubala

iluntzidxe: iruntzia

karretie (b): karrete

kitterie (bu): ditarea

kolkoa (bu): kolkoa; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

lanie (b): artilea

moropille (bu): korapiloa, troinua

obilloa (bu): obiloa, mataza

orratza: orratza

orrotza (b): orratza

telie (l): tela

titerie (b): ditarea

troñue (b): korapiloa, troinua

4. GIZARTEA

Gizarte bizimoduari buruzko hiztegia bost ataltxotan banatuta aurkezten dugu:
merkatua eta dirua, neurriak, hartuemonak, musika eta kirola, eta, azkenik,
jaiegunak.

4.1. MERKATUA/DIRUA

baseridxe (bu), biseridxe (bu): 1. bezeria. 2. bezeroa

“eta astoak esniekas, bilbotik kalle correon da danien aukitten genusen biseridxe, eta selan astoa parau, aukin genun denda bat, astegunetan dendara, ta domeketan etzera, eras bixi siren, eta astoagas traka-traka astoa amarrau barik, traka-traka eta dendan atien taka parau, selan dakidxen, ibilli esik estaki iñok, ibilli in biar da eurekas eta orduen estakitt, ser esaten dxoanas oiñ, segoser esaten dxoanas (bu)”, (eta astoak esneakaz, bilbotik correo kalean eta denean edukitzen genituen bezeroak, eta zelan astoa lotu, eduki genuen denda bat, astegunetan dendara, eta domeketan etxera, hurbil bizi ziren, eta astoagaz traka-traka astoa lotu barik, traka-traka eta dendaren atean taka lotu, zelan dakiten, ibili ezik ez daki inork, ibili egin behar da eurakaz eta orduan ez dakit, zer esaten joan naiz orain, zerozer esaten joan naiz)

dirue: dirua

“dirue batuten gixien an (l)”, (dirua batzen zuten han)

erriela: erreala

feridxe: azoka

“basortun, basortun, feriona ixete san basortun, arboladurie ta ure eukitteuen, bebederue erdi erdidxen, gero kendu euren ta basortuti erauren serera sorrotzara (b)”, (basurton, basurton, azoka ona izaten zen basurton arboladia eta ura edukitzen zuen, edangoa erdi erdian, gero kendu zuten eta basurtotik eroan zuten zerera zorrotzara)

laukoa: laukoa, pezeta

“joan siesan ameriketara, ta an ieuesan urtetxu betzuk ta etor siesan laukotxu betzukes (l)”, (joan ziren ameriketara, eta han

egin zituzten urtetxo batzuk eta etorri ziren laukotxu batzukaz)

ogerlekoa, ogorlokoa: hogerlekoa

"illien ogerleko bat pagetan (b)", (hilean hogerleko bat ordaintzen); "da jente koitedueri doana botilla bat erosten estait nik ogei ogerleko edo estait senbe tan (l)", (eta jende koitaduari doana botila bat erosten ez dakit nik hoge hogerleko edo ez dakit zenbat den)

perra aundixe: txakur handia

perra txikerra: txakur txikarra

perrie (l): txakur txikarra

"bilbon eon san lau perra ta erdixen otarrie baye, esan egon lau perra ta erdi (l)", (bilbon egon zen lau perra eta erdian otarra baina, ez zen egon lau perra eta erdi)

pesetie (bu): pezeta

plasie: merkatua

"oño serien, bilboko plasan, emekoan, santantoiko plasan, lengo urtien asi siren, emoten daure, danari erosten doasenari sera, txarri bet errifetan daure da emoten daure, numeroa, da lengo urtien iñor esan agartu (bu)", (oraindino zerean, bilboko azokan, hemengoan, san antoneko azokan, lehengo urtean hasi ziren, ematen dute, denei erosten doazenei zera, txarri bat

zozketatzen dute eta ematen dute, zenbakia, eta lehengo urtean inor ez zen agertu)

txakur andidxe: txakur handia

txakur txikerra: txakur txikarra

4.2. NEURRIAK

arrakordela (b): aharra kordela, neurri kordela; ganaduen pisua kalkulatzeko kordela

arrie (bu): aharra

arrobie (b): arroba

asunbra erdidxe: azunbre erdia, litro bat

asunbrie: azunbrea, litro bi

atza: hatza

balidxo: balioa

begidxe: neurri kordelaren oralekua

dosena erdi: dozena erdia

dosenie: dozena

erdidxe: erdia

“da erdixe inguru ixen san, etziena, bixilekue, da angoan eukin euen, ba sera elejie (l)”, (eta erdia inguru izan zen, etxearena, bizilekua, eta hangoan eduki zuen, ba zera, eliza)

erraldie (b), erreldie (b): erraldea, bost kilo

euskadie: eskutada

gixelana: gixelana, soroak neurtzeko da

kantaria: neurri hau likidoetarako erabiltzen zen

kantidadie, kantidedie (bu): kantidadea

killoa: kiloa

killometroa (bu): kilometroa

kuartillu erdidxe: kuartilo erdia, litro laurena

kuartillue: kuartiloa, litro erdia

laurena: laurena

liberdidxe: libra erdia

“klaro liberdi eneun pisatuten da, enuen dxaten da (bu)”,

(jakina libra erdi ez nuen pisatzen eta, ez nuen jaten eta)

librie: libra

litroa: litroa

metroa: metroa

montoye: piloa

naurridxe: neurria

ontzie: ontza, balio handiko gauzak pisatzeko neurri hau erabiltzen zen

partidie: partida, piloa, mordoa

“aik i, sera, ume partidetxue dekidxie (bu)”, (haiek, zera, ume

partidatxoa daukate)

partie (bu): zatia

pilloa: piloa, mordoa

pisue: pisua

“se ifinte xako pisu asko, karga asko (l)”, (ze ipintzen zaio pisu

asko, zama asko)

piti bet: apur bat

platerkadie: platerkada

"ordun dxate san inyaba asko, nik esetu dot gure aitte egun gustidxetan, bueno sapatue ta domekie es baye, ostentzien egun gustidxetan arek inyabak, inyaba baye platerkada bi e, gustetan dakosan! esan anbeste jenero oin leges be egoten segun trasie ba (bu)", (orduan jaten zen indaba asko, nik ezagutu dut gure aita egun guztietan, beno zapatua eta domeka ez baina, osterantzean egun guztietan hark indabak, indaba baina platerkada bi, gustatzen zitzaizkion! ez zen hainbeste gauza orain legez ere egoten antza denez ba)

satidxe, satixe: zatia

"baye a ogi satidxe emon bear dako urrengo urtien (bu)", (baina ogi zati hura eman behar zaio hurrengo urtean); "or deko ola satitxu bet, orma sati bet, aguelo difuntuek erliek eukin geixan orregaitik orreri solo orreri geituten dotzu erlabota erliek on siesan ta (l)", (hor dauka ohol zatitxo bat, horma zati bat, aitita zenak erleak eduki zituen horregatik horri soroorri deitzen diogu erlabota erleak egon ziren eta)

selemiñe (bu): zelemina, zekaleak pisatzeko erabiltzen zen neurria

sientoa: zientoa, ehun, landareakaz erabiltzen den neurria

siento erdidxe: ziento erdia

siento laurena: ziento laurena

sintxie: neurri kordela, aharra kordela

tamañue: tamaina

4.3. HARTUEMONAK

agur: agur

“gerran, francok eskixen itxiten, agur bes esin san in, kartzelara, kartzela bakixu ser dan? (I)”, (gerran, francok ez zuen uzten, agur ere ez ezin zen egin, kartzelara, kartzela badakizu zer den?)

albokoa: beste aldekoa, bizitza biko baserrietan edo pisuetan auzokoa da

asarrie: haserrea

ausoa (I): auzoa, auzokoa

“danok badin antzen, auso gustixek bardin antzen, danok e (I)”,
(denok berdin antzean, auzo guztiak berdin antzean, denok e)

ausokoa: auzokoa

“beti ausokoari, etzien sauz? ba etor basenkittes se bedxe deku sentidute ta, etorten sien, etorten sien ausokoak (bu)”, (beti auzokari, etxean zagoz? ba etorriko bazina ze behia daukagu sentiduta eta, etortzen ziren, etortzen ziren auzokoak)

ausunekoa: auzunekoa

batzarra (bu): batzarra

"ganaduen sera, batzarra edo egote sanien ba ara dxoaten sien (bu)", (ganaduen zera, batzarra edo egoten zen ba hara joaten ziren)

biximodue: bizimodua

bodie: ezkontza

"neure bodie berak selebrau te oin bera eskondu gure familixeko a! (l)", (neure ezkontza berak ospatu eta orain bera ezkondu gure familiako a!)

dotie: dotea

dxaubie (bu): jabea

egunon (bu): egun on

ermandadie(b), erremandadie: ermandadea

"emen egon san ermandadie, emen ganadu asko egon da, beixek? emen? san roke, ba sanarixen, torre urisar, aragiño, len, baserrixek botata daus, ermandade andixena da emekoa, arrais? angoa pe emen, emekoa be, kalle sabala ta goiko, ta goixen, goixen agarre, agarre gora be (l)", (hemen egon zen ermandadea, hemen ganadu asko egon da, behiak? hemen? san roke, ba sanarixen, torre urizar haraino, lehen, baserriak botata dagoz, ermandade handiena da hemengoa, arraiz? hangoak ere hemen, hemengoa ere, zabala kalea eta goiko, eta goian, goian agarre, agarre gora ere); "ermandadati bi edo iru

egon sien bat bokala, tasadorie ta bestie estaitt baye bi etorte sien emeti tasetan (b)", (ermandadetik bi edo hiru egon ziren bat bokala, tasadorea eta bestea ez dakit baina bi etortzen ziren hemendik tasatzen); "gero olan ermandadan iltten sienak, ba ekarri matarifie ta prepareteuen eta gero dxoatesan a, selan da? subastara (b)", (gero holan ermandadean hiltzen zirenak, ba ekarri hiltzailea eta prestatzen zuen eta gero joaten zen hura, zelan da? errematarara); "ganaduen erremandadie amen egosan begoñen baño ariñau (b)", (ganaduen ermandadea hemen egon zen begoñan baino arinago); "se gero guk ermandadati urten in yun gu lusaro on garan ermandada barike (b)", (ze gero guk ermandadetik irten egin genuen gu luzero egon ginen ermandade barike)

errematie: erremata, enkantea

"errematie ixitte san amilyu edo itten basan beiren bat, ba gero a errematie (bu)", (erremata izaten zen amildu edo egiten bazen behiren bat, ba gero erremata hura)

eskekoa: eskekoa, eskalea

eskerrik asko: eskerrik asko

etxe erriena: etxe errearen elkartea, hau etxeren bat erretzen zenerako etxagunen artean jarritako diruz edukitzen zen aseguro modukoa zen

feridxe: azoka

gabon: gau on

ganadu feridxe: ganadu azoka

"len ganadu feridxe ite san amen (b)", (lehen ganadu azoka egiten zen hemen)

gasterixe (l): gazteria

gremidxoa, gremixoa (l): sindikatoa, pentsuetarako izaten zen

"eure pe egon sien, basurton o, gremixoa, gremixoa pregunten deu (l)", (eurak ere egon ziren, basurton, sindikatoa, sindikatoa itauntzen du)

jaune (bu): jauna, hau gehien bat abadeari esateko erabiltzen izan da

jentie: jentea

"estau lar emen orretarikori pe, jentie bakixu kanpostarra emen, benetakoa kanpostarra, guk eskilleran deku bat, au, larrabezua, ta besterik esteku euskeldunik (bu)", (ez dago lar hemen horietarikorik ere, jendea badakizu kanpotarra hemen benetako kanpotarra, guk eskilaran daukagu bat, hau, larrabetzu, eta besterik ez daukagu euskaldunik); "emen jentie

surrau ongo san ori baño (b)", (hemen jendea zaharragoa egongo zen hori baino)

jittanue (bu), jitanue (l): ijitoa

jornala (bu): behar saria, soldata

juntie: batzarra

kittanue: ijitoa

koperatibie: kooperatiba

kuadrillie: lagun taldea

"guk eukiten gendun kuadrillatxue dantza iteko, ya parrokixe (l)", (guk edukitzen genuen kuadrilatxoa dantza egiteko, ja parrokia); "asko es, gu gitxi ixen giñen ta bertan, ni gero dxoatenitzen emeti, gero emen kuadrilliek apur bet gitxiao (b)", (asko ez, gu gutxi izan ginen eta bertan, ni gero joaten nintzen hemendik, gero hemen kuadrilak apur bat gutxiago)

lagune: laguna

"a! semet biderres jaixe txikerra ixen, orixe da ya, aistie eta ni lagunak, aistak eta lagunak, eta amak itxi es, artoak erein ber dires, eta amak itxi, etorri arin e! (l)", (a! zenbat biderrez jaia txikarra izan, horixe da ja, ahizta eta ni lagunak, ahiztak

eta lagunak, eta amak utzi ez, artoak erein behar dira, eta
amak utzi, etorri arin e!)

listerue: listeroa; ganadu ermandadean listeroa kontuak eta ganadu-buruen kontaduria egiten zituena zen

lutue (bu): lutua

maketie: erdalduna

maordomoa, mayordomue (bu): maiordomoa; ganadu-ermandadearen burua

mesedes: mesedez

mesedie: mesedea

multie (b): isuna

mutil lagune (bu): mutil laguna, mutil laguna lagun taldekidee buruz esaten zen, ez “nobio” edo gizongaia adierazteko

neska lagune (bu): neska laguna; berba hau, aurrekoaren antzean, lagun taldearen neskak izendatzeko erabiltzen zen, ez “nobia” edo andregaia adierazteko

pertzonie (bu), personie (l): pertsona

“esan gixen lehenengokoa da atzena, ori esta parajie personie
ibiltzeko (l)”, (esan zuen lehenengokoa eta atzena, hori ez da
lekua pertsona ibiltzeko)

presidentie: presidentea

senserradie: zentzerrada, ezkon zentzerrada; agureren bat askoz gazteago batekin ezkonduz gero egiten zena

serbitzue: zerbitzua, soldaduska

sindikatoa (bu): sindikatoa, baserritarren sindikatoa

soldadiskie (bu): soldaduska

soldadue: soldadua

"selango arlo eukin gendun de batuten, solite egon sanien etorri gerra denporan e, jentie soldaduek eta danak koxu te oiñaspixetan aplasteu, soldaduek topeu soloan mallukixek eta gosie (I)", (zelako arlo eduki genuen eta batzen, zolita egon zenean etorri gerra denboran, jendea soldaduak eta denak hartu eta oinazpietan zapartu, soldaduek topatu soroan mailukia eta gosea)

soldadutzie (bu): soldadutza

sosiedadie (bu): elkartea

sosixo (I): elkarkidea

sueldue (bu): soldata

urlixe (I): urlia

"esaten da, ba urlixek lekuen ba basorda lumak topa deus, basordie dabil emen (I)", (esaten da, ba urliak lekuan ba basurde ileak topatu ditu, basurdea dabil hemen)

usaba(b): uzaba

"kantarie, bota in gixien gero, gorau in gixuen usabak etze barritxue (I)", (harrobia, bota egin zuten gero, gorago egin zien uzabak etxe berritxoa)

usabandrie, usandrie(b): uzaba andrea

4.4. MUSIKA/KIROLA

berbenie: berbena

"bueno, nik e, begoñen, berrogei urte baño, berrogeiren bat urte bai ixengo dire dxoten nauela berbenatan (b)", (beno, nik, begoñan, berrogei urte baino, berrogeiren bat urte bai izango dira jotzen nagoela berbenetan); "ori berbeniori, orduen esan oten berbenarik, ta guk bai iten gendun berbenie baye es, ayuntamintuen konture ta es, guk txosnan konture, txosneruek bueno ba propiñe bat emote utzen da (b)", (hori berbenaori, orduan ez zen egoten berbenarik, eta guk bai egiten genuen berbena baina ez, udalaren kontura eta ez, guk txosnen kontura, txosneroek beno ba eskupeko bat emoten zioten eta)

bertzoa: bertsoa

briskie: briska

dultzaiñerue: dultzaina jolea, dultzaineroa

"dultzaiñerue egoan boluetan baye esan ixen emekoa, or egon sien boluetan biarrien, baye esan ixen emekoa ori dultzaiñeruori (b)", (dultzaineroa zegoen boluetan baina ez zen

izan hemengoa, hor egon ziren boluetan beharrean, baina ez zen izan hemengoa hori dultzaineroori)

dxantza pasie: jolasa, plazan egiten den dantzaldia, baita dantzalekua ere

dxantzaridxe: dantzaria

dxantzie (bu), dantzie (l): dantza

"or kamiñoan, sabalbiden, bertan, dxo an ta, beste txosna banatan beste arrapa bat in te benga dxantzan (b)", (hor kaminoan, zabalbiden, bertan, jo han eta, beste txosna banatan beste harrapada bat egin eta tira dantzan)

dxokoa: jokoa

erregie: erregea karta jokoan

erromeridxe, erromerixe: erromeria

"eta an erromerixek eta guk dantzan, an dantza asko jotara, mutillek etorten sien brusekas da, bruse, eta deustutik eta mungiatik eta etorten sien, begoñatik eta, ortik i, basurtotik eta etorten sien, sorrosatik eta, esaunek ya danak, barakaldo, barakaldoko asko (l)", (eta han erromeriak eta guk dantzan, han dantza asko jotara, mutilak etortzen ziren brusakaz eta, brusa, eta deustutik eta mungiatik eta etortzen ziren begoñatik eta, hortik, basurtotik eta etortzen ziren,

zorrotzatik eta, ezagunak ja denak, barakaldo, barakaldoko asko); "nik akordetako ondo dekot o, begoñe, deusto bai, kasillera domeka gustidxetan baye, erromeridxerik andidxena, andidxe, terriblie ixete san san josetan deusto eta gero san roke (bu)", (nik gomutatzeke ondo daukat, begoña, deustu bai, etxetxura domeka guztietan baina, erromeriarik handiena, handia, itzela izaten zen san josetan deusto eta gero san roke)

espatie: ezpata karta jokoan

fanderoa: panderoa

"nire aite difuntuek dxoteuen fanderoa, eta agoko filarmonikie be bai (b)", (nire aita zenak jotzen zuen panderoa, eta ahoko filarmonika ere bai)

jotie: jota

juergie (bu): parranda

"eta gero, igual ordu batak edo ordu bidxek eta juerga ixitte san (bu)", (eta gero, igual ordu batak edo ordu biak eta parranda izaten zen)

kaballoa: zaldia karta jokoan

kantie: kanta

"bai, daus kantan baye guk estus kanteu iños be (b)", (bai, dagoz kantan baina guk ez ditugu kantatu inoiz ere)

kantziño (l): kanta

karta dxokoa: karta jokoa

kopie: kopa karta jokoa

koplie: koplak

kordiona: soinua

korrua: korrua, dantzarako korrua

musie: musa

"eta tabernak egoten sien dxoaten sien musien (bu)", (eta tabernak egoten ziren joaten ziren musean)

musika bandie: musika banda

"bai, ni gastetxue lau edo bost urte euki orduen edo olango bat a, musika banda etorri san ona, orduen bilbokoa ixengo san (b)", (bai, ni gastetxoa lau edo bost urte eduki orduan edo holako bat, musika banda etorri zen hona, orduan bilbokoa izango zen)

musikie: musika

ogetamaikie: hogetahamaika musean

panderetie: panderoa

parie: pareak karta jokoa

partidie: partida

partidue: partidu

posturie: postura

premidxo: saria

puntue: puntua

saspitterdidxe: zazpi eta erdia, karta joko baten izena

soñue: soinua

"len egon san , beste modu beten, barristu in deure dana, barristu dana, bai, eta oiño emen be soñue dau (l)", (lehen egon zen, beste modu baten, barriztu egin dute dena, barriztu dena, bai, eta oraindino hemen ere soinua dago)

soñularidxe (bu): soinularia

sotie: txanka

tanborra: danborra

tutie: tutea, karta joko baten izena

txarangie: txaranga

"urtietan egonitzen karrantzan plasan, txaranga bateas, eta orduen gero andi dxoanitzen, ondarrun, ta asidente bat euki gendun, durango es, igorretan, igorretan, arantza goasela, an igorretako subidxen bat koxi akun aurreti andi onantzakoan durangon sartueran, bausta! (b)", (urteetan egon nintzen karrantzan plazan, txaranga bategaz, eta orduan gero handik joan nintzen ondarrun, eta istripu bat eduki genuen, durangon

ez, iurretan, iurretan, harantz goazela, han iurretako zubian
bat hartu genuen aurretik handik honantzakoan durangon
sartukeran, bausta!)

txikerra: txikarra musean

txistue: txistua

txistularidxe: txistularia

“uniko, sera, txistu, ori baye afesiñori pes egoan emen e, karo
esegoan es txistularirik dantzariri pes (b)”, (zera bakarrik,
txistu, hori baina zaletasunik ere ez zegoen hemen, jakina ez
zegoen ez txistularirik dantzaririk ere ez)

txosna: jaietako txosna, erdaraz “chozna” erabiltzen da

txosnerue: txosneroa

4.5. JAIEGUNAK

agilando (I): aginaldo

“ba, emoten, guk eskatu esebes, agilando retxillando, emon esik
i, ba erdera, esta casa es de piedra y aquí vive marilumo,
urrekoan akabue (I)”, (ba, ematen, guk eskatu ezer ere ez,
agilando retxilando, eman ezik, ba erdara, esta casa es de
piedra y aquí vive marilumo, hurrengoan amaiera)

andramari egune: andramari eguna

andramari martikoa: andramari martikoa; andra mari martiko egunean basarraten (gaur santutxun plaza dagoen inguruan) azoka egiten zen

bariku santue (I): bariku gurena

bariku santu egune: bariku guren eguna

domusantue: domu santu

"asixe gorde in bear da etzien, garixek e, biar asko deko, garixe domu santuetan ereiten da, domu santue, da garixe ereiteko, ba erein orduen prestau, lurrek prest ifiñi (I)", (hazia gorde egin behar da etxean, gariak, behar asko dauka, garia domu santuetan ereiten da, domu santu, eta garia ereiteko, ba erein orduan prestatu lurak prest ipini)

dxadx (bu): jaie

dxustugune, dxustuegune: justu eguna

"dxustugune gutzako jai andidxe ixen san (b)", (justu eguna guretzako jai handia izan zen)

eguen guren (I): eguen gurena

"gero bariku santu egunien faten gintzesan, eguen guren egunien iru orduko sermoye, da eguen guren egunien sera egote san, prosesioa (I)", (gero bariku guren egunean joaten

ginen, eguen guren egunean hiru orduko sermoia, eta eguen
guren egunean zera egoten zen, prozesinoa)

eguen guren egune: eguen guren eguna

erramu egune (I): erramu eguna

"erramu egunien fate san prosesinū ukusteko neuges (I)",
(erramu egunean joaten zen prozesinoa ikusteko nigaz)

erregena: erregena; begoñan eta bujan ondoko kantuekin eskean joaten ziren etxerik
etxe:

"apalasio saldune

iru erregen egune

Martiñaren kontuek

Matiñ arek agindu doskus

iru ollanda katuek

areiñ asurrek batu esiñik

guk emon dus saltuek

tintilentañe iru montañe

intxurtxu bi ta iru kastañe (b)"

"apalaxidxo saldune

iruk erregen egune

iruk erregek bidali geittus

limosnatxuen kontue

sotzaketan palue

estudiantien kontue

kontuen bego

matxille dori (bu)"

estegue (bu): 1. txarriboda. 2. ezkontza

gabon egune (I): gabon eguna

"gabon egunien gure amak eta betik e, ba afarixe ifiñi orduen, afaldu te orduen, ogi sati bet, aurten be in du e? (I)", (gabon egunean gure amak eta beti, ba afaria ipini orduan, afaldu eta orduan, ogi zati bat, aurten ere egin dugu e?)

gabon gaubie: gabon gaua

gabonak (I): gabonak

"da gero egon, gero oingo inguruen, edo gabon aurrien edo, batzuk len san martin inguruen, baye emen betik il dies, gabon aurrien, aurreko astien edo espabere erregen astien (bu)", (eta gero egon, gero oraingo inguruan, edo gabon aurrean edo, batzuek lehen san martin inguruan, baina hemen beti hil dira, gabon aurrean, aurreko astean edo ezpabere erregen astean)

gabon sarra: gabon zaharra

garisumie: garizuma

"*garisumien bedeinketute san etorte san abadie (bu)*", (*garizuman bedeinkatzen zen etortzen zen abadea*)

iñusentien egune: inuzenteen eguna

"bueno iñ olan bistan bistan es, olan berbas igual asi, eta estakixu? siñestu te barre iñ, orreik gausok, emon olan segoser ta pentzau ori dala ta bestie ixilik baye olan gause sentzilluek, ta siñestu badaure iñusente esan (bu)", (beno egin holan ageri agerian ez, holan berbaz igual hasi, eta ez dakizu? sinestu eta barre egin, horiek gauzok, eman holan zerozer eta pentsatu hori dela eta bestea ixilik baina holan gauza xumeak, eta sinestu badute inuzente esan)

jadx, jaixe: jaia

"guk peñeko jadxek selebretan giñusen, orduen gure amak imintten geidxesan garbantzue ta asie, sopiegas, gero lebatza da gero artxoa segun (bu)", (guk abusuko jaiak ospatzen genituen, orduan gure amak ipintzen zituen garbantzua eta aza, zopagaz, gero lebatza eta gero artxoa segun); "jaixek? kasillen, esan egon diskue, diskue musikakoa, ayuntamientuk ifiñi gixen bandie ba, jaixetan ta domeketan (l)", (jaiak?

etxetxuan, ez zen egon diskoa, diskoa musikakoa, udalak ipini
zuen banda ba, jaietan eta domeketan)

kanpora martxo (bu): kanpora martxo

"bai kanpora martxo bai badakitt nos ixeten dan, bai estait paseu bada igual paseu de, estekot akorduen (bu)", (bai kanpora martxo bai badakit noiz izaten den, bai ez dakit pasatu den beharbada pasatu da, ez daukat gogotan). egun honi dagokion esaera bat "kanpora martxo etzera santzo" da

karetie: karatula

"igual bai olan a kareta, kartoisko kareta bat ifiñi edo, ango umiek edo olan, ostien preparau olan, es, umie pai olango kareta kartoisko bat edo trapu sarremateas in segoser baye preparau oin jentiek preparentan dan moduen es (bu)", (beharbada bai, holan karatula, kartoizko karatula bat ipini edo, hango umeek edo holan, ostean prestatu holan, ez, umeak bai holako karatula kartoizko bat edo sorki zaharren bategaz egin zerozer baina prestatu orain jendeak prestatzen den moduan ez)

karnabal egune: aratuste eguna, ihauteri eguna

karnabala: aratustea, ihauteria

"karnabal serien bai, ixingo san, bai karnabal egunien es, astegune ixiten basan es baye ostien domekan bai karo! sera tostadak itten siren tostada pai (bu)", (aratuste zerean bai, izango zen, bai aratuzte egunean ez, asteguna izaten bazen ez baina ostean domekan bai jakina! zera tostadak egiten ziren tostadak bai)

korpus egune (l): gorpuztia

"baye galdu in de len korpus egunien be bai, errosaixora jentie,
merixendatxue artute ba errosarixoak, errosarixoak
erresetan ara (l)", (baina galdu egin da lehen gorpuzti egunean
ere bai, errosariora jendea, meriendatxoa hartuta ba
errosarioak, errosarioak errezatzen hara)

natibittate egune: natibitate eguna

"bueno gabon gaubien asko iñopes geidxen dxaten, gero natibittate egunien bai (bu)", (beno gabon gauean asko inork ere ez zuen jaten, gero natibitate egunean bai)

pasko egune: pasko eguna

"urte betegarrenien edo egun bi lenau, urtie baño, paskoegunien erramun il sen (bu)", (urte betegarreanean edo egun bi lehenago, urtea baino, pasko egunean erramun hil zen)

san juan: san juan

"bai, besperan ite san sue, egur sarrakas ta, mutikoak eta neska gastetxuek sue, da gero or donaton aittek, a gipuskuanoa san, kosten gixen galtzu pollie bakixu ser dan? galtzu polla bat eta susixe ixetu, eta fate san solora da iten gixen subiek eta sapoak erre, subiek eta sapoak erre, erre arte galtzu pollie, subiek eta sapoak erre, iten gixen, kostunbrie, da gero etzien ifinte san etzien olan, mimena, adornue, lorakas, larrosakas, batana ta lorakas, ifinten gixan jentiek, san juan goixien (l)", (bai, bezperan egiten zen sua, egur zaharraz eta, mutikoak eta neska gaztetxoak sua, eta gero hor donatoren aitak, hura

gipuzkoarra zen, hartzen zuen galtzu txola badakizu zer den?
galtzu txola bat eta zuzia iziotu, eta joaten zen sorora eta
egiten zuen sugeak eta zapoak erre, sugeak eta zapoak erre,
erre arte galtzu txola, sugeak eta zapoak erre, egiten zuen,
ekandua, eta gero etxean ipintzen zen etxean holan, mimena,
apaingarria, lorakaz, larrosakaz, batana eta lorakaz, ipintzen
zituen jendeak, san juan goizean)

Hona hemen sanjuanetan erabiltzen izan diren kanta batzuk:

"san juan de gabile
denpora ederrien
sapoak eta sugiek erre
artoa ta garidxe gorde (b)"

"San Juan dabil soloetan
goikotan da bekotan
arto garidxe arto garidxe gobernetan
San Juan gabillie
denpora balientie
artoa ta garidxe gorde
sapoa ta sugie erre (bu)"

san roke egune: san roke eguna

sanjuanadie: sanjuanada

santageda besperie: santa ageda bezpera

"etzeko jaunek esan dosku, kanteke badu edo es, eta kanteu ala erreseu te (b)", (etxeko jaunak esan digu, kantatuko dugun edo ez, eta kantatu ala errezatu eta); "Santagedari, Kastrejanara gero eroateuren e, ba, sera, bueno, dirue batuten gixien an, se ederto, se politto san, etorte siesan kanteka iru lau, ederto kantaten gixien, danak emoten gixien, al dauena, limosnatxue, Santagedari, gero urreko egunien faten sien eurek, ba, mesara, mesa nagosire, neu be baten egonintzen, enas egon sekule geixau (I)", (Santa Agedari, Kastrejanara gero eroaten zuten, ba, zera, beno, dirua batzen zuten han, ze ederto, ze polito zen, etortzen ziren kantaka hiru lau, ederto kantatzen zuten, denek ematen zuten, ahal duena, limosnatxoa, Santa Agedari, gero hurrengo egunean joaten ziren eurak, ba, mezara, meza nagusira, neu ere baten egon nintzen, ez naiz egon sekula gehiago)

txarri bodie (I): txarri-boda

urtebarri egune (I): urtebarri eguna

*"bai, ya jakiten gendun nongo etzera fan, non emoten gixien, urte barri egunien (l)",
(bai, ja jakiten genuen nongo etxera joan, non ematen zuten, urte berri egunean)*

Urte barri egunean umeak eskean joaten ziren etxerik etxe; jarraian kantatzen ziren
kopla batzuk ikus daitezke:

"urte barri

txarri belarri

dekonak estekonari

nik estekot eta niri (b)"

"urte barri

garien gari

dekonak estekonari

nik estekot eta niri

espabere txarri belarri (bu)"

"urte barri txarri belarri

dekonak estekonari

nik estekot eta suk niri (bu)"

"Agilando retxilendo

con la muerte San Miguel

San Miguel está en la puerta

con su monterita puesta

emen gatos lau

kanpana jotén bi

emoixu limosnie

jangoikoeiti

Agilando retxilendo (l)"

BERBITA

Zati honetan hizkuntzari berari dagozkion atalak aurkezten ditugu: Adjektiboak, Aditzondoak, Aditzak, Hots Berbak, Esklamazioak eta Posposizioak. Azken atal bietan Berba Eratorriak eta Konposatuak emango ditugu.

1. ADJEKTIBOAK

Atal honetan batu ditugu adjektibo bakunak, sano emankorrak ez diren atzizkien bidez sortuko eratorriak eta konposatu ihartuak aurkezten ditugu.

aberatza: aberatsa

"estixe saldu biar jente aberatzari bilbora (l)", (eztia saldu behar jente aberatsari bilbora), "gastaten dau aberatzen moduen (bu)", (gastatzen du aberatzen moduan)

afisiñedue: zalea

alperra (b): alperra

altue: altua

"su esara aiñ altue (b)", (zu ez zara hain altua), "umie altue da (bu)", (umea altua da), "ori de sano altue (bu)", (hori da sano altua)

andidxe, andixe: handia

"segun selangoa dan andidxe ala txikerra bada (b)", (segun zelangoa den handia ala txikarra den), "artasu, a be labrantza etzie ixen san a dana, andixe ademas (l)", (artazu, hura ere labrantza etxea izan zen hura dena, handia gainera)

apatza: apatza

argala: argala

"ori estau aiñ argal (b)", (hori ez dago hain argal)

argidxe: argia

ariñe: arina

arpela (bu): alperra

"oiñ arpelak in gare ademas, oin arpeldu in gare baye gustis ni nau beintzet, da nire leges asko (bu)", (orain alperrak egin gara gainera, orain alpertu egin gara baina guztiz ni neu behintzat, eta nire legez asko)

arroa: harroa, jagia

"ankape sartu jesus! emen ser dau ba? ain bigun barruen, siketie deukonagas da gero onegas leixakas da euri apurtxuegas, su te au, asukarillo moduen lurre arro arro, da jesus! ser da au? (I)", (hankapea sartu jesus! hemen zer dago ba? hain bigun barruan, sikatea daukanagaz eta gero lehi honegaz eta euri apurtxoagaz, zu eta hau, azukarilo moduan lurra harro harro, eta jesus! zer da hau?), "txiker txikerretatik i, ba aixe etzien ikusitte, nau pe fijau edo estait serien baye gustetan dxaten da, gero arrotxue ixeneintzen entenidu itteneula pentzau neun egidxe (bu)", (txikar txikarretatik, ba huraxe etxean ikusita, neuk ere fijatu edo ez dakit zerean baina gustatzen zitzaidan eta, gero harrotxoa izan nintzen ulertu egiten nuela pentsatu nuen egia)

artesa: arteza, zuzena

"artes artes etorte san (bu)", (artez artez etortzen zen)

astune: astuna

"bustiten bada eta gero bero ensegida ernetan da, biar astune tie (I)", (bustitzen bada eta gero beroa behingoan ernetzen da, behar astunak dira)

asule: urdina

"ori esta berdie, asule da (I)", (hori ez da berdea, azula baino)

atrebidue: ausarta

"ori atrebidue da (bu)", (hori ausarta da)

atxiñekoa (I): aintzinakoa, aspaldikoa

"bai atxiñeko jentie il, eta gero ayen semealabak, ba, galdues, galdues, galdues joan da, euskerie, len eskolan be esin i euskera berba ein, dana erderie, dana erderie (I)", (bai aintzinako jentea hil, eta gero haien semealabak, ba, galduaz, galduaz, galduaz joan da, euskara, lehen eskolan ere ezin euskaraz berba egin, dena erdara, dena erdara), "an errekalde atxiñeko jentie dau e (bu)", (han errekalde aintzinako jentea dago)

atzena: atzena, azkena

"albantxagane da atzenekoa (b)", (albantxagane da atzenekoa), "esan gixen lenengokoa da atzena, ori esta parajie personie ibilteko (l)", (esan zuen lehenengokoa eta atzena, hori ez da lekua pertsona ibiltzeko)

atzenengoa (bu): atzenengoa, azkenengoa

"atzenengo dxoaneintzena santa lusidxera dxoan da etorri oñes, gero laudidxora bajetan geintzen da gero trenien andik, baye atzenengo urtien dxoaneintzenien, dxoan da etorri oñes (bu)", (atzenengoa joan nintzenean santa luziara joan eta etorri oinez, gero laudiora bajatzen ginen eta gero trenean handik, baina atzenengo urtean joan nintzenean, joan eta etorri oinez)

aundixe (l): haundia, handia

bajue: baxua

"iralan esebes, iralan, etze bajutxu betzuk, baye labrantzak iralan, iralan es, iralan labrantzarik esan egon (l)", (iralan ezer ere ez, iralan, etxe baxutxo batzuk, baina labrantzak iralan, iralan ez, iralan labrantzarik ez zen egon)

baldarra: baldarra, itxurabakoa

baltza: beltza

"txakurre baltza da katue surixe (l)", (txakurra beltza da katua zuria)

bardiñe: berdina

"arratoye ta satorra bardiñe tie, baye arratoye txarrau (l)", (arratoia eta satorra berdinak dira, baina arratoia txarragoa)

barridxe, barrixe: berria

"baye ixen san barrixe len esan egon elejarik, a ixen san barrixe, an esan egon elejarik len, gu gastiek ixen orduen, esan egon errekalde, gero in gixien ori (l)", (baina izan zen berria lehen ez zen egon elizarik, hura izan zen berria, han ez zen egon elizarik lehen, gu gazteak izan orduan, ez zen egon errekalde, gero egin zuten hori)

bellegidxe, bellegixe: beilegia, horia

berbaltue: berbaltua, tartamutua

berdie: berdea

"ori esta berdie gorridxe da (bu)", (hori ez da berdea gorria da)

beroa: beroa

bidxurre: bihurria, okerra

bigune: biguna

"emen ser da au? ain bigun barruen (l)", (hemen zer da hau? hain bigun barruan)

biribille: biribila

"bedar klase bi dies, enbrantzako dires lusiek da gixonantzako dires biribillek, orreik sanbedarrak (bu)", (belar mota bi dira, andrazkoentzat dira luzeak eta gizonentzat dira biribilak, horiek zainbelarrak)

biskorra: bizkorra

bixidxe (bu): bizia

boronoa: boronoa

"asko arpeldu sien auskeriegas ta, klaro, boronoak esateoskun u, niri eseusten, ikeratuten orrek, beti aukin yot sera auskeriegas ta, dxakin doten apurregas, da albadot beti itten dot (bu)", (asko alpertu ziren euskaragaz eta, jakina, boronoak esaten ziguten, ni ez ninduen ikaratzen horrek, beti eduki dut zera euskaragaz eta, jakin dudan apurragaz, eta ahal badut beti egiten dut)

delikedue (b): delikatua

"brebie delikedue da (b)", (breba delikatua da)

derrigorrekoa: derrigorrezkoa

desbardiñe: derberdina

diferentie: desberdina

"es, gero, kendu gixien andik, musikie be etor da, bandie be etor da ona, baye es diferente, eta igual jaixe txikerra ta guk fan gure ta, biarra taus e, eta gu engañetan amari te aiteri fateko, gasterixe!, gasterixe! (l)", (ez, gero, kendu zuten handik, musika ere etorri da, banda ere etorri da hona, baina ez desberdin, eta kasu baterako jaia txikarra eta guk joan gure

*eta, beharrak dagoz e, eta gu engainatzen ama eta aita joateko, gazteria!
gazteria!)*

difuntie: difuntua, zendua (f)

*"bai, oin be badau, oin be badau, au de, gure ama difuntiek esateuen eurek
pertenesiten gixiela atxiñe, atxiñe san bisente, san bisente martir, san
bisenten, orregaitik au de abando barrio, au de, asi errekalde eta au
dana da abando, abando geituten dotzie (I)", (bai orain ere badago, orain
ere badago, hau da, gure ama zenak esaten zuen eurak izan zirela
aintzina, aintzina san bizente, san bizente martir, san bizenten,
horregatik hau da abando auzoa, hau da, hasi errekalde eta hau dena da
abando, abando deitzen diote)*

difuntue: difuntua, zendua

*"an bota abonue, gixon difuntuek esaten gixen, bota abonue bota satza,
abonu minerala, bota satza, ta agaitik elbitze (I)", (han bota ongarria,
gizona zenak esaten zuen, bota ongarria bota satsa, ongarri minerala,
bota satsa eta, eta hagatik elbitza), "bai, akordeta nas a, antonio
artasukoa, orren aittegiñarraba, alberdiñ aittegiñarraba san, eta bakitt
baye enas akordetan ointxe, alberdi difuntuen aittegiñarraba, ondo
itteuen ak auskeras barres, ondo, errekalde esta lengoa es (bu)", (bai
gomutatzen naiz hura, antonio artazukoa, horren aitaginarreba,
alberdiren aitaginarreba zen, eta badakit baina ez naiz gomutatzen
oraintxe, alberdi zenaren aitaginarrena, ondo egiten zuen hark euskaraz
berriz, ondo, errekalde ez da lehengoa ez)*

dultzie: eztia, gozoa

*"ikusgarrisko selaixek dana matza, dana matza, parrak es altuek es, bajuek,
eta an esei deure kosten garau bet berdie, itxiten deurie mordak siketu
deitesan, maspasak in deitesan kanpoan, kanpoan, eurek, dausen lekuen
ba, maspastu, eta aik ei daus dultziau asukerie baño (I)", (ikusgarrizko*

zelaia dena mahatsa, dena mahatsa, parrak ez altuak ez, baxuak, eta han ez ei dute hartzen garau bat berdea, uzten dituzte mordak sika daitezen, mahaspasak egin daitezen, kanpoan, kanpoan, eurak, dagozen lekuan ba, mahaspastu, eta haiek ei dagoz gozoago azukerea baino)

edarra (l), ederra: ederra

"txala edarra deuko (l)", (txahala ederra dauka), "ternera ederra il san eta (l)", (txahal ederra hil zen eta)

elegantie (bu): dotorea

"eta tripepeti paseta san ta ederto ta elegante (bu)", (eta tripapetik pasatzen zen eta ederto eta dotore)

epela: epela

"balde bete ur epeldu in bear da, da karea apurtxu betegas, busti apurtxu bet e garixe ur epelagas da karie, kariegas errebolbidu (l)", (balde bete ur epeldu egin behar da, eta karea apurtxo betegaz, busti apurtxo bat garia ur epelagaz eta karea, kareagaz nahastatu)

errarue (l): bitxia, bakana

errubidxo: ilegorria, errubioa

esaune (l): ezaguna

eskasa: eskasa, bakana

"eta eran esniek eta eskas, eskas da, eta ya estule gedxau erosi biar", (eta eroan esneak eta eskas, eskas eta, eta ja ez dugula gehiago erosi behar)

estue: estua

"batzuk este lodikoak lodixau tie, estie selangoa dan, este meye badeko este fiñe, ba mortzillie da estua, fiñau (l)", (batzuk heste lodikoak lodiagoak dira, hestea zelangoa den, heste mehea badauka heste fina, ba buzkantza da estuagoa, finagoa), "ta asatzak estuek ademas, sabala imintten baosu, alfafie ereitteko (b)", (eta asatzak estuak gainera, zabala ipintzen baduzu, alfalfa ereiteko)

esune (l): ezaguna

"orko esun betek, alaba ba teko or (I)", (horko ezagun batek, alaba bat dauka hor)

famadue (I): ospetsua, famatua

"ondo jaten ei da, jentie, famadue, deko fama bat (I)", (ondo jaten ei da, jentea, ospetsua, dauka ospe bat)

fasille: erraza

"ori de asko be fasillau (b)", (hori da asko ere errazagoa), "sabaldu euskiten, ifiñi sabal sabalik joteko, baye garixe egon daitela beroagas soltau iteko fasil (I)", (zabaldu eguzkitan, ipini zabal zabalik jotzeko, baina garia egon dadila beroagaz soltatu egiteko erraz), "ori fasil de itteko (bu)", (hori erraza da egiteko)

fijoa (b): ziurra, tinkoa

fiñe: fina

"askonarra jan iten deu jentiek, okela fiñe ei deko (I)", (azkonarra jan egiten du jendeak, okela fina ei dauka)

freskoa: freskoa

"nik lantzin beiñien sera, solomoa igual freskoa esan ona dala ta ekar dot da gero etzien sera, piper txoriseruekas da gorrittu ta siketu kamaran da (bu)", (nik lantzean behinean zera, solomoa igual freskoa esan ona dela eta ekarri dut eta gero etxean zera, pipar txorizeroakaz eta gorritu eta sikatu ganbaran eta)

fuertie (I): indartsua

garbidxe, garbixe: garbia

"rekalde garbi garbi egon san (bu)", (errekalde garbi garbi egon zen), "bai, bixardune da rusoa, bai ba, ona e?, baye laburtxue, laburre, ta bestie da, garbi etorten da, ak esteko eser (I)", (bai bizarduna da errusoa, bai ba, ona e? baina laburtxoa, laburra, eta bestea da, garbi egoten da, hark ez dauka ezer), "goso badau garbi dela pentzau lei, arto gustue deko, estaitt nondi ekarten dosten eta itten dot, begittu selan gustauko dxaten, uregas itten dot, uregas, ta gas barik eta gero esnie ganien (bu)", (gozo badago garbi dela pentsatu liteke, arto gustua dauka, ez dakit nondik ekartzen didan eta egiten dut, begira zelan gustatuko zaidan, uragaz egiten dut, uragaz, eta gatz barik eta gero esnea gainean)

garratza: garratza

"etxat gustaten txakoliñe niri, garratza (I)", (ez zait gustatzen txakolina niri, garratza)

gasidxe: gazia

"se gatza emotie ta da, deko ardure andidxe se emoten dosu lar, txarto gasi, da gitxi emoten badotzesuen be da txarra se igual galdu in leittikes (bu)", (ze gatza ematea eta da, dauka ardura handia ze ematen duzu lar, txarto gazi, eta gutxi ematen bazenion ere da txarra ze igual galdu egin litezke), "okelie bai, baye okelie gasixe, ba sesiñe, bakixu ser dan sesiñe? (l)", (okela bai, baina okela gazia, bada zezina, badakizu zer den zezina?)

gastie: gaztea

"gastiek iten gendun posik (l)", (gazteok egiten genuen pozik), "ori sano gastie da (bu)", (hori sano gaztea da), "andran artien gastiena esta etorri (bu)", (andren artean gazteena ez da etorri)

gatxa: gaitza, zaila

"ori de asko be gatxau (b)", (hori da asko ere gaitzagoa), "naparrana da gatxa, guk u, emen e karga bat egurre, kargie esaten du (l)", (nafarrena da gaitza, guk, hemen karga bat egur, karga esate dugu), "ori de gatxa norberantzat (bu)", (hori da gaitza norberarentzat)

gipuskoarra: gipuzkoarra

giputze: giputza

"ni giputzekas gustis txarto (bu)", (ni giputzakaz guztiz txarto)

gixajie: gixajoa (f)

"da emetik biera etor sien, or urten otzien justo-justo beidxek, ai ene gixajie! (bu)", (eta hemendik behera etorri ziren, hor irten zieten ozta-ozta behiek, ai ene gixajie)

gixajoa (bu, l): gixajoa

"da gu gixajoak selango! eraten doskuen orra depositture ango sulora, sirenak asten sienien sarataka (bu)", (eta gu gixajoak zelako! eroaten gintuzten horra depositura hango zulora, sirenak hasten zirenean zarataka), "ari estotze iñok gure ta, niri pena emoten dust gixajoak, penie, esendun ikusi? (l)", (hari ez dio inork gura eta, niri pena ematen dit, gixajoak, pena, ez zenuen ikusi?)

gogorra: gogorra

"lurre gogorra da (l)", (lurra gogorra da), "sau tiñosu ba egunek estiresela, estiesela ixen normalak in dittusenak, otz andidxe, baye san andres inguruen betik ixitten da bastante gogorra e! baye san andres ingurue, ta laidxe pe etor sien aurten goixetik (bu)", (zeuk dinozu ba egunak ez direla, ez direla izan normalak egin dituenak, hotz handiak, baina san andres inguruan beti izaten da nahikoa gogorra! baina san andres ingurua, eta lehiak ere etorri ziren aurten goizetik)

gordīñe (bu): gordina

gorra: gorra

gorridxe, gorrixe (l): gorria

"bota beratuten gasixe kendu te bota beratuten, gero paseu, pasapure, eta gero saldatxuegas dana, unteu, pernille gorrixe, eskegi te siketu iten san, aik pernillek eukiten deure gustutxu bet (l)", (bota beheratzen gazia kendu eta bota beheratzen, gero pasatu, pasapure, eta gero saldatxoagaz dena, untatu, pernila gorria, eskegi eta sikatu egiten zen, pernil haiek edukitzen dute gustutxo bat)

goso: gozoa

"garbitu ondo, kendu gatza, eskei suetien siketu deiten, goso eoten san a, egosite tomatiegas, egosi te tomatiegas gozoa (l)", (garbitu ondo, kendu gatza, eskegi sukaldean sika dadin, gozo egoten zen hura, egosita tomateagaz, egosi eta tomateagaz gozoa), "beti estis eoten goso (b)", (beti ez dira egoten gozo)

iguala: berdina

"illadan, illadatan, igual irukoak, iru, lau, bi pobrie da, bi es, bat txarrau, tristiau, ta bueltie emon (l)", (iladan, iladetan, hirukoak, hiru lau, bi pobrea da, bi ez, bat txarrago, tristeago, eta buelta eman), "ori aitte langoa da iguala (bu)", (hori aita lakoa da berdina)

illune: iluna

"etxat gustau, elejje illun illune, da egon san ataue lango bat (l)", (ez zait gustatu, eliza ilun iluna, eta egon zen ataute lango bat)

informala (bu): ganorabakoa

iñusentie: inuzentea

"artu deure iñusentetzat (bu)", (hartu dute inuzentetzat)

itzela: itzela

"amak esaten geixen erromerixe itzela egote sala (l)", (amak esaten zuen erromeria itzela egoten zela), "niri itzel gustaten dast e (bu)", (niri itzel gustatzen zait), "oira dxoateko orduen etorte san argidxe kanpoan postietan orreik postietan, orreik ser andidxok, argi bet itzela ta etzien argirik es, baye ser itten gendun ostu itten gendun guk, kablíe kanbidxau eta kanpoko argidxe, baye koxi oskun (b)", (ohera joateko orduan etortzen zen argia kanpoan posteetan poste horietan, horiek zer handiok, argi bat itzela eta etxean argirik ez, baina zer egiten genuen ostu egiten genuen guk, kablea aldatu eta kanpoko argia, baina harrapatu gintuzten)

itzue: itsua

karue (l): garestia

"eta gabonetako sera ixite san besigue, mundu gustidxe ekarten aun besigue, orduen egidxe, esan ixingo karue, besigu asko egon san orduen e (bu)", (eta gabonetako zera izaten zen besigua, mundu guztiak ekartzen zuen besigua, orduan egia, ez zen izango garestia, besigu asko egon zen orduan), "prentzuek karu daus (l)", (pentsuak garesti dagoz)

kiputze (b): giputza

koittedie: koitadua (f); berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

koittedue (bu), koitedue (l): gixajoa, koitadua

"da jente koitedueri doana botilla bat erosten estait nik ogei ogerleko edo estait senbe tan (l)", (eta jende koitaduari doana botila bat eroatera ez dakit nik hogeí hogerleko edo ez dakit zenbat den)

kojoa (b), koxoa: herrena

"nire koñetue be orduen koxo lotu sen, kaderie galdu gixen, ankie (l)", (nire koinatua ere orduan herren lotu zen, oina galdu zuen, hanka)

kokoloa: kokoloa

koskorra (bu): informala, ganorabakoa

laburre: laburra

larridxe: larria

latza: latza

"sugalindie langoa, baye bellegixe, tripie latza, da ganetik dana (l)", (sugelandara langoa, baina beilegia, tripa latza, eta gainetik dena)

leloa: leloa

listie: azkarra (f)

listoa (bu): azkarra

lodidxe, lodixe: lodia

"ba, estaipa, estaipa selan esan, anka metxue eukin bear dau, burue be es lar lodi tte serien eta igual arpegi lusetxue, estaipa ser, ser enauke esango, ikusiesketiño esango neixu aittu onexek auxe deko (bu)", (ba ez dakit ba, ez dakit ba zelan esan, hanka mehetxoa eduki behar du, burua ere ez lar lodia eta zerean eta igual aurpegia luzetxoa, ez dakit ba zer, zer ez nuke esango, ikusiz gero esango nizuke aditu honexek hauxe dauka), "ni enas ain lodixe (l)", (ni ez naiz hain lodia)

lodxe: lohia

"errekie dau loi (l)", (erreka dago lohi)

lusie: luzea

"laban? ogixe erretako, palie, palu lusiegas da gero sabala ogixeri buelta emoteko (l)", (labean? ogia erretzeko, para, makila luzeagaz eta gero zabala ogiari buelta emateko)

madariketue (bu): madarikatua

majie: polita, jatorra (f)

majoa: polita, jatorra

makala: makala, gaixoa

mankue: besamotza

marroye: marroia

merkie: merkea

"eta merke, merke edo dxateko moduen (bu)", (eta merke, merke edo jateko moduan)

meye (l): mehea

mie (bu): mehea

mingorra (l): mingarria

"batzuk esaten deure dekola mingorra agoan (l)", (batzuek esaten dute daukala mingorra ahoan)

mingotza: mingotsa

"orrei pe garratzak eta mingotzak, estait selan geituten tzien, da beste batzu taus, selan deukie usena aik? gosoa tie, mispedoak (l)", (horiek ere garratzak eta mingotsak, ez dakit zelan deitzen dieten, eta beste batzuk dagoz, zelan daukate izena haiek? gozoak dira, mizpilak)

moraue (l): moratua

"taloa etxakun falta, indiyaba pes, patatie be, patata errusoa ekarteuen gremixoak, moraue (l)", (taloa ez zitzaigun falta, indabak ere ez, patata ere, patata errusoa ekartzen zuen gremioak, moratua)

morenoa: beltzarana

morroskoa (l): morroskoa

"emen egon dire onegas nire gixonagas sollokoak a lau bost mutil, bierrien, bai terrible, morroskoak (l)", (hemen egon dira honegaz nire gizonagaz zollokoak lau bost mutil, beharrean, bai itzel, morroskoak)

motza: motza, itsusia

mutue: mutua

nagosidxe, nagusidxe (bu), nausi (b): nagusia

"danak emoten gixien, al dauena, limosnatxue, santagedari, gero urreko egunien faten sien eurek, ba, mesara, mesa nagosire, neu be baten ego nintzen (l)", (denek ematen zuten, ahal duena, limosnatxoa, santa agedari, gero hurrengo egunean joaten ziren eurak, ba, mezara, meza nagusira, neu ere baten egon nintzen)

nasai (bu): nasaia, lasua

okerra: okerra, bihurria

"d'orrei pe se okerra tie (l)", (eta horiek ere ze okerrak dira)

ona: ona

*"mortzilla onak neuk iten neusen (l)", (buzkantza onak neuk egiten nituen),
"eta emen ifiñi olan, arrixe, joteko eta jo kamaran, emen sabaldu
berotuteko, berotuteko garixe denpora onaas, emen sabalduten gendusen
eta kamaran jo. (l)", (eta hemen ipini honela, harria, jotzeko eta jo
ganbaran , hemen zabaldu berotzeko, berotzeko garia eguraldi onagaz,
hemen zabaltzen genituen eta ganbaran jo)*

osoa (b): osoa

otza: hotza

otzakille: hotzakila, hozpera

*"goixetik, bostetan edo seiretan edo, goixetik, sein otza sein bero egon, ba
estun marruntan ordun otzik, ni otzakille enas ixen e, un be erropie apur
jantzite edo olan bero apur bet badau bu! kendu in biar ensegida, bai enas
otzakille (b)", (goizetik, bostetan edo seiretan edo, goizetik, zein hotza
zein bero egon, ba ez genuen asmatzen orduan hotzik, ni hotzakila ez naiz
izan, orain ere erropa apurra jantzita edo holan bero apur bat badago
txut! kendu egin behar behingoan, bai ez naiz hotzakila)*

pobrie (l): pobrea, txiroa

polite, politte, politxe: polita

*"oin be santo tomas da politte, esara dxoaten sau? gause asko estiesenak
emekoak baye (bu)", (orain ere santo tomas da polita, ez zara joaten zeu?
gauza asko ez direnak hemengoak baina), "txikitxue. polite, oin baño
obeto danok esetu (l)", (txikitxoa polita, orain baino hobeto denok
ezagutu) "alandase bildurregas, euskerie sapaldute egon san, oin doa
gorantza, se politte da berba ite euskera, e? (l)", (halandaze bildurragaz,*

euskera zapalduta egon zen, orain doa gorantza, ze polita da berba egitea euskaraz, e?), "bai errekalde labrantza etziek politxek (I)", (bai errekalde labrantza etxeak politak)

putze (b): putza

sabala: zabala

"sana padekos sabalak esnetzue da, esnetzue da beixe, ostantzien sana padekos o estuek esta esnetzue beixe (I)", (zainak badauzka zabalak esnetsua da, esnetsua da behia, osterantzean zainak badauzka estuak ez da esnetsua behia), "erosi dot arkondara sabal bat (bu)", (erosi dut arkondara zabal bat)

sakona: sakona

"presa bi egon siesan e, bat goiko sakona da bekoa es ain sakona (I)", (uharka bi egon ziren e, bat goiko sakona eta behekoa ez hain sakona)

sarra: zaharra

"ori etziori sano sarra da (bu)", (hori etxeori sano zaharra da), "xa ez, sarren batzuk baye aik i, estakixie, an an goiko mendikoak, arrais, atxiñekoak danak, euskera (I)", (ja ez, zaharren batzuk baina haiek, ez dakite, han han goiko mendikoak, arraiz, aintzinekoak denak, euskaraz)

saskela: lohia

sekena (b): mendekatzailea

selaixde, selaixe: zelaia, laua

selebrie: zelebrea, txantxosoa

"errementaridxen alabiegas pase dxaten egun beten selebrie pase dxaten egun beten (b)", (errementariaren alabagaz pasatu zitzaidan egun baten zelebrea pasatu zitzaidan egun baten)

seleixe (I): zelaia, laua

"pagasarrirre egonaskero dana selei, dana selei, selei selei (I)", (pagasarrirra egonez gero dena zelaia, dena zelaia, zelaia, zelaia)

sentzillue: apala, arrunta, xume

serratue: zarratua, itxia

seterue: perretxikozalea

sikue: sikua

"bai, bai, se estutu in bear da be siku dauela garixe siku dauela ostien e, garixe arin ernetan da, pilloan be ernetan da e? (I)", (bai, bai, ze estutu egin bear da ere siku dagoela garia siku dagoela ostein e, garia arin ernetzen da, pilloan ere ernetzen da e?)

solterue (I): ezkongea

"alboan dekot nik beste anaje bat, solterue, eskondu barik (I)", (alboan daukat nik beste anaia bat, ezkongabea, eskondu barik)

soraa: zoraa

"ori gustis de soraa (I)", (hori guztiz da zoraa)

suridxe, surixe: zuria

"txakurre baltza da katue surixe (I)", (txakurra beltza da katua zuria)

surre: zuhurra

"bai baye olloa listoa da, surre da, pikuegas bota (I)", (bai baina oiloa listoa da, zuhurra da, mokoagaz bota), "emen jentie surrau ongo san ori baño (b)", (hemen jendea zuhurrago egongo zen hori baino)

tente (b): tente

terkoa (bu): tematia

trankille (bu): lasaia

"niri koxi ostien trankille trankille, asi nentzen kontetan ni txikerra ixinintzenien ta kontau neun gause asko (bu)", (ni hartu ninduten lasai, lasai, hasi nintzen kontatzen ni txikarra izan nintzenez eta kontatu nuen gauza asko)

tristie: tristea

"tristie da ori e, esateutzet gure alabieri (I)", (tristea da hori e, esaten diot gure alabari)

tuberra: begibakarra

txarra: txarra

“senbet eta andidxau txarrau (b)”, (zenbat eta handiagoa txarragoa), “ori etzera erateko gause txarra da (b)”, (hori etxera eroateko gauza txarra da)

txikerra: txikarra, txikia

“segun selangoa dan andidxe ala txikerra bada (b)”, (segun zelangoa den handia ala txikarra den)

txikitxue: txikitxoa

umedue: hezea, umela

“au umedu dau (bu)”, (hau heze dago)

urrengoa, urrungoa, urrekoa: hurrengoa

“urrengoak, ume pillo bat jan biar danak, umiek batetik eta bestetik, gastaiñak jaten (l)”, (hurrengoak, ume pilo bat jan behar denek, umeak batetik eta bestetik, gaztainak jaten)

ustela: ustela

“ba aratxe ustelien sugalindie modukoa lau ankadune bustentxues, igual iguala, sugalindie langoa (l)”, (ba haritz ustelean sugelinda modukoa lau hankaduna buztentxoagaz, berdin berdina, sugalinda langoa)

utze: hutsa

2. ADITZONDOAK

Aditzondoak sailkatzeko ondoko era erabili dugu. Denbora aditzondoak, Leku aditzondoak, Modu eta Maila aditzondoak eta Kantidade aditzondoak.

2.1. DENBORA ADITZONDOAK

aldixe (l): aldia

“lengo aldixen ba, jausi in xatedas giltzek (l)”, (lehengo aldian ba, jausi egin zaizkit giltzak)

antxiñe (l): aintzina

“antxiñe erosi gixen orrek ardaua (l)”, (aintzina erosi zuen horrek ardaua)

areñeun: harenegun

askotan: askotan

aspaldi: aspaldi

"oiñ aspaldiko denporakas, atxiñe giltzek galdu in dxakus (bu)", (orain aspaldiko denborakaz, aintzina giltzak galdu egin zaizkigu)

aspaldidxen (bu): aspaldian

"aspaldidxen estatzu ukusten emetik (bu)", (aspaldian ez zara ikusten hemendik)

atxiñe: aintzina

"atxiñe atxiñe ganadu gitxi jentiek bi eukitten bausen naikora, edo bat etzerako esnie, orduen esin bajetan bilbora gu bajetan geintzesan moduen (bu)", (aintzina aintzina ganadu gutxi jendeak bi edukitzen bazituen nahikoa, edo bat etxerako esnea, orduan ez ziren bajatzen bilbora gu bajatzen ginen moduan)

atzenien: atzenean, azkenean

atzo: atzo

"baye, atzo, atzo edo areñeun egonas akordetan, tijerak, erdin palu bet, eta gero an eta gero aspikoa, ta etxat akortan bi baño, tirantie ta pendelon (b)", (baina, atzo, atzo edo harenegun egon naiz gomutatzen, tijerak, erdian makila bat eta gero han eta gero azpikoa, eta ez zait gomutatzen bi baino, tirantea eta pendeloia)

auntxe: oraintxe

aurten: aurten

"aurten auri asko in deu (bu)", (aurten euri asko egin du), "aurten estie etorri (l)", (aurten ez dira etorri)

barridxen (b): berriz

"atzaldien barridxen, ba atzaldien barridxen asarratu ta bertan itxi niri te eskapeu (b)", (arratsaldean berriz, ba arratsaldean berriz haserratu eta bertan utzi ni eta alde)

baten: behin, baten

bein (b), beiñ (bu): behin

"bai san roken urtien bein (l)", (bai san roken urtean behin)

beiñolan, beiñola: behinola

belu: belu, berandu

"atzo etor sintzen belu (b)", (atzo etorri zinen belu), "etorko die kotxien baye, kotxien etorri arren belu ixengo da (l)", (etorriko dira autoan baina, autoan etorri arren belu izango da), "parkatu belu etortearren (bu)", (barkatu belu etortzearren)

berandu: belu, berandu

"beran lagune beti dator berandu (b)", (beraren laguna beti dator berandu), "berandu nator se trena galdu dot (l)", (berandu nator ze trena galdu dut), "sure erruegaittik eldu gara berandu (bu)", (zure erruagatik heldu gara berandu)

beti, betik: beti

"edo etzien edo kanpoan, beti dau barriketan (l)", (edo etxean edo kanpoan, beti dago berriketan), "sorrosa len barakaldo igual, es, betik ixen da bilbokoa (l)", (zorrotza lehen barakaldo aurki, ez, beti izan da bilbokoa), "a betikoa da angoa, estakixu auskeras badaki? (bu)", (hura betikoa da hangoa, ez dakizu euskaraz dakien?)

bider (bu): bider

"ego nas iru bider or (bu)", (egon naiz hiru bider hor), "udan senbet bider solora afaridxe erateneun (bu)", (udan zenbat bider sorora afaria eroaten nuen)

biderres: biderrez

"a! semet biderres jaixe txikerra ixen, orixe da ya, aistie eta ni lagunak, aistak eta lagunak, eta amak itxi es, artoak erein ber dieres, eta amak itxi, etorri arin e! (l)", (a! zenbat biderrez jaia txikarra izan, horixe da ja, ahizta eta ni lagunak, ahiztak eta lagunak, eta amak utzi ez, artoak erein behar dira, eta amak utzi, etorri arin e!)

bidxen bittartien (bu): bien bitartean

bidxer: bihar

"bidxer umeren bat etorko da (bu)", (bihar umeren bat etorriko da), "bidxer ekarri ingot baskaridxe (bu)", (bihar ekarri egingo dut bazkaria)

bidxerkoa pasaute (bu): etzi, biharkoa pasatuta

birriten (b): birritan, bi bider, bi aldiz

bittartien (bu): bitartean

bixar (l), bixer (l): bihar

"entzun dosu bixar datosela? (l)", (entzun duzu bihar datozela?), "estaure esan bixer etorko diesela (l)", (ez dute esan bihar etorriko direla)

egunaro (l): egunero

"gure aitte difuntuek inyabie, ak lapikoa, egunaro, saldatzutxu saldatzutxu (l)", (gure aita zenak indaba, hark lapikoa, egunero, saldatsutxo, saldatsutxo)

egundo: egundo, sekula

"enas egundo egon (bu)", (ez naiz egundo egon)

egunen egunien: egunean egunean, egunero

egüño (l): egundo, sekula

"enas egon egüño an (l)", (ez naiz egon egundo han)

ensegida: berehala, behingoan

"bustiten bada eta gero bero ensegida ernetan da, biar astune tie (l)", (bustitzen bada eta gero bero behingoan ernetzen da, behar astunak dira), "gero jaxo ta ensegida begoñe sertu san baye ni jaxo eta begoñe ixen san, jaxo nitzenien bestiek es, ya bilbo, baye ni jaxo nitzen begoñen (b)", (gero jaio eta behingoan begoña zertu zen baina ni jaio eta begoña izan zen, jaio nintzenean besteak ez, ja bilbo, baina ni jaio nintzen begoñan), "ensegida eskegitte san, txarrixe ill orduen taka! eskegi tte an egote san (bu)", (beingoan eskegitzen zen, txerria hil orduan taka! eskegi eta han egoten zen)

etzi (bu): etzi

etzilamu: etzidamu

eurraukoan: aurreragokoan

eurten (b): aurten

gaur, geur: gaur

gero: gero

"gero urtietan fumau te txarto iten gixon estulek eta (l)", (gero urteetan erre eta txarto egiten zion eztulak eta), "san roken, eta gero gaubien itte san bien, baye goixien, egunes itte san godxen, san roken (b)", (san roken, eta gero gauean egiten zen behean, baina goizean, egunez egiten zen goian, san roken), "eta gero, igual ordu batak edo ordu bidxek eta

juerga ixitte san (bu)", (eta gero igual ordu batak edo ordu biak eta parranda izaten zen)

gesi bet (l): behingoan, gesu batean

"larogei urte dekodas, enas atzokoa e?, larogei urte ixa ixa il in biar gesi beten, ai! (l)", (larogei urte dauzkat, ez naiz atzokoa e?, larogei urte ia ia hil egin behar gesi baten ai!)

goixetik(b), goxeti (bu): goizetik

"akorduen dekot nik naurie, naure etzekoa, sera, gure aitte goxeti il sen, eta antxe ango bidien erre genusen erropa batzuk, erre biar sien erropak, il sen personien erropak (bu)", (gogotan daukat nik neurea, neure etzekoa, zera, gure aita goizetik hil zen, eta hantxe hango bidean erre genituen erropa batzuk, erre behar ziren erropak, hil zen pertsonaren erropak)

iges, ies: iaz

"iges estie etorri, baye iru lau urtien segiduen etor die (l)", (iaz ez dira etorri, baina hiru lau urtean segituan etorri dira), "iges bai iges kantidedie brebak eta goso on sien, ni enas frutesalie, frutesalie ba apenas (b)", (iaz bai igez kantidade brebak eta gozo egon ziren, ni ez naiz frutazalea, frutazalea ba kasik ez)

lantzenbein (b): lantzean behin, noizean behin

lantzien: lantzean, noizean behin, noizbehinka

"eta gero, bueno gero ibilte nitzen tinbre, gorostiagagas, areas, ibilte nitzen lantzien baye gero, olango txaranga bateas ibilte nitzen orti be bai, eta gero txilibrin te ibiltzen gintzen batera (b)", (eta gero, beno gero ibiltzen nintzen tinbre, gorostiagagaz, haregaz, ibiltzen nintzen lantzean baina gero, holako txaranga bategaz ibiltzen nintzen hortik ere bai, eta gero txilibrin eta ibiltzen ginen batera)

lantzinbein: lantzean behin

"guk lantzin bein esaten du mendire beste lantzin bein basora (l)", (guk lantzean behin esaten dugu mendira beste lantzean behin basora)

laster: laster, berehala

"ereinte ya, artoa kendu eta lasterrien iten san laixeu, laixakas, eskus, niri gusteta xaten (l)", (ereinda ja, artoa kendu eta lasterrean egiten zen laiatu, laiakaz, eskuz, niri gustatzen zitzaidan)

len: lehen

"baye ixen san barrixe len esan egon elejarik, a ixen san barrixe, an esan egon elejarik len, gu gastiek ixen orduen, esan egon errekalde, gero in gixien ori (l)", (baina izan zen berria lehen ez zen egon elizarik, hura izan zen berria, han ez zen egon elizarik lehen, gu gazteak izan orduan, ez zen egon errekalde, gero egin zuten hori), "orreik ya asko es, dxakiñ iñ euden len baye (bu)", (horiek ja asko ez, jakin egin zuten lehen baina)

lengo aldidxen, lengo aldixen (l): lehengo aldian

"niri diñostesun moduen suri lengo aldidxen aittek ekarrotzun baskaridxe (bu)", (niri dinostezun moduan zuri lehengo aldian aita ekarri zizun bazkaria)

lengoan: lehengoan

lengunien: lehengo egunean

"lengunien ekar dosun ogidxe (b)", (lehengo egunean ekarri zenuen ogia)

nosepiñien, nosipein (l), nosipin, nosipiñ (bu), nospen: noizean behin

"estait panaderie edo ixen san, estait, onen lagun andixe, nosipein geituten dutzo (l)", (ez dakit okindegia edo izan zen, ez dakit, honen lagun handia, noizean behin deitzen dio)

oiñ, oin: orain

"oin esta san roke ixen sana, emen jentie! astoakas, kaballoakas, a ixen san! (l)", (orain ez da san roke izan zena, hemen jendea! astoakaz, zaldiakaz, hura izan zen!), "bai baye oiñ oiñ ai pes, orduen bai, orduen bai emen baño gitxiao an, emen baño gitxiao itte san an euskara, larraskittuti andi gedxau baye emen peñan gitxiao budxan be gitxi (b)", (bai baina orain orain haiek ere ez, orduan bai, orduan bai hemen baino gutxiago han, hemen baino gutxiago egiten zen han euskara, larraskitutik handik gehiago baina hemen abusun gutxiago bujan ere gutxi), "bai bai eta auskeras eta oiñ estakide ya auskeras (bu)", (bai bai eta euskaraz eta orain ez dakite euskaraz)

ondikarren: oraindinokarren

*"ortxe telebixoa urten geixen bein ta amen bixi san bera ondikarren (l)",
(hortxe telebistan irten zuten behin eta hemen bizi zen bera
ondinokarren), "es ondikarren landarak eta ingeruek piperrak eta
ingeruek orrek itten dittus martinek itten dittus(b)", (ez ondinokarren
landareak eta inguruak piparrak eta inguruak horiek egiten ditu martinek
egiten ditu)*

ondiño: oraindino, oraindak

ondiñokarren: oraindinokarren, oraindino, oraindak

*"eta nire aistie oin or bixi dana santutxun ixen san ondiñokarren gastie (l)",
(eta nire ahizta orain hor bizi dena santutxun izan zen oraindinokarren
gaztea), "ondiñokarren es, oneik artoa erein te gero, mayetza, akabetan
dan orduen olantxe, ordun dxoaten dire (b)", (oraindinokarren ez, hauek
artoa erein eta gero, maiatza, amaitzen den orduan, orduan joaten dira)*

ondio: ondino, oraindak

onikarren (b): ondino, oraindak

onyo (bu): ondino, oraindak

orduen, ordun: orduan

*"da beste aguelo emekoa aren aurrekoak aspeitiakoak, oiarsabal, se txarto
bixi siesan aspeitian be orduen! (l)", (eta beste aitita hemengoa haren
aurrekoak azpeitiakoak, oiartzabal, ze txarto bizi ziren aspeitian ere
orduan!), "ordun errasoye deko (l)", (orduan arrazoia dauka), "orduen esan
oingo moduen ixen se orduen e, sagarrak, okaranak, oiñ esi lei euki esebe
(b)", (orduan ez zen oraingo moduan izen ze orduan, sagarrak, okaranak,
orain ezin liteke eduki ezer ere)*

sarri: sarri

*"bai sarri ademas, sarri, t'afan itzelagas ademas, niri gustau terriblien, terriblien, iñok elauke
esango nauk pentzau ot, enostela iñok entenitan ser gustetan dxaten, terriblien gustetan
dxaten (bu)", (bai sarri gainera, eta gogo itzelagaz gainera, niri gustatu itzel, itzel, inork ez luke
esango neuk pentsatu dut, ez didala inork ulertzen zer gustatzen zitzaidan, itzel gustatzen
zitzaidan), "sarri etorten dire (l)", (sarri etortzen dira), "ori dator sarri (bu)", (hori dator sarri)*

sarritten: sarritan

"sarritten dxaten giñun porrusaldie makallo sati bategas, da gero ganien arrañe edo (bu)", (sarritan jaten genuen porrusalda makailo zati bategaz, eta gero gainean arraina edo)

segiduen: segituan

"iges estie etorri, baye iru lau urtien segiduen etor die (l)", (iaz ez dira etorri, baina hiru lau urtean segituan etorri dira)

sekule: sekula, egundo

"su errekaldekoa basara, esara egon or sekule iturrigorriñ? (l)", (zu errekaldekoa bazara, ez zara egon hor sekula iturrigorriñ?)

un: orain

"urtebetak eta gasi sagarrak eta andramari sagarrak eta, klase asko daus un be badaus sagarrak klasiek, un be bai (b)", (urtebeteak eta gazi sagarrak eta andramari sagarrak eta, mota asko dagoz orain ere badagoz sagarrak motak, orain ere bai)

untxe (b): oraintxe

xa: ja

2.2. LEKU ADITZONDOAK

alboan: alboan

"beren alabie eta bixi da an aren alboan tia da berana (l)", (beraren alaba eta bizi da han haren alboan izekoa da berarena)

aldie: aldea

"aren aspiko aldien, an etziek e, asi ber deure iten (b)", (haren aspiko aldean, han etxeak, hasi behar dute egiten), "nabarra aldien auskera itten da goittik, an bierantza es baye, iruñan be bai auskera asko itten da (bu)", (nafarroa aldean euskara egiten da goitik, han beherantz ez baina, iruñean ere bai euskara asko egiten da)

aparte: aparte

"ser joten gixen? gitarrie, kordiona, panderetie? jota bat, korru bi, aparte, eta musikie (I)", (zer jotzen zuten? kitarra, akordioia, panderoa? jota bat, korru bi, aparte, eta musika)

arenbaten (b): nonbait, non edo non

artien (b): artean

aspidxen, aspixen: azpian

atzialdie (bu): atze aldea, atzeko aldea

atzie: atzea

"koji gixesan beixe gustixek gurdixen amarreu, eta danak atzetik, eta gu fan gintzen (I)", (hartu zituzten behi guztiak gurdian lotu, eta denak atzetik, eta gu joan ginen)

aurreko aldie (bu): aurreko aldea

aurrie: aurea

"banaka badaus or, aurrien be gixon bat, ta andrie be bai bisenta, andrie morgakoa da, bera emekoa, bai baus, baus euskeldunek, ortik goitik danak euskera (I)", (banaka badagoz hor, aurrean ere gizon bat, eta andrea ere bai bizenta, andrea morgakoa da, bera hemengoa, bai badagoz, badagoz euskaldunak, hortik goitik denak euskaraz)

barrue: barrua

"egon san jardin bet, gordonis, kallie, a egon san itxite, palatue ta ifiñite kristelak, eta an egon sien nabarro, orren koñetu bet, an barruen, an egon sien madarixek eta danak, eta egon sien eta bixiten iru, an soloak, andik gora, danak soloak bai serratute ormiegas", (egon zen loratoki bat, gordoniz, kalea, hura egon zen itxita, palatua eta ipinita kristalak, eta han egon ziren nabarro, horren koinatu bat, han barruan, han egon ziren madariak eta denak, eta egon ziren eta bizitzen hiru, han soroak, handik gora, denak soroak bai itxita hormagaz) "iru egun barru etorriko dire (I)", (hiru egun barru etorriko dira)

barruko aldie (bu): barruko aldea

bekoaldie: beheko aldea

beyen: behean

bialdie: behe aldea, beheko aldea

biekoaldie (bu): beheko aldea

biera: behera

ego aldie: hego aldea

eras (bu): eraz, hurbil, paraje

"gero ta erasau saus obeto entzuten da (bu)", (gero eta parajeago zagozen hobeto entzuten da), "eta urrun esin dxoan se jentiek esaun aukitten kotxerik eta, oin jentie ara eta orra dxoaten da, orduen eras ibilli bier eta san rokerak, eta barraketara (bu)", (eta urrun ezin joan ze jendeak ez zuen edukitzen autorik eta, orain jendea hara eta horra joaten da, orduan eraz ibili behar eta san rokerak, eta barraketara)

erdidxen (bu): erdian

eurrie (b): aurea

"eurrera doa (b)", (aurrera doa)

frantzialdie: frantzia aldea

gane: gaina

ganera: gainera

ganien: gainean

godxe, goidxe: goia

"gero ya asi siren itten godxen baye ni gastie nitzen orduen normalmente beyen itte san (b)", (gero ja hasi ziren egiten goian baina ni gaztea nintzen orduan gehienetan behean egiten zen)

goialdie: goialdea, goiko aldea

goiko aldie: goiko aldea

ingerue (b), ingurue: inguru

"da erdixe inguru ixen san, etziena, bixilekue, da angoan eukin euen, ba sera elejie (l)", (eta erdia inguru izan zen, etxearena, bizilekua, eta hangoan eduki zuen, ba zera eleiza), "txosnatan dxote neuen len plasan esan itten, erromeridxe bai, baye ostantzien, berbeniori, se len emen sabalbide gustidxen dana egote sien txosnak, or o, oin gu bixi garan ingeruen asi te begoñerarte, ortxe egote sien (b)", (txosnetan jotzen nuen lehen plazan ez zen egiten, erromeria bai, baina osterantzean, berbena hori, ze lehen hemen zabalbide guztian dena egoten ziren txosnak, hor, orain gu bizi garen inguruan hasi eta begoñaraino, hortxe egoten ziren)

kanpoa: kanpoa

"edo etzien edo kanpoan, beti dau barriketan (l)", (edo etxean edo kanpoan, beti dago berriketan), "aittek kanpora bota otzu (bu)", (aitak kanpora bota zaitu)

ondoan (bu): ondoan

"donaton ondoan bai, etze suri beten bixi de, alargun bet (bu)", (donatoren ondoan bai, etxe zuri baten bizi da, alargun bat), "arkalen ondoan dxarri dies (bu)", (elkarren ondoan jesarri dira)

ostien (bu): ostean

parajie: ingurua

parie (bu): pareia

santa maiñako aldie: santa marinako aldea

ur (b): hurbil, eraz, paraje

urrin (b): hurbil

urrun: urrun

"errotak egon siesan urrun, egon siesan, baye jente asko joaten san eixoten ta biar asko eukiten gixien errotarixe pe (l)", (errotak egon ziren urrun, egon ziren, baina jende asko joaten zen ehotzen eta behar asko

edukitzen zuten errotariak ere), "abadie bixi de urrun (b)", (abadea bizi da urrun)

2.3. MODUA ETA MAILA

ademas: gainera

"artasu, a be labrantza etzie ixen san a dana, andixe ademas (l)", (artazu, hura ere labrantza etxea izan zen hura dena, handia gainera)

agiñik: aginean, aginik, zorian

"ori umiori dxausi agiñik egon da (bu)", (hori umeori jausi aginean egon da)

agosgora: ahoz gora

ainbaten (bu): beharbada, urrean

aiñ: hain

"ni enas ain lodixe (l)", (ni ez naiz hain lodia), "su esara aiñ andidxe (bu)", (zu ez zara hain handia), "su esara aiñ altue (b)", (zu ez zara hain altua), "ori esta aiñ argala (bu)", (hori ez da hain argala), "ori estau aiñ argal (b)", (hori ez dago hain argal), "ori esta aiñ gastie (b)", (hori ez da hain gaztea)

alan-olan: halan-holan

alegre (bu): alai

alrebes: aldrebes, atzekoz aurrera

ameneko: ameneko, aurki

"orreik eibar edo nondikoak ixen sien orreik, eibarrekoak ameneko, nik estot entenitan esebe, ta ifinte nas nerbiosa osoan, ta andrie be gatikakoa diñosu dala?, ori be ameneko gatikakoa da, or estau itten be es bere llobak es iñopes erdera, errana deko, estaki auskera, ak estaki ostantzien danak, llobak eta semiek eta danak, niri itzelien gustaten dast ori, itzelien gustau, nik bilbon ikusten doas jentiek auskeras berba itten, aittu, posa, nik erate neuntzen esnie, leisaola estakixu?, areri erate neuntzen nik esnie, ni beti ibil nes naure astoagas, ta kantinplorakas esniegas ta beti olantxe, eta areri erate neuntzen esnie, eta beti nik

esate nendun buenos dias etzien, kontestau bes, iñok e, esposu auskera itten esaixu barbari pe iñ, barbarik esaixu iñ e, auskera esposu itten (bu)", (horiek eibar edo nondikoak izan ziren horiek eibarrekoak ameneko, nik ez dut ulertzen ezer ere, eta ipintzen naiz urduri osoan, eta andrea ere gatikakoa dela dinozu?, hori ere ameneko gatikakoa da, hor ez du egiten ere ez bere lobek ez inork ere ez erdara, erraina dauka, ez daki euskaraz, hark ez daki osterantzean denek, lobek eta semeek eta denek, niri itzel gustatzen zait hori, itzel gustatu, nik bilbon ikusten ditut jendeak euskaraz berba egiten, aditu, poza, nik eroaten nion esnea, leizaola ez dakizu?, hari eroaten nion nik esnea, ni beti ibili naiz neure astoagaz, eta kantinakaz esneagaz eta beti holantxe, eta hari eroaten nion esnea, eta beti nik esaten nuen buenos días etxean, erantzun ere ez, inork, ez baduzu euskaraz egiten ez ezazu barbarik ere egin, barbarik ez ezazu egin, euskaraz ez baduzu egiten), "anajiek estaki ameneko esebe (bu)", (anaiak ez daki ameneko ezer ere), "itzelien daki ameneko ondo (bu)", (itzel daki ameneko ondo), "orrek ekar dau ameneko (bu)", (horrek ekarri du ameneko), "aitte etor de, bai, ameneko bai se ikusi dot ortik eta (bu)", (aita etorri da, ameneko bai ze ikusi dut hortik eta)

amestan: ametsetan

antzen (l): antzean

"ilko siesan se estoskue eskribitan, bat barregarri antzen, barregarri antzen, a akordeu bes, ori be tristie da (l)", (hilgo ziren ze ez digute idazten, bat barregarri antzean, barregarri antzean, hura gogoratu ere ez, hori ere tristea da)

antzera (b): antzera

antzien(b): antzean

apenas: 1. kasik. 2. ez dirudi

"errekalden apenas dau jitanu baño (I)", (errekalden kasik dago ijito baino)
"ona goraño, etorteko ixen dies baye ona goraño apenas datos ondikarren
(b)", (hona goraino, etortzeko izan dira baina hona goraino ez dirudi
datozela oraindikarren)

apur bet gitxi gora beran: apur bat gutxi gora behera

"maipuneti beratxuauti sartute, egoan bide bat apur bet gitxi gora beran
oiñ eleixie dauen baño goratxuauti ingeruen, andi sartute (b)",
(maipunetik beheratxoagotik sartuta, zegoen bide bat apur bat gutxi
gora behera orain eliza dagoen baino goratxoagotik inguruan, handik
sartuta)

arin, ariñ: arin

"ordun itte san bederatzi ixengo san ela saspi, ariñ itte san e? (bu)", (orduan egiten zen
bederatzi izango zen ala zazpi, arin egiten zen?), "a! semet biderres jaixe txikerra ixen, orixe da
ya, aistie eta ni lagunak, aistak eta lagunak, eta amak itxi es, artoak erein ber dires, eta amak
itxi, etorri arin e! (I)", (a! zenbat biderrez jaia txikarra izan, horixe da ja, ahizta eta ni lagunak,
ahiztak eta lagunak, eta amak utzi ez, artoak erein behar dira, eta amak utzi, etorri arin e!)

artes (bu): artez

"nik granbian esetu dot bedxek soltau kortatik eta artes eraten la
miserikordiara estakixu? ango jardiñetara soltau nik erateneusen moduen
an buyan ori nauk esetu dot (bu)", (nik gran bian ezagutu dut behiak
soltatu gortatik eta artez eroaten miserikordiara ez dakizu? hango
lorategietara soltatu nik eroaten nituen moduan bujan hori neuk ezagutu
dut)

atzekos aurre: atzekoz aurre

atzena: atzena, azkena

atzenien (bu): atzenean, azkenean

atzera: berriro, berriz

auskera (bu): euskaraz

"iru ume dekos, ta umiek sekule bes etzien auren artien erdera, beti
auskera (bu)", (hiru ume dauzka, eta umeek sekula ere ez etxean euren

*artean erdara, beti euskaraz), "beren amak beti itten dau auskera (bu)",
(beraren amak beti egiten du euskaraz)*

auskeras: euskaraz

*"ak estau balidxo au itteko, deko joseban auskerie edo, estakixu? agelines
nire llobie da, llobie esaten dot emen, baye gure ume txikerra selan
esango tzet? llobie be bai, ostantzien nire aistie teko or esaun bet, orrek
ni paño obeto daki, baye orrek asko berba in yau etzien e, beti, orrek
auskeras, beti auskeras, eta angelinesen amak esteko gure auskerie,
angelinesek ederto daki e, ak auskerie politte deko sure antzekoa, bera
da andikoa dimekoa da edo, orrek klasek emoten daus esta? (bu)", (hark
ez du balio hau egiteko, dauka josebaren euskara edo, ez dakizu? agelines
nire loba da, loba esaten dut hemen, baina gure ume txikarra zelan
esango diot? loba ere bai, osterantzean nire ahiztak dauka hor ezagun
bat, horrek nik baino hobeto daki, baina horrek asko berba egin du
etxean, beti, horiek euskaraz, beti euskaraz, eta angelinesen amak ez
dauka gure euskara, angelinesek ederto daki, hark euskara polita dauka
zure antzekoa, bera da handikoa dimakoa da edo, horrek klaseak ematen
ditu ezta?)*

bai: bai

barres: berriz

barriketan (l): berriketan.

begire (b): begira

beintzet (bu): behintzat.

belauniko (bu) beleuniko, beleundiko (l): balauniko

*"enenkixo emongo beleundiko etorrite be (l)", (ez nioke emango belauniko
etorrita ere)*

berbas: berbaz

"or bai ixen sien euskeldunek, or bixi ixen sana len, gipuskuanoa esan ixen e julianen aite ta? baye euskera berbas es (I)", (hor bai izan ziren euskaldunak, hor bizi izan zena lehen, gipuzkoarra ez zen izan julianen aita eta? baina euskaraz berbaz ez)

biarrien: beharrean

bigerren: beharrean

"orreik bigerren daus (bu)", (horiek beharrean dagoz)

dardakan (bu): dardan

derrigor: derrigor

"bien euki gendun suetie eta goixen eukin gendusen salie eta lau kuartu an bixi gintzen baye gero tablie gustixe dana jan duskun te, derrigor emen e (I)", (behean eduki genuen sukaldea eta goian eduki genituen sala eta lau gela han bizi ginen baina gero ohol guztia dena jan ziguten eta, derrigor hemen)

dxantzan (bu): dantzan

erdera: erdaraz

"nik txakurreri erdera itten dotzet (bu)", (nik txakurrari erdaraz egiten diot)

erderas (bu): erdaraz

es: ez

eskien (I): eskean

euskera (I): euskaraz

euskeras: euskaraz

geldi: geldi

"txarto ein baño len obeto da geldi egon (I)", (txarto egin baino lehen hobeto da geldi egon), "geldi saus ortxe! (bu", (geldi zagoz hortxe!)

gusti: guzti

gustis: guztiz

"ori de gustis suridxe (bu., b)", (hori da guztiz zuria), "gustis politte da (bu)", (guztiz polita da), "ori gustis da soroa (l)", (hori guztiz da zoroo), "ori de gustis altue (bu)", (hori da guztiz altua)

illedan: iladan

itzelien (bu): itzel

"itzelien daki ameneko ondo (bu)", (itzel daki ameneko ondo)

ixa ixa: ea-ea

justo justo (l): ozta-ozta

"neu pe justo-justo (l)", (neuk ere ozta-ozta)

karraderan (bu): karraderan, karraka, korrika

kasik: ia

"baye gure inguruen egon san bat baye agiño esien dxoan, agiño es, guk aukin genun etzien kasik bertan sulo bat eiñik estakipa segaittik ongo san suloa iñik, bea akordetanas ara dxoaten geintzesela, olan suloa bide bidien sulo sabal bat eta (bu)", (baina gure inguruan egon zen bat baina haraino ez ziren joan, haraino ez, guk eduki genuen etxean kasik bertan zulo bat eginik ez dakit ba zergatik egongo zen zuloa eginik, baina gomutatzen naiz hara joaten ginela, holan zuloa bide bidean zulo zabal bat eta), "erdiko landara elduaskero kasik artes, bueno selei dau (bu)", (erdiko landara helduz gero kasik artez, beno zelai dago)

kasu beterako: kasu baterako

"bai se, emekoak kasu beterako emekoak esta? emekoak nok esetuko eun ba, orti gitxik (b)", (bai ze, hemengoak kasu baterako hemengoak ezta? hemengoak nork ezagutuko zuen ba, hortik goitik)

lepos: lepoz

lo: lo

"umiek lo daus (l)", (umeak lo dagoz)

majo (l): polito

"atara doas piper susterrak eta olango txisme bat eukineskero majo erango neukes baster batera, bai (l)", (atera ditut pipar sustraia eta holako trapazeri bat edukiz gero polito eroango nituzke bazter batera, bai)

mesedes: mesedez

negarres: negarrez

"etor siela, ta negarres fan siela (l)", (etorri zirela, eta negarrez joan zirela)

nekes: nekez

"ori nosepiñien esaten da baye nekes (bu)", (hori noizean behin esaten da baina nekez), "nekes baye esaten da be bai (bu)", (nekez baina esaten da ere bai), "iños entzun dot baye nekes, nekes (bu)", (inoiz entzun dut baina nekez, nekez)

ondo: ondo

"auskerie dxakinaskero ondo politte da (bu)", (euskara jakinez gero ondo polita da), "ori ondo gastie da (b)", (hori ondo gaztea da), "ondo denpora txarra dau (b)", (ondo eguraldi txarra dago)

oñes: oinez

"oñes, ba kotxe pe bai, da an goixen dau san roke (l)", (oinetz, ba autoak ere bai, eta han goian dago san roke)

osoan: osorik

"aburridute nau osoan (bu)", (abroziduta nago osoan)

oso-osoan: oso-osoan

"bai santantoikoak eta, bestie pe bai selan esaten da santantoiñ ondoan dauen bestie, baye nik e, dekot memoridxa oso osoan santantoikoa terriblie, naure bidie axe ixen da, bestiek ixengo sien estekot orixe akorduen axe etxat aistuten iños santantoikoa (bu)", (bai san antonekoak eta, besteak ere bai zelan esaten da, san antonen ondoan dagoen bestea, baina nik, daukat gogoan oso osoan san antonekoa itzel, neure bidea huraxe izan da, besteak izango ziren ez daukat horixe gogoan huraxe ez zait ahazten inoiz san antonekoa)

prest (l): prest

"domu santue, da garixe ereiteko, ba erein orduen prestau, lurrek prest ifiñi (l)", (domusantua, eta garia ereiteko, ba erein orduan prestatu, lurrak prest ipini)

sano: sano, oso

"sano politte da (bu)", (sano polita da), "ori de sano altue (bu)", (hori da sano altua), "ori sano gastie da (bu)", (hori sano gaztea da), "ori etze ori sano sarra da (bu)", (etxe hori sano zaharra da), "politte da sano (bu)", (polita

da sano), "sano txarto in yu (bu)", (sano txarto egin dugu), "atxiñeko kontuen memoridxe ona aukitten eun sano (bu)", (aintzineko kontuan oroimen ona eukitzen zuen sano), "orduen gitxi sano (bu)", (orduan gutxi sano), "san migelera gitxi dxoaten nas sano (bu)", (san migelera gutxi joaten naiz sano), "nire gixonari sano gustaten datzo (bu)", (nire gizonari sano gustatzen zaio), "aurreratxu dxoate san sano (bu)", (aurreratxu joaten zen sano), "kalletik sano entzuten da (bu)", (kaletik sano entzuten da), "ori bere sano esaten da (bu)", (hori ere sano esaten da)

segun: segun

segun trasie: antza denez, dirudienez

"da segun trasie gero gorantza bakarrik da aurekas etorten dies da lagundu itten dotzie andik, da emetik biera etor sien, or urten otzien justo-justo beidxek, ai ene gixajie! (bu)", (eta dirudienez gero gorantz bakarrik eta eurekaz etortzen dira eta lagundu egiten diote handik, eta hemendik behera etorri ziren, hor irten zieten ozta-ozta behiek, ai ene gajoa!), "esan anbeste jenero oin leges be egoten segun trasie ba (bu)", (ez zen hainbeste gauza orain legez ere egoten antza denez)

sikera: sikera, gutxienez

solte: solte, aske

tarras: narras, tarras

tente(b): tente

trabes (bu): trabez

triste: triste

urrien (bu): hurrean, ameneko, aurki

"esan egoten urrien, eta begittu selan dxate san txarrikidxe eta olango gausek, inyabak urdeidxegas da (bu)", (ez zen egoten hurrean, eta begira zelan jaten zen txarrikia eta holako gauzak, indabak urdaigaz eta), "a bixi de urrien (bu)", (hura bizi da hurrean)

2.4. KANTIDADEA

aimeste (l), ainbeste (bu), anbeste (b): hainbeste

"nik estekot aimeste diru (l)", (nik ez daukat hainbeste diru); "suk estekosus anbeste urte (b)", (zuk ez dauzkazu hainbeste urte)

ainbet: hainbat

"ainbet laukotxu ekarri euriesan (l)", (hainbet diru ekarri zituzten)

apur bet: apur bat

"ori de apur bet lodidxe (bu)", (hori da apur bat lodia), "ori apur bet txikerra da (bu)", (hori apur bat txikia da), "ori apur bet os dau (bu)", (hori apur bat hotz dago), "ori dau apur bet bero (b)", (hori dago apur bat bero), "edan dot ur apur bet (b)", (edan dut ur apur bat), "nire aistie, ori budxegoitikoa, esaten dau, erreku urdei apur bet? erreku du urdei apur bet? morokille dxaten dot ointxe bere erositte (bu)", (nire ahizta, hori bujagoitikoa, esaten du, erreko dugu urdei apur bat? erreko dugu urdei apur bat? morokila jaten dut oraintxe ere erosita)

aputxu bet (b): apurtxo bat

"ekasu ogi apurtxu bet (bu)", (ekar ezazu ogi apurtxu bat), "edan du ur aputxu bet (bu)", (edan dugu ur apurtxu bat)

arien (bu): harean

asko: asko

"gause asko daki (b)", (gauza asko daki), "emen dau bei asko (b)", (hemen dago behi asko), "suk dxan dosu malluki asko (b)", (zuk jan duzu mailubi asko), "bedar asko dau (b)", (belar asko dago), "ekar deure intxur asko (bu)", (ekarri dute intxaur asko), "suk malluki asko dxan dosu (bu)", (zuk mailubi asko jan duzu), "suk jan dosus gausa asko (l)", (zuk jan dituzu gauza asko), "emen ganadu asko egon da (l)", (hemen ganadu asko egon zen), "oin etze txiker asko daus (l)", (orain etxe txiki asko dagoz)

banaka bat: banaka bat

"banaka badaus or, aurrien be gixon bat, ta andrie be bai bisenta, andrie morgakoa da, bera emekoa, bai baus, baus euskeldunek, ortik goitik danak euskera (l)", (banaka badagoz hor, aurrean ere gizon bat, eta andrea ere bai bizenta, andrea morgakoa da, bera hemengoa, bai badagoz, badagoz euskaldunak, hortik goitik denak euskaraz)

bastante: nahiko. .1. aldagarri gisa: "ori de bastante gastie (bu)", (hori da nahikoa gaztea). 2, zenbatzaile gisa: "emen bastante ardi daus (l)", (hemen nahikoa ardi dagoz), "ekar txues

bastante kinpulle (b)", (ekarri dituzte nahikoa kinpula), "biarrak akabetako deku bastante denpora (b)", (beharrak amaitzeko daukagu nahikoa denbora)

eskandalu (b): asko

"patata eskandalu artun dun (b)", (patata asko hartu genuen)

gedxau: gehiago

geidxen: gehien

"mortzillak itten sien asko ta eskeitten sienien suetien ifintten geidxien palu bet ta an eskeirik batetik bestera, da areik ixitten sien geidxenak, geidxenak errepartiduteko ausuneri se gero ausunekoa pe bardiñ eitten geidxien e, bata bestiegas betik kanbidxetan sien, negu gustidxen mortzillak dxaten (bu)", (buzkantzak egiten ziren asko eta eskegitzen zirenean sukaldean ipintzen zuten makila bat eta han eskegirik batetik bestera, eta haiek uzten ziren gehienak, gehienak banatzeko auzunei ze gero auzonekoek ere berdin egiten zuten, bata besteagaz beti aldatzen ziren, negu guztian buzkantzan jaten)

gitxi gora beran (bu.): gutxi gora behera

gitxi: gutxi

"ekar deure gause gitxi (b)", (ekarri dute gauza gutxi), "intxur gitxi ekar deure (l)", (intxaur gutxi ekarri dute), "jente gitxi dau an (l)", (jende gutxi dago han), "urte gitxi in ei gixan (l)", (urte gutxi egin ei zituen)

gitxiau (bu.): gutxiago

konpleto (bu.): guztiz

lar: lar. 1. adjetiboagaz batera: "ori de lar andixe (bu, b)", (hori da lar handia), "ori lar andixe da (l)", (hori lar handia da), "ori de lar txikerra (bu)", (hori da lar txikarra) "ori de lar gastie (b)", (hori da lar gaztea), "ori de lar altue (b)", (hori da lar altua). 2. aditzondo gisa: "lar ekarri deure (l)", (lar ekarri dute), "iten deu lar bero (b)", (egiten du bero lar), "dxan daure okela lar (bu)", (jan dute okela lar), "ekar daure porru lar (bu)", (ekarri dute porru lar)

makiña bat, makiñe bat: makina bat

"makiña bat denpora in gendun antxe be (bu)", (makina bat denbora egin genuen hantxe ere), "makiña bat barre gure aittegas eitten giñun (bu)", (makina bat barre gure aitarekin egiten genuen), "makiña bat barre ingosu (bu)", (makina bat barre egingo duzu), "makiña bider etorri gares emetik (bu)", (makina bider etorri gara hemendik), "mokillek makiña bat dxo doas (bu)", (mokilak makina bat jo ditut), "makiña bat urtien dxoan nas (bu)", (makina bat urtean joan naiz), "makiña bat bider etorri de (b)", (makina bat bider etorri da)

naiko: nahiko. 1. aldagarri gisa: "ori de naiko andidxe (bu)", (*hori nahiko handia da*), "ori de naiko txikitxue (b)", (*hori da nahiko txikia*), "ori de naiko lodidxe (bu)", (*hori da nahiko lodia*) .2. atributo gisa: "naikoa da (b)", (*nahikoa da*), "ori naiko da (l)", (*hori nahiko da*) .3. zenbatzaile gisa: "ori erositeko ekarri dot naikoa dirue (b)", (*hori erosteko ekarri dut nahikoa dirua*) .4. aditzondo gisa: "orrek naikoa daki (b)", (*horrek nahikoa daki*), "etorri die naikoa", (b), (*etorri dira nahikoa*), "estau naiko (l)", (*ez dago nahikoa*)

naikora (bu): nahiko. 1. atributo gisa: "naikora da.", (*nahikoa da*). 2. zenbatzaile gisa: "emen daus naikora ardi", (*hemen dagoz nahikoa ardi*), "naikora kunpilla ekar daure", (*nahikoa kinpula ekarri dute*), "ori erosteko naikora diru ekar dot", (*hori erosteko nahikoa diru ekarri dut*), "biarra akabateko denpora naikora deku", (*beharra amaitzeko denbora nahikoa daukagu*). 3. aditzondo gisa: "orrek daki naikora", (*horrek daki nahikoa*), "naikora etor dire", (*nahikoa etorri dira*)

neiko (b): naiko

orrenbeste: horrenbeste

"suk estekosus orrenbeste urte (b)", (zuk ez dauzkazu horrenbeste urte)

ugeri: ugari

"emen ganadu ugeri dau (bu)", (hemen ganadu ugari dago), "ume ugeri daus (bu)", (ume ugari dagoz)

3 ADITZA

Atal honetako berbak banatu ahal izateko, batetik aditz bakunak ikusiko ditugu eta bestetik konposatuak. Azken hauek "egin"

"izan" eta gainerakoen artean berbanaturik emago ditugu.

3.1. ADITZ BAKUNAK

abandonau (l): utzi

abantau, abanteu (b): iraun

aberastu (l): aberastu

"a aberastute dau, aberastu nondik? (l)", (hura aberastuta dago, aberastu nondik?)

abidxau (bu): abiatu

abiseu: abisatu

"segun se, emekoak igual a, emeti samudidxora eukitte gendun kostunbrie dxoateko, se nire amama samudidxokoa san bat, eta ixekoa, pili te aiñ ama

be bai, samudidxokoa san, ta orduen arañño dxoan biar ixete san abisetan (b)", (segun ze, hemengoak igual, hemendik zamudiora edukitzen genuen ekandua joateko, ze nire amama zamudiokoa zen bat, eta izekoa, pili eta haren ama ere bai, zamudiokoa zen, eta orduan haraino joan behar izaten zen abisatzen)

aburridu (b, bu): abrozidu, gogaitu

"gurie pe bear dau, estatzo buruen sartuten auskerie, eta esegaitti pes, aburridute nau aurekas (bu)", (gureak ere behar du, ez zaio buruan sartzen euskara, eta ezergatik ere ez, abroziduta nago eurakaz)

afaldu: afaldu

"afaldu barik martxau ein deure (l)", (afaldu barik joan egin dira), "amak belu afaldu eun (bu)", (amak belu afaldu zuen)

afusillau: afusilatu

agarreu (l): oratu

"es gu tekun langoa esta, gurie da bisikletien antzekoa, onetara agarreu te emoten dotzie martxie da, iru erruedatxu dekos (l)", (ez guk daukagun lakoa ez da, gurea da bizikletaren antzekoa, honetara oratu eta ematen diote martxa eta, hiru txirrinkatxo dauzka)

agartu (bu), agertu: agertu

"oño serien, bilboko plasan, emekoan, santantoiko plasan, lengo urtien asi siren, emoten daure, danari erosten doasenari sera, txarri bet errifetan daure da emoten daure, numeroa, da lengo urtien iñor esan agartu (bu)", (oraindino zerean, bilboko azokan, hemengoan, san antoneko azokan, lehengo urtean hasi ziren, ematen dute, denei erosten doazenei zera, txarri bat zozketatzen dute eta ematen dute, zenbakia, eta lehengo urtean inor ez zen agertu), "mendidxen ibilli geintzesenien agertu sen (bu)", (mendian ibili ginenean agertu zen)

agindu, aginyu (bu): 1. agindu

"lengo baten esaeuen radioti andra batek, orretariko, olango sorgin betek agindu tzela, gixonari kuretako, kantzerra edo kuretako, txakurkumek e, emoteko dxaten eta etor sala otxarkoagara txakurrek erosten, txakurkumek erosten kittanueri (b)", (lehengo baten esan zuen irratitik andre batek, horietariko, holako sorgin batek agindu ziola, gizonari osatzeko, biziena edo osatzeko, txakurkumeak, emateko jaten eta etorri zela otxarkoagara txakurrak erosten, txakurkumeak erosten ijitoei). 2. bialdu

aguantau: 1. eutsi. 2. iraun

aistu: ahaztu

aittu, aitu (b, l): aditu, begiratu

"ba, bixek e, aitu dire arkaleri (l)", (ba, biek aditu diote elkarri)

aixatu: haizatu

akabau (b, bu), akabeu (b, l): amaitu

"musikie egoten san udan, saspietarten, eta neguen ba, seiretako ya musikie be akabau (l)", (musika egoten zen udan, zazpietan, eta neguan ba, seietako ja musika ere amaitu), "akabeu orduko apurtu in da (l)", (amaitu orduko apurtu egin da), "estakitt akabau badaure (bu)", (ez dakit amaitu duten), "itxongo tzu akabau arte (bu)", (itxarongo dizu amaitu arte)

akordau, akordeu (l): gogoratu

"ilko siesan se estoskue eskribitan, bat barregarri antzen, barregarri antzen, a akordeu bes, ori be tristie da (l)", (hilgo ziren ze ez digute idazten, bat barregarri antzean, barregarri antzean, hura gomutatu ere ez, hori ere triste da), "bai, bai ba, baye, nik, nik enueles kantetan ni letrias enas akortan (b)", (bai, bai ba, baina, nik, nik ez nuenez kantatzen ni letragaz ez naiz gomutatzen), "akordanas erosteko (bu)", (gomutatu naiz erosteko), "estat akordetan ixena (bu)", (ez zait gomutatzen izena)

akostunbrau: ohitu

"emen esta akostunbretan (bu)", (hemen ez da erabiltzen)

alargundu (bu): alargundu

alkartu: elkartu

allegau (b), allegeu (l): ailegatu, heldu

*"segun soasen oin subixe dau einte, subire allegeu baño lenau (l)", (segun
zoazen orain zubia dago eginda, zubira ailegatu baino lehenago)*

alpertu (b): alpertu

altzau, altzeu (l): altxatu

"dxo itten tzun altzetako edo seoser bai, seoser itten geuntzen, ala altzau ein ye gero txala (bu)", (jo egiten genuen altxatzeko edo zerozer bai, zerozer egiten genion, hara altxatu egin eta gero txahala), "ai! selango kargak altzeta nendusen neuk olan buruen, solo bat euki genun or, aldatza, aldatza andi ekoen eta selango kargak! (l)", (ai! zelako zamak altxatzen nituen neuk holan buruan, soro bat eduki genuen hor, aldatsa, aldatsa handi zeukan eta zelako zamak!), "gaubeko amabixetan etorte nintzen bilbotik esniek entregaute, esniek e besperan entregaute goixien altzeu te jo! (l)", (gaueko hamabietan etortzen nintzen bilbotik esneak emanda, esneak bezperan emanda goizean altxatu eta jo!), "amak a, altza ason iñ yaust goixetik (bu)", (hamaika, altxatu arazo egin dit goizetik)

amaittu: amaitu

amarrau, amarreu (l, bu): lotu

"bai botak modukoa pai baye klasie, ba bortzegidxe pai bortzegidxe sano, bai baye amarretako olan serien (bu)", (bai botak modukoak bai baina mota, ba bortzegiak bai bortzegia sano, bai baina hamarretako olan zerean), "da amarrau, da gero soloan ein serak, pillotxuek, pillotxuek sutinik, sutinik egon daiten garixe (l)", (eta lotu, eta gero soroan egin zerak, pilotxoak, pilotxoak zutunik, zutunik egon dadin garia), "koji gixesan beixe gustixek gurdixen amarreu, eta danak atzetik, eta gu fan gintzen (l)", (hartu zituen behi guztiak gurdian lotu, eta denak atzetik, eta gu joan ginen)

amatau, amateu (b): amatatu, itzali

amilyu: amildu, troka batetik jausi ganaduak

amon (b): emon

"orreik amon dustie dirue (b)", (horiek emon didate dirua), "orreri al dotzet amon dirue (b)", (horri ahal diot emon dirua)

amorratu (b), amorrutu (l), amurrutu (bu), amorrotu (b): amorratu

*"txakurre amorrututen da agiñeko miñegas, agiñeko miñegas amorrututen
da, arrabixegas, da gero babie botaten deu (l)", (txakurra amorratzen da
hagineko minagaz, hagineko minagaz amorratzen da, amorrugaz, eta gero
adurra botatzen du), "eta guk itxi usen amen e, txakur bi edo, eta etor*

garenien txakurrek on siren amorrotute, bakixu amorrotute seaittik, personen okelie dxaurelako (b)", (eta guk utzi genituen hemen, txakur bi edo, eta etorri ginenean txakurrak egon ziren amorratuta, badakizu amorratuta zergatik, pertsonen okela jan zutelako)

amostu (b): amoztu

andittu, anditu: handitu

"ta anditu iten da ganadue (l)", (eta handitu egiten da ganadua)

apartau (bu): baztertu, alboratu

aplastau (bu) aplasteu (l): zapartu

"da gu posik ganien ibilteko, se lurre, lurre iten deu sakatu, sakatu iten deu lurre, aplasteu da esta on on ona (l)", (eta gu pozik gainean ibiltzeko, ze lurra, lurra egiten du sakatu egiten du lurra, zapartu eta ez da on on ona)

aprobetxau (bu): aprobetxatu, baliatu

apropostu (bu): apropostu

apurtu: apurtu

"ori apurtute dau (l)", (hori apurtuta dago), "dxoan orduen serratuten apurtu de giltze (bu)", (joan orduan ixten apurtu da giltza), "ori eraixu apurtu barik (bu)", (hori eroan ezazu apurtu barik), "orreri gixon orreri itillie apurtu in dxako (bu)", (horri gizonorri itaila apurtu egin zaio), "nik au kaderie apurtu neun senbet urte da? (bu)", (nik mokor hau apurtu nuen zenbat urte da?)

arduretu: arduratu

areatu (b): areatu

argaldu: argaldu

"ni argaldu ines (bu)", (ni argaldu egin naiz)

argitu (l): agertu

"es, jani pes, baye igual eskapeu iten deurie e, eskapeu iten deurie da argitu es gero, leku betetik bestera, baye pikeuaskero selango mingorra dan!

pikeuaskero txarra tie gero, erlien pikadurie (I)", (ez, janik ere ez, baina beharbada ihes egiten dute, ihes egiten dute eta agertuz gero, leku batetik bestera, baina pikatuz gero zelako mingorra den! pikatuz gero txarrak dira gero, erleen ziztada)

armosau (bu): gosaldtu

arpeldu: alpeltu

arrakalatu (bu): arrakalatu

arrapau, arrapeu (I): harrapatu

"dana jan, arrapauten deuenana dana, da gero itxiten deuenana siketu, auzte da ona sasixe garbitako (I)", (dena jan, harrapatzen duena dena, eta gero uzten duena sikatu, ahuntza da ona sasie garbitzeko)

arraskau: azka egin, hatz egin

arraspau: hatz egin

arreglau, arregleu: konpondu

"nik asko alternatzen nendun letxerakas, bilbon, samudio, ortikoak etortzen sienta, ondo arregleta nintzen eureka, berbas, bai, bai, neure legez, ondo arregleta nintzen berbas (I)", (ni asko ibiltzen nintzen esneketariakaz, bilbon, zamudio, hortikoak etortzen ziren eta, ondo konpontzen nintzen eurakaz, berbaz, bai, bai, neure legez, ondo konpontzen nintzen berbaz)

arrimau: ondoratu

"etxien dxaten sient angula pai nik orduen dxatenenun gedxau oin baño e, oiñ esi leis arrimau (bu)", (etxean jaten ziren txitxardinak bai nik orduan jaten nuen gehiago orain baino, orain ezin litezke ondoratu), "ni onegana arrimau nes (bu)", (ni honengana ondoratu naiz)

arroto (I): harrotu

"eta masu porriegas airoso, airoso jotzen dosu, autze iten deu, autze da lurre arrotu (I)", (eta mazu porragaz airoso, airoso jotzen duzu, hautsa egiten du, hautsa eta lurra harrotu)

artu: hartu

"katillutxuek estixegas lau perra ta erdixen, katillutxu esti jente aberatzari, errentie pagetako billatu biar dirue, eta estixe, esti asko artute gixela (l)", (katilutxoak eztiagaz lau perra eta erdian, katilotxo ezti jente aberatsari, errenta ordaintzeko bilatu behar dirua, eta eztia, ezti asko hartzen zuela), "orreri artu deure alkatetzat (bu)", (hori hartu dute alkatetzat)

asarratu: haserratu

"asarratute dau edo seoser dau (l)", (haserratuta dago edo zer edo zer dago), "atzaldien barridxen, ba atzaldien barridxen asarratu ta bertan itxi niri te eskapeu (b)", (arratsaldean berriz, ba arratsaldean berriz haserratu eta bertan utzi ni eta alde)

asertau (bu): aparatu, igarri

asi: 1. hasi. 2. hazi

"an ayuntamientuek gure gixen, ba, etze bat, eta jentiek esetz, ta diskutitan asi san ta (l)", (han udalak gura zuen, ba etxe bat, eta jendeak ezetz, eta eztabadaka hasi zen eta), "auridxe asi sanien durangon ego neintzen (bu)", (euria hasi zenean durangon egon nintzen), "niri koxi ostien trankille trankille, asi nentzen kontetan ni txikerra ixinintzenien ta kontau neun gause asko eta politte diñot, trankille, konbersasiñoa bertan deko, sera, estotela konfunditan esebe, dana egi egidxe dala, bistan igerri, eta gause polittek (bu)", (ni hartu ninduten lasai, lasai, hasi nintzen kontatzen ni txikarra izan nintzenean eta kontatu nuen gauza asko eta polita dinot, lasai, elkarrizketa beratan dauka, zera, ez dudala okertzen ezer ere, dena egi egia dela begibistan igerri, eta gauza politak), "oiñ itten daurena pe diñodxie, se ondiño banaka batek iltten daure, baye esties asten olan txarrixe (bu)", (orain egiten dutenek ere dinote, ze oraindino banaka batek hiltzen dute, baina ez dira hazten holan txerriak)

asmau: asmatu

ason, aso: arazo, azo, erazi

"umieri negar in aso tzie (bu)", (umeari negar eragin diote), "orreri ingo tzie barrason (b)", (horri eragingo diote barre), "orreri biar asko iñ asoten dotzie (bu)", (horri behar asko eragiten diote), "orreri in tzie etorraso (b)", (hori etorerrarazi egin dute), "amak altza ason in yoste goxetik (bu)", (amak altxarazi egin nau goiz), "orreri akaba aso tzie dana (bu)", (horri amaiarazi diote dena), "orreri ingo tzo dxanason dana (b)", (horri egingo

diote janarazi dena), "etorri ason ingo tzie (bu)", (etorrarazi egingo dute), "etorri aso itten dotzie (bu)", (etorrarazi egiten diote)

astilletu: arrakalatu

astinyu, astindu: astindu

*"laniek itten dau, bolak itten ittus, eta orduen orretako astindu (b)",
(artileak egiten du, bolak egiten ditu, eta orduan horretarako astindu)*

atara: atera

"guk u kortan a, sardieri geituten guntzen sardie, beixen aspigarrixek atarateko (l)", (guk gortan, sardari deitzen genion sarda, behien azpigarriak ateratzeko)

atertu: atertu

atrebidu: ausartu

"ori atrebidu da kosten (l)", (hori ausartu da hartzen), "sartenekoa bardin eta gero arrontzak, taloa ogidxe be bai, gure amak, bilbora, ogidxe eraten aun baye taloagas, taloagas gustau terriblien, oin be bai, nik lantzin beñ itten dot talotxu bet esniegas dxateko, urdeidxegas enas atrebitan (bu)", (zartainekoa berdin eta gero arrautzak, taloa ogia ere bai, gure amak bilbora, ogia eroaten zuen baina taloagaz, taloagaz gustatu itzel, orain ere bai, nik lantzean behin egiten dut talotxo bat esneagaz jateko, urdaigaz ez naiz ausartzen)

atzeratu: atzeratu

"ladxak atzeratu, sartu, da bueltie emonten dxako lurreri (bu)", (laiak atzeratu, sartu, eta buelta ematen zaio lurrari)

auki (bu), aukiñ, aukin (bu): eduki

*"sortzietako esne gustidxe emonda aukitten neusen (b)", (zortziretarako esne guztiak emanda eukitzen nituen), "orrek selango atrebiminttu aukiñ yeu txakurre kosteko (bu)", (horrek zelako ausardia eduki du hartzeko),
"aukiñ yeure laguntzet (bu)", (eduki dute laguntzat)*

ausi: hautsi, apurtu

"narra, onen ganien, olango ganien ibil nes biarrien ume batzukes da sesto bete lurregas ta, se posik ume pilloa emen, aitte difuntuek egon geldi e, ausi barik ankaren bat edo arrapau barik (l)", (narra, honen gainean, holako gainean ibili naiz beharrean ume batzukaz eta otzara bete

lurragaz eta, ze pozik ume piloa hemen, aita zenak egon geldi, hautsi barik hankaren bat edo harrapatu barik)

ausiki: haginka egin

"etzetik urten deuenien txakurrek ausiki dotzo (I)", (etxetik irten duenean txakurrak haginka egin dio)

austu (I): haustu

"narra, narra, bai mokilek austeko (I)", (narra, narra, bai mokilak hausteko)

autzi: eutsi

bajatu, bajau, bajeu: bajatu

"ikesi bai baye eleixan e, oseake nik peñen ineun eta peñera bajatute neintzen sera katesismo edo emoten dauenak preparentako apur bet baye selango preparaminttu guk u, malesi, munduko malesirik eta esebes, umiek ixen geintzen, oseake saspi urte eukiñ orduen ingo san e? (bu)", (ikasi bai baina elizan, hau da nik abusun egin nuen eta abusura baxatzen nintzen zera katekima edo ematen duenak prestatzeko apur bat baina zelako prestaketa guk, malezia, munduko maleziarik eta ezer ere ez, umeak izan ginen, hau da zazpi urte eduki orduan egingo zen e?), "klaro, estakixu aik, ba ainbeste ure in gixenien, urixolak, lurre gustixek biera bajatu sien (I)", (jakina, ez dakizu haiek, ba hainbeste ure egin zuenean, uriolak, lur guztiak behera baxatu ziren), "ni tranbixetik bajate nitzen karraka, bajau parau barik (I)", (ni tranbiatik baxatzen nintzen karraka, jaitsi gelditu barik)

bareusi: gosaldu, barau hautsi

barristu (I): barriztu

"len egon san , beste modu beten, barristu in deure dana, barristu dana, bai, eta oiño emen be soñue dau (I)", (lehen egon zen, beste modu baten, barriztu egin dute dena, barriztu dena, bai, eta oraindino hemen ere soinua dago)

barruntau: igerri, barruntatu

"da artueuen berak eskuekas arrixe, eta galgasuren bat barruntau euen barruen (I)", (eta hartu zuen berak eskuakaz harria, eta erasoren bat asmatu zuen barruan)

barusi (I): gosaldu, barau hautsi

"ba guk u, goxien barusten kafekonletxe, kafie esniegas, da gero, ba gero, gosie edo, ogi sati bet edo seoser txokolatiegas edo, baye enjeneral egurdirarte es, egurdixen beti indiyaba (I)", (ba guk, goizean barausten

kafesnea, kafea esneagaz, eta gero, ba gero, gosea edo, ogi zati bat edo zer edo zer txokolateagaz edo, baina gehienetan eguerdira arte ez, eguerdian beti indaba)

barustu: gosaldu, barau hautsi

baskaldu: bazkaldu

"baskaldu baño lenau eskuek garbitu ixus (I)", (bazkaldu baino lehenago eskuak garbi itzazu), "etzera noa baskalduten (bu)", (etxera noa bazkaltzen)

batidu: irabiatu

batu: batu

"dirue batuten gixien an (I)", (dirua batzen zuten han)

batzandu (I): batzandu, elkartu

"danok batera, batera edo batzandute", (denok batera, batera edo batzanduta)

bautisau (bu, I), bautixeu (I): bateatu

"ta gure amak esateun ni bautisaute nau san bisenten da gero san bisentetik pasau bisan ango garbitasunek kinta parrokiara (I)", (eta gure amak esaten zuen ni bataiatuta nago san bizenten eta gero san bizentetik pasatu behar zen hango garbitasunak kinta parrokiara), "ba dokumentasiñoa biar gixen emon non baitixeute dauen, da amak esateuen ni bautixeu nas abandon (I)", (ba dokumentazioa behar zuen eman non bataiatuta dagoen, eta amak esan zidan ni bataiatu naiz abandon)

bedeinketu, bereinketu: bedeinkatu

"ogi sati bet, afaldu aurrien bedeinketu padre nuestro bat erreseu, da a ogi satixe ifiñi mantel pien (I)", (ogi zati bat, afaldu aurrean bedeinkatu aitagure bat errezatu, eta ogi zati hura ipini zamaupean)

begittu, begitu (I): begiratu

"mari iturrisan gizona il san, gizona il san ta andriek esaten gixon begitu ixu oneri one pe jota jo! (I)", (mari iturrizaren gizona hil zen, gizona hil zen eta andreak esaten zion begira ezaiozu

honi honek ere jota jo!), "begittu dotzet (bu)", (begiratu diot), "goso badau garbi dela pentzau lei, arto gustue deko, estaitt nondi ekarten dosten eta itten dot, begittu selan gustauko dxaten, uregas itten dot, uregas, ta gas barik eta gero esnie ganien (bu)", (gozo badago garbi dela pentsa liteke, arto gustoa dauka, ez dakit nondik ekartzen didaten eta egiten dut, begiratu zelan gustatuko zaidan, uragaz egiten dut, uragaz, eta gatz barik eta gero esnea gainea), "nik etzien begittukot (bu)", (nik etxean begiratuko dut), "estaure eser eitten, bai baye orreikas begidxokas begittu eta nik ya pentzetan dot edosein gause, da ibiltten da larri baye larri, bestie es beragas etorten dan andrie arek estekodxie billurrik, ausunekoa ixengo da beragas etorten dana (bu)", (ez dute ezer egiten, bai baina horiekaz begiokaz begiratu eta nik ja pentsatzen dut edozein gauza, eta ibiltzen da larri baina larri, bestea ez beragaz etortzen den andrea hark ez daukakie bildurrik, auzunekoa izango da beragaz etortzen dena)

bendau: bendatu

beratu: beheratu

"gatz askogas e, eta gero ixin sen, gasdune ixin sen, sera beratu biar ixite san dxateko (bu)", (gatz askogaz, eta gero izan zen, gazduna izan zen, zera beheratu behar izaten zen jateko), "eiten gendun u, erradie lango kaldarak egon siesan, onen kolorekoak, eta kaldara bete ur, ba berotu ondo ondo, da tiñekuen ifiñi, tiñekuen ifiñi erropa beratuten jaboyegas, jaboï egosixe (l)", (egiten genuen, errada lako galdarak egon ziren, honen kolorekoak, eta galdara bete ur, ba berotu ondo ondo, eta tinakoan ipini, tinakoan ipini erropa beheratzen xaboiagaz, xaboi egosia)

berotu: berotu

"eta emen ifiñi olan, arrixe, joteko eta jo kamaran, emen sabaldu berotuteko, berotuteko garixe denpora onaas, emen sabalduten gendusena eta kamaran jo. (l)", (eta hemen ipini holan, harria, jotzeko eta jo ganbaran, hemen zabaldu berotzeko, berotzeko garia eguraldi onagaz, hemen zabaltzen genituen eta ganbaran jo), "esnie berotuten ifiñi dot (bu)", (esnea berotzen ipini dut)

beskaldu (b, bu): bazkaldu

"beskaldu te gero dxoango gara etzera (bu)", (bazkaldu eta gero joango gara etxera)

betatu (l), bete (bu): bete

"lurres betatute daus aik (l)", (lurrez beteta dagoz haiek)

bidxeldu: bialdu

"aorreri bidxeldu deure kridxedu (bu)", (hori bialdu dute morroi)

bidxortu (bu): bihurtu

bieldu (l), bigeldu (b): bialdu

"bieldu oskun kartie selan entierrue ta dana in dutzien (I)", (bidali zigun eskutitza zelan hileta eta dena egin dioten)

bildurtu (I), billurtu: bildurtu

"igual gaubien difuntuek urten, ni bildurtu, emetik bentanatik ikuste neuen nik kanposantue, ene! (I)", (igual gauean hildakoek irten, ni bildurtu, hemendik leihotik ikusten nuen nik kanposantua, ene!)

billatu (bu) billetu (I): bilatu

billustu(b): biluztu

bisiteu (I): bisitatu

"ni allegeu nasen lekuen betik, betik elejie bisiteu (I)", (ni ailegatu naizen lekuan beti, beti eleiza bisitatu)

bomitau: bota, errebesatu

bota: bota

"es, es, urtiek atzera bai, baye gero labak bota sien, jausi (I)", (ez, ez, urteak atzera bai, baina gero labeak bota ziren, jausi), "orreik gaixoak dekie sutunik ta lengoak botata gero bes (b)", (horiek gaixoak dauzkate zutunik eta lehengoek bota ta gero ere ez), "bai autopistak botata batzuk eta sera bolintxun, bolintxun bai iru lau etze botauresan (bu)", (bai autopistak botata batzuk eta zera bolintxun, bolintxun bai hiru lau etxe bota zituzten), "orrek bota dau burue uretara (bu)", (horrek bota du burua uretara)

bueltau (I): bueltatu

bultzau: bultzatu

"nik bultzau iñ yotzet orreri (bu)", (nik bultzatu egin diot horri)

bustertu: buztartu, uztartu

"bai bere martxatxue ta ikisten da bigarren dxoan barik solora, ibiltte sara bestiegas bustertu, eta ibiltte sara ikisteko ikisteko (bu)", (bai bere martxatxoa eta ikasten da beharrean joan barik sorora, ibiltzen zara besteagaz buztartu, eta ibiltzen zara ikasteko ikasteko), "bustertu, sapie, aik e, aurreko a ifinten dana sapie, da aik bestiek busterrixe amarretako ediek (I)", (buztartu, zapa, haiek, aurreko hura ipintzen dena zapa, eta haiek besteak buztarria lotzeko hedeak)

busti: busti

"bai bai kalerako, akordatenas a, sera, an batzuk len kamiñoa iñ orduen auridxe eta orduen oñetako eskasak egoten siren, jentiek esaun aukitten dirurik, eta abarketa barridxe gordeta eran, eleixara sartuteko ifintteko abarketak busti barik eta loittu barik, komuniñoa iñ orduen beittu selan ongo san (bu)", (bai bai kalerako, gomutatzen naiz, zera, han batzuk lehen kaminoa egin orduan euria eta orduan oinetako eskasak egoten ziren, jendeak ez zuen edukitzen dirurik, eta abarketa berriak gordeta eroan, elizara sartzeko ipintzeko abarketak busti barik eta lohitu barik, komunioa egin orduan begiratu zelan egongo zen), "balde bete ur

epeldu in bear da, da karea apurtxu betegas, busti apurtxu bet e garixe ur epelagas da karie, kariegas errebolbidu (I)", (balde bete ur epeldu egin behar da, eta karea apurtxo bategaz, busti apurtxo bat garia ur epelagaz eta karea, kareagaz nahastu)

damutu: damutu

"damutu ite xat es etortie lenau (I)", (damutu egiten zait ez etortzea lehenago), "damututen dast dana es dxatie (bu)", (damutzen zait dena ez jatea), "damutuko dxatzu lar dxaten dosulakoan (bu)", (damutuko zaizu lar jaten duzulako)

daridxola egon: dariola egon, erion

"ure daridxola dau (bu)", (ura dariola dago)

defendidu (bu): defendatu

derrigortu: derrigortu

desaparesidu: desagertu

deseredau: deseredatu

desin: desegin

deskuideu (I): deskuidatu

diskutidu (I): eztabadatu

"an ayuntamientuek gure gixen, ba, etze bat, eta jentiek esetz, ta diskutitan asi san ta (I)", (han udalak gura zuen, ba, etxe bat, eta jendeak ezetz, eta eztabadaka hasi zen eta)

doblau: tolestu

dxabon (bu), dxagon: jagon

dxadxo: jaio

"emen dxadxokoa da (bu)", (hemen jaiokoa naiz)

dxakin, dxakiñ: jakin

"es baye dxakin ber dot derrigor(bu)", (ez baina jakin behar dut derrigor), "arek esan gidxen an auskera gitxi itten dala, ba ak ederto dxakin geidxen (bu)", (hark esan zuen han euskara gutxi egiten dela, ba hark ederto jakin zuen), "bai dxakingo neun orduen baye ointxe enekixu esango, nik nauk es, gizonak dxaten sien ni etzien (bu)", (bai jakingo nuen orduan baina oraintxe ez nizuke esango, nik neuk ez, gizonak joaten ziren ni etxean), "gure aittuek e, arek aukin geidxen, sera, berak a dxakitten geidxen (bu)", (gure aititak, hark eduki zuen, zera, berak hura jakiten zuen)

dxan: jan

“guk dxan dus mallukidxe (b)”, (guk jan ditugu mailukiak), “euskeldun ona ixeteko, dxan ta gero otza euki biar deuela, sarriten entzun dot ori (b)”, (euskaldun ona izateko, jan eta gero hotza eduki behar duela, sarritan entzun dut hori)

dxarri: jarri, jezarri

“dxarrite gaixak (b)”, (jezarrita gagozak), “arkalen ondoan dxarri dies (bu)”, (elkarren ondoan jezarri dira)

dxausi: jausi

“eta dxausi dxatesak giltzek (b)”, (eta jausi zaizkidak giltzak), “ori karraka ibil ye ta orreaittik dxausi de (bu)”, (hori karraka ibili da eta horregatik jausi da)

dxesarri: jezarri

dxo: jo

“san roken be bai baye an gitxi dxo dot nik eseuen itxitten ta, pase eukitteuenak eseuen itxitten dxoten ingeruen (b)”, (san roken be bai baina han gutxi jo dut nik ez zuen uzten eta, pasea edukitzen zuenak ez zuen uzten jotzen inguruan), “beren aittek dxo dau (bu)”, (beraren aitak jo dau)

dxoan: joan

“udan domeka gustidxetan dxoaten gintzen (bu)”, (udan igande guztietan joaten ginen), “dxoan dire orko bideti (b)”, (joan dira horko bidetik)

dxorratu: jorratu

dxosi: josi

ebagi (bu), ebai, ebei: ebagi, ebaki

“orreik ebei deude ogidxe (b)”, (horiek ebaki dute ogia), “tallorik esteko, tallorik esteko, se a igitixegas ebaiten da (l)”, (aihenik ez dauka, aihenik ez dauka, ze hura igitaiagaz ebakitzen da), “estaitt ikusi bot dekot olango... eskasa, olan ikusi ebaitten aik a itteko edo (bu)”, (ez dakit ikusi dudan daukat holako... eskasa, holan ikusi ebakitzen haiek hura egiteko edo), “kantzate nau bedarra ebaitten (bu)”, (nekatuta nago belarra ebakitzen), “okelie ebai itten dot (bu)”, (okela ebaki egiten dut)

ebilli: ibili

edan: edan

“suik edan senduen ardaa (l)”, (zuek edan zenuten ardoa), “edan du basu bete ur (bu)”, (edan dugu basu bete ur), “suk ure edan sendun (bu)”, (zuk ura edan zenuen)

edatzi (bu): eratsi

efiñi: ipini

egon: egon

"enbra batzukes egon nas (bu)", (emakume batzukaz egon naiz), "es bierra asko, eta itxiten san geixao landa, beixentzat egoteko bedar sikue negureko (l)", (ez beharra asko, eta uzten zen gehiago landa, behientzat egoteko belar sikua negurako), "egon gara leku beten (bu)", (egon gara leku berean)

egosi: egosi

"da esnie egosten danien ra bota, da egon daittela apurtxu beten (bu)", (eta esnea egosten denean ra bota, eta egon dadila apurtxo baten), "ama difuntiek ifinten gixen kasuelatxuen, sopatxu betzuk in de kasuelatxuen sopak saldatxuegas, sopie egosite, da gero ostera urdei apurtxu bet e, frijidu da ostera inyabieri a koipie bota inyabieri ganera (l)", (ama zenak ipintzen zuen kazolatxoan, zopatxo batzuk egin eta kazolatxoan zopak saldatxoagaz, zopa egosita, eta gero ostera urdai apurtxo bat, frijidu eta ostera indabari koipe hura bota indabari gainera), "ba ganaduentzako egosi itte san, erremolatxak eta patatak eta egosi itte siren (b)", (ba ganaduentzat egosi egiten zen, erremolatxak eta patatak eta egosi egiten ziren)

eidxo (bu) eixo (l): eho

"je, je, gose denporan, ba gose denporan ementxe ifiñi arrixek onetara, ta antxe gari jotzen, errotara eixoten, baye errotan gure es eixo (l)", (je, je, gose denboran, ba gose denboran hementxe ipini harriak honetara, eta hantxe gari jotzen, errotara ehotzen, baina errotan gure ez eho)

ein, eiñ (bu): egin

"beragaitik ein deure (l)", (beragatik egin dute), "nik estot eiñ (bu)", (nik ez dut egin)

ekarri: ekarri

“gause gustidxez ekarri deures (bu)”, (gauza guztiak ekarri dituzte), “suri ekarri tzut piperra (b)”, (zuri ekarri dizut piparra), “ba etorri zen, gure, aistien, suegrie, suegrie ekartzen gendun ona zollotik (l)”, (bat etorri zen, gure, ahiztaren, amaginarreba, amaginarreba ekartzen genuen hona zollotik), “bilbotarrak esaren ekartzen ordie (bu)”, (bilbotarrek ez zuten ekartzen ordea)

ekusi (b, bu): ikusi

“se nik ekusten dot ori ondo daola (b)”, (ze nik ikusten dut hori ondo dagoela)

ekutu (b): ikutu

eldu: heldu

elejidu (bu): aukeratu

emon: eman

“esnie emon tziet ume batzuri (bu)”, (esnea eman diet ume batzuri), “danak emoten gixien, al dauena, limosnatxue, santagedari, gero urreko egunien faten sien eurek, ba, mesara, mesa nagosire, neu be baten ego nintzen (l)”, (denek ematen zuten, ahal duena, limosnatxoa, santa agedari, gero hurrengo egunean joaten ziren eurak, ba, mezara, meza nagusira, neu ere baten egon nintzen)

enamorau (l): maitemindu

“seme bat enamorau san ango neskiegas, san rokekoagas (l)”, (seme bat maitemindu zen hango neskekagaz, san rokekoagaz)

enfadau: haserratu

“umiek belu etorri esketiño guresoak enfadau ingo lekittes (bu)”, (umeak belu etorritik gero gurasoak haserratu lirateke)

engañeu (l): engainatu

“es, gero, kendu gixien andik, musikie be etorri da, bandie be etorri da ona, baze es diferente, eta igual jaixe txikerra ta guk fan gure ta, biarra taus e, eta gu engañetan amari te aiteri fateko, gasterixe!, gasterixe! (l)”, (ez, gero, kendu zuten handik, musika ere etorri da, banda ere etorri da hona, baina ez desberdin, eta kasu baterako jaia txikarra eta guk joan gura eta, beharrak dagoz e, eta gu engainatzen ama eta aita joateko, gazteria!, gazteria!)

entendidu, entenidu: ulertu

“entenitan dosu esta? (I)”, (ulertzen duzu ezta?), “suk entenitan dosu? bueno suk kasi kasi nire leges, esta? aittu, ederto eta txiker txikerretati takixu? (bu)”, (zuk ulertzen duzu? beno zuk kasik kasik nire legez, ezta? aditu, ederto eta txikar txikarretatik dakizu?), “bai sarri ademas, sarri, t’afan itzelagas ademas, niri gustau terriblien, terriblien, iñok elauke esango nauk pentzau ot, enostela iñok entenitan ser gustetan dxaten, terriblien gustetan dxaten (bu)”, (bai sarri gainera, eta gogo itzelagaz gainera, niri gustatu itzel, itzel, inork ez luke esango neuk pentsatu dut, ez didala inork ulertzen zer gustatzen zitzaidan, itzel gustatzen zitzaidan)

enterau: enteratu

enterrau, enterreu (I): lurpetu, ehortzi

“asko daus enterraute or, sortzi amar bai daus enterraute or (I)”, (asko dagoz lurpetuta hor, zortzi hamar bai dagoz lurpetuta hor), “narrak lurre aplasteu iten deu, sakatu, sakatu, enterreu, enterreu da esta ona (I)”, (narrak lurra zapartu egiten du, sakatu, sakatu, lurpetu, lurpetu eta ez da ona)

entregau, entregeu: eman

“gaubeko amabixetan etorte nintzen bilbotik esniek entregaute, esniek e besperan entregaute goixien altzeu te jo! (I)”, (gaueko hamabietan etortzen nintzen bilbotik esneak emanda, esneak bezperan emanda goizean altxatu eta jo!)

entretenidu (bu): entretenitu

entzun: entzun

“entzun dosu bixar datosela? (I)”, (entzun duzu bihar datozela?), “entzun oiñ, badiñot batebategas edo, baye gure etzien es, gure etzien es da an budxan bes (bu)”, (entzun orain, badinot baten bategaz edo, baina gure etxean ez, gure etxean ez eta han bujan ere ez), “ni orren aldien gastie nas esta? ni enas dxoan pasietan granbiara baye entzuni pai (bu)”, (ni horren aldean gaztea naiz ezta? ni ez naiz joan paseatzen gran viara baina entzunik bai)

eon (I): egon

“eon siesan presa bi, bata, uger iteurien jentiek, pues uger, da bi eon siesan (I)”, (egon ziren uharka bi, bata, igeri egiten zuten jendeek, ba igeri, eta bi egon ziren)

epeldu (I): epeldu

"balde bete ur epeldu in bear da, da karea apurtxu betegas, busti apurtxu bet e garixe ur epelagas da karie, kariegas errebolbidu (l)", (balde bete ur epeldu egin behar da, eta karea apurtxo betegaz, busti apurtxo bat garia ur epelagaz eta karea, kareagaz nahastatu)

eraiñ (bu): erein

erakutzi: erakutsi

eralgi: eralgi

eran: eroan

"suik eran baskaridxe (bu)", (zuek eroan bazkaria), "segun makiñe eraten auren dxoaten basiren etze batera estauela eraten auren makiñe baye makiñe txikitxue san (bu)", (segun makina eroaten zuten joaten baziren etxe batera ez dagoela eroaten zuten makina baina makina txikitxoa zen), "batzuk erateuden eskeite, eta beste batzuk agiñek atarata palueri, ta emen esetu dot nik asko ori se emeti eraten gendun esnie santa mariñera (b)", (batzuek eroaten zuten eskegita, eta beste batzuek haginak aterata makilari, eta hemen ezagutu dut nik asko hori ze hemendik eroaten genuen esnea santa marinara), "baten akordetanas, ollasko bat eta lumetute da emon dostien erateko ara, ara, bidien goasela, asi sen sirena dxoten, ollaskoa bidien, billurregas eta depositture karraka (bu)", (baten gomutatzen naiz, oilasko bat eta lumatuta eta eman zidaten eroateko hara, hara, bidean goazela, hasi zen sirena jotzen, oilaskoa bidean, bildurragaz eta depositora karraka)

eratzi: 1. eratzi. 2. jaitsi

"eratzi, itilletu, ser itten senduen? lengo itilletu, eratzi ero (bu)", (eratsi, itailetu, zer egiten zenuten? lehenengo itailetu, eratsi edo), "lengo itte san tragastu ero eratzi (bu)", (lehenengo egiten zen tragastu edo eratsi).

erdibittu: erdibitu

"ba bi on eskero ta etzaldie andidxe basan, erdibittu (b)", (ba bi egonez gero eta etxaldea handia bazen, erdibitu)

erdu: erdu; aditz honek aginterak baino ez dauzka "zu" denean "erdu" erabiltzen da eta "erduie" "zuek" denean.

erebidxau (bu): irabiatu

erein, ereiñ (bu): 1. eragin. 2. erein

"erein, ba, ontxe, es datorren illien. (l)", (erein, ba, oraintxe, ez datorren hilean), "ori de ereitteko arto berdie ganaduentzako berderako (b)", (hori da ereiteko arto berdea ganaduentzako berderako), "garidxe oiñ estaure ereitten (bu)", (garia orain ez dute ereiten)

eretxi, eritxi: eritzi

"ondo eritxitten dotzet (bu)", (ondo erizten diot), "ser deritxesu orreri? (bu)", (zer deritzazu horri)

erne: erne

"bai, bai, se estutu in bear da be siku dauela garixe siku dauela ostien e, garixe arin ernetan da, pilloan be ernetan da e? (I)", (bai, bai ze estutu egin behar da ere siku dagoela garia siku dagoela ostein, garia arin ernetzen da, pilloan ere ernetzen da)

ernegeu (I): ernegatu

"oin ernegeta bixi nes, matea tekos lurrek, basoak eskonbruekas (I)", (orain ernegatuta bizi naiz, mateak dauzka lurrak, basoak ondakinakaz)

eroan (b): eroan

erontzi (bu): erantzi

erosi: erosi

"atzo erosi oten ardaba (b)"·(atzo erosi nuen ardoa), "es, ogixe betik erosi, au saldu, saldu ona iralara, harino panadera, burdixegas eraten gixen, gero juntetan sien, burdixen, burdixen sakuetan. (I)", (ogia ez, ogia beti erosi, hau saldu, saldu hona iralara, harino panadera, gurdiagaz eroaten zuen, gero elkartzen ziren, gurdian, gurdian zakuetan), "au erosi dot amari emoteko (bu)", (hau erosi dut amari emateko)

erratu (bu): erratu

erre: erre

"orreri erre dxakon etzie (b)", (horri erre zitzaion etxea), "erretan baxatzu seoser edo dana, ai kiskeldu de dana! (I)", (erretzen bazaizu zer edo zer edo dena, ai kiskasldu da dena), "sue ixetu deuenien erre iñ ya (bu)", (sua iziotu duenean erre egin da)

errebolbidu (I): eragin, nahastu

erregalau: erregalatu, opaldu

errementau, errementeu (I): errementatu

"arrixte koji ordun pisuek seoser errementeu, fan san gero naparra partera, olango kurandero bategana (I)", (harria hartu orduan pisuak zerozer errementatu, joan zen gero nafarroa aldera, holako sasimediku bategana)

errepartidu (bu): banandu

errepasau, errepaseu (I): errepasatu

“errepasatako a sartu te traka-traka errepasau, esetu ointxe leges, baye selan esango genun ba estaitt usena (bu)”, (errepasatzeko hura sartu eta traka-traka errepasatu, ezagutu oraintxe legez, baina zelan esango genuen ba ez dakit izena), “galtzak sartu emen da errepasetako, errepasetako (l)”, (galtzak sartu hemen eta errepasatzeko, errepasatzeko)

erresau, erreseu (l): erregutu, otoitz egin

“bueno etzien be asko egote san orduen e, bai eleixan eleixan nik estekot akorduen, baye erresako san, baye sartukeran d’olan igual es, eleixara edo diñot eskolara sartu orduen erresau lelengo igual bai (bu)”, (beno etxean ere asko egoten zen orduan, bai elizan elizan nik ez daukat gogoan, baina errezatuko zen, baina sartukeran eta holan beharbada ez, elizara edo dinot eskolara sartu orduan errezatu lehenago beharbada bai), “baye galdu in de len korpus egunien be bai, errosaixora jentie, merixendatxue artute ba errosarixoak, errosarixoak erresetan ara (l)”, (baina galdu egin da lehen korpuzti egunean ere bai, errosariora jendea, meriendatxoa hartuta ba errosarioak, errosarioak errezatzen hara), “etzeko jaunek esan dosku, kanteko badu edo es, eta kanteu ala erreseu te (b)”, (etxeko jaunak esan digu, kantatuko dugun edo ez, eta kantatu ala errezatu eta)

erretireu (l): erretiratu

“erretireu in sen anaje gastiegana (l)”, (erretiratu egin zen anaia gazteagana)

errifau: zotz egin

esan: esan

“suk esan dostesu egidxe (b)”, (zuk esan didazu egia)

esautu, eseutu (l), esetu: ezagutu

“setak estoas esetuten nik (b)”, (perretxikoak ez ditut ezagutzen nik), “etorri, ie ikusten baosu, ta gero aitteri esaten baotzesu, sure aittek berba asko esteu esautuko igual nirie, nik berie bai, nik berie bai (l)”, (etorri, ea ikusten duzun, eta gero aitari esaten diozun, zure aitak berba asko ez du ezagutuko beharbada nirea, nik berea bai, nik berea bai)

esi (bu): hesi

eskapau(b), eskapeu (l): eskapatu, ihes egin

eskastu (l): eskastu

“etxate gustetan masustak, nik sekule koji es bat, a txarri okaranak gosoa tie, beyen oten die gurien, eskastu in die (l)”, (ez zaizkit gustatzen mazustak, nik sekula hartu ez bat, txerri okaranak gozoak dira, behean egoten dira gurean, eskastu egin dira)

eskatu: eskatu

eskegi, eskei: eskegi

"eta selango usena aukiñ aun klaro! se eskegitte san siketu, orreik bortzegidxok ixengo siren serakoak, narruskoak, narrusko gogorak, eta aregas, eta biguntxu paretan siren (bu)", (eta zelako izena eduki zuen jakina! ze eskegitzen zen sikatu, horiek bortzegiok izango ziren zerekoak, narruzkoak, narruzko gogorak, eta haregaz, eta biguntxu paratzen ziren), "garbitu ondo, kendu gatz, eskei suetien siketu deiten, goso eoten san a, egosite tomatiegas, egosi te tomatiegas gosoa (I)", (garbitu ondo, kendu gatz, eskegi sukaldean sika dadin, gozo egoten zen hura, egosita tomateagaz, egosi eta tomateagaz gozoa)

eskondu: ezkondu

"orrek eskondu gure dau (bu)", (horrek ezkondu gura du)

eskribidu (I): izkiriatu, idatzi

"nik esin dot eskribidu (I)", (nik ezin dut idatzi)

estaldu (I): estali, desagertu

estudidxau, estudieu (I): estudiatu

"denpora geixaogas ba, berak geixao estudieu deu (I)", (denbora gehiagogaz ba, berak gehiago estudiatu du), "segiduten dau estudidxetan (bu)", (segitzen du estudiatzen), "gurot orrek umiorrek estudidxa deidxela (bu)", (gura dut horrek umeorrek estudia dezala)

estutu: estutu

"baye, ganien, oin beste gause batzuk egongo dires baye orduen, arri andidxekek olan losa antzekoak, pisu andikoak, aren ganien estutu daittesan ondo (bu)", (baina, gainean, orain beste gauza batzuk egongo dira baina orduan, harri handiak holan losa antzekoak, pisu handikoak, haren gainean estu daitezen ondo)

etorri: etorri

"gixon batzuk etorri dire (bu)", (gizon batzu etorri dira)

euki, eukin (b): eduki

"au eskolie dauen lekuen euki geixesan terreno gustixek (I)", (eskola hau dagoen lekuan eduki zituen terreno guztiak), "orreik euki ustie etzien (b)", (horiek eduki ninduten etxean), "len, len guk eukin gendun u,ba sanadrianen ermitan, mesie da entierruek (I)", (lehen, lehen guk eduki genuen, ba san adrianen basilizan, meza eta hiletak)

eusi (b): hautsi

falta (I): falta

"an joten gixena, besoa falta xakon, ser joten gixen? (I)", (han jotzen zuena, besoa falta zitzaion, zer jotzen zuen?)

fan (I): joan

"emetik faten san menditik alonsotegire, eta emetik i, arreburixara (I)", (hemendik joaten zen menditik alonsotegira, eta hemendik, arrigorriagara), "fan ber da erosten e, ba bedarra, bedarra es baye, galtzue erosten (I)", (joan behar da erosten, ba belarra, belarra ez baina, galtzua erosten)

fermentau: fermentatu

fijau: tinkatu, erreparatu

"txiker txikerretatik i, ba aixe etzien ikusitte, nau pe fijau edo estait serien baye gustetan dxaten da, gero arrotxue ixeneintzen entenidu itteneula pentzau neun egidxe (bu)", (txikar txikarretatik, ba huraxe etxean ikusita, neuk ere fijatu edo ez dakit zerean baina gustatzen zitzaidan eta, gero harrotxoa izan nintzen ulertu egiten nuela pentsatu nuen egia)

filtrau: iragazi

findu (I), finyu: findu

"galbaye, satza finduteko galbaye, indiyabie ta satza, satza be pasetako (I)", (galbahea, satsa fintzeko galbahea, indaba eta satsa, satsa ere pasatzeko)

finyotu (bu): findu

forratu (I): jorratu

"estau esebe, artoa erein igual, satixek eta, forratu gure arin se etorko da bestie, da gero pasauko xaku forrie (I)", (ez dago ezer ere, artoa erein igual, zatiak eta, jorratu gura arin ze etorriko da bestea, eta gero pasatuko zaigu jorra)

frijidu (I): frijidu

"ama difuntiek ifinten gixen kasuelatxuen, sopatxu betzuk in de kasuelatxuen sopak saldatxuegas, sopie egosite, da gero oster a urdei apurtxu bet e, frijidu da oster a inyabieri a koipie bota inyabieri ganera (I)", (ama zenak ipintzen zuen kazolatxoan, zopatxo batzuk egin eta

*kazolatxoan zopak saldatxoagaz, zopa egosita, eta gero oster a urdai
apurtxo bat, frijitu eta oster a indabari koipe hura bota indabari gainera)*

fumau: erre

*"gero urtietan fumau te txarto iten gixon estulek eta (l)", (gero urteetan
erre eta txarto egiten zion eztulak eta), "orrek ikusi deu beren semie
fumetan (bu)", (horrek ikusi du bere semea erretzen)*

gaixotu: gaixotu

*"se txarto egon san, gaixotu san ta gaixorik egon san moduen e ara eran
gixien (l)", (ze txarto egon zen, gaixotu zen eta gaixorik egon zen moduan
hara eroan zuten), "oneri aitte gaixotu in dxakon, edo gaixorik parau
dxako (bu)", (honi aita gaixotu egin zitzaion, edo gaixorik paratu zaio)*

galdu: galdu

*"galdu ingo gintxosak (b)", (galdu egingo ginatetek), "bai atxiñeko jentie il, eta gero ayen
semealabak, ba, galdues, galdues, galdues joan da, euskerie, len eskolan be esin i euskera
berba ein, dana erderie, dana erderie (l)", (bai aintzineko jendea hil, eta gero haien seme-
alabak, ba, galduz, galduz, galduz joan da, euskara, lehen eskolan ere ezin euskaraz berba
egin, dena erdara, dena erdara), "eskolan galdu euden ya (bu)", (eskolan galdu zuten ja), "a
kostunbrie esan galdu, esta galdu biar axe, estosu entenitan? bai ba danak e enjeneral,
osasune eukitteanuk, da orduen osasune danak eukin genun, estaitt ser pasetan san, oin
medikuagana soas ta dano teku segoser (bu)", (ekandu hura ez zen galdu, ez da galdu behar
huraxe, ez duzu ulertzen? bai ba, denek e gehienetan, osasuna edukitzen zuenak, eta orduan
osasuna denek eduki genuen, ez dakit zer pasatzen zen, orain medikuagana zoaz eta denok
daukagu zer edo zer)*

garandu: garandu, urkuldu

garatu: garatu

garbittu, garbitu (l): garbitu

*"orrek e, in deu afarixe bai ta etzie be garbitu deu (l)", (horrek, egin du
afaria bai eta etxea ere garbitu du), "dxan baño lenau eskuek garbittu
ixus (bu)", (jan baino lehenago eskuak garbi itzazu)*

gastau: gastatu

gatzittu: gatzitu

geittu (bu), geitu (b, l): deitu

"ardidxe geittuten tzegu guk (b)", (ardia deitzen diogu guk), "geittu dotzet (bu)", (deitu diot), "ta ausokoari geittu lantzin bein txala, bedxe deku olan da ekarri ausokoa (bu)", (eta auzokoari deitu lantzean behin txahala, behia daukagu holan eta ekarri auzokoa)

geratu (bu): geratu

"gu emen geratu geinkitte (bu)", (gu hemen gera gintezke)

gobernau, goberneu: gobernatu, jagon

"un be arbolak estekos ondo goberneute onek se one pe dana esin deu in (b)", (orain ere arbolak ez dauzka ondo gobernatuta honek ze honek ere dena ezin du egin), "eitten geidxien bastante goixetik bederatzirek inguruen se biar andidxe emoten geidxen txarridxe gobernatiek len (bu) (egiten zuten nahiko goizetik bederatzia inguruan ze behar handia ematen zuen txerria gobernatzeak lehen)

gogaitu: gogaitu, abrozidu, aspertu

gogortu: gogortu

"txarra da, txarra da, ademas errapie be igual gogortuten dxako ta gogortuten dire (bu)", (txarra da, txarra da, gainera errapea ere igual gogortzen zaio eta gogortzen dira)

gorde: gorde

"aukiñ yot ogidxe gordeta (bu)", (eduki dut ogia gordeta)

gorritu (bu), gorritu (l): gorritu

"oin soloan eo nasenien da sera, berakatza jorran, begire eo nas oin ida ba pe iñor estoa ebaiten mendire, ida gustixek gorritute daus (l)", (orain soroan egon naizenean eta zera, berakatza jorran, begira egon naiz ira bat ere inor ez doa ebakitzen mendira, ira guztiak gorrituta dagoz)

granujau (b): granujatu

gustau, gusteu: gustatu

"ereinte ya, artoa kendu eta lasterrien iten san laixeu, laixakas, eskus, niri gusteta xaten (l)", (ereinda ja, artoa kendu eta laster egiten zen laiatu, laiakaz, eskuz, niri gustatzen zitzaidan), "umieri olgetan gusteu xakie (l)", (umeei olgatzea gustatzen zaie)

ibili, ibilli (bu): ibili

"semet eta gitxiau ibili txarrau da (l)", (zenbat eta gutxiago ibili txarragoa da), "ni gipuskoarrakas biarren ibil nes (bu)", (ni gipuzkoarrakaz beharrean ibili naiz)

idxon: igon

"idxon dot etzera (bu)", (igon dut etxera)

ierri(b): igarri

ifiñi: ipini

"eta emen ifiñi olan, arrixte, joteko eta jo kamaran, emen sabaldu berotuteko, berotuteko garixe denpora onaas, emen sabalduten gendusen eta kamaran jo. (l)", (eta hemen ipini honela, harria, jotzeko eta jo ganbaran , hemen zabaldu berotzeko, berotzeko garia eguraldi onagaz, hemen zabaltzen genituen eta ganbaran jo), "amak baskaridxe ifiñ yau eta gauk dxan du (bu)", (amak bazkaria ipini du eta guk jan dugu)

igerri, igirri (bu): igarri

"emen estau, emen gero kasarixek eta il, emetik, basaurderen bat nosipein entzuten da il deuriela or ganekogorta aldien edo, da gero basaurdie non dabillen igerri iten da, se badoa piñu artetik, basaurdie teko lume asko (l)", (hemen ez dago, hemen gero ehiztariak eta hil, hemendik basurderen bat noizean behin entzuten da hil dutela hor ganekogorta aldean edo, eta gero basurdea non dabilen igerri egiten da, ze badoa pinu artetik, basurdeak dauka ile asko), "igerri dotzut u selan emekoa saran (bu)", (igerri dizut zelan hemengoa zaren), "axien igerten dako ori e, emen atzaldien, atzaldie garbi, akabetan bada, ordun urrungo egunien jeneralmente denporie obie itten dau, bai se ori igerten da karo!, eguskidxe sartu orduen, andiko aldetik, normalmente andi etorten da euridxe ona beti, ta orregaitik eguski sartu eskero garbi, a garbi dau, señaile ona ixeten da (b)", (haizean igertzen zaio hori, hemen arratsaldean, arratsalde garbi, amaitzen bada, orduan hurrengo egunean gehienetan eguraldi hobea egiten du, bai ze hori igertzen da jakina!, eguzkia sartu orduan, handiko aldetik, gehienetan handik etortzen da euria hona beti, eta horregatik eguzki sartuz gero garbi, hura garbi dago, seinale ona izaten da), "ori esaten genuen urrien, igerri orduen eraten da, gurbosu nos ekarri txala, gurbosu itxon belutxuau agaittik edo orregaittik, itxoteko (bu)", (hori esaten genuen hurrean, igerri orduan eroaten da, gura baduzu noiz ekarri txahala, gura baduzu itxaron belutxoago haregatik edo horregatik, itxaroteko)

igertu: ihartu

igon: igon

"aikas barandakas igon gastañan ganera da jo ta gastañak jausi, ba kirikixoak, da gero burdixen ekarri (l)", (haiekaz barandakaz igon gaztainaren gainera eta jo eta gaztainak jausi, ba kirikioak, eta gero gurdian ekarri)

igualdu (b): berdindu

igurdi(b): igurtzi

igurtzi (bu): igurtzi

ikeratu: ikaratu

ikesi, ikisi: 1. ikasi. 2. irakatsi

"faten da berbas ikesten, eta bastante berba iten deu e? (I)", (joaten da berbaz ikasten, eta nahiko berba egiten du), "or gasterixe pe bai, neure nietatxuek euskera daki, ta nire semiek an ikis deu (I)", (hor gazteriak ere bai, neure lobatzoak euskara daki, eta nire semeak han ikasi du), "eta olan ikisi dosu ain fasil e? (bu)", (eta holan ikasi duzu han erraz e?), "fasille? gure daunak, gure daunak, se entzuten dot nik ortik, esi leidxela ikisi se gatxa dala, ta klaro gure daunak itten dau geidxau al dauna paño esta? (bu)", (erraza? gura duenak, gura duenak, ze entzuten dut nik hortik, ezin dezaketela ikasi ze gaitza dela, eta jakina gura duenak egiten du gehiago ahal duenak baino ezta?), "estotzie eser ikesten umieri, ser ikesiko dotzegu? (I)", (ez diete ezer irakasten umeei, zer irakatsiko diegu?)

ikusi: ikusi

"egun betzuten estot ikusi (I)", (egun batzutan ez dut ikusi), "etorri, ie ikusten baosu, ta gero aitteri esaten baotzesu, sure aittek berba asko esteu esautuko igual nirie, nik berie bai, nik berie bai (I)", (etorri, ea ikusten duzun, eta gero aitari esaten diozun, zure aitak berba asko ez du ezagutuko beharbada nirea, nik berea bai, nik berea bai)

ikutu: ikutu

"es ikutu ori (bu)", (ez ikutu hori)

il (b, l) ill (bu): hil

"ya il sien eurek eta in gixien etze, palasixoa a palasixoa da (I)", (ja hil ziren eurak eta egin zuten etxe, jauregia hura jauregia da), "orreik i, artxoak il deures (I)", (horiek, artxoak hil dituzte), "suri bedxe il in dxatzu? (bu)",

*(zuri behia hil egin zaizu?), "orrek ekar dittu olloak eta beren nebiek il
dittu (bu)", (horrek ekarri ditu oiloak eta beraren nebak hil ditu)*

illundu: ilundu

*"estau otzik esta?, denpora ona dau, baye illunduten doa (bu)", (ez dago
hotzik ezta?, eguraldi ona dago, baina iluntzen doa)*

imiñi: ipini

*"listoye imintte san baye danak es, or dabiltzes imintten ta listoi barik
imintten dabiltzes aik tallie (b)", (listoia ipintzen zen baina denek ez, hor
dabiltza ipintzen eta listoi barik ipintzen dabiltza haiek teila)*

in (l), iñ (bu): egin

*"gois gustidxe darot emen eser iñ barik (bu)", (goiz guztia daroat hemen
ezer egin barik)*

inbittadu: gonbidatu

inketu (bu), inkeu (l): inkatu, erantsi

*"bestiek txerpie badeukie aik inkeu, inkeu, inkeu, biar asko (l)", (besteek
txarpa badaukate haiek inkatu, inkatu, inkatu, behar asko)*

irebasi: irabazi

"ser ein dosue irebasi edo galdu? (l)", (zer egin duzue irabazi edo galdu?)

irekatzi (b): irakatsi

*"txikerra pere irekatzi eskero ingo deure (b)", (txikarrek ere irakatsiz gero
egingo dute)*

irikin: irakin

*"umieri, esne sopatxuek egosita, ondo irikinte asukrietxuegas (l)", (umeei,
esne, zopatxoak egosita, ondo irakinda azukeragaz), "esnie irikitten dau
(bu)", (esneak irakin dau)*

iruntzi (bu): irentsi

itilletu (bu): itailetu

ito (l), itto (b): ito

"seme bi salbeu siesan, ba errekatik, uger inte, baye ama sarra da ama ito in sen (I)", (seme bi salbatu ziren, ba errekatik, igeri eginda, baina ama zaharra eta ama ito egin zen)

itxi: 1. utzi. 2. itxi

"itxixu su bakien (b)", (utz ezazu zuk bakean), "es bierra asko, eta itxiten san geixao landa, beixentzat egoteko bedar sikue negureko (I)", (ez beharra asko, eta uzten zen gehiago landa, behientzat egoteko belar sikua negurako), "itxi deustie pasetan (bu)", (utzi didate pasatzen), "orreik koxi deure gauk itxikoa (bu)", (horiek hartu dute geuk utzikoa), "atie sarratute dau, sarratute ya giltzegas, ostien atie itxiri tau itxirik, ortxe arantza botata eser barik (bu)", (atea zarratuta dago, zarratuta ja giltzagaz, ostean atea itxirik dago itxirik, hortxe harantza botata ezer barik)

itxoin, itxon (b, bu), itxoron: itxaron

"bai, karamelon, etzalde onak, bai baye danak il dies, lau eon siesan, itxoixu, simona bat (I)", (bai, karamelon, etxalde onak, bai baina denak hil dira, lau egon ziren, itxaron ezazu, simona bat), "itxon dotzet (bu)", (itxaron diot), "itxon apur beten (bu)", (itxaron apur baten)

itxun (bu): etzan

itzutu (bu): itsutu

ixartu, ixertu (bu): itxartu

"gizona egon siestie botaten arbolapien eta subie alboan, eta bustena sartu belarriti, ori kontue ixengo da igual baye, eta muskerrak ixartu (b)", (gizona egon siesta egiten arbolapean eta sugea alboan, eta buztana sartu belarritik, hori kontua izango da beharbada baina, eta muskarrak itxartu), "gu lenau ixartu bageintzesan (bu)", (gu lehenago itxartu baginen)

ixeldu (bu): isildu

ixen: izan

"ori ixen san junio, julion. (I)", (hori izan zen bagila, garagarrrila)

ixerratu: izarratu

ixetu, ixitu: iziotu, biztu

"galtzu polla bat eta susixe ixetu, eta fate san solora da iten gixen subiek eta sapoak erre (l)", (galtzu txola bat eta zuzia iziotu, eta joaten zen sorora eta egiten zuen sugeak eta zapoak erre), "ori esate san len baten bat gaixori tauela ta, ollarrak kanteu eskero gaubien be bai, baye ollarrak kantetan deu argidxe egon eskero karo orduen, iñor gaixorik oneskero argidxe xitute siren, eta orduen itten deu ollarrak kanteu, klaro! (b)", (hori esaten zen lehen baten bat gaixorik dagoela eta, oilarrak joz gero gauean ere bai, baina oilarrak jotzen du argia egonez gero jakina orduan, inor gaixorik egonez gero argiak iziotzen ziren, eta orduan egiten du oilarrak jo, jakina)

ixi (b): itxi

ixin (bu): izan

jaboneu (l): xaboiztatu

"da gero, a jaboneu, ostera, orrixegas garbitu, da gero osterabe benga erropa tiñekuen sikuen, eta kaldara bete ur ifiñi osterabe berotuten da erropieri sera bota, autze, baye kaldarakada ure (l)", (eta gero, hura xabonatu, ostera, orriagaz garbitu, eta gero osterabe tira erropa tinakoan sikuan, eta galdara bete ur ipini osterabe berotzen eta erropari zera bota, hautsa, baina galdarakada ur)

jagi (l): jaiki

jaixo (l): jaio

"emen jaixoa da (l)", (hemen jaioa da)

jakin (l): jakin

"orrek jakingo deu ori obeto (l)", (horrek jakingo du hori hobeto)

jan (l): jan

"txarrikixe es, emen estu jaten (l)", (txarrikia ez, hemen ez dugu jaten)

jarri (l): jarri, jezarri

jausi (l): jausi

"es, es, urtiek atzera bai, baye gero labak bota sien, jausi (I)", (ez, ez, urteak atzera bai, baina gero labeak bota ziren, jausi)

jo (I): jo

"eta emen ifiñi olan, arrixte, joteko eta jo kamaran, emen sabaldu berotuteko, berotuteko garixe denpora onaas, emen sabalduten gendusen eta kamaran jo (I)", (eta hemen ipini honela, harria, jotzeko eta jo ganbaran, hemen zabaldu berotzeko, berotzeko garia eguraldi onagaz, hemen zabaltzen genituen eta ganbaran jo)

joan (I): joan

jorratu (I): jorratu

"berakastxu betzuk ego nas e jorratuten (I)", (berakastxo batzuk egon naiz jorratzen)

josi (I): josi

"alabiek josi gixosan baberuek (I)", (alabak josi zizkion baberoak)

jubilau (I), jubileu: jubilatatu

"serbeseran dau, egon san, jubilaute dau (I)", (garagardotegian dago, egon zen, jubilatuta dago), "martin de oneik e, bakixu ser, jubile sien ba denporie baño ariñau esta? eta ba fabrikiek pagetako onenbeste, eta gero itxi utzien pagetie (b)", (martin eta hauek, badakizu zer, jubilatatu ziren ba denbora baino arinago ezta? eta ba fabrikak ordaintzeko honenbeste, eta gero utzi zioten ordaintzea)

junteu (I): batu

kabidu (bu): kabitu

kanbidxau (bu), kanbixau (I): aldatu

"gurien asko kanbidxetan san dxana (bu)", (gurean asko aldatzen zen jana), "oin kanbixaute dau dana (I)", (orain aldatuta dago dena)

kantau: kantatu

"oin denpora gitxi kantau in deurie telebisiñoan, da beren osabie, nire lengusue, ba serien bixi da (I)", (orain denbora gutxi kantatu egin dute telebistan, eta beraren osaba nire lehengusua, ba zerean bizi da)

kantzau, kantzeu: nekatu

"nik estot eiñ, nik estot eiñ laidxakas baye ikuste san ixitte sala biar gogorra, etorten sien kantzaurik, se lelengo sartu laidxak olan, gero bueltie emon danak batera (bu)", (nik ez dut egin, nik ez dut egin laiakaz baina ikusten zen izaten zela behar gogorra, etortzen ziren nekatuak, ze lehenengo sartu laiak holan, gero buelta eman denek batera), "ni enas kantzau (I)", (ni ez naiz nekatu), "kantzaute nau bedarra ebaitten (bu)", (nekatuta nago belarra ebakitzen)

kapeu (I): iraindu, zikiratu

"ori kapoye, bakixu sertzu tiesan? ollar andixe kapeute, kapeute, da gero loditu, niri konejue be etxat asko gustetan (I)", (kapoi hori, badakizu zertzuk diren? oilar handia kapatuta, kapatuta, eta gero loditu, niri konejua ere ez zait gustatzen)

kargau (bu): zamatu

kejau (I): kexatu

"jentie kejau iten da (I)", (jendea kexatu egiten da)

kendu: kendu

"gaubes dxoan biar errotara se egunes koitten bagaidxesan ortik edo kendu itten dotzien urune ta dana (bu)", (gauez joan behar errotara ze egunez harrapatzen bazituzten hortik edo kendu egiten zieten irina eta dena), "gero iten gendun emen, gure portalien, ori kendu orduen ta gero ya asi siren an iten ta gero ya, ostantzien emen iten gendun ni gastie nitzen orduen (b)", (gero egiten genuen hemen gure atarian, hori kendu orduan eta gero ja hasi ziren han egiten eta gero ja, osterantzean hemen egiten

*genuen ni gaztea nintzen orduan), "orre teko billurre sein kendu (bu)",
(horrek dauka bildurra zein kendu)*

kikilyu: kikildu

kiskeldu: kizkaldu

*"erretan baxatzu seoser edo dana, ai kiskeldu de dana! (l)", (erretzen
bazaizu zerozer edo dena, ai kizkaldu da dena)*

kobrau, kobreu (l): kobratu

*"eta emen miserixa bat, eta pentzuek ekarten baotzues eurek iba, iba
kobreu, au ser da? (l)", (eta hemen miseria bat, eta pentsuak ekartzen
badizkizute eurek beza, beza kobratu, hau zer da?), "orreik kobretan
deure aun killoagaittik (bu)", (horiek kobratzen dute ehun kiloagatik)*

koji (l, b): koiu, hartu

kolokau (bu): ezarri

komenidu: komeni izan

kondenau: kondenatu

konfesau: aitortu

konformau: konformatu

konfundidu (bu): okertu

konpondu (bu, l): konpondu

*"aitte eskeidxen eran se aittek biar itten geidxen uretan bilbon da itxi
geidxien emen tuberidxak eta konponduteko (bu)", (aita ez zuten eroan
ze aidak behar egiten zuen uretan bilbon eta utzi zuten hemen hodiak eta
konpontzeko), "estait periodikuek ekarri euen e bolintxuko, ba presie
konpondu bear dala (l)", (ez dakit egunkariak ekarri zuen bolintxuko, ba
uharka konpondu behar dela)*

konserbau (bu), kontzerbau: kontserbatu

kontau (l): kontatu

"aittek sekule esan bes eser, baye ama pai, amak dana kontau (I)", (aitak sekula esan ere ez ezer, baina amak bai, amak dena kontatu), "ser kontaukotzu pa? (bu)", (zer kontatuko dizut ba)

kontestau, kontesteu (b): erantzun

"estustien kontestetan ta ensegida etorri sen argixe (I)", (ez zidaten erantzuten eta behingoan etorri zen argia)

konturetu: konturatu

"konturetu nes orrena (bu)", (konturatu naiz horrena)

kosi (bu): koiu, hartu

koskittu (bu): kauskitu

kostau (bu): kostatu

"gero bakixu gau pe danok dxakin bear genun obeto, gaure umie pe bai, eta es, kosta itten dxakie, eta ointxe apur bet itten dalakoan (bu)", (gero badakizu geuk ere denok jakin behar genuen hobeto, geure umeek ere bai, eta ez, kostatu egiten zaie, eta oraintxe apur bat egiten delako)

koxi, koxu (I), koyu(b): koiu, hartu

"orreik gause gustidxe koxikoas (bu)", (gauza guzti horiek hartuko ditut), "peñan tranbixe koxu te tranbixen sorroa, da aragiño (I)", (abusun tranbia hartu eta tranbian zorroa, eta haraino)

kurau (bu), kureu (I): 1. osatu. 2. kuratu

"alango ogi sati bet amorrutueskero, emoneskero a txakurre kureu (I)", (halako ogi zati bat amorratuz gero, eman ez gero txakur hura osatu), "da laguntasun andidxe ixitte san urte barruen, pernille pe laurek itten sien kurau (bu)", (eta laguntasun handia izaten zen urte barruan, urdaiazpikoak ere laurak kuratu)

kurtzeu (I): gurutatu

"errekaldetik kurtzeu te elejabarrin egon san almasena (I)", (errekaldetik pasatu eta elejabarrin egon zen biltegia)

labandu (bu): labandu, laban egin

labreu: landu

lagundu: lagundu

"se garixe ereite san da gari denporan be jentie etorte san lagunduten, da jana emoteko txorixoak edo pernile edo (I)", (ze garia ereiten zen eta gari denboran ere jendea etortzen zen laguntzen, eta jana emateko txorizoak edo urdaiazpikoa edo), "lagundu dotzet etzera (bu)", (lagundu diot etxera)

laidxatu, laixatu (I), laidxetu (bu), laixetu (I), laixeu (I), ladxatu: laiatu

"solokoa ixittesan gogorra, se len dana eskus da laidxetu itte san, laidxak esetuten dosus? laidxak? orduen ausunekoak batuten sien, ba bost edo sei edo, paretan sien danak illedan, laidxakas, estosu ikusi iños? (bu)", (sorokoa izaten zen gogorra, ze lehen dena eskuz eta laiatu egiten zen, laiak ezagutzen dituzu? laiak? orduan auzunekoak batzen ziren, ba bost edo sei edo, paratzen ziren denak iladan, laiakaz, ez duzu ikusi inoiz), "estot nik esautu ori, laixa pai, laixetu be in dot eta, da se posik e? (I)", (ez dut nik ezagutu hori, laiak bai, laiatu ere egin dut eta, eta ze pozik e?)

landu (b): landu

legidu (b), leidu: irakurri

"leidu ber dot ostabere aber bada (I)", (irakurri behar dut osterabere ea den)

leittu: lehitu

"ori leittute dau, guk kanpoan leidxe esaten tzu (bu)", (hori lehituta dago, guk kanpoan lehia esaten diogu)

lekuretu: lekuratu

lodittu (bu), loditu (I): loditu

"berdurie jaten dot es lodituteko (l)", (berdura jaten dut ez loditzeko), "ori lodittu iñ ye (bu)", (hori loditu egin da)

loittu: lohitu

lokartu: loak hartu

lokatu: lokatu

"lokatu eurek iten dire, bere sasoyen (l)", (lokatu eurak egiten dira, bere sasoian)

lotu: lotu, gelditu, geratu

"dana jan ber dosu espabe txikerra lotuko sara (l)", (dena jan behar duzu ezpabere txikar lotuko zara), "lenau sarrena lotze san etzien (b)", (lehenago zaharrena lotzen zen etxean), "ni etzien lotu neintzen baye orreik kanpora dxoan sien (bu)", (ni etxean lotu nintzen baina horiek kanpora joan ziren), "gitxitten lotuten da lo itten (bu)", (gutxitan lotzen da lo egiten)

lotzatu: lotsatu

"umiek lotza asko deko edo lotzatute dau (bu)", (umeak lotsa asko dauka edo lotsatuta dago)

lumetu (b, bu): lumatu

lusetu (l): luzatu

"emen deko belarritxuek arratoin langoak, baye deko korbatan antzeko surixe, da lantzin bein dau olan, da gure deuenien olan lusetuten da, lusetu iten da (l)", (hemen dauzka belarritxoak arratoiarenak lakoak, baina dauka gorbataren antzeko zuria, eta lantzean behin dago holan, eta gura duenean holan luzatzen da, luzatu egiten da)

makiñatu (l), makiñetu: makinatu

"lelengo itten da makiñetu (b)", (lehenengo egiten da makinatu)

makurtu: makurtu

mantxeu(b): lohitu, zikindu

mareu (l): zorabiatu

markau (bu): markatu

marrunteu (b): barruntatu, susmatu

"goixetik, bostetan edo seiretan edo, goixetik, sein otza sein bero egon, ba estun marruntan ordun otzik, ni otzakille enas ixen e, un be erropie apur jantzite edo olan bero apur bet badau bu! kendu in biar ensegida, bai enas otzakille (b)", (goizetik, bostetan edo seiretan edo, goizetik, zein hotza zein bero egon, ba ez genuen asmatzen orduan hotzik, ni hotzakila ez naiz izan, orain ere erropa apurra jantzita edo holan bero apur bat badago txut! kendu egin behar behingoan, bai ez naiz hotzakila)

martxau (l): joan

"afaldu barik martxau ein deure (l)", (afaldu barik joan egiten dira)

maspastu (l): mahaspastu

"ikusgarrisko selaixek dana matza, dana matza, parrak es altuek es, bajuek, eta an esei deure kosten garau bet berdie, itxiten deurie mordak siketu deitesan, maspasak in deitesan kanpoan, kanpoan, eurek, dausen lekuen ba, maspastu, eta aik ei daus dultziau asukerie baño (l)", (ikusgarrizko zelaiak dena mahatsa, dena mahatsa, parrak ez altuak ez, baxuak, eta han ez ei dute hartzen garau bat berdea, uzten dituzte mordak sika daitezen, mahaspasak egin daitezen, kanpoan, kanpoan, eurak, dagozen lekuan ba, mahaspastu, eta haiek ei dagoz gozoago azukerea baino)

mastikeu (b): mamurtu

mendatu (bu), mendau(b): mendatu

"ta anpullara olango erdi suri-gorridxe, suri gorridxe ori ixen san kerixa bat onau, gure aittek etzien eukitxun arbolak e, mendau itten txusen arbolak (b)", (eta anpullara holako erdi zuri gorria, zuri gorria hori izan zen gereiza bat ona, gure aitak etxean eduki zituen arbolak, mendatu egiten zituen arbolak)

meridxendau: merienda jan

metatu: metatu

mingortu (bu): mingortu, minberatu

mingostu: mingostu

mobidu (bu), mogidu: mugitu

moskortu: mozkortu

"periodikuen leidu dot, esin dot o ulertu ondo, eurek difuntuegaitik edo il deurenakaitik moskortute egon diela, orditute (I)", (egunkarian irakurri dut, ezin dut ulertu ondo, eurak hildakoengatik edo hil dutenengatik mozkortuta egon direla, ordituta)

mostu (bu): moztu, amoztu

moteldu: moteldu

mudeu (I): 1. erropak aldatu. 2. kolorea galdu

"eguskixek estixon emon mudeu esiteko (I)", (eguzkiak ez diezaion eman mudatu ezteko)

nastau, nasteu: nahastu

"kaballook ori itten deu eran, eran gaixoa, kortan badau kaballook edo astoa, ak nasteu itten deu sapalduten deuen lekuen an doa mikrobioa edo sera (b)", (zaldia hori egiten du eroan, eroan gaixoa, gortan badago zaldia edo astoa, hark nahastu egiten du zapaltzen duen lekuan han doa mikrobioa edo zera)

nastittu (bu), nastitu (I): nahastu

"urune bueno areri nastittu itten dakon gero (bu)", (irina beno hari nahastu egiten zitzaion gero), "kortan baus ondiño, laixa sarra, laixak, da gero ba, ariegas, laixie, ba laixatu, pasau, birriten edo pasau bear, da gero erein, da gero ostabe pasau, nastitu, nastitu, beixekas (I)", (gortan badagoz oraindino, laia zaharrak, laiak, eta gero ba, areagaz, laia, ba laiatu, pasatu, birritan edo pasatu behar, eta gero erein, eta gero ostabe pasatu, nahastu, nahastu, behiakaz)

naurtu: neurtu

ofresidu (bu): opetsi, opaldu, eskeini

okertu: okertu

olgau, olgeu (l): olgatu, jolastu

"umieri olgetan gusteu xakie (l)", (umeei olgatzea gustatu zaie)

ondata: hondatu

operau (l): ebakuntza egin

"ba, samatik operaute dau (l)", (ba samatik operatuta dago)

oratu: oratu

"da arek itten geixen ausune gustiko txarridxe, da etorten sien ba iru edo lau gixon gedxau, ademas oratuteko txarridxe (bu)", (eta hark egiten zituen auzune guztiko txerriak, eta etortzen ziren ba hiru edo lau gizon gehiago, gainera oratzeko txerriari)

orditu: orditu, guztiz mozkortu

orrastu: orraztu

osatu: osatu

ostendu (b), ostondu (bu, l): ostondu, izkutatu

"se ixin sien bastante onak, da areik itxi geidxesan, bueno ba ostondute an (bu)", (ze izan ziren nahikoa onak, eta haiek utzi zituzten, beno ba ostonduta han), "gero guk eskopetie ostondu, da pistolie guk etzien, da ostabe begituten badeure topeu, da guk jakin es eser (l)", (gero guk eskopeta ostondu, eta pistola guk etxean, eta ostabere begiratzen badute topatu, eta guk jakin ez ezer)

ostu: ostu, lapurretan egin

"oira dxoateko orduen etorte san argidxe kanpoan postietan orreik postietan, orreik ser andidxok, argi bet itzela ta etzien argirik es, baye ser itten gendun ostu itten gendun guk, kablie kanbidxau eta kanpoko argidxe, baye koxi oskun (b)", (ohera joateko orduan etortzen zen argia kanpoan posteetan horiek posteetan, horiek zer handiok, argi itzela eta

etxean argirik ez, baina zer egiten genuen ostu egiten genuen guk, kablea aldatu eta kanpoko argia, baina harrapatu gintuen)

otzittu (bu), otzitu (b): hotzitu, hoztu

"atie serratu dot seiñ etzie otzittu daitten (bu)", (atea itxi dut zein etxea hotzitu dadin)

pagau (l), pageu: pagatu, ordaindu

parau, pareu: paratu

"abimaridxe atzaldekoa tire, esta? bai egurdidxen be bai ixete san, eta soloan egonta be beleuniko pareute banau neu be, aititegas, beleuniko pareute egurdidxen (b)", (abemariak arratsaldekoak dira, ezta? bai eguerdian ere bai izaten zen, eta soroan egonda ere belauniko paratuta banago neu ere, aititagaz, belauniko paratuta eguerdian)

parkatu: barkatu

"parkatu belu etortearren (bu)", (barkatu belu etortzearren), "san roke eskiñun parkatuten, astoakas da jentie dxoatesan, koisten geidxien astoa eta sera, dxanak eta koisten geidxesan astoan, edo ume txikerrak, makiñe bat urtien dxoanas san rokerak, da gero bentabarrire, arrastidxen, san roke egunien, baskaldu te gero dxoaten geintzen bentabarrire, bentabarriñ erromeridxe andidxe itte san (bu)", (san roke ez genuen barkatzen, astoakaz eta jendea joaten zen, hartzen zuten astoa eta zera, janak eta hartzen zituzten astoan, edo ume txikarrak, makina bat urtean joan naiz san rokerak, eta gero bentabarrira, arrastegian, san roke egunean, bazkaldu eta gero joaten ginen bentabarrira, bentabarrin erromeria handia egiten zen)

pasau, paseu: pasatu

"guk sekule estu il txarri bet e, ba beterinarixotik paseu barik (l)", (guk sekula ez dugu hil txerri bat, ba albaiteronetik pasatu barik)

pegau: erantsi, itsatsi

pentzau, pentzeu(b): 1. pentsatu. 2. iruditu, eman

"san justo, bai baye erre in sen, da gero esan dotzuten abadiak pentzau geixen eitie (l)", (san justo, bai baina erre egin zen, eta gero esan dizudan abadeak pentsatu zuen egitea), "pentzau itten dot nik ori obeto ixengo dala (bu)", (pentsatu egiten dut nik hori hobeto izango dela), "lengunien esaten egon sien ona goraño datosela, poste batzuk imintten edo daus or eta, orraño datosela pentzeu deure (b)", (lehengo egunean esaten egon ziren hona goraino datozela, poste batzuk ipintzen edo dagoz hor eta, horraino datozela pentsatu dute), "pentzau lei auridxe dakarrela (bu)", (badirudi euria dakarrela)

pikau (bu), pikeu (l): pikatu

"baye pikeuaskero selango mingorra dan! pikeuaskero txarra tie gero (l)", (baina pikatuz gero zelako mingorra den! pikatuz gero txarrak dira gero)

pintxeu (l): pintxatu

"grilluek pintxeuaskero baretatxuegas urtein iten deure kanpora (l)", (txirri txirriek pintxatuz gero baretatxoagaz irten egiten dute kanpora)

plantau: 1. plantatu, paratu. 2. landatu

"suk aratxak plantauko seunkes (bu)", (zuk zuhaitzak landatuko zenituzke)

plegeu (l): tolestu

podau: inausi

"lenau il beran itte san baye podau gitxi itte san (bu)", (lehenago ilbeheran egiten zen baina inausi gutxi egiten zen)

postu (l): poztu

preguntau, pregunteu (b, l): itaundu

"preguntau deurie semiegaitik (l)", (itaundu dute semeaz), "nigaittik preguntau deure (bu)", (nitaz itaundu dute)

prentzau: prentsatu

preparau: prestatu

"igual bai olan a kareta, kartoisko kareta bat ifiñi edo, ango umiek edo olan, ostien preparau olan, es, umie pai olango kareta kartoisko bat edo trapu sarremateas in segoser baye preparau

oin jentie preparentan dan moduen es (bu)", (beharbada bai holan karatula, kartoizko karatula bat ipini edo, hango umeek edo holan, ostean prestatu holan, ez, umeak bai holako karatula kartoizko bat edo sorki zaharren bategaz egin zer edo zer baina prestatu orain jendea prestatzen den moduan ez), "nik i erosten dotan beixe ta fa nintzen preparau nintzen ta fa nintzen (I)", (nik erosten nuen behia eta joan nintzen prestatu nintzen eta joan nintzen)

presentau, presente (I): aurkeztu, agertu

"eta esaurien espadoa usabarik presentaten aik kaballoak il, jateko, asiloatara ta erateko, da an esala presente ba jitanurik (I)", (eta esan zuten ez badoa uzabarik aurkeztzen haiek zaldiak hil, jateko, asilora eta eroateko, eta han ez zela aurkeztu ba ijitorik), "ni bidien presentau nes (bu)", (ni bidean agertu naiz)

prestatu (I): 1. prestatu

"domu santue, da garixe ereiteko, ba erein orduen prestatu, lurrek prest ifiñi (I)", (domusantua, eta garia ereiteko, ba erein orduan prestatu lurrak prest ipini). 2. utzi, mailebatu

prijidu: prijidu

proibidu (bu): galarazo, debekatu

protestau: protestatu

sabaldu: zabaldu

"bueno ya sera asten da sabalduten errapie kargetan, eta ya igerri in dxako martxan dauela ya laster etorri bear dauela (bu)", (beno ja zera hasten da zabaltzen errapea kargatzen, eta ja igarri egin zaio martxan dagoela ja laster etorri behar duela), "metak beroagas, ondo meta andixek in, eta gero beroa etor sanien, berote gixen egune, ba sabaldu siketako ta berotuteko, eguskixetas, beroagas bai. (I)", (metak beroagaz, ondo meta handiak egin, eta beroa etorri zenean berotzen zuen egune, ba zabaldu sikatzeko eta berotzeko, eguzkiagaz, beroagaz bai)

sakatu: sakatu

"narrak lurre aplasteu iten deu, sakatu, sakatu (I)", (narrak lurra zapartu egiten du, sakatu, sakatu)

sakondu (I): sakondu

salbeu (I): salbatu

"seme bi salbeu siesan (I)", (seme bi salbatu ziren)

saldu: saldu

“suk saldu dosu orren etzie (b)”, (zuk saldu duzu horren etxea), “aitte ta ama ta umiek eta bai batzuk eskondute bestiek serien bai, bardin bixi siren familidxe eta normalak bigerren da, esnie be ekarten auren bilbora, se bedxe eta aukinye, esnie salduten bilbora (bu)”, (aita eta ama eta umeak eta bai batzuk ezkontuta besteak zerean bai, berdin bizi ziren familiak eta normalak beharrean eta, esnea ere ekartzen zuten bilbora, ze behiak eta edukita, esnea saltzen bilbora)

sapaldu: zapaldu

“alandase bildurregas, euskerie sapaldute egon san, oin doa gorantz, se politte da berba ite euskera, e? (l)”, (halandaze bildurragaz, euskara zapalduta egon zen, orain doa gorantz, ze polita da berba egitea euskaraz)

sarratu: zarratu, itxi

sartu: sartu

“sartuteko abarketakas egon baseintzen bere ango barruen sartuteko (bu)”, (sartzeko abarketakaz egon bazinen ere hango barruan sartzeko), “ori da andixe ta atetik esin da sartu (l)”, (hori da handia eta atetik ezin da sartu), “ori sartu dau itturiko urien (bu)”, (hori sartu da itturiko urean)

satittu (bu): zatitu

segidu: segitu

“gu olantxe konpondu gare oin arte, da emen olantxe ikesi oskun, da olantxe segitan du (l)”, (gu holantxe konpondu gara orain arte, eta hemen holantxe irakatsi ziguten, eta holantxe segitzen dugu), “nauri segidu daustie (bu)”, (niri segitu didate)

selebrau: ospatu

“san isidro selebretan geidxien budxan da a be selebretan giñun (bu)”, (san isidro ospatzen zuten bujan eta hura ere ospatzen genuen), “neure bodie berak selebrau te oin bera eskondu gure familixeko a! (l)”, (neure ezkontza berak ospatu eta orain bera ezkondu gure familiako a!)

sentidu: 1. sentitu, igarri, nabaritu. 2. behiei buruz esaten da txahala egiteko momentuan sentiduta dagozela, hots, behingoan edukiko dutela

“aittek sentidu in gixen (l)”, (aitak sentitu egin zuen), “beti ausokoari, etzien sauz? ba etor basenkittes se bedxe deku sentidute ta, etorten sien, etorten sien ausokoak (bu)”, (beti auzokoari, etxean zagoz? ba etorriko bazina ze behia daukagu sentiduta eta, etortzen ziren auzokoak)

separau (bu): banandu

serbidu (bu): zerbitu

serratu: zarratu

siketu: sikatu, lehortu

siñestu: sinestu

"ori estot siñestuten nik (l)", (hori ez dut sinesten nik), "ori de gatxa siñestuten (bu)", (hori da gaitza sinesteko)

soli (bu): zoli, heldu, umotu

soltau (l), solteu: soltatu, askatu

"sabaldu euskiten, ifiñi sabal sabalik joteko, baye garixe egon daitela beroagas soltau iteko fasil (l)", (zabaldu eguzkitan, ipini zabal zabalik jotzeko, baina garia egon dadila beroagaz soltatu egiteko erraz), "asurrek solteu eiten die (l)", (hezurrak soltatu egiten dira), "granbian, granbia etze lar barik ikusi dot nik eta etxat aistuten axe, soltau bedxek, neskato batek atara eusen soltau bedxek, ba granbian erdidxen igual, plasa elitika pasaute erdi ingeruen sagrado de jesus eldu baño lenau eta andik soltaute eta parke aldie ta eskiñetxuek dxaten (bu)", (gran vian, gran via etxe lar barik ikusi dut nik eta ez zait ahazten huraxe, soltatu behiak, neskato batek atera zituen soltatu behiak, ba gran viaren erdian beharbada, plaza eliptika pasatuta erdi inguruan jesusen bihotzera heldu baino lehenago eta handik soltatu eta parke aldea eta eskinatxoak jaten)

soratu (bu), sorotu(b): zoratu

sorrostu: zorroztu

sufridu: sufritu, jasan

sulotu (l): zulatu

surittu: 1. zuritu, azala kendu. 2. elurrak zuritu behea

suspendidu: suspenditu

sustau (bu): ikaratu

sutundu: zutundu

tapau (l), tapeu (l): tapatu

"osterabe berotuten da erropieri sera bota, autze, baye kaldarakada ure, tapeu ondo ondo, da urregoko egunien erropie garbitute (l)", (osterabe berotzen eta erropari zera bota, hautsa, baina galdarakada ur, tapatu ondo ondo, eta hurrengoko egunean erropa garbituta)

taponau: taponatu

tardau (bu): belutu, berandutu

tasau, taseu: tasatu

tiretu(b): tiratu

topau, topeu (l): topatu

"esnie be egote san eta ogidxe be topetasan aittek ekarten geidxen ogidxe (bu)", (esnea ere egoten zen eta ogia ere topatzen zen aitik ekartzen zuen ogia), "andratxu betek solora fan san, da topau ieuen arrastue berana (l)", (andretxo batek sorora joan zen eta topatu egin zuen zidurrua berarena), "estot iñon topeu (l)", (ez dut inon topatu)

tostau (bu): igertu

trabau (l): trabatu

"miñe asko trabau xat se emen danak iten dustie erdera (l)", (mihia asko trabatu zait ze hemen denek egiten didate erdaraz)

tragastu: tragaztu

"lengo itte san tragastu ero eratzi (bu)", (lehengo egiten zen tragaztu edo eratsi)

tragau, trageu: 1. piztiak hil

"beleno ifiñi arratoina ta jaten deure ta esteutzie eser be iten, da arratoik tragau iten dire (l)", (pozoina ipini arratoina eta jaten dute eta ez die ezer ere egiten, eta arratoiak tragatu egiten dira), "suri bedxe tragau i dxatzun (bu)", (zuri behia tragatu egin zitzaizun), "a lupue da ori? orrek beneno itzela deko ganadue trageu itten da orras (b)", (hura lupua da

*hori? horrek pozoin itzela dauka ganadua tragatu egiten da horregaz). 2.
irentsi*

txarrapau (bu): txerpaka egin

txikertu: txikartu

tximeldu (b): zimeldu

tximurtu (bu): tximurtu

txorkatu: txorkatu

txotxotu (l): txotxotu, txotxolotu

txupau, txupeu: mihazkatu

"il artxoak da txupeu odola (l)", (hil artxoak eta xurgatu odola)

ugertu (bu): ugertu

ukusi: ikusi

*"ta nik ukusi selan iten deun eta akabun a paño obeto ite nendun gero, neuk
(l)", (eta nik ikusi zelan egiten duen eta amaieran hark baino hobeto
egiten nuen gero, neuk), "eskue ukusten datzu (bu)", (eskua ikusten zaizu)*

ukutu: ikutu

*"es, es, nik i barikuen erein dot porrue, espadeu euririk ein, oin ereingot, ya
orreri ya trankilo, ukuturi pes (l)", (ez, ez, nik barikuan erein dut porrua,
ez badu euririk egin, orain ereingo dut, ja horri trankil, ikuturik ere ez)*

ulertu (l): ulertu

*"ulertu dana iten deu baye esin in berba (l)", (ulertu dena egiten du baina
ezin egin berba), "astiro astiro berba iñeskero gedxenakas ulertuten gare
gero (bu)", (astiro-astiro berba eginez gero gehienakaz ulertzen gara
gero)*

ullundu (b): ilundu

unteu: untatu, gantzutu

untzun (b): entzun

"estot untzun gaixori taula (b)", (ez dut entzun gaixorik dagoela)

urdinyu (bu): urdindu

urketu (bu): urkatu

urkittu (bu): aurkitu

urrutu (l): urratu

"es bustixen es sikuen, tenplie, siku sikuen be urrututen bosu lurre, an estosu eser kosten (l)", (ez bustian ez sikuan, tenplea, siku sikuan ere urratzen baduzu lurra, han ez duzu ezer hartzen)

urtein, urteiñ, urten: irten

"etzetik urtein dot da txakurrek ainke in dust (l)", (etxetik irten dut eta txakurrak haginka egin dit), "urteiñ orduen atie itxi (bu)", (irten orduan atea itxi), "nik esniegas saspiretan urteitteneun etzetik, saspirek lauren gitxiautan edo (bu)", (nik esneagaz zazpietan irteten nuen etxetik, zazpiak lauren gutxiagotan edo)

urtu (bu): urtu

usatu: erabili, usatu

usau, useu: erabili, usatu

"euspoa, oneik arotzeridxen, oiñ es, baye orreik arotzeridxetan asko usetan dire, makiñen eutze kenduteko (b)", (hauspoa, hauek arotzerian, orain ez, baina horiek arotzerietan asko erabiltzen dira, makinen hautsa kentzeko)

usegi, usigi: haginka egin

usteldu: usteldu

"bueno lenengos matzak egon bear dau sano osea estittela usteldurik edo olan egon, ondo solirik (bu)", (beno lehenengoz mahatsak egon behar du sano, hau da ez dadila usteldurik edo holan egon, ondo zolirik), "guk kortan deku burdixe usteltan (l)", (guk kortan daukagu burdia usteltzen)

utzitu (l), utzittu: hustu, hutsitu

3.2. IZANDUN ADITZAK

al ixen: ahal izan

"gaur goixien egon al ixen dot beragas (bu)", (gaur goizean egon ahal izan dut berarekin), "bidxer etorri al ixengot (bu)", (bihar etorri ahal izango

dut), "atzo al ixen neun ekarri dxatekoa (bu)", (atzo ahal izan nuen ekarri jatekoa), "amak al ixen geidxen sartu elixan (bu)", (amak ahal izan zuen sartu elizan), "nik al dot sagarra erosi (bu)", (nik ahal dut sagarra erosi), "umiek etorri al ixen dxeuren (bu)", (umiek etorri ahal izan zuten), "al dot ein ori biarrori (b)", (ahal dut egin behar hori), "orreri al dotzet amon dirue (b)", (horri ahal diot eman dirua), "suk etzera sartu al dosu (b)", (zuk etxera sartu ahal duzu)

ardure ixen: ardura izan

"suri ser ardura dotzu? (bu)", (zuri zer ardura dizu?)

ayuntamientus ixen: udalez izan

balidxo ixen (b), balidxo ixin (bu), balixo ixen (l): balio izan

"semet balixo deure kilo bat madarixek? (l)", (zenbat balio dute kilo bat madarik?)

bat ixen: bat izan

bear ixen, biar ixen (l), biar ixin (bu): behar izan

"etzera dxoan biot (b)", (etxera joan behar dut), "bidxer dxoan biakot basora (b)", (bihar joan beharko dut basora), "gaur goixien dxoan bear ixen dot etzera (bu)", (gaur goizean joan behar izan dut etxera), "ori ixen bear da emekoa (bu)", (hori izan behar da hemengoa), "emen egon bear dau (bu)", (hemen egon behar du), "dxoan bear ixeten dot ariñ (bu)", (joan behar izaten dut arin)

bixi ixen, bixi ixin (bu): bizi izan

"a giña, etzegiña, etze andi bet, giña, baye an bixi sien, bi iru, ango etzien egon sien ate bi, labrantzie a dana san, dana labrantzie (l)", (hura giña, etzegiña, etxe handi bat, giña, baina han bizi ziren, bi hiru, hango etxean egon ziren ate bi, labrantza hura dena zen, dena labrantza), "ori esta bixi ixen emen (bu)", (hori ez da bizi izan hemen)

elixas ixen: elizaz izan

esin ixen (l), esiñ ixen (bu): ezin izan

"esineintike dxoan etzera (bu)", (ezin ninteki joan etxera), "bidxer esineintike etorri (bu)", (bihar ezin ninteki etor), "goixien esin etorri ixen nas (bu)", (goizean ezin etorri izan naiz), "ori esileittike ixen andidxaoa (bu)", (hori ezin liteke izan handiagoa), "esin dot dxan gedxao (bu)", (ezin dut jan gehiago), "esin dxoan ixete sela (bu)", (ezin joan izaten zela), "esin dosu dxoan basora (b)", (ezin duzu joan basora), "esin dot etzera dxoan (b)", (ezin dut etxera joan), "esileite esebere ein (b)", (ezin liteke ezer ere egin), "esin ixen dot etorri ariñao (b)", (ezin izan dut etorri arinago), "bidxer esingot etorri (b)", (bihar ezingo dut etorri)

gurau ixen: gurago izan

"gurau dot bidxer etorri (bu)", (gurago dut bihar etorri)

gure ixen (l), gurixin, guixen (b, l), guixin (bu): gura izan

"orrek eskondu gure deu (b)", (horrek ezkondu gura du), "bidxer gure ixengo dau etorri (bu)", (bihar gura izango du etorri), "bidxer etorri gureko deu (b)", (bihar etorri gurako du), "aitek gure ixen dau etorri (bu)", (aitak gura izan du etorri), "gaur goixien estau gure ixiñ etorri (bu)", (gaur goizean ez du gura izan etorri)

parrokidxes ixen: parrokiaz izan

3.3. EGINDUN ADITZAK

ainke in (l): haginka egin

"etzetik urtein dot da txakurrek ainke in dust (l)", (etxetik irten dut eta txakurrak haginka egin dit)

alde in (l): alde egin

"bai, baye gero gasterixek alde ineurien da, eskondute bilbora ta (l)", (bai baina gero gazteriak alde egin zuen eta, ezkonduta bilbora eta)

alegiñe in (b): ahalegina egin

anka eiñ (bu): hanka egin

artadxorran eiñ: arta jorran egin

aspelak ein: azpelak egin

ausi iñ: ahausi egin

ausiki in (I): haginka egin

"baye berari ausiki iteko ganie eukin gixen (I)", (baina berari haginka egiteko gogoa eduki zuen)

barre iñ: barre egin

"sano txarto iñ yu, makiñe bat barre ingosu (bu)", (sano txarto egin dugu, makina bat barre egingo duzu), "barre in yaure? (bu)", (barre egin dute)

begiskoa iñ: begizkoa egin

berba ein (I), berba eiñ (bu), berba in (b, I), berba iñ: berba egin

"emen etzien, au emeko semie, errita etzien dauena da emekoa, baye orreik gitxi berba iten deure, emen euskera, santa, donato, errita eta eugeni, baye orreik gitxi berba iten deure, emen geixenak guk (I)", (hemen etxean, hau hemengo semea, errita etxean dagoena da hemengoa, baina horiek gutxi berba egiten dute, hemen euskaraz, santa, donato, errita eta eugeni, baina horiek gutxi berba egiten dute, hemen gehienak guk), "orreik estaure berba ingo es suges es niges (bu)", (horiek ez dute berba egingo ez zugaz ez nigaz)

bero eiñ: bero egin

biar ein (I), bier iñ: behar egin

"ai se beroa! esilei biarrik ein (I)", (ai ze beroa! ezin liteke beharrik egin), "guk neba bi eukin giñusen da aitte da bier itten geidxien kanpoan (bu)", (guk neba bi eduki genituen eta aita eta behar egiten zuten kanpoan)

biger iñ: behar egin

"biger in yosu ala? (bu)", (behar egin duzu ala?)

dantzan in (I), dxantzan eiñ: dantzan egin

"ori emen gedxen itteuna, txelu, orrek itteuren, lau edo bost edo, dindirrin itteuen dxantzan (b)", (hori hemen gehien egiten zuena, txelu, horiek egiten zuten, lau edo bost edo, dindirrin egiten zuen dantzan)

dxamon iñ: jaramon egin

"kaltzairue baye, ba tejabanak eta ote sireles dxamoni pe esotzien itten (b)", (galtzairua baina, ba tejabanak eta egoten zirenez jaramonik ere ez zioten egiten)

gedar iñ: errietan egin

jaramon ein (l): jaramon egin

"ama difuntiek esate uskun eseixosu jaramonik ein es esan bapes esebes (l)", (ama zenak esaten zigun ez iezaiozu jaramonik egin ez esan batere ez ezer ere ez)

kalte iñ: kalte egin

karra in: karra egin, korrika egin

"esin gixien karra in ta esin itxi moduen karra in ba! (l)", (ezin zuten karra egin eta ezin utzi moduan karra egin ba!)

kristelak eiñ: kristalak egin, ur potxingoetan ura izoztea

laidxetan eiñ: laietan egin

lo iñ: lo egin

"aittu, orrek kafie artu dau bai? ta estau lorik eiñ (bu)", (aditu, horrek kafea hartu du bai? eta ez du lorik egin)

negar iñ, negar ein, negar eiñ: negar egin

"umiek negar iñ yau (bu)", (umeak negar egin du)

putzein, putzin (l): putz egin

"da mistotxuegas emon sue ta ala, euspoa putziteko, tenesa pe bai kosteko ilintixek (l)", (eta mistotxoagaz eman sua eta tira, hauspoa putz egiteko, tenazak ere hartzeko ilentziak)

satz iñ (bu), sintz eiñ (bu): zintz egin

sopak eiñ: zopak egin

sue in (I): sua egin

txala in (I): txahala egin

uger in (I): igeri egin

"seme bi salbeu siesan, ba errekatik, uger inte, baye ama sarra da ama ito in sen (I)", (seme bi salbatu ziren, ba errekatik, igeri eginda, baina ama zaharra eta ama ito egin zen)

umak in (I): kumeak egin

"apoa, baus serak, txarri umak itekoak makerie eta apoa (I)", (apoa, badagoz zerak, txerrikumak egitekoak makera eta apoa)

usegi in (b), usigi ein (I): haginka egin

3.4. GAINERA KOAK

agiñek bardinyu: aginak berdindu, ganadua heltzarora heldu

akorduen euki: gogotan eduki

"bai kanpora martxo bai badakitt nos ixeten dan, bai estait paseu bada igual paseu de, estekot akorduen (bu)", (bai kanpora martxo bai badakit noiz izaten den, bai ez dakit pasatu den beharbada pasatu da, ez daukat gogoan), "orduen igual gitxi, estekot akorduen, oiñ itten da geitxuau baye gitxi a ta gusti bere (bu)", (orduan igual gutxi, ez daukat gogotan, orain egiten da gehitxoagu baina gutxi hala eta guztiz ere), "estekosu akorduen suk u, ba fuente la salu? (I)", (ez daukazu gogotan zuk, ba fuente de la salud?)

antoju emon (I): antojua eman, higuina eman

ardure emon: ardura eman

ardure euki (b): ardura eduki

argi-argi egon: argi-argi egon

autzek atara (bu): hautsak atera

bedxek batu (bu): behiak eratsi

beidxe galdu: behia galdu, hil

buelta emon (I), bueltie emon (I): buelta eman

"illadan, illadatan, igual irukoak, iru, lau, bi pobrie da, bi es, bat txarrau, tristiau, ta bueltie emon (I)", (iladan, iladatan, igual hirukoak, hiru, lau, bi pobrea da, bi ez, bat txarrago, tristeago, eta buelta eman)

dantzan ibili: dantzan ibili

daridxola egon: dariola egon

egune sabaldu: eguna zabaldu

"bai bier itteko gogorrak, bai mokillek dxoteko! egune sabalduten sanien be mokillek dxoten (bu)", (bai behar egiteko gogorrak, bai mokilak jotzeko! eguna zabaltzen zenean ere mokilak jotzen)

eske egon (bu): eske egon

eske ibilli: eske ibili

eskien dxoan: eskean joan

falta aukin (bu): falta eduki

frakak soltau (bu): kaka egin

galgie emon: galga eman

ganadue batu: behiak eratsi

gari jo (I), garidxe dxo (bu), gari dxo: gari jo

gatza artu: gatza hartu

gatza emon: gatza eman

"okelie gatza emon da tiñekuen gatzagas (I)", (okela gatza eman eta tinakoan gatzagaz)

gogoan aukiñ: gogotan eduki

gorridxek pasau (bu): gorriak pasatu

gosiek il (I): goseak hil

konforme egon (bu): ados egon, bat etorri

kontu euki: kontu eduki

kontuen dxausi (bu) kontuen jausi (I): konturatu

"artxoa teko famie, bai bestie da gosua, da jente asko, ba jausi da kontuen fiñau dala aunskumie (I)", (artxoak dauka ospea, baina bestea da gozoagoa, eta jende asko, ba konturatu da finagoa dela ahunzkumea)

lokartu (bu): loak hartu

lurre arrotu: lurra harrotu

memorixen euki: gogotan eduki

"selan dekosun a memorixen eloin dana dau ba beste modu betera (l)", (zelan daukazu gogotan e! orain dena dago ba beste modu batera), "orixe dekot memoridxen (bu)", (horixe daukat gogotan)

mokillek dxo: mokilak jo

mokoak atara(b): mukiak atera

mosu emon: mosua eman

ondo esan (bu): ondo esan

pena emon (l): pena eman

"ari estotze iñok gure ta, niri pena emoten dust gixajoak, penie, esendun ikusi? (l)", (hari ez dio inork gura eta, niri pena ematen dit, gixajoak, pena, ez zenuen ikusi?)

preso kosi (bu): preso hartu

prest egon: prest egon

seloak artu (l): zeloak hartu

sentidute egon (bu): behia txala egiteko unean egon

soñu dxo: soinua jo

sue artu: sua hartu

tellie bota: teila bota

tresnak garbittu (bu): tresnak garbitu, harrikoa egin

txitek atara, txittak atara (bu): txitak atera

ugerra koxu: ugerra hartu, ugertu

umie libretako egon (bu): umea egiteko egon

4. HOTS BERBAK

bausta: kolpearen hotsa

"an igorretako subidxen bat koxi akun aurreti andi onantzakoan durangon sartueran, bausta! (b)", (han iurretako zubian bat hartu gintuzten aurretik handik honantzakoan durangon sartukeran, bausta!)

dan: ziztadaren hotsa

fri-fri: oilo gaixoen zarata

plin-plon: mokilak jotzeko zarata

rapa-ropa: arin ibili

tas-tas: jo

torro-torro (bu): abaiada adierazteko hotsa

traka: ebagiaren hotsa

traka-traka: traka-traka

trotollo-motrollo: berba txarto egiten dela adierazteko

txaka-txaka (bu): txaka-txaka, arin

txarka-txarka: txarka-txarka

5. ESKLAMAZIOAK

ara: hara

"ba ara! ointxe aistu baño lenau esatenoa gause bat, se aistu ingo dat, saure amak selango billurre dekoidxe beidxeri, ara! emetik etorten danien da, baye billurre e! txarto pasetan dau (bu)", (ba hara! oraintxe ahaztu baino lehenago esatera noa gauza bat, ze ahaztu egingo zait, zeure amak zelako bildurra daukakien behiei, ara! hemendik etortzen denean eta, baina bildurra e, txarto pasatzen du)

ene: ene

"eta esausten ene txarto dau milagritos txarto esausten entierru egunien (l)", (eta esan zidan ene txarto dago milagritos txarto ezan zidan hileta egunean)

ene mutillek: ene mutilak

"bai ene mutillek! asko larraskittue", (bai ene mutilak" asko larraskitu)

eskerrak: eskerrak

"eskerrak etor dela! (bu)", (eskerrak etorri dena)

fijo (bu): ziur

grasidzek (b): eskerrak

ixo!: txoriak uxatzeko erabiltzen da

ka (l): bai zera

keba (bu): bai zera

klaro: jakina

"klaro ekar dauela! (bu)", (jakina ekarri duena)

kontus: kontuz

lastimie: tamala

majo: ederto

ojala (l): uxela

"ojala etorri deitesela orreik! (l)", (etorriko ahal dira horiek)

seguru: ziur

*"ugerleku, sorginsulo ta ugerleku oiñ an dau seguru, ugerleku an dau seguru
ondiño (b)", (ugerleku, sorginzulo eta ugerleku orain handago ziur,
ugerleku han dago ziur ondino)*

senteille (b): zentaila

sikeras: sikan

*"peñeti aragiño ixinaskero dxoaten siren sikeras sortzi, lau tanda baten beste lau beste tanda
baten da olan (bu)", (abusutik haraino izanez gero joaten ziren sikan zortzi, lau txanda baten
beste lau beste txanda baten eta holan)*

siur: ziur

"siur etor de (bu)", (ziur etorri da)

tire (bu): tira, aurrera egiteko erabiltzen da

uxela: uxela

6. POSPOSIZIOAK

aldien: 1. (-ren) aldean. 2. aldean

*"berak, a nire aldien berba diferentie takix asko, obeto koxitte edo gixonkeridzek edo (bu)",
(berak, hura nire aldean berba desberdinak dakizki asko, hobeto hartuta edo gizonkeriak edo),
"suin euskarie gure aldien angoa serratue da (l)", (zuen euskara gure aldean hangoa zerratua
da), "da egon san alargun lau semegas da bosgarrena aldien (bu)", (eta egon zen alargun lau*

semegaz eta bostgarrena aldean), "nik dirue ganien darot, boltzan darot, aldien darot (bu)", (nik dirua gainea daroat, boltsan daroat, aldean daroat)

antza: antza

"orrek aiten antza deko (b)", (horrek aitaren antza dauka), "orrek sure antza deko (bu)", (horrek zure antza dauka), "etxurie deko auridxe dakarrela, edo auri antza deko (bu)", (itxura dauka euria dakarrela, edo euri antza dauka)

antzekoa: antzerakoa

"ori de sure antzekoa (bu, b)", (hori da zure antzekoa), "ori de aistien antzekoa (bu)", (hori da ahizparen antzekoa), "ori de nire arrebien antzekoa (b)", (hori da nire arrebaren antzekoa), "ori de sugien antzekoa (bu)", (hori da sugearen antzekoa), "ori edosein lekuten arratoian antzekoa da ta (l)", (hori edozein lekutan arratoiaren antzekoa da eta), "tragasa da onen antzekoa palu betegas (l)", (tragaza da honen antzekoa makil batekin), "au tragasan antzekoa da (l)", (hau tragazaren antzekoa da), "gurie da bisikletan antzekoa (l)", (gure da bizikletaren antzekoa)

arte (l): arte

"bixar arte egongo nas (l)", (bihar arte egongo naiz), "bidzar arte eongo da emen (bu)", (bihar arte egongo da hemen)

artien: 1. artean. 2. arte

"umien artien andidxena da hau (bu)", (umeen artean handiena da hau), "andran artien gastiena esta etorri (bu, b)", (andren artean gazteena ez da etorri), "danen artien gastiena esta etorri (l)", (denen artean gazteena ez da etorri), "egon gara irurek artien (bu)", (egon gara hirurak artean), "bostetartien berba in yeure (bu)", (bostak artean berba egin dute)

artiño (b): arte

barik: barik

"grillue barik sugiek urtekin (l)", (txirri txirria barik sugeak irten), "kartolak ifiñi barik paluek emetik (l)", (kartolak ipini barik makilak hemendik)

baño: baino

"estoas ekarri bi baño (bu, b)", (ez ditut ekarri bi baino), "an bat baño estekot (l)", (han bat baino ez daukat), "etzien estau ama baño (bu, b)", (etxean ez dago ama baino), "iru baño eskare (l)", (hiru baino ez gara), "jentiek gosie baño eskixen euki emen (l)", (jendeak gosea baino ez zuen eduki hemen), "ori esta berdie asule baño (b)", (hori ez da berdea azula baino), "iñusentekeridxe esan baño obeto ixillik (bu)", (inuzentekeriak esan baino hobeto ixilik), "ni baten baño enas egon (l)", (ni baten baino ez naiz egon), "nik estot esetu iru madari baño emen (l)", (nik ez dut ezagutu hiru madari baino hemen), "patatie esta forratu biar baten baño (l)", (patata ez da jorratu behar baten baino), "saspi mille peseta baño estekies (l)", (zazpi mila pezeta baino ez dauzkate)

barru: barru

"illebete barru dxoango dire (bu)", (hilabete barru joango dira), "iru egun barru etorriko dire (l)", (hiru egun barru etorriko dira), "urten dot diru barik (b)", (irten dut diru barik), "diru barik dxoan dires (bu)", (diru barik joan dira), "diru barik fan nas (l)", (diru barik joan naiz)

begire: begira, zain

beste: beste

"sauk dekosu nau peste diru (bu)", (zek daukazu neuk beste diru), "onek dxan dau nire anajie peste (bu)", (honek jan du nire anaiak beste), "ekar dot su peste sagar (b)", (ekarri dut zuk beste sagar), "suk edaten dosu ni peste (b)", (zuk edaten duzu nik beste)

besteko: besteko

"su nire besteko gastie sara (bu)", (zu nire besteko gaztea zara), "aman besteko sarra da (bu)", (amaren besteko zaharra da), "su orren besteko andidxe sara (bu)", (zu horren besteko handia zara), "ori de surie besteko

ona (bu)", (hori da zurea besteko ona), "su nire besteko andidxe sara (bu)", (zu nire besteko handia zara)

bille: bila

"dxoan dire aitten bille (bu)", (joan dira aitaren bila)

eske: eske

*"faten gintzesan alfalfa asixe eske (l)", (joaten ginen alfalfa hazia eske),
"dxoan dire ogidxe eske (b)", (joan dira ogia eske), "sure eske etorri dire (bu)", (zure eske etorri dira)*

eskerrak: esker

"koxi gendun trena eskerrak anajieri (bu)", (hartu genuen trena eskerrak anaiari)

ganera: gain

"orren ganera bere eran geinki dxatekoa (bu)", (horren gainera ere eroan genezake jatekoa)

ganien: gainean

"berba in yu orren ganien (bu)", (berba egin dugu horren gainean), "len asko berba eitten san orren ganien (bu)", (lehen asko berba egiten zen horren gainean)

grasidhek: esker

"koxi gendun trena grasidhek beran nebieri (b)", (hartu genuen trena eskerrak anaiari), "kontuen dxausi geintzesan grasidhek amari (bu)", (konturatu ginen eskerrak amari)

ixen esik: izan ezik

"danak etorri die a ixen esik (b)", (denak etorri dira hura izan ezik), "danak dxoan sien anajie ixen esik (bu)", (denak joan ziren anaia izan ezik), "bat ixen esik danak il die (l)", (bat izan ezik denak hil dira)

kontra: kontra

"orreik daus nire kontra (bu)", (horiek dagoz nire kontra), "orreik daus sure kontra (b)", (horiek dagoz zure kontra), "koji gixen bilboko erreken kontra (l)", (hartu zuen bilboko erreken kontra), "atxan kontra etzetxuek einte (l)", (haitzen kontra etxetxuak eginda), "iturrixen kontra etze bat dau (l)", (iturriaren kontra etxe bat dago)

konture: kontura

"orreik bixi dire aman konture (bu)", (horiek bizi dira amaren kontura)

langoa: langoa, bezalakoa

"ori etzie da elixe lango sarra (b)", (etxe hori da eliza lako zaharra), "ni nas su langoa (b)", (ni naiz zu lakoa), "ori de aitte langoa (b)", (hori aita lakoa da), "ori de nire arrebie langoa (b)", (hori da nire arreba lakoa), "au etziau da sarra ermitie langoa (l)", (hau etxeau da zaharra ermita lakoa), "estau eguski naturala langorik (l)", (ez dago eguzki naturala lakorik), "esta emen inguru gustixen erriberako plasa langorik (l)", (ez da hemen inguru guztian erriberako plaza lakorik), "mallukixe da sasixe langoa (l)", (mailubia da sasia lakoa), "sugelindie langoa baye bellegixe (l)", (sugelandara lakoa baina beilegia), "ori txakurre langoa da (l)", (hori txakurra lakoa da)

leges: legez

"neure leges dau erreumakas (l)", (neure legez dago unorekin)

moduen: moduan

"in dot biarra sure moduen (b)", (egin dut beharra zure moduan), "au in dot orren moduen (b)", (hau egin dut horren moduan), "orrek gastetan deu aberatzen moduen (b)", (horrek gastatzen du aberatsen moduan), "manuelak dxakingo dau nire moduen (bu)", (manuelak jakingo du nire moduan), "orrek jan deu nebien moduen (l)", (horrek jan du nebaren moduan)

moduko: moduko

"au de sure moduko ona (b)", (hau da zure moduko ona), "ni sure moduko gastie nas (b)", (ni zure moduko gaztea naiz), "ori enbrie da neure moduko gastie (l)", (andre hori da neure moduko gaztea), "satorra arratoyen moduko txarra da (l)", (satorra arratoiaren moduko txarra da)

ordes: orde

"lengosuen ordes etor de anajie (bu)", (lehengusuaren orde etorri da anaia)

osteixen: ostean

"gerra osteixen, bai gerra osteixen, da aittegiñarreba bi edo iru bider fan da iyurrera (l)", (gerra ostean, bai gerra ostean, eta aitaginarreba bi edo hiru bider joan da igorrera)

7. ERATORRIAK

Atal honetan batu ditugun berba eratorriak aurkezten ditugu. Hemengoak atzizki emankorren bidez sortukoak baino ez dira; beharrian zehar beste eratorri batzuk aurki daitezke, baina, gure eritziz, ihartuko atzizkien bidez sortukoak izan dira. Aurkezpena errazteko, izen eratorriak, adjetibo eratorriak eta aditzondo eratorriak banan ikusiko ditugu.

7.1. IZEN ERATORRIAK

-erue:

1. Jarduera adierazteko: kamiñerue, karreterue, panaderue, karniserue, letxerue, sesterue, karpintterue, listerue, telerue

2. Lekua, tresna adierazteko: erroperue, kandelerue, labaderue

-erie: letxerie, panaderie

-orie: erradorie, pastorie, tasadorie

-ari: kasarixe (l), pelotaridxe, errementaridxe, errotaridxe, errotarixe (l)

-adie: aginkadie, surrutadie, karruskadie, txokolatadie, bidxorkadie, burukadie, dardakadie, ukundukadie, kaldarakadie, saparradie, tangadie (bu), umedadie (bu)

-tasun: argitxasune, siñestasune, garbitasune, larritxasune, gastetasune, osasune

-eri: gasteridxe

-eria: karniseridxe (bu), panaderidxe, panaderidxe (bu), pasteleridxe (bu), fruteridxe

-ti: mastidxe, piñudidxe (bu)

-aldi: atzenaldidxe, berbaldidxe, denporaldidxe(b), matrakalidxe (bu)

-kille: dxoskille

-tegia: lastategidxe, ausotegixe

-dun: egurdune (bu), jostune (l)

-kune: begikunie

-kera: urteidxerie, asikerie (bu), argittukerie(b)

-tza: illuntzie (b, bu.), edurtzie (l)

-pe: ankapie, araspie, arbolapie, arkupie, arripie, aterpie, besapie, erropie, madaripie, mantelpie, sagarpie, subipie (bu), surpie, triepie

-iñoa: tentziñoa, misiñoa, prosesiñoa, inundasiñoa (bu), estasiñoa, kontaminasiñoa

-ki: sadxeskidxe, saiskidxe, txarrikidxe, txarrikixe, giñarrakixe (l)

7.2. ADJEKTIBO ERATORRIAK

-bako: aittebako (b), amabako (b), lotzabako (l), gasbakoa, ulebakoa

-ar/-star: baserritarra (b), bermiotarra, gipuskoarra, kanpostarra, bilbotarra

-sko: arriskoa, burriñeskoa, egureskoa, firuskoa, gomaskoa, ikusgarrisko (l), kartoiskoa, muelleskoa, narruskoa, olesko (l)

-garri: baragarri (b), barregarri (l), ikusgarrisko (l), negargarridxe (bu)

-dun: ankadun (l), auskeldun, bixardune (l), dirudun (bu), erdeldun (l), esnedune (bu), euskeldun, gasdune (bu), korrientedune, lutudun (bu)

-tzu: berbatzue, dirutzue (bu), esnatzue (bu), esnetzu (l), inyartzue (bu), ixertzue (b), lañotzue (bu), lumetzue, saldatzu (l), uletzue (bu), ulletzue (b), urtzu (bu)

-sto: sorristo (l)

-ti: billurti

-ko: antzeko (b), aspaldiko (bu), atxiñeko (l), atzeneko (bu), benetakoa (bu), derrigorrekoa, edadekoa, kanpoko (b), kontrakoa (bu), osokoa (bu), urreko (l), urrungoa(b)

-sale: frutesalie (b)

-barri: eskonparridxe (bu)

7.3. ADITZONDO ERATORRIAK

-ro: astiro, geldiro (bu), lusero (l)

-to/-do: ederto, obeto, ondo , polito, politto, txarto

-ik: agiñik, aisturik, bakarrik, barusik (l), beterik, bixirik (bu), bustirik, gaixorik, geldik, goixetik, gordiñik (b), ixilik., kasik, kikiilik, makalik, ortosik, posik, sabalik, sabal-sabalik (bu), solirik, sutinik (l), sutunik, utzik (b)

-aro: egunaro (l)

-ka: adarka (bu), andandaka, apurke-apurke, arrastaka (bu), ausike, banaka (l), barreka (l), besaka (bu), damusike, dangiliske, eusike, geike (l), golpeka, kantaka, kantea (l), karraka (l), maulidxoka (bu), miauke, orroaka (bu), sagataka, sarataka (l)

8. KONPOSATUAK

Interesgarri eritzi diogu berba konposatu guztiak batera aurkezteari. Halandaze, jarraian batu ditugunak aurkezten ditugu testu lagungarri barik, izan ere, beronen helburua konposizioari buruz egin litezken azterketak erraztea besterik ez da.

abadetzie (bu): abadetxea, abadearen etxea

abarka untzie (bu): abarka iltzea

agin txikerra: ganaduaren lehen haginak

agiñetako ikerie: hagineta ura, haginak kauskitu

aisteordie: ahiztaorde

aiteeterno: lope, aitasantu, buzkantzarik lodiena

aittamak: gurasoak

aitte gurie: aita gurea

aittasantue (b): txerriaren urdaila

aittetaama: gurasoak

aitxaordie: aitaordea

aitxetama: gurasoak

akuilu gana: akuilu gana

akullu puntie (bu): akuilu gana

albandorrotza (b): albandorratza

alboagiñe: albo-hagina

aldeako etzie: baserria

alfafa asixe (l): alfalfa hazia

alluburune: ailorba irina

allurbe gustue: ailorba gustua

allurbe usiñe: ailorba usaina

almude asala: buruko azala

ama birjiñie: amabirjina

amaordie: amaordea

andragixonak: andra-gizonak, senar-emazteak

andramari egune: andramari eguna

andramari martikoa: andramari martikoa

andramaridxe: sagar mota bat

andrien axie: andreen haizea

anita madaridxe: madari mota bat

ankaspidxe:oinazpia

apatxartekoa: apatxartekoa, ganaduaren gaixoa

ardi txakurre (bu): ardi txakurra

ardo baltza: ardo beltza

ardo suridxe: ardo zuria

arnasestue: arnasestua

arrakordela (b): aharra kordela, neurri kordela

arratoi txakurre (bu): arratoi txakurra

arratxurre: arratxurra, basoan behar egiteko erabiltzen den atxur handia

arratzalde erdidxe (bu): arratzalde erdia

arrebaordie: arrebaordea

arrantza lokie (bu): habiazaria

arrotze gorringo: arraultza gorringo

artaburu: artaburua

artadxorra: artajorra

artagaraue: artagaraua

artatxoridxe: artatxoria, kurloia

arto arloa (l): arto arlo

arto artie (bu): arto arloa

artoarte (bu): artoarte, arto arloa

artoburue(b): artaburua

artolastoa(b): artolastoa

artourune: arto irina

askorastie(b): aizkora girtena

aste asikerie (bu): aste hasikera

astegune (bu): asteguna

asto bidie (l): asto-bidea

asto lekue (l): asto-lekua

astoarra (b): astoarra

astoemie (b): astoemea

astogurdidxe: astogurdia, gehienetan "karroa" esaten zaio.

astokumie: astokumea

astosarana (b): astozarana, astotzara

asunbra erdidxe: azunbre erdia

atxa puntie: haitz punta

atxurkakutxue: atxurkakoa

atxurrastie(b): atxur kirtena

atzialdie (bu): atzealdea

aurreko aldie (bu): aurreko aldea

auskumie, aunsukumie (l): ahunzkumea

baba txikidxe: baba txikia

babaurune: baba irina

baras sarana: baras zarana

bareusi: gosaldue, barau hautsi

bariku santu egune: bariku guren eguna

bariku santue (l): bariku gurena

barruko aldie (bu): barruko aldea

barusi (l): gosaldue, barau hautsi

basakatue: basakatua

basaurdie (l), basordie (l, bu): basurdea

baserri etzie: baserria

baseuntze: basahuntza

baso biorra: baso behorra

basoetzie: baso etxea

basollarra: basoilarra

basosugie: basosugea

basotxoridxe (bu): baso txoria

bedar metie: belar meta

bedar sikue: belar sikua

begi epela: begi epela

begi suridxe: begi zuria

bekoaldie: beheko aldea

bekorotza (bu): bekorotza

bekosue, besue: beheko sua

bela baltza: bele beltza

belauneko asurre: belauneko hezurra

bendeja lurre (l): bendeja lurra

berakas sopie: berakatz zopa

berakatza jorrie: berakatz jorra

berbaltue: berbaltua, tartamutua

bernugela (bu): berna uhela; astoari jartzen zaiona basta lotzeko

bersadxe(b), birseidxe (bu): birzahia

besartekoa: besartekoa, besoetakoa

betulie: betilea, bekaina

bialdie: behealdea

biar egune (bu): behar eguna, lan eguna

biarlekue (bu): beharlekua, lantokia

bidekrusetie (bu): bide-gurutzea

bidekurtzie: bide-gurutzea

bidxerkoa pasaute (bu): etzi

biekoaldie (bu): beheko aldea

bierlekue: beharlekua

bigarren lenkosiñe: bigarren lehengusina

bigarren lenkosue: bigarren lehengusua

biotzerre: bihotzerrea

biskerrasurre: bizkarrezurra

bixi alargune: bizi alarguna, banandutakoa

bixilekue : bizilekua, bizitokia

biximodue: bizimodua

bosteko matza: mahats mota bat

botille kaskuek: botila kaskuak, botila zatiak

burtedie, burterie: burteda

buruko pañolue: buruko zapia

buruko saidxe: buruko zahia

domusantue: domu santua

dosena erdi: dozena erdia

dxantza lekue: dantza lekua, jolasa

dxantza pasie: jolasa

dxatordue: jatordua

dxostorratza: jostorratza

dxustugune, dxustuegune: Justu eguna

edur bolie: elur metxa, elur mataza

ego aldie: hego aldea

egoaxie: hego haizea

eguen guren (l): eguen gurena

eguen guren egune: eguen guren eguna

egur abarra (l): egur abarra

eleixabarrena (bu): eleizabarrena

elgorridxe: elgorria

elisaspidxe: elizpea

epertargidxe, epetargidxe (bu): epertargia, ipurtargia

epertikerie: epertikera

erlabotie: erlauntza

erlekajie: erlauntza

erramu egune (l): erramu eguna

erre usiñe: erre usaina

erriko axie: herriko haizea, hego haizea

erropa dendie: erropa denda

errosaridxo bedar (bu), errosario bedar (b): errosario belarra

eskillera barrena: eskilara barrena

eskillera burue: eskilara burua

esku pañue (l): esku zapia

esne sopie: esne zopa

esnebeidxe: esne behia

espata andidxe: espata handia

espata txikerra: espata txikarra, atzakarra

este lodidxe: heste lodia

estegorridxe: hestegorria

etzaurre: etxeaurrea

etze erriena: etxe errearen elkartea

etzilamu: etzidamu

euri saparrada (l): euri zaparrada

eurigotak (b): euri-tantak

euskumie (b): ahunzkumea

fraka barrena: fraka barrena

frantzes bedar (b): frantzes belarra

frantzesaxie (l, bu): ipar ekialdeko haizea

frantzialdie: frantzia aldea

gabilloi nausidxe (b): gabirot nagusia

gabilloi txikerra: gaboroi txikarra

gabon egune (l): gabon eguna

gabon gaubie: gabon gaua

gabon sarra: gabon zaharra

galbaya, galbaye (bu): galbahea

galga burriñe: galga burdina

galisiko axie: mendebaleko haizea

galtzu bixerra (bu): galtzu bizarra

galtzu lekue (bu): galtzu lekua

galtzu polla: txola

galtzu serrie: galtzu zerra; gortetan egoten zen lastoa ebakitzeko

gari arloa: gari arloa

gari artie (bu): gari arlo

gari urune: gari irina

gariburue: gariburua, galburua

gasasagarra: sagar mota bat

gastaña aratxa (bu): gaztaina landarea, gaztaina arbola

gastaña garaue (l): gaztaina garaua

gatzartie: gatzartea

gatzure: gatzura

gaubelie: gaubela

gaubontza (bu), geubontza: gauontza

gerra denporie (bu): gerra denbora

geutxoridxe: gau txoria

gibelurdiñe: gibel urdina, perretxiko mota bat

goialdie: goialdea

goiko aldie: goiko aldea

goixerdidxe: goizerdia

gorbeiko axie: gorbeiako haizea

gose denporie (l): gose denbora

goxaldie (bu, b): goizaldea

gurdikama (bu): gurdikama, gurkama, gurdi kaxa.

gurpidie: gurpidea

gurpillie: gurpila, txirrinka

gurtedie (b): gurtedea, burtedea

idi parejie: idi-parea

idigurdidxe: idi gurdia

igetargi barridxe (bu): ilargi berria

igetargi osoa (bu): ilargi betea

igetargi osoa (bu): ilargi betea

iko baltza: iko beltza, iko mota bat

iko esnie: iko esnea

iko suridxe: iko zuria, iko mota bat

ikopasak: iko pasak

il bera, il berie: ilbehera

il gora, il gorie: ilgora

il kajie: hilkutxa, atautea

ilkanpie: hil kanpaia

illebetie: hilabetea

indiyaba lapikoa: indaba lapikoa

intxur saltzie: intxaur saltsa

inyaba gorrixe (I): indaba gorria

inyaba surixe (I): indaba zuria

ipertargi (b): ipurtargia, epertargia

iretargi betie: ilargi betea

iretargi itzue: ilargi berria

ixekosabak: izeko-osabak

jaboi sagarra (bu): sagar mota bat

kafe baltza: kafe beltza, kafe hutsa

kafesnie: kafesnea

kakoastie: kako kirtena

kandela bedeinketue: kandela bedeinkatua

kandela negarra: kandela negarra

kanposantue (I): kanposantua

karatxa (bu): karatxa, kare-harria

karnabal egune: aratuzte eguna

karta dxokoa: karta jokoa

kartola(b): kartola

kastaña landarie: gaztaina landara

kastañaratxa (bu): gaztaina landara, gaztaina arbola

kate saratie: kate zarata

katukumie: katakumea

katumixerra (bu): katamixarra

keartie, kiartie: keartea

kebrantatxurre (l): larratxurra, arratxurra; basoan behar egiteko erabiltzen dena

klaudiokarana (b): okaran mota bat

korpus egune (l): gorpuztia

kuartillu erdidxe: kuartilo erdia

kuku sagarra: kuku sagarra

kunpilla gorridxe: kinpula gorria

kutxillo madaridxe: madari mota bat

labasue: labasua

labrantza etzie (l): baserria

lañaberie (bu): lainoa, lainobehera

laño astune: laino montorra

lañoartie: lainoartea

lepoko asurre: lepoko hezurra

letxuga errepolluek: letxuga errepoiloak

letxuga landarie: letxuga landarea

liberdidxe: libra erdia

lo ostie: lo ostea, lo haserrea

lur mamarroak (bu): lur mamarroa

mandulidxe: madaulia

mantako umie: oihaletako umea

marea biera (bu): marea behera

marea gora (bu): marea gora

marigorringo (bu): marigorringoa

mas baltza: mahats beltza

mas gorridxe (bu): mahats gorria

mas suridxe (bu): mahats zuria

maspasa: mahats pasa

masu porra (l): mazo porra, mokilak hautseko erabiltzen den mazoa

matrallagiñe, matrillagiñe: matrail-hagina, albo-hagina

mendi tontorra (bu): mendi tontorra

minfirue (bu): mihi-firua; oiloei mihiaren azpian egiten zaien gaixoa

mokil porrie (bu): mokil oskia, mokilak hautseko erabiltzen den mazoa

mokil uskidxe: mokil oskia, mokilak hautseko erabiltzen den mazoa

mugarridxe (bu): mugarria

mune bedarra: muna belarra

musika bandie: musika banda

mutil lagune: mutil lagune

mutilsarra: mutilizaharra

nabo burue: harbi burua

nabolorie (bu): harbigara

naborridxe (bu): harbi orria

natibittate egune: natibitate eguna

nebaordie: nebaordea

nebarrebak: nebarrebak

negar pulue: negar anpulua

neska lagune: neska lagun.

neskasarra: neskazaharra

nortiaixie (bu): ipar haizea

odei baltza: hedoi beltza, hedoi montorra

odolbatue: odolbatua

odolestie, odolostie: odolostea

ogi kuskurre: ogi kuzkurra

ogigastaye: ogigaztaia

ogimamiñe: ogi mamina

oiñaspixe: oinazpia

ollagorra: oilagorra

ollogorridxe: oilo gorria

ollolokie (bu): oilo loka

ollolumie (bu): oilo lumea

ollosaldie: oilosalda

ollosuridxe (bu): oilo zuria

ollotegidxe (bu): oilotegia

ollotokidxe (bu): oilotokia

oridxo asie: orio aza

oridxo errie: olio errea

ortu santue (bu): ortusantua, kanposantua.

otagarratza (b): otagarratza, otabarra

otartie: otartea

otzakille: hotzakila,

otzasarana (b): zaran mota bat

paskua egune: pazko eguna

patata asidxe: patata hazia

patata orrixe (l): patata orria

patata saku (l): patatazorroa

perra aundixe: txakur handia

perra txikerra: txakur txikarra

pika malluek: pika mailuak; kodaina pikatzeko erabiltzen diren mailua eta jungada

pikumalluek(b): pika mailuak

piper gorrixe (l): pipar gorria

piper simenterie: pipar mintegia

piper susterrak: piper sustraiak

piper txoriseru: pipar txorizerua

porru asixe (l): porru hazia

porrusaldie: porrusalda

probalekue (bu): probalekua

sagar arbola: sagar arbola

sagardaua, sagardoa: sagardoa

sagarsuloa: sagarzuloa

saguitzue: satitsua

sagusarra: saguzaharra

sai sabala (b): zahi zabala

saltza berdie: saltsa berdea

saltza gorridxe: saltsa gorria

saltza perretxiko (l): saltsa perretxikoa, perretxiko mota bat

sama pañolue: sama zapia, iduneko zapia

samaosteidxe: samaostea

san jose lora (l): san jose lora

san juan aratxa, san juan aretxa (b): leizarra

san pedro madaridxe: madari mota bat

san roke egune: san roke eguna

sanbedarra (b): zainbelarra

sanjuan madaridxe: madari mota bat

santa maiñako aldie: Santa Marinako aldea

santa maiñeko axie: ipar haizea

santageda besperie: santa ageda bezpera

santigatue, santigitue, santiritue: zantiratu

sapaburue (bu): zapaburua

saran nausidxe(b): zaran nagusia

sasiartie: sasiartea

satordxoa: sator joa

satorsuloa: sator zuloa

satzartie: satsartea

sekule bedarra: sekula belarra

semealabak: seme-alabak

seru argidxe (bu): zeru argia, oskarbia

siri miridxe: ziri-miria; berba hau erdaraz ere erabiltzen dugu

soka dxokoan: soka dantza

solo barrena: soro barrena

solo burue: soro burua

solo godxena: soro goiena

sorrostarridxe: zorrotzarria

sue bajue: beheko sua

sursuloa: surtzuloa, surtziloa

sutondoa: sutondoa

talaburriñie, talaburdiñie: talaburdina, taloak egiteko erabiltzen zen burdinezko tresna

trebol bedarra (I): trebol belarra

tripekallue: tripakailoa

tripeko sille: tripeko zila

truboi axie: trumoi haizea, trumonada iragartzen duen haizea

truboi euridxe: trumoi euria

txakolin baltza: txakolin beltza

txakolin suridxe: txakolin zuria

txakur andidxe: txakur handia

txakur egurre (I): karraskila

txakur estule: txakur eztula

txakur sagarra: txakur sagarra

txakur txikerra: txakur txikarra

txakurkumie: txakurkumea

txarri arra(b): txerri arra

txarri bodie (I): txerri boda

txarri kaderak: txerri hankak

txarri makerie (l): txerri makera

txarri okan (l): txarri okarana

txarri umie (l): txerrikumea

txarri urrexie (l): txerri emea

txarriankak: txarri hankak

txarriemie: txerri emea

txarrikumie: txerrikumea

txarrimie (b): txerri emea

txixe posoa: txiza-pozoa

txixe puxikie: txiza puxika

txomin bedar (b): txomin belarra

txori matza: txori mahatsa

txorikumie (bu): txorikumea

udabarridxe, udebarridxe, udebarrixe: udaberria

udegoyena (b), udegodxena (bu): udagoiena

ulle suridxe: ile zuria, ile urdina

ulle txortie: ile txorta

ume tokidxe (bu): ume tokia

untzenarra (b): iltzeak dauzkan narra

urartie: urartea

urbatue: urbatua

urbidie (bu): urbidea

urregorridxe: urregorria, urrea

urresuridxe: urrezuria, zilarra

urtebarri egune: urtebarri eguna

urtebetie: sagar mota bat

urtegune (bu): urteguna

urtxakurre: urtxakurra

usabandrie, usandrie(b): uzaba andrea